

Euskal Gramatika
Laburra:
Perpaus Bakuna



EUSKALTZAINDIA



EUSKALTZAINDIA
ETXERAKO ETXERAKO
EUSKALERAKO

**EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA**

***EUSKAL GRAMATIKA LABURRA:
PERPAUS BAKUNA***

2002

© Euskaltzaindia / R. A. L. V.

Plaza Barria, 15

48005 Bilbo

Azala: Luis Alonso

ISBN: 84-85479-70-X

Legezko gordailua: BI-2693-02

Fotolitoak: Rafi, S. A. - Bilbo

Inprimaketa: Gráficas Munguía - Mungia (Bizkaia)

GRAMATIKA BATZORDEA

Buru: Patxi Altuna
Idazkari: Patxi Goenaga
Idazkariorde: Maria Pilar Lasarte

Kideak: Miren Azkarate
Piarres Charritton
Andolin Eguzkitza
Alan King
Jose M. Larrarte
Jose Antonio Mujika
Beñat Oihartzabal
Francisco Ondarra
Karmele Rotaetxe
Pello Salaburu

Euskal Gramatika Laburra:
Perpaus Bakuna

Liburu honen moldatzailea:
Pello Salaburu

Oharra bigarren argitalpenari

Esku artean duzun hau Euskaltzaindiak 1993. urtean aurrenekoz argitara eman zuen *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*-ren testu bera da, zegoen-zegoenean berriz argitara emana.

Urte hartatik gaur egundaino lan asko argitaratu dira gramatikaren arloan. Gramatika batzordeak berak ere beste bi liburuki osatu ditu (*Euskal Gramatika: Lehen Urratsak IV. Juntagailuak* eta *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak V. Mendeko perpausak I*), eta hurrena lantzen ari da orain. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak VI. Mendeko perpausak 2* izango dena. Araugintzari dagokionez ere azken urteotan hiztegiari buruzkoak ez ezik, gramatika egituren gaineko arau batzuk ere eman ditu argitara Euskaltzaindiak.

Hori hala gertatu da neurri handi batean azken urteotan Gramatika batzordeak (eta Euskaltzaindiak) esku-eskura izan dituelako euskal literatura tradizioa aztertzeko baliabide erosoak: batetik, euskarazko literatura tradizioa hasierako testuetatik jasotzen duen *Orotariko Euskal Hiztegi*ko corpus informatizatua (*OEII*); bestetik, XX. mendeko euskarazko ekoizpena modu aleatorioan biltzen duen *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (FEBS)* corpusa. *Orotariko Euskal Hiztegia* bera ere, gure lanerako ezinbestekoa dugun tresna hori, aurrera doa, eta urte gutxian izango dugu osatua.

Horrekin esan nahi duguna da gaur egungo ikuspegitik begiratuta zenbaitetan gerta litekeela liburu honetan egiten diren (egin genituen) baieztapen batzuk zertxobait doitu, nahartu, egokitu edo aldatu beharra izatea; nahiz funtsezko kontuak ez izan.

Horren jakitun gara, Nolanahi ere, geroko utzi nahi izan dugu lan hori; oraingoz *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* libururekin hasi genuen saila ("EGLU"ak) bukatzea da gure lehentasuna, eta gero etorriko dira liburuki horietan guztietan bildutakoa egokitzea, eguneratzea; liburuki guztietan bildutakoa esan dugu, nahiz eta bereziki lehen aipatu ditugun

baliabideak eskura ez genituen garaikoak izango diren seguruenik xehekien orraztu beharrekoak.

Esanak esan, gramatikagintzan egin diren ahaleginik garrantzitsuenetariko baten emaitza dugu hau, perpaus bakanaren analisisan ezinbestekotzat jotzen duguna. Hona hemen, bada, berriz ere enuskalarien eskura *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakana*.

Gramatika batzordea
2002ko abendua

Aitzin solasa

Eskuetan duzun liburu honek biltzen du, funtsean, orain arte Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak argitara eman dituen *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izeneko liburuetan "perpau bakunari" buruz esaten dena. Liburu horietako aztergaiak daude orrialde hauetan, beraz, nahiz hemen jarri den ordena ez datorren bat hango hurrenkerarekin. Ez ordena, ez gaiak aurkezteko modua ere sarri askotan.

Oraingo liburu honetan aldaketa zenbait egin dira: hasteko, badira gauza berri batzuk aurreko liburuetan ageri ez direnak; beste batzuetan, oinarrira jo da, liburu mardul haietako gaiak ahalik eta modu trinkoenean aurkeztuz; liburu honen eskema bera ere, aski da horretarako aurkibideari begirada bat ematea, ez da ordukoa, gure artean izan ditugun eztabaidek gramatika gaiak era egokiago batean aurkeztera bultzatu baikaituzte; han-hemenka ageri ziren ohar haietako batzuk kendu dira orain, agian froga argirik ez zegoelako edo; aldiz, hemen ohar berriak sartu dira, ikusiko denez, batez ere literatura aldetik ongi aski dokumentaturik aurkitu ditugun gaietan (hori dela eta, handik eta hemendik heldu zaizkigun oharrek eta bereziki *Orotariko Euskal Hiztegiko* materiala oso baliotsu gertatu zaizkigu); han ez bezala, Euskaltzaindiak azken hilabete hauetan onartu dituen gomendioak kontuan hartu dira liburu hau egokitzeko orduan, zer esanik ez; azkenik, adibide guzti-guztiak ez badira ere, gehien-gehienak euskara estandarrean jarri ditugu, horrela irakurketa ere erraztuko delakoan. Adibide hauek guztiak literaturak utzi digun lekukotasunean oinarritzen dira, baten bat agian bitxiegi egiten bada ere. Hori dela eta, ez direla hutsetik asmatuak esan behar da, aski oinarrituak baizik.

Ohartuko zarenez, liburu honek ez darabala, ohi den gisan, bibliografiaren aipamenik. Zalantza handiak izan ditugu honetan, baina arazoa eztabaidatu ondoren halaxe uztea erabaki dugu, bibliografia egoki bat egitea (liburu honek eman nahi duen maila didaktiko horretako bibliografia), behar diren liburu guztiak sartuz eta sobran direnak

kanpoan utziz, ez baita gauza erraza. Dena dela, Gramatika batzordeak bere gain hartzen du hurrengo liburuxka batean halako bibliografia baten egokiltzapena.

Aipa dezagun, bestetik, hemen terminologia bat proposatzen dela, neurri batean aurreko liburuetarik hartua eta beste batzuetan, ostera, aldaturik ematen dena. Egia da oraingoz egiteke dela terminologia egoki bat euskaraz (*ez-akusatibo, ez-ergatibo, absolutibo* ala *absolutu* e.a.) baita gramatikari dagozkion punturik funtsezkoenetan ere (*sujetu, subjetu, subjektu*, e.a.): horrexek azal ditzake agian gure zalantzak ere. Zernahi gisaz, bigarren mailako arazoa da hau eta horrela ulertu behar da, ez delarik komeni duen baino garrantzi handiagoa ematea.

Liburu hau egitea erabaki zuen Gramatika batzordeak, argi ikusten baitzuen komeni zela perpaus bakunari buruz idatzitakoa bederen erraz erabiltzeko gisa paratzea, edonork hartu, ulertu eta kontsultatzeko moduan. Eta hori guztia, liburu batean bakarrik. Hala, lan hau egitea Pello Salaburu batzordekideak bere gain hartu zuen eta bera izan da liburu hau moldatu eta izkiriatu duena, batzordekide guztiek eta euskaltzain osoek nahi izan dituzten oharrak egiteko liburua eskuartean izan badute ere (Gramatika batzordeko euskaltzain osoen --P. Altuna, M. Azkarate, B. Oihartzabal, P. Salaburu-- eta A. Irigoien, X. Kintana, E. Knörr, F. Ondarra, J. San Martín, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainen oharrak jaso dira). Ohar horiek berriz ere eztabaidatu dira, gramatika batzordean lehenik eta osoko bilkuran ondoren, eta zuzen ikusi den guztician behar bezala jaso dira.

Hemen duzu, hortaz, liburu hau, irakurle, gramatikari dagozkion duda-mudak dituzunean edo, interesgarri suertatuko zaizulakoan. Ongi jaso da hemen mamia, eta irakurri ere, erraz irakurriko dituzu lerro hauek, nahiz batzuetan badiren itxuraz zail samarrak diruditen gaiak.

Patxi Altuna
batzordeburua

Aurkibidea

1. Perpausa.....	1
1.1. Perpaus motak.....	1
1.2. Perpausen sailkapena	6
1.2.1. Atribuzio perpausak.....	6
1.2.2. Perpaus iragankorrak.....	8
1.2.3. Egitura pasiboak	16
1.3. Perpausaren egitura.....	19
1.4. Osagarrien ordena perpausaren barnean: mintzagai hanpatua eta galdegaia.....	22
1.5. Gramatika honen egitura.....	31
2. Izena.....	35
2.0. Sarrera	35
2.1. Izenen sailkapena	35
2.2. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak	42
2.2.1. Izen elkartu arruntak.....	42
2.2.2. Izen elkartu bereziak.....	46
2.2.3. Izen elkartuen idazkera.....	47
2.3. Generoa euskaraz.....	51
3. Izenordainak	53
3.1. Pertsona izenordainak.....	53
3.1.1. Pertsona izenordain arruntak	53
3.1.2. Pertsona izenordain indartuak.....	55
3.2. Izenordain zehaztugabeak	58

3.2.1. <i>Nor</i> galdetzailea	58
3.2.2. Galdetzaileetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak	60
3.3. Bihurkariak eta elkarkariak.....	67
3.3.1. <i>X-en burua</i>	67
3.3.2. <i>Elkar</i>	68
3.3.3. <i>Neure, heure</i> forma bihurkariak	70
3.3.4. <i>Bera</i> izenordaina (<i>hura, berau, berori</i>).....	74
3.4. Ezabaketa	75
4. Determinatzaileak	79
4.1. Mugatzaileak	80
4.1.1. Artikulua	80
4.1.2. Erakusleak	82
4.1.2.1. Funtzioa eta forma.....	82
4.1.2.2. Erakusle indartuak	84
4.2. Zenbatzaileak	86
4.2.1. Zenbatzaile zehaztuak.....	86
4.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak.....	104
4.2.3. Zenbatzaile orokorrak.....	110
4.3. Determinatzaile zehaztugabeak.....	113
5. Adjektibo sintagma; izenondoak	115
5.0. Sarrera; adjektiboen sailkapena eta tokia.....	115
5.1. Izenondoak izen sintagmaren barnean.....	118
5.1.1. Izenondo bat baino gehiago dugunean	118
5.1.2. Izenondo elkartuak	120
5.1.3. Izenondoak juntaduran.....	121
5.1.4. Partizipioa eta izenondoa	122
5.2. Izenondoa predikatu osagarrian	124
5.3. <i>bera</i> eta <i>berdin</i>	131
5.4. Kategori aldaketak	134
5.5. Izenondoaren mailakatzea	135
5.5.1. Marka fonetikoak.....	135
5.5.2. Marka morfologikoak.....	136

5.6. Izenondoa, maila aditzondoak eta konparazioak	138
5.6.1. Maila aditzondoak	138
5.6.2. Konparazioak	140
5.7. Mailakatzea eta determinazioa.....	148
5.8. Haridura perpausak eta izenondoak.....	149
6. Adekibo sintagma: izenlagunak.....	151
6.0. Sarrera	151
6.1. Jabego genitiboa (-en).....	156
6.1.1. Forma.....	156
6.1.2. Funtzioa.....	157
6.1.3. Erabilera.....	157
6.2. Leku genitiboa (-ko).....	162
6.2.1. Forma.....	162
6.2.2. Funtzioa eta erabilera	168
6.3. Izenlagunaren funtzioa har dezaketen beste elementuak.....	175
7. Aposizioa.....	179
7.1. Aposizio ez-murrizgarriak.....	179
7.2. Aposizio murrizgarriak.....	180
7.3. Aposizioan	181
7.4. <i>San, santa, saindu, done</i>	182
7.5. <i>Jaun, andere</i>	183
7.6. Aposizioak eta kasu markak.....	184
8. Izen sintagmaren kasuak.....	185
8.0. Sarrera	185
8.1. Absolutiboa (-Ø) eta partitiboa (-ik).....	186
8.1.1. Forma.....	186
8.1.2. Funtzioa.....	187
8.1.3. Erabilera.....	188
8.2. Ergatiboa (-k).....	191
8.2.1. Forma.....	191
8.2.2. Funtzioa.....	192
8.2.3. Erabilera.....	192

8.3. Datiboa (-i).....	194
8.3.1. Forma.....	194
8.3.2. Funtzioa eta erabilera.....	195
8.4. Azken oharrak.....	197
9. Aditz motak.....	199
9.0. Sarrera.....	199
9.1. Aditz bakunak.....	200
9.1.1. Aditz bakunak.....	200
9.1.2. Aditz elkartuak.....	202
9.2. Aditz motak kasu gramatikalen arabera.....	205
9.2.1. <i>Nor</i> eta <i>nor-nork</i> motako aditzak.....	205
9.2.2. <i>Sail</i> aldaketak.....	208
9.2.3. <i>Nori</i> sintagma.....	214
9.3. Aditz arazleak.....	215
10. Adizki jokatu-gabeak.....	221
10.0. Sarrera.....	221
10.1. Aditzoina.....	222
10.1.1. Perpaus lokabeetan.....	222
10.1.2. Perpaus juntatuetan.....	223
10.1.3. Perpaus txertatuetan.....	223
10.2. Partizipioa.....	225
10.2.1. Partizipioa eta izenondoa.....	225
10.2.2. Partizipioa eta izena.....	227
10.2.3. Partizipioa eta jokatu gabeko mendeko perpausak.....	229
10.2.4. Perpaus juntatuetan eta zenbait esateran.....	230
10.3. Aditz izena.....	231
10.3.1. Aditza eta izena.....	231
10.3.2. Aditz izen deklinatua.....	233
11. Adizki jokatuak: a. trinkoak.....	241
11.0. Sarrera.....	241
11.1. Aspektua.....	243
11.2. Aldia.....	243

11.3. Modua	246
11.4. Pertsona	248
11.5. Numeroa	252
12. Adizki jokatuak: a. perifrastikoak	253
12.0. Sarrera	253
12.1. Aspektua	254
12.2. Aldia	261
12.3. Modua	263
12.4. Pertsona	267
12.5. Zenbait aditz berezi	268
12.5.1. <i>Ari izan</i> eta a. trinkoen aspektua	268
12.5.2. Bestelako aditzak	271
13. Laguntzailearen paradigmak	275
<i>izan</i> (nor)	276
* <i>edin</i> (nor)	277
<i>izan</i> (nor-nori)	278
* <i>edin</i> (nor-nori)	282
* <i>edun</i> (nor-nork)	288
* <i>ezan</i> (nor-nork)	296
* <i>edun</i> (nor-nori-nork)	306
* <i>ezan</i> (nor-nori-nork)	314
14. A. trinkoen paradigmak	327
<i>egon</i>	329
<i>etorri</i>	333
<i>ibili</i>	337
<i>joan</i>	341
<i>jarraila</i>	345
<i>eduki</i>	348
<i>ekarri</i>	355
<i>erabili</i>	359
<i>eraman</i>	361
<i>ihardun</i>	366

<i>*io</i> (esan).....	368
<i>iritzi</i>	370
<i>irudi</i>	372
<i>jakin</i>	374
15. Aginte adizkiak.....	377
15.0. Sarrera.....	377
15.1. Aginte adizkien ezaugarriak	377
15.1.1. Modua.....	377
15.1.2. Aspektua.....	379
15.1.3. Aldia.....	379
15.1.4. Pertsona.....	379
15.2. Aginte adizkien paradigmak.....	380
15.2.1. <i>*edin</i> (nor).....	380
15.2.2. <i>*ezan</i> (nor-nork).....	381
15.2.3. <i>egon</i> (nor).....	383
15.2.4. <i>etorri</i> (nor).....	384
15.2.5. <i>izan</i> (nor).....	385
15.2.6. <i>joan</i> (nor).....	385
15.2.7. <i>eutsi</i> (nor-nori-nork).....	386
15.2.8. <i>egin</i> (nor).....	387
16. Baldintza adizkiak.....	391
16.0. Sarrera.....	391
16.1. Baldintza adizki urinkoak	393
16.1.1. Baldintza alegiazkoak.....	393
16.1.2. Baldintza errealak	393
16.1.3. Baldintza gertagarri.....	394
16.2. Baldintza adizki perifrastikoak	395
16.2.1. Baldintza alegiazkoak	395
16.2.2. Baldintza errealak	397
16.2.3. Baldintza gertagarriak.....	399
17. Alokutiboa	401
17.0. Sarrera.....	401

17.1. <i>Hika, zuka eta xuka</i>	402
17.2. Hiru erregistroko sistema.....	404
17.3. Adizki alokutiboen formez.....	406
18. Perifrasia.....	409
18.0. Sarrera.....	409
18.1. <i>Ari izan</i> eta honen kideak.....	410
18.2 <i>Nahi, gura, gogo, gei izan</i>	415
18.3. <i>Behar izan/lukan</i>	417
18.4. Ahala eta ezina.....	420
18.4.1. Ahala.....	420
18.4.2. Ezina.....	423
18.5 <i>Ohi</i> eta ohitura.....	424
18.6. <i>-tzerai-tzen</i> markarekin osaturiko perifrasiak.....	425
18.7. <i>-tzeka(a,ak)</i>	426
18.8. <i>-tzea</i>	427
18.9. <i>-tu(a)zi -tzen + joan</i>	428
18.10. Partizipioarekin osaturikoak.....	428
18.11 <i>-tzer</i> eta <i>-tzeaz</i>	429
19. Aditz multzoko beste osagai batzuk.....	431
19.1. Sarrera.....	431
19.2. Baiezen eta ezezen ezaugarriak.....	433
19.2.1. Ezaugarri nagusiak.....	433
19.2.2. Jokabide sintaktikoa.....	436
19.2.3. Erabilera.....	438
19.3. Bestelako elementuak.....	440
19.3.1. <i>-a</i> atzizkia.....	440
19.3.2. Aditz multzoko partikula modalak: <i>ahalai, bide, omen, ei</i> eta <i>ote</i>	441
20. Adberbio sintagma: aditzondoak.....	447
20.1 Sarrera: aditzondoak eta adizlagunak.....	447
20.2. Aditzondoen sailkapen formala.....	450
20.3. Aditzondoen sailkapen semantikoa.....	453

20.3.1. Sarrera.....	453
20.3.2. Denbora aditzondoak	454
20.3.3. Leku aditzondoak.....	456
20.3.4. Modu aditzondoak.....	457
20.3.5. Maila aditzondoak eta zenbatekoak.....	459
20.3.6. Irtzi adberbioak	461
21. Adberbio sintagma: adizlagunak	463
21.1. Sarrera	463
21.2. Inesiboa (-n).....	467
21.2.1. Forma.....	467
21.2.2. Erabilera.....	468
21.3. Adlatiboa (-ra).....	473
21.3.1. Forma.....	473
21.3.2. Erabilera.....	474
21.4. Hurbiltze adlatiboa (-rantz).....	475
21.4.1. Forma.....	475
21.4.2. Erabilera.....	475
21.5. Muga adlatiboa (-raino).....	476
21.5.1. Forma.....	476
21.5.2. Erabilera.....	476
21.6. Ablatiboa (-tik).....	479
21.6.1. Forma.....	479
21.6.2. Erabilera.....	480
21.7. Soziatiboa (-ekin).....	481
21.7.1. Forma.....	481
21.7.2. Funtzioa eta erabilera	482
21.8. Instrumentala (-z).....	483
21.8.1. Forma.....	483
21.8.2. Funtzioa eta erabilera	484
21.9. Motibatiboa (-gatik).....	486
21.9.1. Forma.....	486
21.9.2. Funtzioa eta erabilera	486
21.10. Destinatiboa (-entzat, -(ra)ko, -izat).....	488
21.10. 1. Forma.....	488

21.10.2. Xedezko destinatiboa.....	489
21.10.3. Prolatiboa (- <i>tzar</i>).....	491
21.10.4. Banatzailea (- <i>ko</i>).....	493
21.10.5. Inesiboaren gainean eraikia (- <i>ko</i>).....	494
21.10.6. Adlatiboaren gainean eraikia (- <i>rako</i>).....	496
21.11. Posposizioak.....	498
22. Deklinabideko taulak.....	503
22.1. Kontsonantez bukatutako pertsona izenak: <i>Katalin</i>	503
22.2. Bokalez bukatutako pertsona izenak: <i>Koldo</i>	505
22.3. Kontsonantez bukatutako leku izenak: <i>Eibar</i>	506
22.4. Bokalez bukatutako leku izenak: <i>Bilbo</i>	507
22.5. <i>a</i> artikulua bukatutako leku izenak: <i>Iruñea</i>	508
22.6. <i>a</i> bokalez bukatutako leku izenak: <i>Donostia</i>	509
22.7. Kontsonantez bukatuak: <i>gizon</i>	510
22.8. Bokalez bukatuak: <i>seme</i>	513
22.9. <i>a</i> bokalez bukatuak: <i>alaba</i>	515
22.10. Kontsonantez bukatuak: <i>haran</i>	517
22.11. Bokalez bukatuak: <i>mendi</i>	518
22.12. <i>a</i> bokalez amaituak: <i>eliza</i>	519
22.13. Erakusle arruntak.....	521
22.14. Zenbatzaileak: <i>bat</i> eta <i>batzuk</i>	525
23. Interjekzioak.....	527
23.1. Interjekzioak zer diren.....	527
23.2. Interjekzioen sailkapena.....	529
23.3. Bestelako harridura esapideak.....	530
Gai aurkibidea.....	531

1. kapitulus:

PERPAUSA

1.1. Perpauz motak

1.1.1. Era askotakoa izan daiteke euskal perpauza. Perpausak izan daitezke, sailkapen nagusi baten arabera, *beregainak* eta *mendekoak*, eta azken hauek ageri dira, lehenbizikoak ez bezala, beste perpauz batean txertatuak, askotan aditz nagusiaren osagarri moduan. Perpauz txertatu hauek beste zenbait sintagmak perpauz soilaren barnean betetzen dituzten funtzio berberak betetzen dituzte. Horrela, ondoko perpauz hauek *beregainak* direla esan daiteke:

- (1) Liburu bat emango dizute
- (2) [Liburu bat emango dizutela esan digute]

Ondoko perpausok, ostera, *mendekoak* deitzen ditugu:

- (3) [liburu bat emango dizutela] esan dute
- (4) [noiz etorriko den] galdetu du

1.1.2. Perpausak izan daitezke, bestetik, *bakunak* edo *elkartuak*. Perpaus *bakunek* aditz bat bakarria dute barnean:

- (5) [etorri *dira*]
- (6) [etorri *direla*] esan dute
- (7) [agurru *duzuen*] andrea

Perpaus *elkartuetan* aditz bat baino gehiago izaten da:

- (8) [arratsaldean *etorri da* eta etxean *afalduko du*]
- (9) [arratsaldean *etorri dela* eta etxean *afalduko duela*] entzun dugu
- (10) [etorri *den* hori gure etxekoa *da*]

1.1.3. Perpausak, *jokatuak* (11) eta *jokatugabeak* (12) ere izan daitezke. Perpaus jokatuetakoa aditza jokaturik ageri *da*, pertsona eta tempus markekin. Perpaus ez-jokatuetakoa aditzak, ordea, ez du halako markarik hartzen:

- (11) Liburu bat emango dizut
- (12) Eseri hemen, mesedez!

1.1.4. Perpausak, halaber, *adierazpen*, *galde*, *aginte* eta *harridura* *perpausak* izan daitezke. Perpaus hauen guztien artean neutrocnak *adierazpen perpausak* ditugu:

- (13) Badakizu gaur eskolan izan garela
- (14) Liburu bat emango dizut etxean irakurtzeko

Galde perpausetan galdera bat egiten da eta galdera hau mendeko perpaus batean biltzen denean *zehar galdera* deitzen dugu, aditzak orduan *-n* bat (nahiz beste partikularen bat) hartzen duela:

- (15) Nor etorri da?
- (16) [Nor etorri *den*] galdetu dute

(17) [Peru etorriko den] jakin nahi nuke

• Bai-*ez* erako galderetan baietzko nahiz ezezko erantzuna eskatzen da:

(18) Busti zaretse?

Galde perpaus hori beregaina denean, ekialdeko euskalkietan *-a* eranstean zaio aditzari:

(19) Busti zaretse*a*?

Mendebalean (gipuzkeraz, nahiz mende honen bigarren erdian beste euskalkietara hedatu den) *al* erabiltzen da horrelako perpausetan:

(20) busti *al* zaretse?

Dena dela, badirudi partikula hori, galde arruntetan ematen zaion erabilerarekin, *-a* ez bezala, nahiko berria dela: Ubillosek (1785), esaterako, galderez jositako bere liburuan ez du inoiz ere erabiltzen, XVIII. menderaino ez da adibide garbirik aurkitzen. Lehenago ageri da, bai, baina zentzu erretorikoarekin.

Mendekoa denean, berriz, marka bat baino gehiago har dezake aditzak, euskalkien arabera:

- | | |
|---|-------------------|
| (21) Busti garen galdetu digute | (-n) |
| (22) Busti garen <i>etz</i> galdetu digute | (- <i>netz</i>) |
| (23) Busti garen <i>entz</i> galdetu digute | (- <i>nentz</i>) |
| (24) Busti garen <i>enz</i> galdetu digute | (- <i>nenz</i>) |

Horien artean lehenbizikoa (*garen*) mendebalekoa da erabat. Ekialdeko testu zaharretan *denz* eta *denez* bezalakoak ageri dira. Mende honetakoean *denetz*, *Azkenik*, *denentz* Orixek eta erabiltzen dute.

• Aukera galderetan, izenak berak dioen moduan, aukera bat egitea eskatzen zaigu:

(25) Non bizi zara: Donostian ala Donibanen?

• Zati galderetan, ostera, informazio bat eskatzen dugu galdetzaile bat erabiliz:

(26) *Nongoa* zara?

(27) *Zer* esan du?

Aginte perpausetan agindu bat ematen dugu, perpaus jokatuetan adizki bereziak (agintekera) erabiliz eta maiz hasieran ipiniz delako adizki hori:

(28) Ireki atea!

(29) Zoaz hemendik!

Harridura perpausetan hitzunik adierazpen batek sor diezaiokkeen harridura ematen du aditzera, eta hizkera doinua bera ere aldatzen da. Halako perpausetan, sarri askotan, egitura bereziak erabiltzen ditugu. Batzuetan hitzen ordena naturala aldatzen dugu. Hala nola:

(30) hau da gizon zikoitza!

Beste batzuetan predikatu osagarria dagokion aditzik gabe uzten dugu:

(31) harrigarria, honek dioena!

(32) *polita, zure lana!*

Markatzaile bereziak ere erabiltzen ohi dira (erakusleak, galdetzaileak, e.a.):

(33) *hauxe andrea!*

(34) *zenbat gezur esan duen honek!*

(35) *zer etxe ederra den!*

Azkeneko kasu honetan, alegia, *zer* galdetzailea erabiltzen dugunean (*zein*, *zeinen* eta *zenbat* ere erabil daitezke ederki asko), aditz laguntzaileak *-n* atzizkia behar du eta galdetzaile hori beti izenondo batekin edo izenondo bihurturiko izen batekin doa:

(36) *zer ederra den!*

(37) *zer astoa den!*

1.1.5. Perpausak *baiezkoak* edo *ezezkoak* izan daitezke. Azkeneko haucian *ez* (edo *ezin*) partikula erabiltzen da:

(38) *aia ez dator*

(39) *aia ez da etorriko*

Perpausa baiezkoa denean eta perpauscan ageri den aditza trinkoa bada, *ba-* aurizkia erabiltzen da oro bar, hain zuzen ere, perpausaren baiezkoetasuna azpimarratuz eta aditzari atxekirik idatziz:

(40) *aia badator*

Aldiz, aditza perifrastikoa baldin bada, *ez da* normalean aurizki hori ageri:

(41) *aia etorriko da*

1.2. Perpausen sailkapena predikatuaren arabera

1.2.1. Atribuzio perpausak eta predikazio perpausak

Perpausaren barnean bi osagai nagusi bereziko ditugu: *subjektua* edo aditz jabea, eta *predikatua*. Horrela, *subjektuari* buruz esaten dugu zerbait eta esaten dugun hori, hain zuzen ere, *predikatua* da, aditzaren inguruan biltzen dena:

- (42) Jon gaztea da
- (43) Miren alkate izendatu du
- (44) Jon etxera itzuli da
- (45) Mirenek ogia erosi du

Lehenbiziko bi adibideetan, subjektuaren kalitate bati buruz ari gara eta beste bietan, berriz, predikatuak ekintza baten berri ematen digu. Honenbestez, lehenbiziko bi adibideetako perpausak bezalakoak *atribuzio perpausak* direla esaten dugu, eta bertako predikatuari izenaren *predikatu osagarria* deitu zaio *EGLUn*: predikatua izenki baten bidez (izena, adjektiboa, e.a.) adierazten da. Goiko adibideetan *gaztea* eta *alkate* izenkiak erabili dira. Horregatik, *izenki predikatu* ere esan ohi zaie halako predikazioei.

Hirugarren eta laugarren adibideetako perpausak, ostera, *predikazio perpausak* dira: predikazioa adizki baten bidez adierazten da, aditzaren inguruan enbortzen da. Adibideetan *itzuli* eta *erosi* erabili dira. Horregatik deitu ohi zaie *adizki predikatuak* halako predikazioei, aditzak eta aditzen osagarriak (osagarririk izanez gero) osatzen baitute predikatua.

• Atribuzio perpausetan aurkitzen ahal ditugu hainbat aditz euskaraz:

- (46) etxea handia da

- (47) Mikel artzain *joan da*
- (48) Miren alabatza *hartu dute*
- (49) ura ardo *bihuru* zuten eztaietan

Ikusten denez, predikatu osagarria mugatua dago batzuetan, mugagabea, osera, beste batzuetan, geroago, predikatu osagarriez hitz egiten denean ikusiko den moduan. Ohartu gaitezten, hala ere, predikazioa ez dela beti subjektuaren gainean eraikitzen euskaraz eta, adibideetan ikus daitekeenez, perpasueko beste sintagma bati buruz ere (objektuari buruz) egin ditzakegu halako predikazioak. Hain segur ere, barneko egitura konplexuagoa dugu hor.

Jakina, *izan* aditza beste mota bateko predikazioak osatzeko ere erabiltzen dugu:

- (50) Frantziako hiriburua Paris *da*
- (51) herriko alkatea Martin *da*

• Predikazio perpausetan ere hainbat eratako aditzak aurkitzen ahal dira:

- (52) liburu bat *idatzi du*
- (53) patatak *saldu* beharko ditu
- (54) etxea *sabaldu* behar omen dute
- (55) dantzan ikasten *ari da*

Azkeneko perpaus hauek ez da azpimarratzen subjektuaren (edo perpausueko beste sintagma baten) kualitatetik. Ez; hori fenomeno zabalago baten aurrean gaude, ekintza baten aurrean alegia. Ekintza hori aditzaren inguruan gorpuztua da eta subjektuak ere parte hartzen du bertan. Honenbestez, badirudi aditza bera ezinbestekoa dela ekintza horren berri eman nahi denean.

1.2.2. Perpaus iragankorrak eta perpaus iragangaizak

Euskal hizkuntzalarien artean erabili izan den oinarritzeko irizpidea (nahiz eta irizpide hau oso gutxitan formalizatu izan den espreski), perpaus iragankorrak eta perpaus iragangaizak bereizteko orduan, honako hau izan da: perpaus **edun* edo **ezan* agertzen baldin bada (bestela esan, perpaus *agertzen* nahiz *isilcan* ergatibo kasua ageri baldin bada), orduan perpaus iragankorra da. Aditzak, alabaina, laguntzaile gisa izan edo **edin* hartzen badu, orduan perpaus iragangaizak da. Hori ikusten da ondoko adibideotan:

- (56) Mirennek sarrerak erosi ditu
- (57) Koldok halaxe esan du
- (58) Patxi deitu omen dizu
- (59) autobusa berandu dator gaur
- (60) etxe hori kiskaliko da
- (61) herri horretan bi orduz sartuko gara

Esandakoaren arabera, multzo honetako perpausen artean, lehenbiziko hirurak iragankorrak dira eta beste hirurak, berriz, iragangaizak. Hori da gure artean erabili izan den irizpidea eta horixe da *EGLU*-ren liburuakien ere ageri dena.

Kontua da, ordea, irizpide horrekin definizio zirkularrak ematen ditugula: perpaus iragankorrak dira perpaus ergatibodunak. Eta non ageri da ergatiboa?: perpaus iragankorretan. Hizkuntza irizpide bezala ez dirudi oso argia denik.

Beste hizkuntzetako gramatiketan, aldiz, iragankortasuna eta iragangaiztasuna definitzeko orduan aukeratzen den irizpidea ez da euskararen erabiltzen dugun bezalakoa eta aditz batek bere inguruan har dituzkeen osagarriekin erlazionatzen da. Horrela, esan ohi da, perpaus bat iragankorra da aditzak objektu bat hartzen badu osagarritzat

(benetako osagarria eta ez adizlagun edo aditzondo bat, jakina). Ondoko perpausok, irizpide honen arabera, iragankorrak lirateke:

- (62) Mikelek [autoa erosi] du
- (63) Jonak [etxea saldu] du
- (64) Mirenek [alaba eramán] du

Aditz horrek osagarri zuzenik hartzen ez baldin badu, perpausa iragangaitza da:

- (65) Mikel [etorri] da
- (66) Jone [sartu] da
- (67) Miren [erori] da

Beste hitzak ere erabili ohi dira gramatiketan sailkapen honi buruzko informazioa emateko orduan. Horrela esan izan da perpaus iragankorretan bi *argumentu* ageri direla, bat kanpokoa (subjektuaren funtzioa duena: *Mikelek*) eta bestea barnekoa (objektuaren funtzioa duena: *autoa*). Perpaus iragangaitzek, ordea, argumentu bat bakarrik izango lukete: *Mikel*, goiko adibidean. Horixe da, hain zuzen ere, goiko adibideetan ikus daitekeena. Honenbestez, bi argumentudun perpausak iragankorrak dira eta argumentu batekoak, ostera, iragangaitzak. Euskaraz, jakina, badugu beste osagarri bat ere datiboan ematen duguna. Argumentu hau, normalean, aukerakoa da, nahiz aditz batzuek nahitaz eskatzen duten. Perpausen arteko sailkapena ahalik eta modurik garbienean egitearren ez dugu kontuan hartuko *hori* sailleko argumentua eta goian emandako adibideek erakusten dizkiguten perpaus motetara bakarrik mugatuko gara.

Adibideak konman hartzen baditugu, badirudi bi irizpideak (nolako laguntzailea, euskaraz; zenbat argumentu, beste hizkuntzetan) hizkuntza batzuetan nahiz besteetan, aditzak sailkatzeko orduan bat datozela.

Hala ere, bi irizpide hauek gurutzatu egiten dira behin baino gehiagotan. Eguraldi aditzak alde batera utzirik (sasi argumentuak edo dituztela esan ohi da), lehentxoago esan den moduan, aditzen argumentuek kasu bat baino gehiago erakuts dezakete, nolakoa den aditza. Izen sintagmaren kasuaz eta aditzaz ariko garenean ikusiko den moduan, batzuetan datiboa behar izaten dugu:

(68) *lanari* ekin dio Jonek

(69) aukiarren *hankari* eutsi dio

Halako aditzak ahazturik ere -ez dira gehiegi eta azalpen berezia beharko lukete- arazoak beste aditz "arruntagoekin" ere sortzen dira maiz kara. Ikus ditugun ondoko adibideok:

(70) Jonek *Mikel* zarpatu du

(71) *Mikel* gaisotu da

Azkeneko bi adibide hauek bezalakoetan oinarritu izan dira hizkuntzalariak euskara hizkuntza ergatiboa dela baieztatzeko. Izen sintagmaren morfologian, perpaus iragankorren objektuak eta perpaus irtagangaitzen subjektuak kasu bera erakusten baitigute, absolutiboa hain zuzen ere. Baina kontraesanak berehala sortzen dira:

(72) Mirenek berandu *afaldu* du

(73) Josebak zortzietan *deitu* du

Bi perpaus hauek zein sailetan sartu behar ditugun zehaztu nahi baldin badugu, bi irizpideak gurutzaturik ageri dira: euskararen tradizioan erakutsi eta erabili izan ditugun irizpideen arabera, bi perpausak iragankorrak dira. Argumentuak kontruan hartzen baditugu, berriz, *afaldu* aditzak, *bazkaldu* aditzak bezala, argumentu bat besterik ez du hartzen (eremu zabal batean, gainera, *bazkaldu* *naiz* bezalakoak erabiltzen dira): euskararen tradizioan, aski da euskal literatura ikustea, *afaldu* bakarrik erabili izan da, hizkera askotan gaur erabiltzen den

moduan, barneko argumenturik gabe. Hortaz, **indabak afaldu ditu* ez-gramatikala litzateke, tradizio honetan behintzat. Beste horrenbeste gertatzen da *deitu* aditzarekin ere, aditz honek zenbaitetan barneko argumentua har baldin badezake ere absolutiboan nahiz datiboan. Goiko adibidean, ordea, ez du inolako argumenturen beharrik. Horrenbestez, bi aditz horiek iragangaitzak ditugu adibide horietan. Aipatu beharra da, dena dela, bizkaierazko eremuan errazago aurkitzen direla egungo euskaran *perretxikoak afaldu ditut* bezalako esaldiak batez ere argumentu hori, zehaztugabeko izenordaina denean: *zer edo zer bazkalduko duzue, zer afalduko dugu?, zerbait afalduko duzu, e.a.* (Horietan denetan, beste hiztun batzuek nahiago dute *zer dugu afaltzeko, zerbait izango duzu afaltzeka, e.a.*).

Sail berekoak ditugu *irakin* bezalako aditzak eta, oro har, *eginen* gainean eraikitzen ditugunak: *hitz egin, alde egin, negar egin, piper egin, e.a.* Alde batara utzirik halako kasuetan idazteko orduan askotan izena eta aditza bereiz jarzen ditugula, badirudi aski argi dagoela izen hori nolabait ere loturik dagoela aditzarekin eta ez dituela arruntean bestelako izenek erakusten dizkiguten ezaugarri bcrak (murriztapen argiak ditu: ez du mugatzailearik, sarritan nekez bereizten ahal da aditzetik, askotan ez du izenondorik onartzen, e.a.: **ez du alderik egin, *hitz handia egin du, *negarra egin du, *laak egin ditut, e.a.*). Sail honetakoak ditugu *min hartu, esku hartu, parte hartu, hitz eman* eta hauen gisakoak ere, halako aditzak ez baitira boti *egin*-ekin eratzen, ikusten den moduan. Beraz, horrelako izen+*egin* kateek benetako aditza osatuko lukete eta, neurri horretan, aditz horiek ez lukete barneko argumenturik izango, barneko argumentu izan daitekeen hori aditzaren zati bihurtu delako. Baina barneko argumenturik ez badute, aditz horiek iragangaitzak dira denak. Hala ere, *huts egin* aditza benetako iragankor bezala ageri da literatur tradizioan eta hainbat hiztunek hala erabiltzen dute gaur egun ere:

(74) meza huts egin du

(75) eskola huts egin du

Esandakoa gogoan hartuz, bada, aditz iragangaitzen artean honako hauek guztiak aurkituko ditugu, beti ere iragankortasuna aditzen argumentuen arabera definitzen badugu:

- (76) Mikel etorri da
- (77) Miren gaisotu da
- (78) Koldok deitu du
- (79) urak irakin du
- (80) Patxi lo egin du
- (81) lapurrak alde egin du
- (82) Peruk hamarretan afaldu du

Beste hizkuntzetatik mailegatzen ditugun aditzetan garbi aski ikusten da hau: *dimititu*, *eskiatu* eta *funtzionatu*, esate baterako, iragangaitzak dira erdaraz -esanahi batkin bederen-, baina euskaraz iragankortzat ditugu (euskarara zuzenean pasatzen ditugunean esan nahi da, bai baitira aditz horiek zuzenean erabili beharlean forma jatorragoak ere: "makina hori ez dabil"). Argi dago, hala ere, har ditzaketen argumentuen kopuruari kasu egiten bazaio, euskaraz ere iragangaitzak direla, nahiz eta ergatiboa ageri den hor:

- (83) makina horrek ez du funtzionatzen
- (84) alkateak dimititu du

Jo dezagun euskaraz ere iragankortasuna era honetara definitzen dugula. Kontua da, ordea, aditz iragangaitzen artean bi motatakoak aurkituko ditugula: agentedunak eta paziente-dunak, ondoko adibideotan ikus daitekeen bezala (hau da, aditz iragangaitz batzuen kasuan argumentua barmekoa da eta besteen kasuan, berriz, kanpoko).

- (85) Jonak deitu du
- (86) Jon gaisotu da

Ez da esan beharrik *deitu* aditza iragangaitz (adibide horretan bezala) nahiz iragankor izan daitekeela, barmeko argumentua absolutiboan edo datiboan jartzen delarik, hiztunen arabera: *Jonek Mikel deitu du / Jonek Mikeli deitu dio*. Beste aditz batzuk, *irten*, esaterako, iragangaitzak dira beti (argumentu bakarrekoak direlako), euskalkien arabera laguntzailezat izan nahiz **edun* har dezaketen arren: *irten naiz / irten dot*.

Oro har, bereizketa hau bat dator hizkuntzalariak beste hizkuntzen kasuan proposatu izan duten beste bereizketa batekin. Batzuen ustez, aditz iragangaitzen artean bi sail nagusi suertatzen dira: aditz iragangaitz *ez-akusatiboak* (hizkuntzalari zenbaitek *ergatibo* ere deitzen ditu aditz hauek baina guk termino hau baztertuko dugu hemen *ergatibo* beste zerbaiti esan baitzaio) eta aditz iragangaitz *ez-ergatiboak*. Lehenbizikoko multzoko aditzen ezaugarria da argumentu pazientea eskatzen dutela eta bigarren multzokoena, berriz, argumentu agentea eskatzen dutela. Horrela, erdal adibide hauetan ikusten dira bi sailak:

- (87) Juan ha llamado
- (88) Juan ha enfermado
- (89) j'ai dormi
- (90) je suis tombé

Laurak dira iragangaitzak (argumentu bai bakarrik onartzen baitute), baina bi sail desberdinetakoak argumentu horren eduki semantikoari kasu egiten badiogu. Euskaraz, bereizketa hori morfologiak ere erakusten digu, *ergatiboa* benean agente direnek bakarrik onartzen baitute:

- (91) Jonek deitu du
- (92) Jon gaisotu da
- (93) nik lo egin dut
- (94) ni erori naiz

Ohart gaitezen hemen nahasketa terminologiko handia gertatzen dela: hain preziski, *ez-ergatibo* sailko aditzen artean sartzen dira euskaraz ergatiboa eskatzen dutenak (*deitu*, esate baterako). Beraz, aditz iragangaitz ez-akusatiboak dira absolutiboa markatzen dutenak eta aditz iragangaitz ez-ergatiboak, ostera, ergatiboa behar dutenak.

Egia esan, ezaugarri semantiko hauez gain badituzte beste zenbait ezaugarri sintaktiko ere hizkuntzetan zehar aditz mola hauek. Euskaraz, esate baterako, ohart gaitezen partitiboan jar daitekeela beti ere absolutiboan doan argumentua (inoiz ere ez ergatiboa hartzen duena), aditz iragangaitzetakoa nahiz aditz iragankorretakoa izan:

- | | |
|----------------------------------|----------------------|
| (95) ez dute <i>zerririk</i> hil | (iragankorra, paz.) |
| (96) ez da <i>zerririk</i> hil | (iragangaitza, paz.) |

baina,

- | | |
|---------------------------------------|---------------------|
| (97) *gizonik ez du <i>zerria</i> hil | (iragankorra, ag.) |
| (98) *gizonik ez du hitz egin | (iragangaitza, ag.) |

Bestalde, kontura gaitezen benetako egitura iragankorra duten aditzek bakarrik onartzen dutela aldaera (ikus beheago):

- | | | |
|-------------------------|---|---------------------|
| (99) nik etxea egin dut | / | etxea, nik egina da |
| (100) nik afaldu dut | / | *nik afaldua da |

Gramatika honetan, hala ere, aurkeztu nahi ditugun datuetarako hain funtsezkoa ez denez, ez gara bereizkuntza guztietaz baliatuko eta testua bera ilun samar dagoenean edo, erabiliko dugu irizpide bat nahiz bestea zerbait argitzeko orduan. Kontura gaitezen, zernahi gisaz, sailkapen hauek (beriz ere diogu, beste hizkuntzetan arruntzat hartzen direnak) kinkan jartzen dutela euskararen ergatibitatearen kontzeptua bera. Jakina, maila batean, hizkuntzen ergatibotasuna irizpide honen arabera mugatzen da, lehen esan bezala: perpaus iragankorretako argumentu

pazienteak perpaus iragangaitzetako argumentuaren kasu bera hartzen du. Hau hainbat hizkuntzatan betetzen da. Baina euskaraz ez, ordea, perpaus iragangaitzen argumentu hori batzuetan ergatiboa eta besteetan absolutiboa baita. Baina ez gara puntu honetan luzatuko eta deskribapenak berak plazaratzen dituen arazo eta hautabideen aurkezpenera mugatuko gara.

Esandakoa laburtuz, hortaz, hauxe genuke (kontuan izan eskema honen barnean ez direla aditz guztiak sartzen: *jakin*, *ahaztu* -batzucian, *nor-nori* sisteman ageri denan-, *ihardun*, e.a.);

	(A) iragangaitzak		A. iragankorrak
	ez-erg	ez-akus	
<i>irakin</i>	+		
<i>irauti</i>	+		
<i>hitz egin</i>	+		
<i>etorri</i>		+	
<i>erori</i>		+	
<i>haratu</i>			+
<i>erosi</i>			+
<i>hil</i>		+	+
<i>deitu</i>	+		+

Aditz batzuk bi sail desberdinetan banatzen ahal ditugu: *Jonek Mikel hil du* vs *Jon hil da*; *Jonek Mikel deitu du* vs *Jonek deitu du*, e.a.

1.2.3. Egitura pasiboak eta antipasiboak

Bada azpimarratzeko geratzen zaigun azken sailkapen bat ere, gramatikarien artean behin baino gehiagotan erabilia izan dena. Aipa ditzagun lehenik egitura pasiboak euskaraz. Pasibismoaren teoria defenditu zuten hizkuntzalariak pentsatu izan zuten euskara hizkuntza pasiboa dela. Ikus ditzagun ondoko adibideok:

(101) Jonek Miren ikusi du

(102) Miren etorri da

Pasibisten arabera, euskaraz kasu markak funtzioak adierazteko erabiltzen baldin baditugu, orduan halako parekotasun bat gertatuko da kasua eta funtzioaren artean, kasu marka bakoitzak funtzio jakin bat adierazteko erabiliko dugularik. Goiko perpaus hauen analisi klasikoan, ordea, ez da horrelakorik suertatzen: subjektuaren funtzioa bi kasu markaren bidez ematen dugu (*Jonek* eta *Miren*, ergatiboa eta absolutiboa, alegia) eta absolutibo kasuak bi funtzio adierazteko balio digu (objektu zuzena eta subjektua). Hor, ikusten denez, ez dago inolako homogeneitatearik. Pasibistek proposatu zuten, datu hauen aurrean, bazela modu bat kasua eta funtzioa parekatzeko: hain zuzen ere, euskara hizkuntza pasiboa dela onartuz. Horrela, goiko perpaus horietan *Miren* subjektua izango litzateke bi perpausetan (beraz, absolutu kasuak subjektuaren funtzioa izango luke beti) eta *Jonek* izen sintagma, berriz, agente pazientea izango litzateke, egitura pasiboetan agertzen zaiguna alegia. Ergatiboak biitzen duen sintagma posposizio sintagma arrunta izango litzateke ikuspuntu honetatik.

Pasibisten teoriak arrakasta handia izan zuen, egia esan, kanpoko hizkuntzalarien artean batez ere, bertokoak (Tovarren kasuan izan ezik) ez baitziren inoiz ere honen alde azaldu. Egun, inor gutxi segitzen du teoria hau. Kasu marka eta funtzioen arteko erlazioak adierazteko bestelako bideak proposatu izan dira.

Alabaina, horrek ez du esan nahi euskarak egitura pasiborik ez duenik. Zein dira egitura hauek? Batzuk hizkuntza erromanikoetan ageri zaizkigun egituren kalkoa dira itxuraz. Aitortu behar da, hala ere, literatur tradizioan pisu handia dutela, eta ez bakarrik itzulpenetan, gramatikariek egitura hauek espreski gaitzetsi izan dituzten arren (Ithurry, lekuko):

(103) Jainkoa deabruaz tentatua izan zen

Honekin batera jarri beharko litzateke idazleetan ageri den egitura pasibo zaharra:

(104) zu erredimitu zara

Edo Txiritaren bertsoetan ageri den hura ere:

(105) hurrengo laurogei urtean, ni ez naiz ahaztuko, Kantabriko parlean

Eta horrek esan nahi duena da, hain zuzen ere, beste norbaitek erredimitu zaiwela.

Baina badira beste batzuk ere beste itxura bat hartzen dutenak. Ikus ditzagun ondoko adibideok:

(106) Antzonek etxe hori egin du

(107) etxe hori, Anttunek egina da

Esan daiteke bigarren perpausa dela lehenbizikoaren aldaera pasiboa. Horrelako egiturak sortzeko erabiltzen den bidea, oro har eta debekuak alde batera utzirik, honako hau da: ordena kanonikotik (SOV, edo Subjektua, Objektua, Aditza) abiatuz, objektua mintzagai hanpatu bezala ageri da, subjektu bihurtua; aditzak izenondoaren itxura hartzen du eta subjektuaren kalitate bat predikatzen du eta, azkenik,

komunztadura subjektuarekin bakarrik gertatzen da. Hasieran egin dugun sailkapena kontuan hartzen bada, predikazio perpaus bat atribuzio perpaus bihurtu dugu, egitura honela geratzen zaigula:

(108) [etxe hori] [[Antonek egina] da]

Parez pare erka daitekeena ondoko honekin:

(109) [etxe hori] [[handia] da]

Horiek dira euskal egitura pasiboak. Egitura pasibo hauen ondoan ageri dira, hala ere, egitura antipasiboak. Bi perpaus hauen artean bigarrenak erakusten dizkigu egitura antipasiboak:

(110) nik gauza asko ikusi dut

(111) ni, gauza asko ikusia naiz

Egitura antipasiboetako predikatu osagarrian, pasiboetan ez bezala, izenondo bihurturiko aditza eta izenondo honen objektu zuzena agertzen zaizkigu. Konparatu bien egiturak:

(112) [etxe hori], [[nik egina] da]

(113) [ni], [[gauza asko ikusia] naiz]

Egitura pasiboetan objektua subjektu bihurtzen dugu, subjektua predikatu osagarriara pasatzen dugularik. Egitura antipasiboetan, berriz, ekintza baten subjektua predikatu osagarriaren subjektu bihurtzen dugu. Egitura antipasibo hauetan aditzondoak aurkitzen da sarritan izenondoaren orde (egon aukeratzen dela orduan):

(114) Jone, bapo janda zegoen

(115) ni, gauza asko ikusirik nago

Halako egiturak datiboarekin ere egin daitezke:

(116) norbaitek abisatu zion / norbaitek abisatua zegoen

Honek guztiak iruzkin pausatuagoa merezi lukeen arren, esku liburu honetan azpimarragarrien diren puntuak aipatu besterik ez dugu egin nahi izan.

1.3. Perpausaren egitura

1.3.1. Perpausa aditz batek bakarrik osa dezake:

(117) auztu du

Baina aditz horrek osagai bat, bi edo gehiago ere har dezake:

(118) [aita] etorri da

(119) [nik] [bi gizon] ikusi ditut

(120) [Piarres] [oso langile ona] da [batzuetan]

1.3.2. Aditzarekin batera agertzen diren osagarri horiek funtzio desberdinak betetzen dituzte perpausaren barnean, nolakoak diren aditzarekin dituzten erlazioak.

• Horrela, batzuetan *subjektuaren* funtzioa bete dezakete, ondoko adibideotan kako artean jarri ditugun sintagmetan ikusten den bezala:

(121) [aita] etorri da

(122) [nik] bi gizon ikusi ditut

• Beste batzuetan, ordea, *objektuaren* funtzioa betetzen dutela esanzen dugu:

(123) nik [bi gizon] ikusi ditut

(124) nik [Piarresi] [liburu bat] emanen diot

• Sintagma horiek *predikatu osagarriaren* funtzioan ere agertzen ahal dira:

(125) Maitasuna [liluragarria] da

• Azkenekoz, *adberbio* funtzioa dute aditzaren osagarri batzuek:

(126) Ni [aitarekin] bizi naiz

(127) Miren [Koldoren orde]z etorri da

1.3.3. Aditzaren forma perpausuan ager daitezkeen subjektu eta objektuen arabera aldatzen da, funtzio hauek dituzten sintagmek komunztadura egiten baitute aditzarekin:

(128) aita etorri da

(129) aita eta ama etorri dira

(130) aita ikusi dut

(131) aita eta ama ikusi ditut

(132) aitari emango diot

(133) nire lagunari emango diet

Predikatu osagarriekin eta aditzarekin, ordea, ez da komunztadurarik gertatzen euskaraz:

(134) aitarekin bizi naiz

(135) neure lagunekin bizi naiz

Aditzarekin komunztadura egiten duten osagarriak isil daitezke euskaraz:

(136) (guk) (gure lagunei) (gauza zenbait) ekarri diegu

Baina osagarri horiek *mintzagaiaren* edo *galdegaiaren* zeregina betetzen dutelarik, orduan ezin daitezke isilean utzi:

(137) etxe hori, guk (edo, geuk) erosiko dugu

1.3.4. Osagarrien barne egitura era askotakoa izan liteke. Izen sintagma hutsa zenbaitetan:

(138) [maiasuna] lihurgarria da

(139) Bilbo [hiri handia] da

Beste batzuetan mendeko perpausa:

(140) uste dut [aita etorriko dela]

(141) [aberatsa zarelako] ezkondu nahi du zurekin

Adberbioak (aditzondo eta adizlagun) ere izan daitezke:

(142) [etxe horretan] bizi gara

(143) [bihar] etorriko gara

(144) [poliki poliki] hitz egin behar da

Osagarri horiek izenondoak ere izaten dira:

(145) Bilbo [ederra] da

(146) Atso hori [ilegorria] da

1.4. Osagarrien ordena perpausaren barnean: mintzagai banpatua eta galdegaia

1.4.1. Jakina denez, euskal izen sintagmen barneko egitura oso aberatsa izan daiteke, baina beti ere aldagaitza. Oro har, esate baterako, sintagma batean izena eta izenondoa ageri badira, ordena bat bakarrik onartzen da (salbuespenak salbuespen, honetara geroago itzuliko baikara), izena beti izenondoaren aurretik jarri behar delarik:

- (147) etxe handia
- (148) *handi etxea

1.4.2. Perpausaren egitura normalcan aski aberatsa izaten da, osagarri bat baino gehiago ageri delarik berari:

- (149) [aitak] [sagarra] [haurrari] [eman dio]

Kontua da, ordea, izen sintagmarekin gertatzen ez den bezala, perpaus osagaien ordena nahikoa askea dela. Azkeneko perpaus horretan, adibidez, kako artean jarri ditugun osagaiak nolnahi eman ditzakegu, guk nahi dugun hurrenkeran:

- (150) aitak sagarra eman dio haurrari
- aitak eman dio sagarra haurrari
- aitak haurrari eman dio sagarra

Nolanahi ere, konbinaketa horretarik sortzen diren perpaus guztiak gramatikalkak direla gauza garbia den arren, badirudi haien balioa ez dela bakarra eta erabili ere, ezin direla nolnahi bata bestearen ordean erabili, belarria ez baitigute modu berean jotzen.

1.4.3. Jakina, aldaketa horien bitartez sor daitezkoen perpaus horien gutzien esanahia, zentzu itxi batean, bakarra baldin bada ere (emailea, hartzailea eta ematen den objektua ez baitira aldatzen alegia), ez dirudi

denek balio bera duten eta, hortaz, ez dirudi hauen esanahia, zentzu zabalago batean, bat bakarra den. Ondoko esaldi hauetan ikusten da garbiago kontua:

(151) sagarra haurrari aitak eman dio

(152) aitak sagarra haurrari eman dio

Zertan datza bi perpaus horien arteko aldea? Lehenbiziko perpausuan, badirudi hiztunak aurretik jakintzat ematen duela norbaitek sagarra haurrari ematen diola eta norbait hori nor izan daitekeen zehazteko erabiltzen dugula. Perpaus horrek, ondorioz, norbait hura zehazki nor den adierazteaz beste helbururik ez du. Ondoko perpausuan, ordea, badirudi aitak sagarra norbaiti eman diolako aurretik jakintzat ematen duela hiztunak. Norbait hori nor den da, hain zuzen ere, datiboan agertzen den izen sintagmak zehazten diguna.

Perpaus bakoitza galde zehatz baten erantzuntzat hartzen baldin bada, ez dute perpausoko osagai guztiek ber pisua eta haien artean bada bat guztien gainetik nabarmentzen dena: gure artean *galdegai* deitu izan diogu. Jakina, bi perpaus horietan bi galdegai desberdin ditugu "aitak", lehenbizikoan eta "haurrari" bigarrenean. Alde horretatik, bi perpaus horien esanahia desberdina da.

Honen guztiaren berri emateko, badirudi perpaus bakoitzean bi analisi maila berezi behar ditugula: batetik, *gramatika egitura* dugu, funtzioen egitura alegia, kasu marketan oinarritzen dena. Bestetik *mintzagai egitura* dugu, informazio klascan eta hizketaren unibertsoan oinarritzen dena. Esan bezala, gramatika egitura aztertzen badugu, ongi aski esan dezakegu perpausoko osagaien ordena askea dela. Mintzagai egitura hartzen baldin badugu kontuan, ordea, perpausoko osagaien ordena askoz ere itxiagoa da, nolako den ordena hori, ematen den informazioa ere halakoxea baita.

Mintzagai egitura deitu dugun horren zutabeak diren oinarrizko bi kontzeptu ditugu: *mintzagaia* eta *iruzkina*.

1.4.4. *Mintzagaia* (tema eta topiko ere deitu ohi zaio) zer den zehazki definitzea zail samarra den arren, esan daiteke "informazio zaharra edo jadanik ezaguna biltzen duten elementuek" osatzen dutela edo, beste batzuetan, "diskurtso edo solasaren unibertsoa finkatzen duena" dela ere esan izan da. Horrela, mintzagaiak finkatuko luke elearen azpia edo markoa, ekartzen den informazioari eremu bat ematen diolarik:

(153) *liburua* nik hartu dut; *paperak*, berriz, ez dakit non galdu ditudan

Adibide horretan, *liburua* lehen perpauscan eta *paperak* bigarrenan, mintzagai ditugu: esaldietan hitzunik adierazten duena haiei buruz zuzendua da, haiek finkatzen digute solasaldiaren unibertsoa eta perpausaren markoa.

Koordinazioa edo juntadura, anitzetan behintzat, mintzagaiarekin egiten dugu, ondoko adibide honetan ikusten den moduan:

(154) *poliziak lapurra zauritu zuen eta ospitalera joan zen*

Badakigu perpaus horretan 'polizia' joan zela ospitalera eta ez lapurra. Bi iruzkin ditugu mintzagai berari dagozkionak.

Mintzagaia ez da beti zuzenean aipatzen eta batzuetan isilik uzten dugu:

(155) *oinez etorriko naiz*

Beste anitzetan, ordea, enfasi berezia eman nahi diogunean mintzagaiari, ez dugu isilean uzten eta perpausaren hasieran jarzen

dugu. *Mintzagai hanpatu* edo enfatiko hau iruzkinaren ezkerrean ageri da eta beraren ondoren etendura bezalako zerbait seinalatzen dugu:

- (156) *etxe horretan*, gu bizi gara
(157) *etxe hau*, oso merke erosi dut

Oso arrunta da mintzagaiaren ondoren lokailuak jartzea:

- (158) *ni*, behintzat, han nintzen
(159) *zuri*, aldiz, ez nizuke halakorik egingo

Zer gertatzen da aditza bera bihurtzen dugunean mintzagai? Oso itzuli markatuak nahi izaten ditugula:

- (160) *bizi*, ondo bizi da hori
(161) Baztanen sortu nintzen ni eta *hil* ere, Baztanen hil nahi nuke

Lehenago ikusi dugu mintzagaia informazio zaharra biltzen duten elementuek osatzen dutela. Baina hori ez da beti hala, batzuetan mintzagai diren osagaiak ez baitira beti aldez aurretik ezagunak. Adibidez, "zer gertatu da goizean?" bezalako galderari erantzuna ematen dioguncan, "anaiak autoa garbitu du" esan dezakegu eta erantzun horretan, "anaiak" informazio berria dakarren arren, mintzagai izatera du hor (nahiz ez den, jakina, mintzagai hanpatua).

1.4.5. *Iruzkina* informazio berria dakarten elementuek osatzen dutela esan daiteke, definizio hau estuegia badugu ere. Informalki, predikazioaren edukia biltzen duten sintagmek osatzen dutela esan dezakegu. Predikazioaren ardatza aditza denez, aditza iruzkinari dagokion elementua da. Ez dira nahasi behar *iruzkina* eta *galdegaia*, azkeneko hau kontzeptu itxiagoa baita. Mintzagaiaren barnean mintzagai hanpatua bereizi dugun moduan, iruzkinaren barnean ere galdegaia bereiz daiteke, hau delarik, hain zuzen ere, iruzkinaren barneko elementu hanpatu edo

puztua, beste elementuen gainetik nabarmen ageri dena. Adibide batean ikus daiteke hau garbi aski:

(162) Patxi*k* esnea edan du

Perpaus horren ordena ez-markatua litzateke, informazio aldetik neutroena. Iruzkina, jakina, "esnea edan du" da hor. Hala ere, iruzkin zati horrek bi interpretazio desberdin ditu: batean, zer gertatu den edo Patxi*k* zer egin duen adierazten dugu; bestean Patxi*k* zer edan duen nabarmendu nahi dugu, 'esnea' hitza puztuz. Horri deitzen diogu, hain zuzen ere, *galdegai*. Galdegaia eta aditza oso loturik ageri zaizkigu, tartean mintzagaiari dagokion elementurik sartu ezin delarik:

(163) *hementxe bertan ni bizi naiz

Iruzkineko osagarri bat hanpatua delarik, hau da, perpaus batean galdegaia ageri zaigularik, galdegai horren ezkerrean doazen beste osagarriak mintzagai gisa hanpatuak dira. Bestela esan, galdegaia agertzen baldin bada esaldian, galdegaiaren ezkerreko mintzagaia beti hanpatua izanen da:

(164) liburua, nik irakurri dut

(165)) [LIBURUA]M, hanp, [NIK]Gald. irakurri dut

1.4.6. Galdegaia zer den hertsiki mugatzea erraza ez den arren, badirudi iruzkineko osagarri baten enfasiari edo hanpatzeari dagokiola, kontraste batean eraikitzen denari alegia:

(166) bihar, aita etorriko da (ez ama)

Ikusten ahal denez, galdegaiak mamitzen du informazioaren edukia, "nor etorriko da?" bezalako galderari erantzuten diolarik (166) perpausak.

• Galdegai aditzaren ezkerreko aldean jartzen dugu, ikusten denez. Horrela, galdeztaipeak ere, galdegai direnez gero, toki horretan ageri dira:

(167) Piarres, norekin elorri da?

• Aditza bera ere galdegai izan daitekeenez, mendebaleko zenbait euskaldunek *egin* erabiltzen dute forma perifrastikoetan, beste euskalki askotan aditz komodin horren aztarnarik ez dagoen arren (badirudi Altiuberan idazlanek garrantzi handia izan dutela halako formak hedatzeko orduan):

(168) liburua *ebatsi* egin dut

Aditza trinkoa dugunean, aditza bera baldin bada galdegai, edo iruzkineko elementu bakarra (eta, aditzaren baieztapena dugularik galdegai berdin) *ba-* aurizkia jarri behar izaten dugu (nahiz eta testu idatzietan, batez ere izulpenetan, *da gauza bat* bezalako esaldiak ere ageri diren):

(169) ??dator laguna

Literaturan horrelakoak aurki daitezkeen arren, komunzki aipatu aurizkia nahiz iruzkineko elementuren bat sartzen da aditzaren ezkerrean:

(170) badator laguna

(171) hor dator laguna

• Ez da esan beharrik, orduan, aditza *ba*-rekin gisa horretan agertzen delarik, aditzaz (edo honen baieztapenez) beste galdegaririk ez dagoela:

(172) *gaur* dator, ez bihar

(173) ?badator gaur, ez bihar

Hori dela eta, adizki trinkoetan *ba-* aurrizkia behar dugu aditzaren baiezkotasuna azpimarratzeko:

(174) Badator berchala

Adizki perifrastikoak, ordea, ambiguoak gerta daitezke:

(175) Patxi etorri da

Eta, testuinguruzaren arabera, baieztapen bat egin dezakegu esaldi horrekin (norbaitek Patxi ez dela etorri esaten badu eta guk baldin badakigu etorri dela, hori adierazteko *Bai, Patxi etorri da* esan dezakegu) edo besterik gabeko adierazpen neutro bat (gertara hori, Patxi etortzea alegia, suertatu dela adierazteko erabiltzen duguna).

• Esan dezagun galdegaiaren nolakotasunak ere garrantzi handia duela. Esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, adibidez, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu:

(176) Tomasek *baitez* esan zidan

(177) Tomasek esan zidan, *berak erakusi zidan bidetik joatekotan, zuk iaz prestatu zenion auto hura hartu beharko nuela.*

• Euskalkien arabera itzuli bat baino gehiago erabiltzen dugu galdegaiaren kontuarekin. Batzuetan aditz laguntzailea aurrera pasatzen dugu:

(178) *nik* dut egin

(179) "txiki-txikitatik aitak eta amak,
fraide ninduten nonbratu" (harri kantua)

(180) "oren guziek dute gizona kolpatzea,
eta azkenak du hilobirat ehortzen"

Bestetan, adizki trinkoetan, aditza bera dugu errepikatzen:

(181) *ekarri dakar*

Halako egiturak bizkaieraz ageri dira, Altuberen lanaren ondoren batez ere, ez lehenago.

Deiktikoek *-xe* atzizkia hartzen dute sarritan:

(182) aitak *hauze* esan zuen

•Ezezko perpausetan, adizkia perifrastikoa bada, aditz nagusiaren ezkerrean jartzen dugu galdegaia:

(183) ez dut *nik* eginen, baina beste batek

Aditzaren ezezkotasuna *ez* partikulaz baliatuz adierazten dugu, hau ere laguntzailearen ezkerrean paratuz:

(184) *nik ez* dut ikusi

Galdegaia beste zerbait bada, aditzaren eskuinean ordca:

(185) haur hori ez da *gaiuzoa*; pixka bat bihurria

1.4.7. Gramatika egituraz eta mintzagai egituraz mintzatu gara. Galdera hauxe da orain: ba ote da bi egitura horien artean nolabaiteko loturarik edo bakoitza bere aldetik ote dabil? Badirudi eranizuna baiezkoa dela, hots, nolabaiteko lotura badela. Oro har, mintzagai egituran ditugun *mintzagaia* eta *iruzkina* gramatika egiturako *subjektua* eta *objektua-aditza* osagaiekin bat datozelako:

mintzagai egitura: mintzagaia iruzkina

gramatika egitura: subjektua objektua/aditza

Azalpen honet bi baieztapen egiten ditu: euskaraz badugula ordena ez-markatu bat, batetik; ordena ez-markatu horretan mintzagaiaren tokia izen sintagma subjektuak betetzen duela, eta iruzkinarena, berriz, objektua eta aditzak, bestetik. Hori horrela izaki, "Piarresek sagarra jan du" eta "sagarra Piarresek jan du" esaldiak konparatzen baditugu, lehengoak bakarrik segitzen duela ordena neutroa esan daiteke, bistan denez.

Ordena neutro hau (Subjektua, Objektua, Aditza) irizpide desberdinek erakusten digute: euskaldunaren hizkuntza intuizioak, estatistikak eta perpaus menderatuetako hitz ordenak, R. de Rijk-ek egin zituen lanetan ikus daitekeen moduan:

(186) zuk sagarra hartu diozun gizona nire laguna da

(187) *zuk hartu diozun sagarra gizona nire laguna da

Adibide horiek erakusten dute erlatiboetako perpausetan aditzak joan behar duela beti azkeneko tokian. Beraz, ordena hori segitzen ez duten gainerako hurrenkera guztiak markatuzat jo behar ditugu: gramatika egituraren aldetik ordena guztiak pareko diren arren, mintzagai egitura hartzen bada kontuan, ordena markatu horiek informazio berezia eta berria ematen ditutela onartu beharko dugu.

1.4.8. Esan duguna pixka bat laburtuz, bada, hau guztia bi ardatzen inguruan biltzen da: mintzagaia/iruzkina. Funtsean, hortaz, bi tasun ditugu hemen: [\pm mintzagaia] (-mintzagaia, iruzkina deitu duguna) eta [\pm hanpadura]. Bi tasun hauek konparatuz, honako aukera hauek guztiak ditugu:

+mintzagaia	+mintz	-mintz	-mintz	+mintzagaia
+hanpadura	-hanp	+hanp	-hanp	-hanpadura
	<i>Piarresek</i>		<i>esnea edan du</i>	
<i>Piarresek</i>		<i>esnea</i>	<i>edan du</i>	<i>goizean</i>
<i>Piarresek (esnea)</i>		<i>edan</i>	<i>egin du</i>	
	<i>Patxi</i>		<i>etorri da</i>	
<i>Patxi</i>		<i>goizean</i>	<i>etorri da</i>	<i>Paristik</i>
<i>auto berria</i>		<i>horixe</i>	<i>erosi dut</i>	
<i>hordiak</i>		<i>entzun</i>	<i>dantzu</i>	
	<i>haizea</i>		<i>badator</i>	<i>laguna</i>
<i>nik ordea</i>		<i>ba</i>	<i>dakit</i>	
		<i>asko</i>	<i>dakizu</i>	
<i>jan</i>		<i>ondo</i>	<i>jaten du</i>	<i>horrek</i>
	<i>ama</i>		<i>ohera joan du</i>	
<i>ama</i>		<i>ama</i>	<i>joan da</i>	<i>ohera</i>
		<i>kaster</i>	<i>joanen da</i>	<i>ohera</i>

Ikusten ahal denez, oso eskema sinplea da funtsean, baina bere soiltasunean euskaldunaren hizkuntza senari aski ongi erantzuten dio. Nolanahi ere, araubide baino arago argi edo azterbide izan nahi luke. Ez dezagun ahaniz, hala ere, hasieran aipatu dugun ordenaren askatasuna, gramatikaren askatasuna, hor dugula beti, nahiz mintzagai egiturak perpausaren erabilera zedarrizten duen.

1.5. Gramatika honen egitura

Hurrengo orrialdeetan datorren testua *EGLU*-ren liburukietan aurkeztu dugun testuarekin erkatzen baldin bada, berehala konturatuko gara badirela bien artean zenbait desberdintasun azpimarragarri.

Desberdintasun horietako batzuk darabilgun eskema orokorrekirekin dute zerikusia.

Euskaraz perpaus osagarrien egitura kontuan izanik, egokiago iruditu zaigu gauzak modu honetan azalzea. Ikus dezagun segidan, hortaz, zein diren diferentziarik nabarmenenak. Perpaus bakunaren egituraz ari den liburu honek izen sintagma eta aditz sintagma hartzen ditu perpausaren ardatz nagusitzat. Izen sintagma izenaren edo izenordainaren inguruan antolatzen da. Horrela, izenak normalean determinatzaileak hartzen ditu eta bestelako osagarriak ere, elementu atributiboak dituzko ditugunak. Elementu atributibo hauek adjektibo sintagman antolatzen dira eta adjektibo sintagmak izenondoek nahiz izenlagunak osatzen dituzte. Izen sintagmak, gainera, hiru kasu nagusi har ditzake: absolutiboa (eta partitiboa, jakina), ergatiboa eta datiboa, hirurek komunztadura egiten dutela aditzarekin. Hona, hortaz, eskema osoa laburturik:

1. Izena, izenordaina
2. Determinatzaileak
3. Adjektibo sintagma
 - 3.1. Izenondoak
 - 3.2. Izenlagunak (-en, -ko, beste, -garren, -tar, -dun)
4. Aposizioa
5. Izen sintagmaren kasuak
 - 5.1. Absolutiboa (eta partitiboa)
 - 5.2. Ergatiboa
 - 5.3. Datiboa

Izen sintagma aztertu ondoren aditz sintagmaren osagai nagusiak zein diren ikusiko da: adizki jokatuak, jokatu gabeak, perifrastikoak, trinkoak, aginte adizkiak, e.a. Adberbio sintagmak azteruko dira ondoren, hauen artean, aditzondoak eta adizlagunak bereiziz (inesiboa, adlatiboa, sozilatiboa, instrumentala, e.a.):

1. Aditz motak
2. Adizki ez-jokatuak
3. Adizki jokatuak
 - 3.1. Trinkoak
 - 3.2. Perifrastikoak
4. Adberbio sintagmak
 - 4.1. Aditzondoak
 - 4.2. Adizlagunak (-n, -ra, -tik, -kin, -z, -gatik, -rentzat, e.a.)
5. Interjekzioak

Ikusten denez, ez zaio hemen halako kasurik egiten deklinabidicaren kontzeptuari, han-hemenka barreiaturik agertzen baitugu, perpausaren barruan kasuek hartzen dituzten funtzioen arabera.

2. kapitulua:

IZENA

2.0. Sarrera

Perpausaren oinarritzko osagaietako bat *izen sintagma* dugu. Izen sintagmak, aditz sintagmarekin batera, osatzen du perpaua. Izen sintagmaren barmeko egitura hainbat elementu bereiz ditzakegun arren, funtsezkoena eta oinarritzkoena *izena* bera da, edo, izenaren orde, *izenordaina*. Hori ikusten da ondoko adibideotan:

- (1) [Peruk] esan digu
- (2) [denda horretan erosi duzun tresna] hondatu zait
- (3) [zeuk] jakingo duzu zer egin

2.1. Izenen sailkapena

2.1.1. Esan dugunez, izen sintagmak era askotakoak izan daitezke, hurrengo esaldietan ikusten den bezala:

- (4) [Andoni] etorri da

- (5) [Bost gizon] etorri dira
- (6) [gure Andoni hori] etorri da
- (7) [Euskadiko bost gizon txiki] etorri dira
- (8) [hori] etorri da
- (9) [bost txiki] etorri dira

Izen sintagma hauen guztien ardatza *izen sintagma* deiturak berak aditzera ematen duen bezala, *izena* dugu. Hala ere, badira goiko zerrenda horretan zenbait izen sintagma, itxuraz bederen izenik agerian ez daramatenak: azkeneko bi horiek, esate baterako. Nola esan dezakegu orduan izen sintagmaren ardatza izena dela izen sintagma hauetan izenik agerian ez badugu? Non da izen hori?

Halako kasuetan izena ezkutuan utzi dugula esanen dugu, adibide horietan, batek pentsa dezakeenez, izena isildu egin baitugu:

- (10) [*andre* hori] etorri da
- (11) [bost *ume* txiki] etorri dira

Hortaz, izen sintagma elementu desberdinez osatzen bada ere, denetan bada beti agerian edo ezkutuan nagusia gisa agertzen den bat: *izena*. Izen sintagmarik ez da berez izenik gabe.

2.1.2. Izen sintagman agertzen diren elementuak, funtsean hiru sailtakoak ditugu: ardatz elementuak, elementu atributiboak eta determinatzaileak.

Ardatz elementuak, esan bezala, "izena" nahiz "izenordaina" dira. *Elementu atributiboak*, berriz, *adjektiboak* osatzen dituzte (hauen barnean "izenlaguna" eta "izenondoa" bereizten ditugarik). *Determinatzaileen* artean, azkenik, "mugatzaileak", "zenbatzaileak" eta "determinatzaile zehaztugabeak" bereiziko ditugu.

• Nolanahi ere, kontu handia izan behar dugu, hitzak oso erraz aldatzen ahal direlako kategoriaz:

- (12) ur *hotza* edango dugu
- (13) *hotz* ikaragarria egiten du gaur

Hitz bera (*hotz*), adibide hauetan, izenondoa da batean eta izena bestean, bistan denez (ikus, gai hau dela eta, 5. kapitulua). Ber gauza suertatzen da ondoko adibideotan ere:

- (14) *gero* esango dizut
- (15) *geroak* esango digu ongi ala gaizki jokatu dugun

Hor, berez aditzondo dugun hitza (*gero*) izen bihurtu zaigu bigarren esaldian.

2.1.3. Izenak ez dira denak mota berekoak eta izenen artean *sail* bat baino gehiago egin daitezke. Izen batzuk, esaterako, arruntak dira, beste batzuk bizidunak, batzuk kontu daitezke, beste batzuk, ordea, ez, e.a. Hona hemen nola egin dezakegun izenen arteko sailkapen nagusia.

2.1.3.1. Izenak izan daitezke, hasteko, *arruntak* edo *berezia*k:

- (16) etxe, andre, gizon, esku, e.a.
- (17) Josune, Koldo, Baiona, Baztan, e.a.

Izen arrunten eta berezien artean bereizteko orduan bi irizpide desberdin erabiltzen ditugu, nahiz eta, zenbait kasutan, irizpide hauek elkarren artean nahasten diren, ez baitatoz beti bat:

- irizpide formala
- irizpide semantikoa

• Irizpide formalarekin "formari", izenaren itxurari bakarrik egiten diogu kasu. Horrela, izen arruntek normalean determinatzailea hartzen dutela ikusten dugu eta izen bereziek, berriz, ez:

- (18) *etxe erosi dnt
- (19) etxea erosi dut
- (20) *Parisa polita da
- (21) Paris polita da

Irizpide hau ez da, hala ere, beti betetzen, hurrengo adibidean, esaterako, *Peru* izen bereziak ardaizten duen izen sintagmak determinatzailea hartzen baitu, nahiz izen berezi horren ondoren betiere beste osagai baten beharra dugun, normalean pertsona izenlagun batena, kasu honetan bezala:

- (22) Peru gurea Londresen

• Bigarren irizpidea, lehenbizikoa ez bezala, semantikoa dugu formala izan beharrean, eta oraingoan esanahia hartzen dugu kontuan. Horrela, izen bereziek erreferentzia zehatza dute: *Landres, Bernardo Atxaga, e.a.*, eta izen arruntak, aldiz, kategoria jakin bako elementu izena emateko erabiltzen ditugu: *etxe, ikasle, e.a.*

• Gertatzen da, ordea, bi irizpide hauek batzuetan gurutzaturik ere aurkitzen ditugula. Horrela, erreferentzia bakarra ez dutenak izan arren, mugatzailerik gabe agertzen zaizkigu izen batzuk zenbait kasutan:

- (23) errege, amabto, amabixi, osaba, e.a.

Hala ere, *errege* eta *amabto* izenen kasuak ez dira berdinak. *Errege*-k artikulua har dezake, nahiz ez dagoen garbi noiz. Badirudi izen, izenlagun edo izenondoren batek mugatzen duenean duela artikuluz agertzeko joera, *faraoi* hitzarekin ere halako zerbait gertatzen delarik.

Beste zenbaitetan, erreferentzia bakarra duten arren, mugatzaile eta guzti erabiltzen ditugu:

(24) ilargia, zenua, eguzkia, astelchena, abendua, e.a.

Leku eta erakunde izen ofizial askotan, erreferentzia bakarrekoak diren arren, mugatzailea beharrezkoa dugu:

(25) Azpeitia, Azkoitia, Bizkaia, Eusko Alderdi Jeltzalea, e.a.

"Jainko" eta "Jaungoiko" ere artikularekin, esan beharrik ez dago.

•Erreferentzia bakarra duten mugatzaile edo artikuludun hauekin kontu pixka bat izan behar da, zenbait kasutan azkeneko *a* hori artikulua baita, baina beste batzuetan izenaren zatia. Artikulua denean, izen sintagma mugatu guztiak bezala deklinatzen da: "Azpeitia", "Azpeitian", "Azpeitiako", "Azpeitiatik", "Azpeitira", e.a. Baina delako *a* hori hitzaren zatia bada, beti agertuko zaigu, kasu guztietan: "Donostia", "Donostia", "Donostiako", "Donostiatik", "Donostiara", e.a.

Idazleak kontuan izan behar du hortaz noiz den leku izen bat "Azpeitia" hitzaren erdukua eta noiz "Donostia" hitzarenekoa (hararako Euskaltzaindiak argitaraturiko herri izendia erabil daiteke).

Badira zenbait deitura, berez izen sintagma arruntak direnak: *Herria*, *Deia*, *Argia*, e.a. Kasu hauetan badirudi idazteko orduan bere osotasunean errespetatu beharke lirakekeela, izenaren ondoan marrazkoa jarritz: *Herria*-ra, *Deia*-tik, *Argia*-tik, e.a. Hala ere, *Euskaltzaindia*, *Estatu Batuak*, *Euskaldunon Egunkaria* eta horrelakoetan ez da dudarik *Euskaltzaindik*, *Estatu Batuetatik* eta *Euskaldunon Egunkaritik* esan behar dela.

2.1.3.2. Izen arruntak izan daitezke *zenbakarriak* eta *zenbakaitzak*. Lehenbizikoak kontatzen ahal ditugu; bigarrenak, ordea, ez:

- (26) hamar liburu, bost etxe, lau gizon
(27) *bi olio, *bost gorroto, *hamar gari

Izen zenbakaitzak jarraituak diren gaietara dagozkie, edo hizkuntza bateko hizunak jarraitu modura ikusten dituenen: *ura*, *olioa*, e.a. "Masa" moduan hartzen ditugu izen hauek.

Egia da, zemahe gisaz, izen batzuk bi modutara har daitezkeela:

- (28) *kafea* edan zuen [-zenb]
(29) bi *kafe* eskatu ditu [+zenb]

Bigarren kasu honetan "kafea" zenbakarria da, baina jadanik ez du esan nahi isurkari jarraitu bat, masa modura ulertzen dugun zerbit, baizik "katilukada kafea". Berdintsu gertatzen da "su", "argi" eta beste zenbait izenekin ere.

2.1.3.3. Izen zenbakaitzak izan daitezke *neurgarriak* eta *neurgaitzak*. Honekin esan nahi dugu izen batzuk, kontagaitzak diren arren, neurtzen ahal direla. Baina ez da hori gertatzen izen zenbakaitz guztiekin, batzuekin baizik:

- (30) bost litro olio, hamar kilo irin
(31) *bost kilo maitasun, *pila bat gorroto

Neurtzen ez ditugunekin, kantitate adierazi beharrean, intentsitatea adierazten dugu, "handi", "luze" eta horrelakoak erabiliz.

Eskema nagusia, hortaz, honela geratuko litzaiguke:

izena: bereziak
 arruntak: zenbakarriak
 zenbakaitzak: neurgarriak
 neurgaitzak

2.1.3.4. Beste ikuspuntu batetik, izenak *bizidunak* eta *bizigabeak* izan daitezke. Bereizketa hau semantikari baldin badagokio ere, ondorio handiak ditu euskal morfologian eta sintaxian. Hots, "etxe", "liburu", "harri", "bide", e.a. izen bizigabeak dira; baina "gizon", "asto", "Andoni", e.a. bizidunak direla esaten dugu.

Leku kasuetan izen bizidun bat ardatz duten izen sintagmek *-en(gan)-* edo *baita-* hartu behar izaten dute (ikus, nolanahi ere, genitiboaz geroago dioguna):

(32) etxetik etorri naiz

(33) gizonarengandik ez dut ezer espero

Hala ere, berez bizidunak diren izakiei dagozkien izen batzuk bizigabetzat hartzen ditu euskarak, landare izenak, adibidez:

(34) arbolara igo da

Dena den, bereizketa hau ez dago batera garbi. Euskalki batzuetan "nitian", "zutan" eta horrelakoak inolako arazorik gabe erabiltzen dira hizkera arruntcan eta literaturan ere tradizioa eta bidea egina dute aspalditik. Honen ondoan, oso hedatuak dira "gauza hauek elkarrengandik ongi berezi behar dira" bezalako esapideak, "gauza" izena, hain zuzen, bizigabea den arren.

Badira azkenik biziduntzat nahiz bizigabetzat jo daitezkeen hainbat izen, esanahiaren arabera bereizten ditugunak: gauza bat baita

"herria(ren)gan" ("populuaren baitan" edo, esan nahi lukeena) eta beste bat "herrian" (leku izen hutsa oraingo honetan). Era berean, "umetan" (biziaren aroa) eta "umeengan" (umeen baitan, alegia) edo "gizonetan" (gizonen artean) eta "gizonengan" (gizonen baitan). *Umetan* eta horrelako mugagabeak mendeberlekoak dira soilik; ekialdean beti mugatuak ageri dira literatura tradizioan: *umean*, *gaztean* eta horrelakoak alegia. Forma hauek guztiak, eta hauekin batera *zalditik astora*, *gizonetik gizonera* eta horiek bezalakoak geroago azalduko ditugu.

2.2. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak

Ikus ditzagun ondoko adibideok:

- (35) jatezte honetako *haragia* oso ona da
- (36) jatezte honetako *haragi salda* oso ona da
- (37) jatezte honetako *sukaldaria* oso ona da

Azpimarratu ditugun izen horiek, berehala ikusten da, ez dira denak maila berekoak. Lehenbizikoa *bakuna* dugu, elementu bakar batek osatzen duena. Bigarrena *elkartua* dela esanzen dugu, bere gain diren bi izenek osatzen baitute. Hirugarrena, berriz, *eratorria* da, izen autonomo eta zerbaiti atxikirik agertu behar duen atzizki batek osatua. Horra hor, bada, hiru izen mota, bere osagaien arabera sailkatu ditugunak. Izen elkartuei buruz esango dugu hemen zer edo zer (dena dela, hitz hauen sailkapena eta azterketa Euskaltzaindiaren LEF batzordeak argitara emandako *Hitz Elkarketa I* eta *III* liburuen ikus daitezke).

2.2.1. Izen elkartu arruntak

2.2.1.1. Izen elkartuen artean, lehenik, *izen elkartu arruntak* ditugu. Izen elkartu arrunt hauen artean, hasteko, bi izenek osatzen dituztenak ikusiko ditugu:

- (38) *maisua-maistra* guztiak haserre dabilta azken boladan

- (39) *irri-barrea* etorri zitzaion aurpegira
 (40) *atso sorgin* hark isatsa hartu eta denen aurrean zerurantz abiatu
 zen
 (41) *ezpata kolpe* batekin amaitu zuten borroka

• Lau adibide hauek sail berean sartu ditugun arren, zatimultzo desberdinak osatzen dituzte. Esate baterako, lehenbiziko adibidean (38) ageri den izen elkartu horrelako izenek pisu bera dute, ez da bat bestea baino garrantzitsuago, maila berean baitaude. Horrelako hitz elkartuei (hauen pareko dira *goi-beheak*, *arze-aurreak*, *zeru-lurrak*, *aita-amak*, e.a.) kopulatio deitu ohi diegu: horrelako elkarketa osatzen duten izenak eremu semantiko berekoak dira eta gehienetan antonimoak, elkarren kontrakoak. Hori horrela ez bada, nekez gertatzen da elkarketa:

- (42) **denda* horretan ez da *olio zakurrik* saltzen
 (43) ume honek ez ditu *aita-amak* ezagutzen

Gainera, izen horiek hartzen duten mugatzailea beti pluralean joaten da, adibideetan ikusten denez.

• Bigarren zatimultzoko (39) izen elkartuetako osagaiak ere maila berekoak ditugu, baina oraingoan, lehenbiziko azpimultzokoeekin gertatzen ez zen bezala, gauza edo pertsona bakarraz ari gara. Esanahiari dagokionez, objektu edo pertsona bakar horrek bi osagaiak adierazten dutena jasotzen du nolabait, nahiz agian, ondorioa zerbait desberdina izan. Horrela, "afari-merendua" ez da afaria edo merendua, bien artean logokoen zerbait baizik, bien lekua hartzen duena:

- (44) *kafesnea* eskatu dugu baina ez digute ateratzen

• Hirugarren zatimultzoko (40) adibideetan, ostera, ez daude bi izenak maila berean. *Atso sorgin* esaten dugunean, bistan da *atsoaz* ari garela hitz egiten, bi izenen artean ("atso" eta "sorgin"-en artean, alegia) hori baita garrantzizkoena, horrexek esaten baitigu zertaz ari garen. Bigarren

izenak ia ia izenondoaren balioa duela esan liteke (beste horrenbeste suertatzen da *erle langile*, *abade ehizari* eta horrelakoekin ere). Halako izen elkartuak izenondo bihurturiko izentzat ere jo izan dira autoreen artean:

- (45) denok dakigu *erle langileak* eta *erle alferrak* erlategi berean aurkitzen direla
(46) Edume oso *emakume dantzari* ona dela aitortu behar da

• Laugarren zatimultzokoei (41) osatzen dute hitz elkartuen artean azpisailik ugariena. Beti bezala bi izen ditugu hor, baina oraingoan bigarren izena da garrantzizkoena, berak jasotzen baitu esanahi nagusia. Bigarren izen honi "mugakizun" deitzen diogu, lehenbizikoak mugatzen duelako, haren esanahi oinarritzkoa zehaztuz. Hori dela eta, lehenbiziko izena "mugatzaila" dela esan daiteke. "Ezpata kolpea" esaten dugunean kolpearen fiabarduraz ari gara, zertaz baliatu garen kolpea emateko, e.a. Esanahia nola aldatzen den berchala ikusten da bestelako adibideak erabiltzen ditugunean. Horrela, gauza bat da *behi esnea* (esneaz, esne motaz, ari gara) eta bestea, oso desberdina, *esne behia* (behiak ari garelarik orain):

- (47) *zartagin kirtena* bi zati egin zitzaion ustektan

Lehen osagaiak edo morfemak bigarrena mugatzen badu ere, lehen osagaiak dakarren zehaztapen modua era desberdinetakoa izan daiteke. Horrela, azpimultzotxo honetan beste azpisailak egin ditzakegu, zeren zehaztapena ematen diguten kontuan harturik:

- denbora: *gau txori*, *gau lapur*, *egun argi*...
 - zertaz: *oilo salda*, *urte katea*, *ezpata kolpe*...
 - iturburua: *eper kanta*, *kandela argi*, *arto irin*...
 - helburua: *diru zorro*, *txori kaiola*, *terri bazka*...
 - zatia: *etxe ate*, *gaztaina adar*, *ogi paska*...
- e.a.

- (48) nekazariak egun argiarekin batera hasten dira beharrean
 (49) gau lapurrak hautsi du kristala berriz ere
 (50) taberna horretan oilo salda ematen dute
 (51) taloak arto irinarekin egiten dira
 (52) txori kaiolak ez dira oilaskoak sartzeko
 (53) zakurrek hezur zatiak jaten dituzte

2.2.1.2. Izen elkartu arruntan artean badira beste izen batzuk aditzoinean edo izenkian oinarritzen direnak.

• Aditzoina+izenak osatzen dute ondoko izen hauek barneko egitura: *idazlan, borragoma, logela...*

- (54) *Idazlan* hau hiru aldiz aztertua izan da

Lehen osagaia aditzoina da eta oro har, bigarren osagaiak, mugakizunak, zertako balio duen, zertako erabiltzen den adierazten digu. Horrela, jakina, *borragoma*, "borratzeko goma" dela esanen dugu.

• Aditzoina+atzizkia eta izena dugu, berriz, honakoetan: *bilketa lan, alfabetatze ikastaro...* Izenkiak direla esaten dugu horregatik.

- (55) eskal idazle eta idazkien *bilketa lana* egin omen du Perak

• Izena+izenkia aurkitzen dugu beste batzuetan: *gatz emaile, kale garbitzaile, diru biltze, belar mozte, etxe aldateta...*

- (56) *gatz emaile* horrek ez du ikasi oraino zenbat azukre behar duen arrosesneak
 (57) *kale garbitzaileak* beranduraino ibiltzen dira hemen

Horrelako hitz elkartuetan bigarren osagaiak hartzen du atzizkia eta *biltze, mozte* edo *garbitzaile* osatu ondoren erabiltzen ditugu hauek izen

elkartua eraikitzeko. Izen hauek, beste hitzetan esanda, ez dira *diru bildu, *belar moztu edo *kale garbiri bezalako aditzetatik sortu.

• Aditzoina eta partizipioa konbinatuz osatzen ditugun izen elkartuak ere baditugu: *sarraiera, harremanak, joanetorriak, joanjinak...* Aditzoina eta izenkiarekin ere berdin: *salerosketak...*

(58) nazionalista eta sozialisten arteko *harremanak* onak dira

2.2.1.3. Izen elkartu batzuk izena eta izenondoa justaposizioan jarriz sortzen ditugu: *udaberri, harriurdin, bihotzerre, gabonak, e.a.*

(59) *udaberrian* landareak loratzen hasten dira eta zuhaitzak, berriz, hostatzen

2.2.1.4. Bi izenondoz osaturikoak ere baditugu, elkarketa horrek izena ematen duelarik, ez izenondoa: *luzelaburra, hotz-beroa, e.a.*

2.2.2. Izen elkartu bereziak

• Izen berezia eta izen arrunta bata bestearen ondoren jarriz (izen berezi + izen arrunt) sortzen ditugu izen elkartu bereziak: *Peru Abarka, Patxiko Txerren, Pello Errota, Martin Kaiku, e.a.*

(60) *Peru Abarka* Mogelek idatzi zuen

Ikusten denez, *Peru Abarka* ez da "Peru" izena duen "abarka" bat, liburu baten izena baizik.

• Izen bereziaren ondoren izenondoa (izen berezi + izenondo) ere jar daiteke zenbait kasutan, izen berria sortuz horrela: *Lazkao Txiki, Katalingorri, Joxe Mari Potolo, e.a.* Egitura hauek aposizioak osatzen dituzte.

(61) *Jose Mari Potolok* prestatuko omen digu gaurko afaria

- Izen berezia izen arruntaren ondoan gertatzen da batzuetan (izen arrunt + izen berezi) : *Errege Dabid, Jondoni Paulo*, e.a. Aurrerago hitz eginen da honelaz.

- Izen berezi kopulatiboak ere badira euskaraz, bi izen berezi (izen berezi + izen berezi) elkarren segidan ematen ditugularik orduan: *Bilbo-Gasteizetan, Axular-Etxepareak*, e.a. Ikusten denez, *zeru-lurrak, aita-amak* eta horrelakoen parekoak dira.

2.2.3. Izen elkartuen idazkera

Euskaltzaindiak hitz elkartuak idazteko eman dituen gomendioen arloan zehazten da nola idatzi behar diren, besteak beste, izen elkartuak ere. Hona hemen, labur-laburrean gomendio horien bilduma.

2.2.3.1. Izen elkartu batzuk bereiz idatzi behar dira:

- aposizioz osaturiko hitzak: *Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Axular liburutegia, Uztapide bertsolaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B ereduak, D dokumentua*, e.a.

- Lehen osagaia *erdal, euskal, giza, itsas* duten elkarte berriak: *erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia* (forma zahar-ihartueta badira salbuespenak).

- Bukaceran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, edota biologia (-) azterketa, geologia (-) irakaslea, pedagogia (-)*

berrikuntza, ortografia (-) arauak, e.a. Hala ere, >a< kenduta erabiltzeari ematen zaio lehentasuna.

- Lehen osagaia *eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* edo *literatura* hitza duten elkarteetan (eta sei hitz hauek dituzten elkarteetan bakarrik) *eliz, burdin, hizkuntz, kultur, natur, literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza(-), burdina(-), hizkuntza(-), kultura(-), natura(-), literatura(-)* >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz agintaria, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur emankizuna, natur zientziak, literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza(-)zerga, burdina(-)saltzailea, hizkuntza(-)eskola, Kultura Saila, naturazalea, literatura(-)joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili (edota loturik eman, bigarren osagaia erdi atzizki duten *burdingintza* modukoetan).

- Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola(-)liburua, iraultza(-)giroa, jaiotza(-)kontrola, plangintza(-)arduraduna, fonetika(-)legea, gramatika(-)araua, kutsadura(-)arriskua, ohitura(-)aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza(-)alorra, finantza(-)egitura*,... idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola, plangintz arduraduna, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra, finantz egitura*,...

2.2.3.2. Beste izen elkarte batzuk marrarekin idatziko dira:

- *seme-alabak, zuri-gorri* moduko elkarteak: *senar-emazteak, zeru-lurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi-geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honat, lastan-musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; homar-hamaika (lagun), gutxi-aska.*

- *Ezkiio-Itsaso* moduko leku-izen elkarteak: *Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkotz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-*

Ubarrendia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Ürrüxtoi-Larrabile. Besterik dira itzulpenezko Lizarra / Estella, Arrasate / Mondragón, Vitoria / Gasteiz,... elkarteak.

2.2.3.3. Hirugarren multzo batek biltzen ditu loturik idaztekoak diren izen elkarteak:

- *jarleku* moduko elkarteak (aditz-erro + izen): *egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmaita; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; agerraldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorteku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortialde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe.* Salbuespenetarako, ikus Euskaltzaindiaren gomendio liburuxka.

- Bigarren osagaia *-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe* edota *-gintza, -za(i)ntza* duten elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin; bertso-gile, eltzegile, langile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; bertsozale, haragizale, aurrerazale, neskazale; dirudun, arduradun, bizardun; lotsagabe, mugagabe, zentzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza.*

- Bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde* duten izen elkarteak: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde.* Loturik idazten dira orobat bigarren osagaia *-gai* edo *-alde* duten hainbat elkarte: *abadegai, erregegai, aztigai* modukoak edota *industrialde, eskualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde* gisakoak.

- Lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *gain-* duten izen elkarteak: *aurrekontu, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga.*

- *Lauburu* moduko elkarteak (zenbatzaile + izen): *hiruadar*, *bostortz*, *hamalauzango*, *ehunzango*; *adarbakar*, *asmobakar*, *begibakar*, *zelulabakar*.

2.2.3.4. Bada beste sail handi bat murrarekin nahiz berex idatz daitezkeen izen elkarteak osatzen dutena:

- *Eguzki lore* moduko izen elkarte arruntak. Hemen sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idazleak unean-unean eratzen dituen izen elkarte berri, bizi, ugariak: *akordeoi-soinu* edo *akordeoi soinu*, *lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen*, *batzorde-atal* edo *batzorde atal*, *arau-proposamen* edo *arau proposamen*, *merkatari-mundu* edo *merkatari mundu*, *gizarte-bizitza* edo *gizarte bizitza*, *arazo-iturri* edo *arazo iturri*, *sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro*, *osasun-egoera* edo *osasun egoera*, *elebitasun-formula* edo *elebitasun formula*, *garapen-maila* edo *garapen maila*, *ikastetxe-mota* edo *ikastetxe mota*, *eskabide-orri* edo *eskabide orri*. Kontuan izan hemen >a< bukaeraz esandakoa.

- *kale garbitzaile* eta *adar jotze* moduko elkarte sintetiko arruntak (bigarren osagaia aditz izenkia dute, eta lehena bigarrenaren osagarri zuzen). Hauek ere oso ugariak dira:

- egile elkarteak: *kale-garbitzaile* edo *kale garbitzaile*, *bide-urratzaile* edo *bide urratzaile*, *harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile*; *odol-emaille* edo *odol emaille*, *soinu-jole* edo *soinu jole*, *eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle*; *aho-gozagarri* edo *aho gozagarri*, *bihotz-hunkigarri* edo *bihotz hunkigarri*, *begi-mingarri* edo *begi mingarri*; *euri-neurgailu* edo *euri neurgailu*, *orri-zulagailu* edo *orri zulagailu*; *behar-gidari* edo *behor gidari*, *erbi-ehiztari* edo *erbi ehiztari*.

- ekintza elkarteak: *adar-jotze* edo *adar jotze*, *zikiro-jate* edo *zikiro jate*, *odol-isurtze* edo *odol isurtze*, *denbora-galtze* edo *denbora galtze*; *diru-bilketa* edo *diru bilketa*, *adimen-*

azterketa edo *adimen azterketa*; *txosten-prestaera* edo *txosten prestaera*, *hitz-osaera* edo *hitz osaera*; *fede-ukapen* edo *fede ukapen*, *lan-eskaintza* edo *lan eskaintza*.

Oharra: osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Erronluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jaurlaritza*, *Foru Aldundia*, *Kultura eta Turismo Saila*, *Garraio Zuzendaritza*, *Kimika Fakultatea*, *Berisolari Txapelketa*, *Zinema Jaialdia*, *Ur Kirolak* eta abar.

2.3. Generoa euskaraz

Jakina denez, euskarak ez du generorik bereizten hitzetan. Horrela, esate baterako, zerbait *polita* dela diogunean, berdin izan daiteke maskulinoa nola femeninoa. Sexua, ordea, bai, aditzean bereizten dugu hika ari garenean (hori izango litzateke genero gramatikala):

- (62) Ikusi duk hori? (*mutil bati* galdetzen badiogu)
 (63) Ikusi dun hori? (*neska bati* galdetzen dioguncan)

Euskaraz, izen edo izenondo kontuetan, hiztegi mailako bereizketak bakarrik egiten ditugu, hortaz: *gizon* eta *emakume* bi izen desberdin dira eta bakoitzak esanahi desberdina du: *batak* arra den izaki bat aipatzen du, besteak emea dena. Baina honck ez dakar morfologian inolako bereizketarik.

Zenbait euskalkitan bereizten dira *lehengusu* eta *lehengusina*, edo *alargun* eta *alarguntsa*, baina horiek ere hiztegi mailako bereizketatzat jo behar dirugu, nahiz morfologia aldetik emankorragoak ditugun (*errient*, *errientsa*; *euskaldun*, *euskalduntsa*; *mediku*, *medikusa*, e.a. Erabilera hau oso mugatua dela dirudi: *alkatesa* hitza, esaterako, ez dago bildua *Orotariko Euskal Hiztegia*-n). Alde horretatik, hizkuntzan egiten diren bereizkuntzak, *tonto/tonta*, *katolikof/katolika* eta abarrek, erdaratik hartuak direnez, ez dute lekurik eta ezin dute euskara batuaren

gramatikaren bidea erakutsi. Aipa ditzagun, hala ere, *tontoa* (arra) eta *tuntuna* (emca) edo *gizajoa/gajoa* bezalako bikote batzuk aski hedatuak ditugulua gure artean. Jakina, adjektiboak ere *o-z* bukatu behar ditugu:

(64) perpaus *konpletiboak*

(65) emakume *kotolika*

Euskarak sexu desberdintasuna adierazteko bere-berea duen bidea besterik da, esan denez.

3. kapitulua:

IZENORDAINAK

3.1. Pertsona izenordainak

3.1.1. Pertsona izenordain arruntak

Izenordainak izentzat joko ditugu hemen, izen berezizat hain zuzen ere, ez baitute mugatzailerik onartzen eta berek bakarrik, laguntzarik gabe, osatzen baitute izen sintagma. Horrela, *ni*, *gu*, *edonor*, *norbait* eta horrelakoak (denak izenordainak) izen berezien toki berean agertzen zaizkigu. Izenordain hauekako batzuk *pertsona izenordainak* dira eta pertsona izenordainak direnen artean *arruntak* eta *indartuak* bereizten ditugu.

Pertsona izenordain arruntak honakook ditugu:

<i>Ni</i> :	1. pertsona sing.
<i>Hi</i> :	2. pertsona sing.
<i>Gu</i> :	1. pertsona pl.
<i>Zu</i> :	2. pertsona sing.

<i>Zuek:</i>	2. pertsona pl.
<i>Berari:</i>	2. pertsona sing.
<i>Beroriek</i>	2. pertsona pl.

Jakina, eskema hau pixka bat argiago azaldu beharra da. Euskara zaharcan pertsona izenordainak honakook ziren:

<i>Ni</i>	1. pertsona sing.
<i>Hi</i>	2. pertsona sing.
<i>Gu</i>	1. pertsona pl.
<i>Zu</i>	2. pertsona pl.

Eta hau argi ikusten da aditzaren morfologian. Esate baterako, pluralaren marka *gu* eta *zu* pertsona izenordainekin bakarrik ageri da:

(1) Goizean ikusi <i>nauzue</i>	(ez, * <i>naituzue</i>)
(2) Goizean ikusi <i>haugu</i>	(ez, * <i>haitugu</i>)
(3) Goizean ikusi <i>gaituzu</i>	(ez, * <i>gauzu</i>)
(4) Goizean ikusi <i>zainugu</i>	(ez, * <i>zainugu</i>)

Ni pertsona izenordaina hiztunari dagokio eta *hi*, berriz, hiztunak bere aurrean duen entzuleari. *Gu* horrek *ni+beste norbait* adierazten du. Hasiera batean *zu* bigarren pertsona pluralari baldin bazegokion ere, gaur egun bigarren pertsona singularra adierazteko erabiltzen dugu. Horretara, bigarren pertsona singularrean bi izenordain aurkitzen ditugu: *hi* eta *zu*. *Hi*-ren erabilera lagunen artera, anai-arreben artera eta oro har konfidantza-tokietara mugatus da, euskalkien arabera desberdintasunak aurkitzen direlarik haren erabileran. Nolanahi ere, *hi* aukeratzen baldin badugu gure hizkeran, horrek forma alokutiboak dakartza berarekin eta adiz-joko hauek erabili behar ditugu nahitaez (Ikus, dena dela, alokutiboa aztertzen denean, 17. kapituluan, puntu honetaz esaten dena):

- (5) *hiri deitu *diat* eta elkarrekin joango *gara*
- (6) hiri deitu *diat / dinat* eta elkarrekin joango *gaituk / gaitun*

Bigarren pertsona plurala adierazteko *zuek* erabiltzen dugu, *zu+beste norbait* adierazten duelarik horrek. Forma hau askoz ere berriagoa denez eta aditz morfologian berandu samar sartua, tauletan halako irregularitasun batzuk erakusten ditu.

Berori eta *beroriek* errespetuzko izenordain pertsonalak dira, gaur egun, beste pertsonekin erkatuz gero, baztertuxeak ditugunak. Forma aldetik hirugarren pertsonakoa da eta, hortaz, ez da pertsonala (*ber-aurizki* eta *hori* erakusleak osatua), baina erabilera bigarren pertsonari dagokio. Formaz hirugarrenekoa denez gero, aditzak ere horrelaxe egin behar du bere komunziadura:

(7) berorrek ikusiko *du* (ez, *ikusiko *duzu*)

Eguneroko hizkuntza arrunterako agian balio ez duen forma dugu hau, baina hizkuntza-maila formalagoetan erabilgarri gerta dakiguke beharbada.

Eremu zabal batean *euok* erabiltzen da, *beroriek* horren ordeaz.

3.1.2. Pertsona izenordain indartuak

Pertsona izenordainek badituzte alboan bere forma indartuak ere, euskalkien arabera aski desberdinak direnak. Izenordain indartu hauekin bi arazo gertatzen zaizkigu:

- forma aldetik, esan bezala, desberdintasunak daudela euskalkien artean: euskalki batek *geu* aukeratzen duen bitartean ekialdeko euskaldunek nahiago dute *guhaur*.

- erabilera ere, erabilera desberdina suertatzen dela euskalki batetik bestera: argi dago mendebaleko *geu* delakoa ez dela ekialdeko *guhaur* izenordainaren parekoa.

Formarik erabilienak, bada, hauek ditugu:

1. pers. sing.: *neu, nihaur, nerau*
1. pers. plur.: *geu, guhaur, gerok*
2. pers. sing.: *heu, hihaur, herori*
zeu, zuhaur, zerori
2. pers. plur.: *zewek, zuihauk, zerok*

Oro har esan behar da mendebaleko euskaldunek joera handiagoa dutela ekialdekoek baino forma indartuak erabiltzeko. Hala ere, ez da gauza erraza zehaztea zein diren ingurune aproposak izenordain hauek hautatzeko.

S. Altubek, esate baterako, forma indartuak *galdegaiaren lekuan* erabiltzen ditugula zioen:

- (8) *zeuk* daukazu errua
(9) ez da zer ekarri barberurik; *neu* naiz barberurik asko

Baina argi ikusten da, zemahi gisaz, galdegaiaren tokian indartuak ez diren formak erabiltzen aukera ere badugula:

- (10) *zuk* daukazu errua
(11) *ni* naiz barberurik asko

Horixe da, gainera, ekialdeko euskaldunen joera, mendebalekoa bestelakoa baldin bada ere. Galdegaiarekin batera halako kontraktotasuna edo, ageri dela dirudi:

- (12) *zeuk* daukazu errua, eta ez beste inork
(13) ez ekarri besterik, *neu* naiz aski eta

Galdegaia ez izan arren, *zenbait esapidetan* forma indartuak ikus daitezke, nahiz eta arruntak maizago ageri diren literatur tradizioan (Mixetenak, esaterako, beti forma arruntak erabiltzen ditu):

- (14) Hobeto egingo zenuke *zeuk ere* lo egingo bazenu
- (15) *neuk behintzat*, ez dut horrelakorik entzun
- (16) *ni neu*, ez nintzateke isililu horretan sartuko

Azkeneko izuli honetan kasu-marka bi izenordainek hartzen dute:

- (17) *nik neuk*, ez nioke ezer esango

Esan beharrik ez da esapide hauek direla jatorrak eta oraintsu sartuak ditugun "nik pertsonalki" eta horien antzeko irakeskeriak baino askoz ere gomendagarriagoak.

Forma hauek "gizonak berak" eta hauen antzekoen parekoak direla esan daiteke. Alegia, honako bi perpaus hauek zeharo parekoak dirudite:

- (18) *nik neuk* esango nioke
- (19) *haurrak berak* esango lioke

Ekialdeko euskalkietan izenordain indartu hauek badute beste balio bat ere. Alegia, "berak egin du" edo "nihaurk esan diot" diotenean, "berak eta berak bakarrik" edo "nik eta neuk bakarrik" esango balute bezala da.

• Aipatu diren kasu horietatik aparte, badirudi forma soilak erabil daitezkeela. Batzuetan, gainera, ez da beste biderik ere. Horrela, bokatiboetan, esate baterako, ez dute lekurik forma indartuek:

- (20) *zu*, adiskidea, zatoz hona

• Perpausa ezezkoa denean ere, badirudi ez dagoela izenordain indartuak erabilzeko joerarik (izenordain hori *ere*, *behintzat* eta horrelakoen laguntzan agertzen ez bada, gorago ikusi den bezala):

- (21) *ez zaitez nirekin haserre*

(22) *nik* ez nuke horrelakorik esango

- Zati galderetan normala da izenordain indarturik ez agertzea:

(23) *nor zara zu?*

- Galderazko perpausa bai-ez erakoa denean forma indartua ager daiteke:

(24) *zeuk* egin duzu ala besteri eman diozu egiteko?

- Azken ohar bat eginen dugu forma indartu hauen genitiboari dagokiona. Genitiboan balio bihurkaria eta indartua nahasi egiten zaizkigu:

(25) *ez duzu zerorren* iritzia azaltzen, besterena baizik

Nahasketa hau lehen eta bigarren pertsonarekin gertatzen da. Aldiz, *bera* erabiltzen baldin badugu, ekialdeko euskalkietan argi aski bereizten da orduan *beraren* (forma indartua) eta *bere-ren* (forma bihurkaria) artean, geroago ikusiko den moduan (are garbiago egiten da bereizketa *haren* eta *bere-ren* artean):

(26) **nik bere* anaia ikusi dut (ezinezkoa, euskalki horietan)

(27) *nik beraren* anaia ikusi dut (indarra emateko edo, erabilia)

3.2. Izenordain zehaztugabeak

3.2.1. *Nor* galdezaillea

3.2.1.1. Izenordain zehaztugabeen artean *nor* galdezaillea aipatu behar dugu lehen lehenik. Izenordain gisa agertzen da eta pertsonen galdezako bakarrik balio dezake:

- (28) *nor* etorri da? (Andoni, Jone, e.a.)
(29) *norekin* joango zara (Iagunekin, Mirenekin, e.a.)

Zenbait euskaldunek *nor* ez dute erabiltzen pertsona izenordain galdetzaile bezala eta horren ordez *zein*-ez baliatzen dira:

- (30) *zein* etorri da?

Euskalki haueetan, ikusten denez, *nor* eta *zein*-en arteko desberdintasunak ezabatu egin dira, bigarrenak lekua jan baitio lehenbizikoari. Erabilera hau gehienetan maila mintzatuan gertatzen da, *zein* esaten duen askok *nor* erabiltzen baitu idazteko orduan. Hobe litzateke, zernahi gisaz, biak gordetzea, bigarrenak balio estuagoa baitu, aukera bat edo adierazten digularik.

Batzuetan ez du galderazko balioa galdetzaile honek:

- (31) ni ez naiz *nor* hori egiteko
(32) jendea, *nor* zaldiz, *nor* oinez, etxera itzuli zen

3.2.1.2. Pertsona ez direnez galdetzen duguncan, *zer* erabiltzen dugu:

- (33) *zer* erosiko duzu? (etxe bat erosiko dut)

Hala ere, bada funtsezko ezberdintasun bat *nor* eta *zer* galdetzaileen artean: normalean *zer* determinatzaile gisa erabiltzen ahal da izen batekin, *nor*-ekin gertatzen ez dena. Hori dela eta, zenbait gramatikariek pentsatzen du *zer* hori ez dela izenordainen artean sartu behar. Beraz, *zer* (*ze* bezala ahoskatua) agertzen zaigunaldi bakoitzean izena isilean ematen dugula esatea zuzenago litzateke, hanen ustez:

- (34) *zer* ordu da?

Zer honck *notako* galdetzailearen balioa ere izan dezake sarritan:

(35) *zer* etxea erosi duzun!

Beste batzuetan, berriz, *komodin* gisa erabiltzen dugu, lagunarteko hizkeran batez ere, hitz bila edo, gabiltzanean:

(36) oso neska *zera* da

(37) *zera...*, hau esan zidan... hura hala *zeratu* zuenean

Bistan da hizkuntza idatzian *komodin* honek ez duela leku handiegirik, nahiz egun erregistro honetan ere hedatzen ari den. Literatur tradizioan *hau* da ageri dena horren ordean, eta 1930etik aurrera *honako hau*. Hortaz, baditu euskarak maila honetan baliabide jatorragoak segurki.

3.2.2. Galdetzailleetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak

3.2.2.1. Hainbat izenordain sortzen zaizkigu galdetzailetarik, azpimarragarrienak honakook ditugularik. Alde batean dago, esaterako, *norbait*, pertsonekin erabiltzen duguna:

(38) *norbait* sartu da gelan

Normalean *norbait* beti izenordaina da, eta ez du ondoan izenik onartzen (*norbait izan* esapidea ere hor dugu, *nor izan* bezala). Honekin batera *zerbait* izenordaina aipatu behar dugu gauzez ari garenean:

(39) *zerbait* ikasi dut

Hala ere, *zerbait* izenordain hau determinatzaile gisa ere ageri da kasu batzuetan (oso erabilera markatua dugu hau eta ekialdean erabilia bereziki):

(40) matematika *zerbait* ikasia da hori

(41) *zerbait* matematika ere ikasi izan du

3.2.2.2. Bigarren multzoan ditugu *nor edo nor* eta *zer edo zer*, *norbait* eta *zerbait* adierazi nahi dutenak alegia (kasu honetan ordea *zer edo zer* beti izenordaina dugu, ezin baita horren ondoan izenik jarri):

(42) *nor edo nor* etorriko da

Idea bera adierazteko modu anitz ditugu euskaraz:

(43) *bat edo bat* etorriko da

(44) *baten bat* etorriko da

(45) *bat edoren bat* etorriko da

Egia esan, azkenekoak ez du inolako literatur tradizioarik eta testu dialektal modernoetan bakarrik ageri dira. Beste bietan bai, batez ere hegoaldean. Horrelakoetan, *baten bat* edo *bat edo bat* inongo izenik gabe agertzen zaizkigunez, izenordainizat hartuko ditugu.

3.2.2.3. Hurrengoak *edonor*, *nornahi*, *edozer* eta *zernahi* ditugu:

(46) *edonor* joan daiteke Donostia (= *nornahi*)

Nornahi honen deklinabide zaharra *nork nahi*, *nori nahi*, e.a. da. Gero eta gehiago hedatuz joan da, ekialdean nahiz mendebaldean, *nornahik*, *nornahiri*, e.a.

Ikusi dugun bezala, *zer*-en gainean eraikitzen ditugun izenordainak determinatzaile gisa ere agertzen ahal dira, izen sintagma mugatuz. Ber gauza suertatzen da hemen ere:

(47) *zernahi* gezur esan du horrek

(48) *edozer* gauza jaten du honek

Erabilera horiek aski mugatuak dira. *Zernahi* hori determinatzaile bezala ageri denean *anitz* edo halako zerbait adierazten du eta bizidunekin nahiz bizigabekoekin erabil daiteke, ergatiboa ere librok hartzen duela:

- (49) *zernahi jende bazen*
(50) *zernahi jende ikusi omen dute*

Edozer-en kasuan, berriz, oso zalantzazko perpausak sortzen zaizkigu absolutu¹boa ez den bestelako kasuak erabiltzeko orduan:

- (51) [?]*edozer jatekok tripako mina ematen dio*

Esan dezagun, horiaz, laburtuz, *zeren* gainean eraikitakoak, ikusi dugun *zer edo zer* eta ikusiko dugun *ezer* salbu, determinatzailetzat joko ditugula oro har.

3.2.2.4. Izenordain zehaztugabeak dira *inor* (edo *nehor*) eta *ezer* ere. Ezezko polarizatea dute eta *norbait* eta *zerbait*-ek ez bezalako distribuzioa erakusten digute (ezezkako, galderazko, baldintzazko eta konparaziozko testuinguruetan ageri dira). Funtsean, izen sintagma absolutu¹boaren eta partitiboaren artean dagokeen diferentzia bera dago *norbait* eta *inor*, eta *zerbait* eta *ezer*-en artean. Esan nahi baita *inor* eta *ezer* partitiboa erabil daitezkeen testuinguru berean erabili ohi direla:

- (52) *jendea ikusi dut.* *Norbait ikusi dut*
(53) *etorri da jenderik?* *Etorri da inor?*
(54) *ez da jenderik etorri.* *Ez da inor etorri*

Sarridan, izenordain mugagabe hauek *ere* partikula nahi izaten dute:

- (55) *ez da inor ere etorri*

Hala ere, ohar batzuk egin beharrak dira hemen. Adibideetan ikusten denez, galderetan *inor* erabiltzen dela esan dugu, partitiboa erabiltzen den

moduan. Baina hori ez da beti hala. Esaterako, bi erabilera hauek guztiz arruntak ditugu:

(56) etorri da *inor*?

(57) etorri da *norbait*?

Esanahia, dena dela, ez da bietan parekoa, egoerari buruz dugun auresuposizioa desberdina baita aldi bakoitzean. Lehenbizikoan, hain zuzen, espero dugu ez dela inor ere etorri. Bigarrenean, berriz, norbait etorri dela pentsatzen dugu eta horregatik egiten dugu galdera.

Ezezkoetan ere berdintsu suertatzen da, esanahien desberdintasuna are garbiago geratzen zaigula:

(58) etxe honetan *inor* (ere) ez dago ongi (denak gaizki daude)

(59) etxe honetan *norbait* ez dago ongi (baten bat gaizki dago)

Hortaz, "zerbait ez dago ongi" eta "ezer ez dago ongi" ez dira batere baliokideak.

Hala ere, baiezka ematen ditugun perpausetan, zilegi izan ohi da izenordain zehaztugabe hauek ere erabiltzea, nahiz eta ohitura hau ez den hedatuegia:

(60) *inork* beti errua (=besteak beti errua)

(61) soinean dauzkazun prakak *inorenak* dituzu (beste norbaitenak)

Esanahi hori, batez ere bizkaieraz gertatzen da, gero beste euskalkietako idazle batzuek ere bereganatu duten arren (Miturcenenak berak, lekuko).

Inoiz adberbioarekin aise maizago gertatzen da hori:

(62) *inoiz* ikusi ditut horiek elkarrekin hizketan

Esan dezagun, azkenik, *ezer* honek baduela pareko bat, balio aldetik kidea duena: *deus*.

(63) ez dut *ezer* ere hartu

(64) ez dut *deus(ik)* ere hartu

Besalde, *batere* itzuliak ezezkako esanahia du:

(65) ez du *batere* ikusten

Besteekin ez bezala, ordea, adjektiboaren maila adierazteko ere erabili daiteke:

(66) lan hori ez da *batere* erraza

Hemen, dena dela, ondoko bereizketa hau ere egin beharko genuke, gauza bat baita *batere* eta bestea *bat ere*:

(67) ez du galdera *bat ere* asmatu

(68) haietarik *batek ere* ez du erantzun

(69) ez du *bat ere* saldu

Zenbatzaile hau (eta honekin batera *horrenbeste*, *hainbeste*) izenaren ezkerrean jartzen da, komunztadura singularrean edo pluralean eginez:

(133) nik *honenbeste* urte ditut (dit)

Jakina den bezala, batzuetan *asko* zenbatzailearen eremua hartzen du *hainbeste* zenbatzaileak:

(134) *hainbestetan* ikusi zaitut

• *Franko*

Zenbatzaile zehaztugabe honen esanahia *asko*, *ugari*, *aski* edo *nahikoren* ingurukoa da, maila adberbio osatzen duela hemen:

(135) nafarrak *franko* luzea zuen sudurra, baina mehea

Hor esan nahi duguna da nafar horrek *aski* edo *nahiko* luzea duela sudurra. Erabileraren aldetik, modu asko aurkituko dugu. Izenaren ezkerrean nahiz eskubian jar daiteke:

(136) *bada* [deabru *franko*] saildu itxura hartzen duena

(137) *bada* [*franko* deabru] saildu itxura hartzen duena

Kasu horietan, komunztadura nahi den bezala eginen da aditzarekin, singularrez nahiz pluralrez:

(138) *badira* deabru franko saildu itxura *dutenak*

(139) *bada* franko deabru saildu itxura *duena*

Izenak mugatzailea ere har dezake, singularrez eta pluralrez, baina orduan komunztadura ere bortxaturik geratzen da singularrera edo pluralera, plural markaren arabera, eta izena beti zenbatzailearen aurrean jartzen dugu:

(140) *bada* lana franko herri honetan

(141) *gizona* franko ikusi *dut* gaur mendian

(142) *gizonak* franko ikusi *ditut* gaur mendian

Partitiboarekin ere berdin:

(143) *gizonik* franko ikusi *dut* gaur mendian

Zenbait kasutan izenondoa mailakatzeko maila adberbio bezala erabiltzen da *franko* (*oso* erabiltzen dugun moduan alegia, nahiz esanahia ez den berdina), orduan sintagmak artikulua behar duelarik:

(144) *franko* (gizon) *ona* da

(145) *franko* (gizon) *onak* dira

Izenondoak ez ezik, aditzondoak ere mailaka ditzake:

(146) *franko* *ederki* jotzen du gitarra

Esan dezagun, azkenik, adberbio hutsa bezala ere erabiltzen ahal dela, bera bakarrik:

(147) *frankotan* entzun dugu halakorik, baina ahaztu egiten baitzaigu ordea.

• Euskaraz ez dira aipatu ditugun hauek zenbatzaile zehaztugabe bakarrak. Hauekin batera aipatu behar dira *pixka bat*, *apur(ixo) bat*, *xorta bat*, *pujka bat*, *pittin bat*, *dexente*, *nahiko*, *makina bat*, e.a. Kontuan hartu behar dugu, nolana ere, zenbatzaile hauek testuinguru batzuetan bakarrik erabil daitezkeela, ez nolana ere. Lekuari dagokionez ere, batzuetan izenaren ezkerrean jarri behar dira, eta beste batzuetan, berriz, eskuineko partean, zein den zenbatzailea. *EGLU*-lean einaten den informazioa ikus daiteke.

4.2.3. Zenbatzaile orokorrak

Zenbatzaile hauek orokortasuna, osotasuna, hartzen dute kontuan. Hiru ditugu sail honetan sartzen direnak: *dena*, *guztia* eta *oro*, lehenbiziko biak pluralean ere jar daitezkeelarik:

(148) mutiko honek *dena* daki

(149) *denak* sartu ziren gela hartan

(150) *guztiak* zutitu ziren

Adibideetan ikusten denez, zenbatzaile hauek distribuzio bera dute izenik gabe erabiltzen ditugunean. Aposizioan ere erabiltzen dira, dela aurrekoa erakusle hutsa dutela (izenordainaren funtzioan),

(151) hauek *guztiak* etorri dira

(152) hauek *denak* etorri dira

dela aurrekoa sintagma osoa dutela, izenarekin eta erakuslearkin osatua:

(153) neska-mutil hauek *guztiak* etorri dira

(154) neska-mutil hauek *denak* etorri dira

Gaur egun bada jocra *guztiak* beste honela erabiltzeko ere, nahiz literaturako tradizioa ez den batere horrelakoa:

(155) neska-mutil *guzti hauek* etorri dira

Hori ezin da egin, dena dela, *denak*-ekin:

(156) *neska-mutil *den hauek* etorri dira

Erakuslea jarri beharrean artikuluekin ageri denean zenbatzailca, orduan ere berdintsu gertatzen da:

(157) neska-mutil *guztiak* etorri dira

(158) neska-mutil *denak* etorri dira

Erabilera klasikoa eta tradizioz handienekoa, *guztiak* zenbatzailearen kasuan, goian aipatu duguna da: zenbatzaile hau

sintagmaren aposizioan doa, eta aurreko izen sintagmak beti erakuslea behar izaten du:

(159) *etxe hauek guztiak* pintatu omen dituzte gaur goizean

(160) *mendi hauetara guztieta* joateko asmoa du Koldok

Harrenbestez, erabilera hauek dute tradizioirik handiena:

(161) *etxe guztiak*

(162) *etxe hauek guztiak*

Bi zenbatzaile orokor hauek balio enfatuikoa emateko orduan errepikatuz ematen ditugu:

(163) *zer ikasi duzu: den-dena?*

(164) *ikasle guzti-guztiak* etorri omen dira gaur

Guzti eta *denarekin* batera, zerbaiten osotasuna, eta ez zati bat, adierazi nahi duguncan, *oso* ere erabil daiteke, izenak zaitugarria den zerbait adierazten badu. Kasu hauetan izena singularrean joan ohi da. Orduan *guzti* zenbatzailearen parekoa litzateke:

(165) pastel *osoa* jan zigun

Jakina, partitiboa ere jar daiteke zenbatzailea eta orduan aditzondo haren funtzioan dugu:

(166) pastela *osorik* jan zuen

(167) pastelak *osorik* jan zituen

Oro zenbatzailearen jokabidea desberdina da. Beste biak bezala, hau ere izenaren eskuinean jartzen dugu, kasu marka zenbatzaileak berak hartzen duelarik:

- (168) *gizon oro* hilkorra da
- (169) *gizon orok* badaki
- (170) *herri orotan* gauza bertsuak gertatzen dira

Badu, hala ere, beste erabilera bat *oro* zenbatzaile honek:

- (171) *gizonak oro* hilkorrak dira
- (172) *gizonek orok* esan dute

Adibideetan ikus daitekeenez, zenbatzaileak, beti bezala, kasu marka hartzen du (artikulua ez, inoiz ere), baina ezkerrean duen izenak ere halaber artikulua eta kasu marka har dezake, pluralean uzten dugularik. Askotan aurreko sintagmari erakuslea eskatzen dio. Kasu hauetan guzietan zenbatzailea aposizioan doala esan liteke:

- (173) *mendi horietan orotan* egin du elurra gaur
- (174) *adiskide horiekin ororekin* joango gara afaltzera

Dena dela, zenbatzaile honek beti plurala eskatzen du erabilera honetan (hau da, aposizioan doanean):

- (175) **gizonak orok* esan du

Aipatu behar dugu, azkenik, zenbatzailea bakarrik ere agertzen ahal dela:

- (176) *orok* dakite
- (177) *ororen* laguna da

4.3. **Determinatzaile zehaztugabeak**

Determinatzaileen artean, hauek osatzen dute azken multzoa. Gramatikarien artean, sail honetan sartu ditugun determinatzaileek izen

desberdinak hartu izan dituzte: determinanteak, predeterminanteak, prepositiboak, e.a. *EGLU*-lean ere *notakotzaille* izenarekin ageri dira, oso gogoko inoiz ere izan ez dugun izenarekin alegia. Horregatik proposatzen dugu hemen beste hau. Multzo honetan sailkatzen dira, hain zuzen ere, determinatzaile bai, baina mugatzaile edo zenbatzaile ez diren gainerako guztiak. Normalean izenaren ezkerrean jartzen dira eta ez dute mugatzailerik onartzen. Honakook ditugu:

zein	zeinahi	zeingura	edozein
zer	zernahi	zergura	edozer

Adibide batzuk jarritz:

(178) *zer* etxe da hau?

(179) *zernahi* gauza entzun behar izan genuen

(180) *edozer* gauza esango dizu horrek

Ohart gaitzen determinatzaile zehaztugabe hauek (anitzetan galdetzaile diren hauek alegia), izena ezabatua dutela ere agertzen ahal zaizkigula:

(181) *zer* da hau?

Gramatika batzuetan, horregatik, izenordain modura sailkatuak izan dira. Hala ere, ez dirudi izenordainak direnik, izena beu hartzen ahal baitute alboan:

(182) *zer (gauza)* da hau?

Sail honetan sailkatu izan da inoiz *beste* hitza ere.

5. kapitulua:

ADJEKTIBO SINTAGMA: IZENONDOAK

5.0. Sarrera: adjektiboen sailkapena eta tokia

• Adjektiboa da izen sintagmaren arteko osagai nagusietako bat eta bere zeregina izenari laguntza ematea da, zermolakoa den adieraziz:

(1) liburu *handi* bat erosi zuen

(2) *lurrezko* ontzi batean gorde zuen dirua

Hemen, bistan da, *handi* adjektiboak liburua nolakoa den esaten digu eta *lurrezko* adjektiboak ere antzeko zerbait eginen du: ontzia zerez egina den, nolakoa den, azken batean, zehazten digu. Izenaren inguruan, eta izenari fiabarduraren bat erantsiz doazen elementu hauek dira, horrenbestez, *adjektiboak*. Adibideek erakusten diguten moduan, bi mota bereiziko ditugu adjektiboen sailan:

a) *Izenondo* deituko ditugu izenaren eskuineko partean jarri ohi ditugun adjektiboak: *handi, txiki, gizen*, e.a. Hauexek dira hemen aztertuko ditugunak.

b) *Izenlagun* izango dira *-ko* eta *-en* atzizkien bidez osatuak diren adjektiboak. Hauek, bistan denez, izenaren ezkerreko partean kokatzen dira: *urrezko, etxeko, idazteko, gure, Mirenen*, e.a.

Adjektiboak, nolanahi ere, ez dira izen sintagmaren barnean bakarrik ageri. Geroago ikusiko dugun bezala, predikatu osagarrian ere ager daitezke, subjektuaren funtzioan dagoen izen sintagma bati buruzko nahiz perpausoko beste izen sintagma bati buruzko informazioa ematen digutelarik orduan:

- (3) *liburu hori oso ederra da*
- (4) *gela zikin zikin utzi zuten*

- Izenondoa izenaren eskuineko partean doa, adibideetan ikusi dugun moduan. Hala ere, zenbait kasutan ezkerrean ere ikusiko dugu, salbuespenizat jo behar direlarik kasu hauek. Hori gertatzen da, oro har, jatorri izenkiekin (norbaiten edo zerbaiten jatorria adierazteko erabiltzen ditugun adjektiboekin hain zuzen) eta *-dun* atzizkiak osaturikoekin. *Ber* eta *beste* elementuak ere leku bertan agertzen dira batzuetan (ikus geroago ematen ditugun azalpenak). Esan daiteke izenlagunaren funtzioarekin agertzen direla orduan:

- (5) *dirudun neska*
- (6) *zarautar lagunak*
- (7) *frantziar mutil horiek*
- (8) *frantses liburua*
- (9) *ber gizona*
- (10) *beste etxea*

Izenondo hauek izenaren ezkerrean agertzen ahal baldin badira ere, eskuinean berdín berdín ikusiko ditugu. Orduan dira benetako izenondoak:

- (11) *neska diruduna*

- (12) lagun *zarauztarrak*
- (13) mutil *frantziar* horiek
- (14) liburu *frantsesa*
- (15) gizon *bera*

Gaixo izenondoa, bestetik, izenaren ezkerrean aurki dezakegu harridurazko perpausetan, batez ere ekialdean:

- (16) *gaixo* bekataria!

Esulistikak kontutzat har daiteke izuli hau, mendebaleko idazleen artean usuago ageri baita beste modu arrunt honetara:

- (17) bekatari *gaixoa*!

Baina, ikusten denez, salbuespen argia da hori, izenondok bestela izenaren eskuinean joan behar baitute:

- (18) *ekonomiko arazoak
- (19) *politiko alderdiak

Jakina, *euskal langileria*, *euskal gizona* eta horrelakoak zuzen dira esanak, hor ez baitago adjektiborik, izen elkartu bat baizik, lege zahar bat jarraiki, 'r' jatorrizkoa 'l' bihurtu delarik:

- (20) euskal liburua = euskara+liburua
- (21) galeperra = gari+perra

Ez dakigu gaur egun lege hau indarrean dagoen izen elkartu berriak sortzeko orduan, *Euskal* hitza erabiliz gero ez dago arazorik, baina *kontseilal bilera* (kontseilari + bilera) agian gogortxoegi suerta lekiguke. Dena dela, orain arte esandakoa kontuan hartzen baldin badugu, berehala ohartuko gara gauza bat dela -zerbait baldin bada behintzat- *sozialista alderdia* (= sozialisten alderdia) eta bestea *alderdi*

sozialista (izena + adjektibo dugularik oraingoan). Oso ezaguna den beste adibide bat jarriko dugu: *batzar-agiria* eta *batzar agiria*. Arrazoi berberetatik, **ekonomiko arazoak* (adjektibo + izen) gaitzetsi dugun arren, ondokook zuzenak dira, hauek bi izen elkartu (izen + izen) besterik ez baitugu:

- (22) *ekonomi arazoak*
- (23) *gizarte laguntzak*
- (24) *nazio hizkuntza*

Izenlagunak, aldiz, izenaren ezkerrean jartzen ditugu, jakina den bezala:

- (25) *lau hankako mahaia*
- (26) *Nafarroako jaiak*
- (27) *lurrezko ontzia*
- (28) *Martinen alaba*

Hauek guztiak, esan den modura, adjektibotzat jotzen ditugu, baina adjektiboen barenko izenondoen multzoa osatzen dutenez, izenaren ezkerrean jarriko dira. Inoiz, ordea, batez ere jatorria edo adierazten dutelarik, eskuinean ere aurkituko ditugu:

- (29) *Noel Plazaburukoa*
- (30) *Etxeberri Sarakoa*

Kapitulu honetan, ordea, izenondoez bakarrik arduratuko gara.

5.1. Izenondoak izen sintagmaren barnean

5.1.1. Izenondo bat baino gchiago duguncan

• Izenondoez, lehen esan den moduan, izen sintagmaren osagaietako bat osatzen dute, izenari halako ñabardura bat ematen diotela. Hala eta

gutziz, hemen berehala arazoak gertatzen zaizkigu. Zer gertatzen da izen baten ondoan izenondo bat baino gehiago jarri nahi dugularik? Zer ordenatan jartzen dira hauek? Lege zehatzik ez den arren, esan dezagun zerbait honetaz.

• Egoera bat baino gehiago aurkitzen ahal da. Esate baterako, gerta liteke izenondo horietako batek 'nongotasuna' adieraztea eta besteak beste zerbait. Kasu horretan ez da dudarik eta jatorri izenkia izenaren aurretik jartzen ahal dugu (izenondo eta izenlagunaren artean izenlagunaren aukera eginez, izenaren ezkerrean baitago):

(31) *frantses* liburu eder bat

• Izenondoak bestelekoak dirugunean (kolorea, neurria, adina, itxura, e.a. adieraz dezaketen horietakoak hain zuzen), badirudi hiztunak zein hartzen duen garrantzizkoentzat huraxe jartzen duela izenaren ondoan. Jakina, hau guztiz subjektiboa denez, hiztunak nahi duen modura hurrenkeratuko ditu, aldian aldiko baldintzapenen azpian:

(32) herri txiki polita

(33) herri polit txikia

• Tamainua eta kolorea adierazten duten izenondoen artean, askotan kolorea aipatzen da lehenik, nahiz ez beti (esan nahi baita lege hau ez dela ezin hautsizkoa):

(34) kapela urdin zabala

• Luze-laburraren irizpidea ere erabil daiteke. Badirudi joera dugula lehenik laburra eta ondoren luzeena jartzekoa, lege aski orokor baten arabera:

(35) ile argal horiska

5.1.2. Izenondo elkartuak

Izenondo elkartuak, barmeko egituran ageri duten osagaien kategoria gramatikalaren arabera azpisailkatuko ditugu, izenen kasuan egin dugun moduan. Horrela, hona segidan nolakoak bereizten ditugun.

- Zenbait izenondoren barmean *izen+izenondo* egitura aurkituko dugu:

- (36) gazte hori oso *beso*zabala da
- (37) haur *musu*gorri hori siestatik jaiki berria da
- (38) neska *buru*arina da benetan

Ikusten denez, izenondo elkartu hauek, izenondo diren heinean, izen baten eskuineko aldean azalduko zaizkigu, izen hau gizakia, pertsona, adierazten dutenetakoa delarik gehienetan: aitona *buruzuri*, ume *muturzikin*, e.a., hauek guztiak "burua zuria duen aitona" edo "muturra zikina duen umea" bezalatsu ulertzen ditugula. Horrela sorturiko izenondoak izen berezi gisa ere agertzen ahal zaizkigu: *Esnepe*, *Moñoker*, *Txapelokerrak*, e.a. Izenondo hauek loturik edo marra baten bidez bereziak idazten ahal dira: (*neska*) *sudur-luze* edo *sudurluze*, (*zezen*) *adar-motz* edo *adarmotz*, (*agure*) *buru-soil* edo *burusoil*, (*mutiko*) *musu-gorri* edo *musugorri*, (*marinel*) *odol-bero* edo *odolbero*, (*adiskide*) *esku-zabal* edo *eskuzabal*, (*esparru*) *angelu-zuzen* edo *angeluzuzen*, (*teilatu*) *punta-zorroztz* edo *puntazorrotz*, e.a.

- Beste batzuetan, ordea, aditzoin+izenondoko segida aurkituko dugu halako izenondo elkartu baten barmeko egituran. Normalean *erraz* izenondoaz baliatzen gara elkarketa egiteko orduan: hari *etenerraza*, gezur *sinesterraza*, e.a.:

- (39) hori bai asmatu duzun gezur *sinesterraza*!

• Izena + [aditzoin+garrri] hurrenkerak osa ditzake, hirugarrenik, izenondo elkarruak: *bihotz erdiragarri, neke aringarri, begi mingarri*, e.a.:

- (40) ikuskizun hori begi *mingarri* izango zaio bati baino gehiagori
(41) hitz bihotz *mingarriak* esan zizkion

• Sail honetakoak dira *egin berri* moduko izenondoak. Hauek bereiz idazten dira: *amaitu berri, esan berri, hasi berri, sartu berri*, e.a. Hauekin batera dugu *ezkonberri* ere, baina hau eta honen modukoak (beraz, aditzoina dugu hemen, ez partizipioa) loturik idazten dira.

• Azkenik, izenondo+izenondo egiurako elkarketak aipatuko ditugu. Normalean maila bereko izenondoak izaten dira eta, horregatik, izenekin egin dugun bezala, izenondo *kopulatiobotzat* jo daitezke (askotan kolore izenondoak dira): *txuri-urdin, gazi-geza, hori-beltz*, e.a.:

- (42) aurtan ere *txuri-urdinak* izan dira txapeldun

5.1.3. Izenondoak juntaduran

Zenbait izen sintagmatan izen bat baino gehiago aurki daitezke, juntagaiu baten bidez koordinatuak eta lotuak. Halakoetan, izenondoa bi izenekin loturik ageri den arren, singularrean joan daiteke, izen hori abstraktoa denean:

- (43) haren kezka eta haserre *handia*

Baina ez beti:

- (44) arazo eta buruhauste *larriak*

Izena zenbakarria denean pluralean ikusiko dugu:

(45) laranja eta sagar *ustelak*

5.1.4. Partizipioa eta izenondoa

• Partizipioa, berez, aditz-adjektibo bat besterik ez da eta horregatik gainerako adjektiboen jokabide berbera du. Lexikalizaturik dagoenean izenondoeen tokian ikusiko dugu:

(46) haur *ongi ikasiek* ez dute horrelakorik esaten

Sarako plazan bada izkribu bat (ortografia egokitu da) honela dioena:

(46') bere seme gudan hilei, Sarak.

Izenlagun gisa ere agertzen ahal da:

(47) *ongi ikasi* haur batzuk etorri dira

Horrela esaten da ekialdean, mendebalean izenlagunaren marka morfologikoa gaineratzea nahiago delarik:

(48) *ongi ikasitako* haur batzuk

Mendebalean, eta ekialdeko zenbait autoreren artean ere, tradizio handia du honako honetxe ere:

(49) *ongi ikasiriko* haur batzuk

Partizipioa izenondo bezala jartzen dugunean, izena eta mugatzailearen artean, bestelako izenondoen egitura bera erakutsiko digu izen sintagmak:

(50) pertsona *nekatuaren* itxura du Andonik

(51) pertsona *onaren* itxura du Andonik

Horregatik, hain zuzen, partizipioa izenondo den aldetik predikatu gisa ere agertzen ahal da, dagokion izen sintagmarekin komunizadura eginez:

(52) lagun hori *nekatua* da

(53) lagun horiek *nekatuak* dira

• Kontura gaitzen, dena dela, partizipioa predikatu osagarrian ageri denean, beste bi esapideek ere izan dezaketela hor leku: *nekatuak* eta *nekatuta* bezalakoan itxura hartzen duten esapideek. Zein dugu, orduan, hiruren (*nekatua*, *nekatuak*, *nekatuta*) arteko desberdintasuna? Hitz gutxitan esateko, lehenbizikoa izenondoa baldin bada, beste biak aditzondoak dira eta, aditzondo diren aldetik, ez dute inolako aldateta morfologiko ez komunizaturarik onartzen. Adberbioak direnez, izen sintagmatik kanpo agertzen zaizkigu, beste adberbioak agertzen diren tokian alegia:

(54) lagun hori *ongi* dago

(55) lagun horiek *ongi* daude

(56) lagun hori *nekatuak* dago

(57) lagun horiek *nekatuak* daude

(58) lagun hori *nekatuta* dago

(59) lagun horiek *nekatuta* daude (**nekatutak*)

Beraz, distribuzioaren aldetik hiru esapideak parean ikusiko ditugu maila honetan (izenondoa predikatu osagarrian eta aditzondoak aditzondoan tokian). *Ikusita* bezalako formek *ikusita ondoan* adierazi nahi dute anitzetan (nahiz ez beti) eta *ikusita* eta itzuliaren balioa dute.

Hala ere, izen sintagmara eraman nahi baldin baditugu, jakina da izenondoak bakarrik, eta ez aditzondoak, aurki dezakeela lekua izen sintagmaren barnean:

- (60) pertsona *nekatuaren* itxura du horrek
- (61) *pertsona *nekanuaren* itxura du horrek
- (62) *langile *zapalduaren* arazoak

Hor agertzekotan, aditzondoak *-ko* marka hartu behar du, izenaren loturak segurtatuko dituenak, gainerako aditzondoekin gertatzen den bezal bezala:

- (63) zuk *erositako* autoa
- (64) zuk *erosiriko* autoa

Horixe izango litzateke, hortaz, hiru esapideen artean dagoen oinarritzko diferentzia: hirurak predikatu osagarrian ager daitezkeen arren, bik bakarrik dute aditzondo kutsua, bestea izenondoa baita.

• Esan dezagun, azkenik, partizipioak batzuetan izen ere bihur daitezkeela, eta ez bakarrik izenondo:

- (65) aitonaren *esanak* dira horiek
- (66) zure lanaren *ekarria* aski eskasa da

5.2. Izenondoa predikatu osagarrian

• Predikatu osagarria honela defini dezakegu: loturazko aditz baten bidez perpausaren subjektuari (edo beste izen sintagma bati, objektuari, esate baterako) lotua ageri den adjektibo sintagma nahiz izen sintagmak osatzen du predikatu osagarria:

- (67) liburu hori *oso ederra* da
- (68) etxeak *oso garestiak* dira

(69) parlamentari hori *Lehendakari* izendatu dute

(70) Joxepa *neskame* joan zen

Azkeneko bietari, predikatu osagarrian dagoena ez da izenondoa, baizik izen sintagma mugagabea. Izen sintagma honen zeregina da, ikusten denez, beste sintagma bati buruz zerbait predikatzea.

• Predikatu osagarria adjektibo batek osatzen baldin badu, adjektibo hau izenondoa nahiz izenlaguna izan daiteke:

(71) liburu horiek *garestiak* dira

(72) aldare hori *zilarrezkoa* da

• Predikatu osagarria eta izen sintagmaren arteko lotura aditz baten bitartez egiten da eta anitzetan aditz honek agintzen du predikatu osagarria bera mugatua ala mugagabea izanen den. Mugatzailea (beti artikulua) noiz jarri behar den zehaztea gauza erraza ez den arren, badirudi zenbait aditzekin bederen normalean predikatu osagarria mugatzailearik gabe ageriko zaigula, batez ere predikatu hori izen batek edo izen sintagma batek osatzen badu. Hori gertatzen da, adibidez, *joan*, *egon*, *bihurtu* eta *hartu* aditzekin:

(73) ura *ardo* bihurtu zen

(74) Andoni *irakaste* dago

(75) Peru *artzain* joan da

(76) *semeizai* hartu dute Koldo

• Lotura aditza *izan* baldin bada adjektibo sintagman normalean artikuluekin mugatua izanen da, komunizadura eginez beti:

(77) aita *ona* da

(78) gurasoak *onak* dira

Adjektibo sintagma partizipio batek osatzen baldin badu, ezinbestekoa da mugatzailca:

(79) liburu hori *ongi idatzia* da

Hain zuzen ere, anitzetan, artikuluari esker markatzen dugu predikatu osagarria:

(80) *hil* da ≠ *hila* da

(81) *bete* da ≠ *betea* da

Ondoko izuli hauek ere (pasiboak eta antipasiboak deitu ohi zaie. Ikus 1. kapitulua) hemen sartu beharko genituzke:

(82) liburu horiek *aitonak erosiak* dira

(83) ni *herri diferente asko ikusia* naiz

Alegia, *aitonak erosiak* kateak, kasu batean eta *herri diferente asko ikusia* hitz hurrenkerak, bestean, osatzen dute predikatu osagarria.

Oro har, lotura aditza *izan* dencan osagarri predikatiboa izen edo izen sintagma batek ere osa dezake:

(84) Andoni *gure irakastea* da

Baina izen horrek zerbait orokorra adierazten badu, nolabaiteko adjektibo modura edo, interpreta daitekeena, nahiz eta berez izena izan, orduan zilegi da mugatzailerik gabe ematea osagarri predikatibo hori:

(85) Andoni *irakaste(a)* da

(86) ni naiz *lekuko*, eta nerau *epaile*

(87) ez nekien *bekatu* zela

Beste batzuetan ere aurkitzen dira mugatzailerik gabeko izenondoak:

(88) *zoriontsu zara?*

Badira zenbait izenondo predikatu osagarrian bakarrik agertzen zaizkigunak, inoiz ere ez sintagma baten barnean (*gai, gauza, zilegi, komeni, ados*, e.a.), nahiz hauetako zenbait izenizat ere jo daitezkeen:

(89) ni ez naiz *gai* zuk diozuna ulertzeko

(90) *ados* ginen gure asmoetan

Zuzenago eta egokiago litzateke, agian, *gai izan, gauza izan* "aditzez" mintzatzea.

Izenondo modura erabiltzen ditugu izen batzuk (*beldur, gose, egarri, haserre, ahalke, bero, izerdi, lotsa, ikara*, e.a.) zenbaitetan, esapide hauek sortuz:

(91) nire txakurra *gose* zen (= *goseak zegoen*)

(92) *haserre* da gure mutila

Hauek ez dute mugatzailerik onartzen.

Zenbait kasutan adjektibo sintagma hori perpaus txertatu bati dagokio. Hori gertatzen da *on, hobe, zail, gaitz, harrigarri* eta hauen antzeko izenondoei dagokien predikatu osagarriarekin. Haurtan forma mugatuak ere erabiltzen dira, mugagabeko forma hauek hizkera landuaren kutsua dutelarik:

(93) *on* da eskolatzea

(94) *harrigarri* da zein nekez ikasten duten batzuek

Esan bezala *ona* eta *harrigarria* ere esan daiteke hor.

Izenondoak maila adberbioren bat duenean eta batez ere *-ago* edo *-egi* hartzen duenean, joera handia dago mugatzailerik gabe jartzekoa, nahiz hemen ere bictara, hau da, mugatzailearekin ala gabe, joan daitekeen:

- (95) etxe hau handia da, baina beste hura *handiago(a)*
(96) etxe hori *handiegia(a)* da zuretzat

Superlatiboarekin, ordea, normalean mugatzailea behar dugu:

- (97) nik ikusi artzainetan zu zara *ederrrena*

Hortaz, mugatu-mugagabe auzi honetan ez dirudi arau zehatzik eman daitekeenik. Gehienez ere, jocratz hitz egin daiteke eta joera hauetan argi dago, aipatu diren zenbait kasu kanpoan ulziz gero, normalean *izanekin* mugatzailea hartzen duela predikatu osagarriak. Izenlagunaz osaturiko predikatu osagarrietan, zer esan ez, beharrezkoa da artikulua:

- (98) mahai hori *zurezkoa* da

• Lotura aditza, *izan* aditzaren ordez beste bat dugunean, errazago aurkituko ditugu predikatu osagarri mugagabeak. Ez hori bakarrik: lotura aditz horrek zenbat eta eduki semantiko handiago izan, hainbat errazago aurkituko dugu adjektiboa mugatzailerik gabe:

- (99) Edume *dotore* dabil
(100) Edume *dotore* datorkigu gaur

Ohart gaitezten, gainera, azkeneko kasu horietan nekez aizematen dugula *dotore* hori adjektibo ala adberbio den. Horrela, mugatzailea agertzea edo ez, berriz ere ikusten dugu gauza bera ondoko adibideotan (*izan* aditzak mugatzailea behar du. Aldiz, *bihurtu* aditzak, aditz hau lotura aditza denean jakina, nahiago ditu sintagma mugagabeak):

- (101) Hau *ardoa* da

(102) Ura *ardo* bihurtu zuen

Dena dela, predikatu osagarria subjektura ez den izen sintagma bati dagokionean, mugatzailea behar dugula dirudi:

(103) begiak *ederrak* dituzu

• Zenbait kasutan berez izenondo liratekecnak aditzondo funtzio garbiarekin agertzen zaizkigu, batzuetan *-ik* partitibo-atzizkia hartzen dutela eta bestetan, berriz, inolako atzizkirik gabe:

(104) Miren oso *pozik* dago gaur

(105) *luze* mintzatu zen

(106) *zintzo* jokatu duzu oraingoan

Hor, ikusten denez, "denbora luzean" mintzatu zela edo "modu zintzoan" jokatu duela adierazi nahi dugu, edozein aditzondok beteko lukeen funtzio berbera betetzen dutelarik oraingoan jatorrizko izenondo hauek. Zer esanik ez, aditzondoan atzizkia erantsiz gero izenondoari, ez da inolako zalantzarik gelditzen aditzondo baten aurrean gaudela onartzeko:

(107) *gogorki* ongi bizi da

(108) *huzaro* mintzatu da

• Bada, izenondoan artean, aipamen berezia merezi duen bat: *huts* izenondoa, hain zuzen. Eta aipagarria da gainerako izenondoek ez bezalako ezaugarriak dituelako. Esan dezagun, hasteko, besteen toki berean ager daitekeela, hau da, besteek duten distribuzio bera izan dezakeela:

(109) kafe *hutsa* eskatu du

(110) kafe *ona* eskatu dugu

Kontua da, ordea, beste izenondoak kalifikatzeko ere erabiltzen ahal dugula, beste maila adberbioekin gertatzen den gisan:

(111) on *hutsa* da neska hori

(112) *oso* ona da neska hori

Horrelako itzuliak adjektibo predikatiboen erabiltzen ditugu, superlatibo mota berezi bat sortuz horrela. Hori dela eta, ezingo dute *huts* aditzondo honek kalifikaturiko izenondoek determinatzaile zenbatzailerik onartu. Erkatu, bestela, ondoko bi adibideok:

(113) *neska on *huts bat* ezagutu dut

(114) **oso* neska on *bat* ezagutzen dut

Esan dezagun, azkenik, *huts* dela aditz izeneko perpausok eraman dezaketen ta izenondo bakarra (nahiz *soil* ere onartzen duten batzuetan):

(115) zu *ikuste hutsak* ikaragarritzko poza eman dit

• Predikatu osagarriaren barnean izenondoaren zenbait osagarri agertzen ahal dira, izenondoaren esanahia nolabaitere zehaztuz. Gainera, zenbait izenondok beti nahi izaten du alboan osagarri bat: *gai*, *pare*, e.a.

Osagarri hori perpaus osoa izan daiteke, aditz jokatu gabeko perpausa, hain zuzen. Normalean *-ko* atzizkiarekin agertuko zaigu, baina inesiboan eta instrumentalean ere joan daiteke:

(116) edozein lan egiteko *trebe* da gizon hori

(117) porretxiko guztiak ez dira *jateko onak* izaten

(118) liburu hori *ulertzen zail(a)* da

Ez da nahitanahiezkoa perpausa izatea izenondoaren osagarria, bestelako izen sintagma bat ere izan baitaiteke:

- (119) *elizari hurbil dago Joxeren etxea*
(120) *diruz aberats baina osasunez behartsu*

5.3. *bera* eta *berdin*

• Lehenago esan dugun moduan *berau*, *berori* eta *bera* normalcan determinatzaile gisa hartuak izan dira (erakusle indartutzat alegia). Baina badirudi gauzak ez direla hala. Esan dezagun, hasteko, hitz horietan bi zati bereiz daitezkeela, biak elkarturik idazten ditugun arren: *ber-au*, *ber-ori*, *ber-a*. Ongi ikusten da *ber* hori loturik ageri dela batzuetan lehen eta bigarren graduko erakusleekin eta artikularekin bestetan. Eta erabileraren aldetik bere autonomia duela (mugatua, hori bai) esan daiteke. Nolanahi ere, hiztun askok *bera* delakoa osagai bakartzat hartzen duenez (guztiz lexikalizaturik balego bezala), aipua ere *bera* bezala egingo ditugu, ez *ber* bakarrik kontuan hartuz.

Askotan *bera* (eta gauza *bera* esan liteke *berau* eta *berori* elementuez) izenordaintzat jo daiteke, esan den moduan:

- (121) *dondariak esan du berak erosi duela*

Izenordaina ez denean, berriz, honelako sintagmetan ageri da:

- (122) *etxe bera*
(123) *etxe ber bat*
(124) *adibide bertsua*

Hor izenondotzat har daiteke. Ez da izenondo arrunta, baina izenondoen tokian ageri da, izenaren eta mugatzailearen artean, betiere beste izenondo guztien ondoren eta beti mugatzailea behar duela (*herri txiki berean bizi gara*). Artikuluarekin, erakusleekin, *bat* zenbatzailearekin edo *-tsu* atzizkiarekin batera agertzen ahal da. Gainerako edozein izenondorekin gertatzen den moduan, errepikatutik ere eman dezakegu:

- (125) adibide *berbera*
(126) adibide *txiki-txikia*

Batzuetan izenaren ezkerrean agertzen da, izenlaguntzat hartzen delarik orduan:

- (127) *ber* gizona

Aposizioan ere agertzen zaigu *bera* hori komunzki:

- (128) [Lehendakariak] [*berak*] esan du hori

Oso arruntak ditugu beste era honetako aposizioak ere:

- (129) gizon horrek *berak* ekarri du
(130) neska kaxkor honek *berak* egin dezake

Kasu horietan *gizon horrek berorrek* eta *neska kaxkor honek beronek* bezalakoak ere erabiltzen dira, batez ere errejistro idatzian. Aposizioan ageri denean bi sintagma ditugu (horregatik hartzen du bakoitzak bere kasu marka) eta horrenbestez bakoitzak bere bidexa har dezake:

- (131) [horixe] [*ber(ber)a*] esan nion nik ere
(132) [hantze] [*berbertan*] zerraldo jausi zen

Leku kasuetan (hots, *-n*, *-ra*, *-tik* kasu marka hartzen duten izen sintagmekin nahiz leku adberbioekin) *bera* beste izen sintagma batenkin oposizioan doanean *berean* (*berera*, *beretik*) erabiltzen da ekialdeko euskalkietan eta *bertan* (*bertatik*, *bertara*), berriaz, mendebalekoetan. Azkeneko hauek, gainera, aditzondo gisa ere erabiltzen ahal dira *berak* bakarrik:

- (133) han *bertan* bizi da
(134) *bertan* bizi da

(135) han *berean* bizi da

(136) **berean* bizi da

• Hiztun askok nahasi egiten dituzte *bera* eta *berdin* izenondoak. Ikus dezagun zein den bien aneko aldea adibide hauek erabiliz:

(137) afaltzera joan nintzen soineko *berarekin* etorriko naiz gaur ere

(138) zure alabak eta nereak soineko *berdinak* dituzte

Argi dago bi adibide hauek egoera desberdinak erakusten dizkigutela: lehenbizikoan soineko bakar batez ari gara, eta bigarrenean bi soineko aipalzen ditugu. Horrenbestez, *bera* elementuak izaki bat bakarraren erreferentzia erakusten digu, aldez aurretik aipatu dugun zerbaitena alegia. Aldiz, *berdin* izenondoa erabiltzeko bi gauza behar ditugu, biak berdinak direlarik. Esan daiteke hiztun anitzen erabilera bigarren honek hartu duela lehenbizikoaren lekua ere, horrelakoak maiz entzuten baitira:

(139) **kale berdinean* bizi gara

Ez dirudi oso zuzen dagoenik hori: hain zuzen ere, *kale* bakar batez ari bagara, hor *bera* behar dugu, eta ez *berdin*. Eta bi *kale* baldin badira, berriz, eta biak berdinak, orduan *berdin* behar dugu, baina pluralean (*berdinetan*). Hori dela eta, bi *esari*hi desberdin dute ondoko adibideok:

(140) plater *beretik* jango dugu (plater bat)

(141) plater *berdinetatik* jango dugu (plater bi)

• Morfema hau erabiltzen dugu forma klixetu batzuetan ere: *halaber*, *beraz* (bi perpaus lotzeko balio duen tokailu ilatiboa), *berez* (beste ezereen laguntzarik gabe erabilia), *norbera*, e.a.

5.4. Kategori aldaketak

• Euskarak erraztasun handia erakusten du oinarrian kategorია jakin batean sailkatuko genukeen hitza, nolakoa den testuingurua, beste kategoría batean agertzeko. Esanik dago batzuetan ez dakigula ongi izenondo ala aditzondo baten aurrean gauden. Beste batzuetan, berriz, *gose*, *bero*, *hotz* eta hauen antzeko hitzak izenondo nahiz izen izan daitezke. Testuinguruak argituko du kontua aldi bakoitzean:

(142) Ur *hotzak* freskatu egiten du bat

(143) *Hotzak* garbituko gaitu

Ikusten denez, batean izenondo eta izen bigarreanean. Izenondoak maiz kara bihurtzen ditugu izen, batez ere joskera literarioan:

(144) Sagardoaren *gozoa*

(145) nekearen *handia*

• Badira, hala ere, alderantzizko prozesuak. Horrela, zenbait esapidetan izenondo bihurturiko izenak aurkitzen dira:

(146) *adin* gara

Esapide hori erabilzen dugu adin bera dugula adierazteko. Zerbait gisaz, maizago aurkitzen dira metafora moduan erabilitako izenak (*hortaz*, izenondo gisa ageri direnak):

(147) pertsona *oiloa*

(148) pertsona *zorria*

(149) emazte *zilar* hori

Zerbait esapidetan bi izen aurki daitezke hurrenkeran, biak izenondo bezala erabiliak:

(150) *deabru astoa!*

Esapide hauek guztiak ahozko hizkeran errazago aurkitzen ditugu, erregistro idatzian baino.

5.5. Izenondoaren mailakatzea

Gauza batzuk beste batzuekin konparatzen dituguncan fiabardurak sartzeko aukera izaten dugu. Horrela, zerbait polita edo itsusia dela baldin bada kigu ere, beharrezkoa suertatzen zaigu sarritan *polit* hori nolakoa den zehaztea, *oso polita*, *polit-polita*, *politena*, e.a. dela adieraziz. Honek esan nahi du izenondoak, horrela, huts hutsean eman beharrean, mailakatuz ematen ditugula anitzetan. Eta hori izenondo guztiekin (*begibakar* delakoarekin izan ezik) gerta daitekeen zerbait da. Izenondoan mailakatzea marka fonetikoak, marka morfologikoak eta maila adberbioak erabiliz egiten da.

5.5.1. Marka fonetikoak

Marka fonetikoak, gehien bat, hizkera mintzatuari dagozkio eta normalean ez dute lekurik testu idatzietan (non eta literaturako testu batek hizkera bizia ahalik eta modu zuzenean isladatu nahi ez duen). Hiru dira hemen erabiltzen ditugun markak.

Sarritan fiabardura ezarri nahi dugun hitzaren tokian tokiko azentua (azentua ez baita Euskal Herriko xokoetan guztietan berdina) aldarazten dugu, aldi berean silabaren bokala luzatuz:

(151) *jáaatorra zen mutikoa*

Beste batzuetan bustiduraz baliatzen gara, izenondoaren kontsonanteak sabaikari bihurtuz:

(152) *xoxoa da arras!*

Izenondoekin eztigari gisa erabiltzen da bustidura, ikusten denez, eta ez goi maila edo adierazteko. Dena den, euskalkien arabera, hitz hauetako batzuek beren autonomia hartu dute palatalizatu ondoren eta hiztunak ez ditu sentitzen beste hitzen forma bezala: anitzenizat, *zuhur* ez da *zuhur*-en aldaera, *zuzenean zekera* adierazi nahi duen zerbait baizik.

Izenondoari halako pisu berezia eman nahi diogunean, kontsonantecak ere nabarmentzen ditugu zenbaitetan:

(153) gizon *harrroa* da gero!

Baliabide hauek guztiak beste batzuekin batera ematen ditugu, nahastean, behin baino gehiagotan:

(154) goxo-goxoa

(155) biziki luxea

5.5.2. Marka morfologikoak

Morfologiari dagokionez, izenondoa mailakatzeko erabiltzen ditugun bide nagusiak bi dira: atzizki jakin batzuk jarzea eta izenondoa errepikatzea.

• Atzizki nagusiak hauek dira: *-sko*, *-xko*, *-ska*, *-xka*.

(156) beransko (pixka bat berant)

(157) gazteko (pixka bat gazteogia)

(158) ilunsko (pixka bat ilun)

Beste atzizki bat ere, *-xe* alegia, konparaziozkoetan erabiltzen da gehienik, nahiz partuzipio eta izenondokien ere (azken hauekin gutxiago) ez den arrotza:

(159) beste hau handixeago duzu

Goi maila adierazteko *-tzar* erabiltzen da (bizkaieraz eta gipuzkeraz bereziki). Azkuek dioenez, gehienetan izenekin agertzen da, baina izenondoeekin ere joan daiteke: *handitzar*. Atziki honek alderdi negaiboa erakusten digu, antza.

Badira bestelako atzizkiak ere: *-txo* eta *-to*, adibidez:

(160) neskaitila beltzarantxo bat ikusi genuen

Koloreekin *-ats*, *-ail* eta bezalakoak ikusten ahal dira (*-tsu* ere hor dugu baina hau ez da literatur tradizioan gehiegi erabiltzen kolore kontuekin):

(161) gorrats, gortail,

• Izenondoa errepikatuz (euskarak beste kategorietako hitzekin ere erabiltzen du baliabide hau) balio neutro hori aldatuak suertatzen da:

(162) *polit-polita* da etxe hari

(163) *gorri-gorriak* dira etxean ditugun loreak

Izenondoak adierazi duen kualitatea goren mailan jartzen dugu, *guztiz*, *txit*, *oso* eta antzeko maila aditzondoez hornitutako izenondoeekin egiten dugunean bezala.

Euskaltzaindiaren gomendioen arabera *gorri-gorri* bezalako bikoiztapen indargarriak, lehen osagaia deklinabide atzizkirik gabe duenak alegia, marrazkoarekin idatzi beharrekoak dira: (*hitzaldi*) *luze-luzea*, (*egun*) *argi-argia*, (*euskaldun*) *garbi-garbia*, (*bazkari hau*) *arin-arina* (*da*), e.a.

5.6. Izenondoa, maila aditzondoak eta konparazioak

Aipatu ditugun bide horien aldean, badirudi askoz ere usuago erabiltzen ditugula bestelakoak, oraintxe aipatuko ditugunak hain zuzen ere. Horrexegatik jarri ditugu besteeetatik bereiz. Benetako mailakatzeara hemen hasten dela esan daiteke.

5.6.1. Maila aditzondoak

• Goi maila adierazteko hainbat maila aditzondo erabiltzen dugu. Hona hemen batzuk: *oso*, *guztiz*, *biziki*, *txit*, *arrunt*, *arras*, *erabat*, *zeharo*, *gogorki*, *itsuski*, *ainitz*, *franko*, *lar*, *sobera*, e.a. Elementu hauek izenondoaren ezkerrean kokatzen dira:

(166) neska hura *oso* polita da

(167) *erabat* aspertuak gaude

Gerta liteke, hala ere, maila aditzondo hauetako batzuk izen sintagmaren barnean ere agertzea. Horrelakoetan, bi joera ditu hiztunak: mailakatzaileraren izenaren eta izenondoaren artean jartzea edo izenaren ezkerrean uztea, ondoko bi adibideetan ikusten den bezala:

(168) *oso* arazo larriak ditu aurten

(169) arazo *oso* larriak ditu aurten

Maila aditzondo hauek guztiek ez dute, ordea, zeharo banaketa bera, baina euskalkien araberako erabilera desberdinagatik *oso* zaila gertatzen da gauzak xheki azaltzea (ikus, hala nahi izanez gero *EGLU-I* liburuan ematen diren azalpenak).

Asko-rekin gauzak ez daude hain argi. Lapurretaz *aski*-ren balioa zuen (orain dela 200 urte arte), batzuetan izenondoaren eskuinaldean jarri eta ezkerrean, berriz, beste batzuetan, Gipuzkeraz eta bizkaieraz, aldiz, gaur egun arte erabiltzen da literaturan:

(170) bera baita bere baitan [eder *asko*]

(171) berak dira bere baitan [*asko* klar eta ozen]

Gipuzkeraz goi maila adierazten du, mugatzailea ere behar duelarik (ikus harridurazko esaldietan honetaz esan duguna):

(172) *alai askoa* zen gure mutila!

Ondo eta *ongi* ere maila aditzondo gisan erabiliak izaten dira:

(173) *ondo* gazterik hil zen gizarajoa!

(174) *ongi* tristea zen nobela hura!

• Nahikotasuna adierazteko honako elementu hauekuz balia gaitetzke: *nahiko* (edo *nahikoa*, biak aski berriak dira, orain dela chun eta hogei bat urtetik honakoak. Orobat *nahiko* gehixeago erabiltzen da, antza denez, eta *nahikoa* sortaldekoa da batz. ere), *aski*, *dexente*, *samar*, e.a. Gehienak zenbatzailcak dira, ikusten denez, *samar* multzo honetan bereizten delarik, hau ez baita zenbatzailea. Izenondoaren eskuinean jartzen dugu:

(175) lan zail *samarra* eman dizute

Maila aditzondo honen eta *nahiko*-ren esanahia ez da berdin berdina, azkenekoa bestea baino positiboago dela baitirudi (erkatzen baditugu, esaterako, "zer moduz egin duzu lo?" galderari eman lekizkiokeen bi crantzunak: "nahiko ongi" eta "ongi samar", lehenbizikoa bestea baino positiboagoa dela ohartzen gara).

Nahiko eta *aski* baliokideak dira, antza denez, eta izenondoaren ezkerrean agertzen dira:

(176) *nahiko* neska polita aurkitu du gure Joxek

(177) *aski* aberatsak dira Peruren gurasoak

Dena dela, zenbait esapidetan *aski* eta *asko* aditzondoaren eskuinaldean kokatzen ditugu, *segur aski* eta *segur asko* esapideetan gertatzen den moduan.

- Ezezko predikazioetan ukapen osoa egiteko *batere* erabiltzen dugu:

(178) etxe hau ez da *batere* polita

5.6.2. Konparazioak

Orain arte ikusi ditugun adibide guztietan izenondoaren maila bere horretan adierazten dugu, beste deusekin konparatu gabe. Hala ere, konparazioak egiteak bide berriak urratzen ditu eta aukera eman beste mola bateko mailakatzekak egiteko orduan. Hemen, perpaus bakunaren eremuan gabiltzanez gero, ez ditugu puntu larrienak baizik aipatuko. Konparazioaren bidezko mailakatzeari izenondoari zenbait atzizki berezi erantsiz eskuratu dugu.

• *Superlatibo erlatiboa* osatzeko, adibidez, *-en* atzizkia erabiltzen dugu. Superlatibo honen bidez zerbaiten kalitate gorentasuna azpimarratzen dugu, beti ere beste zerbaitekin konparatuz eta haren alboan jarriz. Horrenbestez, *oso polita* diogunean politasunaren goi maila adierazten dugun bezala, *politena* diogunean, zenbait gauza elkarren artean konparatu ondoren bat nabarmentzen dela adierazi nahi izaten dugu. Beraz, superlatiboa lortzeko aski dugu izenondoari *-en* erantsia:

(179) handi -----> handien

(180) erraz -----> errazen

Izenondo guztiekin berdin gertatzen da. Badira, zernahi gisaz, bi salbuespon. Atzizki hau *asko* zenbatzaileari ere erants dakioke eta honek ez du *askoen* egiten, baizik *gehien* (esan dezagun, bide batez, *gehien* hau erabiltzen dela ekialdean -batez ere zubercraz eta behenafarreraz,

Leizarragak ere erabiltzen duen arren- *nagusi*ena adierazteko: *hau dut seme gehiena, Biarnoko andre gehiena, Paueko korie gehiena, etxeko gehiena, bertute gehienak*, e.a.). Bestetik, *on* izenondoaren superlatiboak *onena* eta *hoberena* dira: bigarren hau ekialdekoa eta Nafarroakoa da, gero beste euskalkietara hedatu dena XIX. mendearen hasieratik. *Onena*, ostera, ez da Bizkaia eta Gipuzkoatik atera.

Ikusten den moduan, *-en* atzizkia hartzen duten izenondoek mugatzailea eskatzen dute normalean. Esan dezagun, bide batez, *hurrena, lehena, aurrena, azkena*, e.a. ere, formaz eta jatorriz, superlatibo mota honetakoak diratekeela.

Gainerako izenondoak bezalaxe, superlatibo erlatiboan jartzen ditugun izenondoak izen batekin agertzen dira. Izena absolutiboan nahiz partitiboan agertzen da orduan:

- (181) liburu *politena* erosi dute
- (182) mutil *galantena* egingo du hori
- (183) liburu*rik politena* erosi dute
- (184) mutil*ik galantena* egingo du hori

Badirudi horrelako kasuetan "liburuen arteko" edo "mutilen multzoen arteko" *politena* eta *galantena* nabarmendu nahi ditugula. Multzo batean egiten den aukera seinatu nahi delarik, hara zein den bideetako bat (horregatik deitzen dugu *erlatibo*, multzo bati buruz ari baikara).

Ez da hau, ordea, bide bakarra:

- (185) liburu*etan politena*
- (186) liburu*etatik politena*
- (187) liburu*etarik politena*

Adibideetan ikusi denez, dena dela, ez da beharrezkoa inolako kasu markarik ezartzea izenari eta absolutuiboan ederki aski ager daiteke. Esan dezagun, gainera, ahaide izenekin ez dela partitiborik erabiltzen:

(188) seme zaharrena soldadu joan zaie

Superlatibo hau beti positiboa da eta baiezkorra. Alegia, normalcan "neska politena"-ren ondoan ez dugu "neska gutxien politena" edo halako zerbait. Horrelakoetan, *polit*-en antonimora jo behar izaten dugu: "neska *itsusiena*". Hala ere, zientziaren zenbait alorretan badirudi *beroena*-ren parean *gutxiarik beroa* edo horrelako izuliren baten beharra sentitzen dela, azkeneko hori agian ez baita, erregistro berezi batcan, *hotzena*-ren pareko. Herriko hizkeran ere entzuten dira noizbehinka halakoak: "ixuleta hau duzu gutxien egina" (baina hemen *egina* aditza daiteke).

Esan dezagun, azkenik, *-en* formako superlatiboa agertzen zaigula zenbait esapidetan:

(189) *ahalik eta sagarrak handiena* hartu

(190) *ahalbait arinen* etor zaite

• *Izenondo konparatiboak*, ostera, *-ago* atzizkiaren bidez egiten ditugu. Kasu honetan, bi elementu jartzen ditugu erlazioan, bat besteari baino maila goragokoa emanez. Orduan, izenondo hori konparatibotzat hartzen dugu:

(191) etxe hau beste hura baino *ederragoa* da

Edozein izenondok har dezake *-ago* atzizkia konparatibo bihurtuz:

(192) handi ----> handiago

(193) gorri ----> gorriago

Lehen ikusi dugun moduan, *asko* zenbatzailea eta *on* izenondoa salbuespentzat jo behar ditugu, batek *gehiago* (edo *haboro* NB eta Zubereraz) eta besteak *hobe*, egiten baitute.

Gaizki aditzondoak ere *gaizkiago* egiten du (eta *okerrago* ere). Atziki hau hartzen duen izenondoak mugatzailea ere hartzen du normalean, baina predikatu osagarria denean mugatzaile hori aukerazko bihurtzen da, ondoko adibideetan ikusten den moduan (ikus hemen predikatu osagarriaz esan duguna):

(194) etxe *handiagoa* behar dut

(195) etxe hori *handiago(a)* da

Atziki hau konparatiboa denez gero, *-ago* hartzen duen izenondoa beste zerbaitekin konparatuko dugu. Beste zerbait hori isilean egon daiteke, testuinguruak aski informazio ematen baldin badigu:

(196) oso ongi bizi naiz, baina etxe *handiagoa* nahi nuke

Beste batzuetan, ordea, agerian utzi nahi izaten dugu. Kasu honetan *baino* erantsi behar zaio beste elementu horri (izen sintagma normalean):

(197) [orain dudan etxea] *baino* handiagoa nahi nuke

(198) herri hori [gure txermitagia] *baino* zikinagoa da

Egiten dugun konparazio honek, hala ere, *mailak* har ditzake. Horrela, batzuetan ez da aski izaten "A baino handiagoa dela B" esatea eta zenbat handiago den zehaztu nahi izaten dugu. Diferentzia neurtzeko orduan *askoz* eta *anitez* bezalako instrumentalez baliatzen gara. Zenbait maila aditzondo ere erabiltzen dugu (*biziki*, *dexente*, *aise*, *piska bat*, e.a.):

(199) zu baino *biziki* handiagoa da

(200) zure autoa nirea baino *apur bat* luzeagoa da

Era berean gertatzen da denbora eta kantitatea adierazten duten aditzondoekin ere:

- (201) *bi ordu* beranduago etorri zen
- (202) *bi kilo* gehiago erosi beharra izan zuen

Diferentzia zenbaterainokoa den aditzera emateko ere instrumentala erabiltzen da zenbait euskalkitan gaur egungo hizkeran:

- (203) *buruaz* handiago zen Edurne senarra baino

Badira zenbait esapide *-ago*dun sintagma eskatzen dutenak. Haucen artean aipagarrienak hauek ditugu: *gero eta...-ago*; *geroago eta...-ago*; *beti eta...-ago*; *zenbat (eta)...-ago*, *hainbat (eta)...-ago*; *zenbat (eta) ...-ago*, *orduan (eta) ...-ago*; *zenbatenez...-ago*, *hainbatenez...-ago*; *zein baino zein...-ago*; *ezinago* izenondoa; izenondoa (nahiz aditzondoa) + *baino* izenondoa (aditzondoa) + *ago*; *are...-ago*, e.a. Eta hona hemen orain adibide batzuk:

- (204) *gero eta* politago da nobela hau
- (205) *geroago eta* diru gehiago jokatzen duzu
- (206) *geroago eta* liburu zailagoak idazten omen ditu
- (207) *zenbat (eta)* zaharrago, *hainbat (eta)* petralago
- (208) *zenbat (eta)* beranduago etorri, *gero (eta)* okerrago zuretzat
- (209) *zaharrago eta* txarrago
- (210) *zenbatenez* gosea handiago, *hainbatenez* janaria gozoago
- (211) *aldian baino aldi*an gaiztoago iruditzen zait gizon hori
- (212) neska horiek *zein baino zein* ederragoak dituz
- (213) *ezinago* ederra zen paraje hura
- (214) nobela *ezin* zailagoa idatzi du
- (215) *polita baino* politagoa zen neska hura
- (216) *urruti baino* urrutiago joan zen ontzia
- (217) hamaikak laurden gutxiagotan etorri zen

(218) etxe hori beste hura *baino handiago* da, baina eliza *are handiagoa*

Esan dezagun hemen ez direla nahasi behar *hobeto* (edo *hobeki*) eta *hobe*. Azkeneko hau izenondoa da, *on* izenondoari dagokion konparaziozko forma. Baina *ongi* edo *ondo* aditzondoci dagokien konparaziozko forma *hobeki* edo *hobeto* ditugu. Hortaz, *nola* galderari aditzondoaren bidez erantzungo diogu:

(219) hori *hobeto* esanda dago (eta ez **hobe*)

(220) *hobeto* esan (eta ez **hobe* esan)

Alderantziz, izenondoa konparatuz gero honako hau dugu:

(221) pilota hau bestea baino *hobea* da (ez *hobeagoa*)

Bestetik, esan dezagun hitzño bat *are* maila aditzondoa agertzen den egiturez. Hau erabiltzen da izenondoa, gradu positiboan, konparazio buruari badagokiola aurretik esan edo, bederen, ezagunizat ematen denean:

(222) Itziar zaharra da. Mikel, berriz, *are* zaharragoa

Egitura bera erabil daiteke izenondoa konparazio buruari erabat dagokiona izan zein izan ez, hirugarren bati baino gehiago bederen badagokionean:

(223) Mikel Itziar baino zaharragoa da. Andoni *are* zaharragoa

Egitura hauek, ikusten denez, konparatibo enfatikoak dira eta, hortaz, oinarri jakin bat behar dute konparazio buruan, handik "are gorago" jotzeko. Askotan, *oraindik* eta *oraino* ere erabil daitezke kasu hauetan (hauek, *are* ez bezala, lekuz alda daitezke ordea perpausaren barnean:

(224) Mikel Iziar baino zaharragoa da. Andoni, zaharragoa *oraindik*

Batzuetan izenondoa isildua dago, konparaketaren elementuak adierazten baitu. Orduan *-ago* atzizkia *are-ri* berari eranstean zaio:

(225) haurrak baino areago zaretu

Haurrak baino haurragoak zaretela adierazi nahi dugu hor, bistan denez. Bide beretik, *baino-ri* ere lotzen ahal diogu *-ago* atzizkia, izenondoa edo dena delakoa isilik utziz:

(226) ni *bainoago* den bat behar litzateke

Esan dezagun, bukatzeko, *-ago* atzizkia *-izendun* aditz osagaiari ere eranstean ahal diogula:

(227) desiratzenago du

(228) ikastenago dute

Era berean, *nahi*-ren parean ditugu *nahiago* eta *nahien* ere.

• Izenondoari *-egi* atzizkia atxikitzen diogunean, *gehiegizko maila*, adierazten dugu. Edozein izenondok har dezake *-egi* atzizkia:

(229) handi ----> handiegi

(230) txukun ----> txukunegi

Salbuespena *asko*-ren kasuan gertatzen da: *gehiegi*, *larregi* edo *sobera* egiten baititugu elkarren parean, euskalkien arabera:

(231) jantzi hau ederregia da zuretzat

(232) *sobera* jan duzue eguerdian

Sarritan *-egidun* izenondok *-tzeko* formako osagarri bat hartzen dute:

(233) *garestiegi* da besterik gabe erosteko

Predikatu osagarrian ez da, nolana ere, hain beharrezko izaten arikulua jarztea:

(234) *berritsuegi* da langile ona izateko

Bizkaieraz *larregi* erabiltzen da *gehiegi*-ren ordean eta *lar* bera ere mailakatzailerik gisa (*-egi*-ren esanahia duela, jakina):

(235) diru *larregi* irabazten du

(236) etxe *lar* handia erosi zuen

Ekialdeko euskalkietan, ostera, *sobera* da erabiltzen dena:

(237) etxe hori *sobera* handia da

5.6.3. Berdintasunezko konparazioa

Berdintasunezko konparaketa perpaus elkartuen bidez egiten dugu, perpaus hauek nolabait laburtuak agertzen zaizkigun arren. Berdintasuna honela adierazten dugu:

(238) Erromkari Baztan *bezain* ederra da

Ikusten denez, izenondoaren maila neutroa da, mailakatzailerik gabe emana, alegia. Baina oraingoan bi elementu edo bi izen sintagma ditugu konparatzen eta izenondoaren aurrean konparaburua den izen sintagmari *bezain* ezartzen diogu. Normalean, predikatu osagarrian jartzen ditugu era honetako egiturak:

(239) telebista hau [beste hori *bezain* garestia] da

Baina izen sintagmaren barnean ere ager dakizkiguke:

(240) [zu *bezain* neska polit gutxi] dira herri honetan

Konparatzen jartzen ditugun elementuetako bat askotan isilean geratzen da, testuinguruak edo identifikatzen baitu. Horrelakoetan *honen*, *horren* eta *hain* mailakatzailerak ezartzen ditugu (nahiz praktikan, azkenekoak beste biak baztertzten dituen arizetan):

(241) *hain* ederra bada, eros ezazu

5.7. Mailakatzea eta determinazioa

Izen sintagmaren baten barnean aurkitzen den izenondoak maila aditzondoren bat baldin badarama edo, eskuarki, maila adierazteko erabiltzen ditugun itzuli horietakoren bat baldin badarama, oso kontuan hartzekoak dira zenbait debeku eta traba.

• Izen sintagmak normalcan hartzen ahal duen determinatzailea *-a* (edo *-ak*, pluralcan) dugu:

(242) oso gizon petrala

• Honelako izen sintagmek nekez onartzen dituzte zenbatzaileak:

(243) *oso neska polit *bat* etorri zitzaigun

(244) *neska *oso* polit *asko* ikusi genituen hondartzan

Ez da dudarik horrelakoetan askoz ere egokiago gertatzen direla adibide horiek *-a* mugatzailea jarritz. Zenbatzailearen beharcan izanez gero, izen sintagma zatika daiteke, bi zatiak aposizioan utziz ("aposizioaren" kontu hau eztabaidagarria izan daiteke, zernahi gisaz,

sintagma hauek deklinabideko kasu markak hartzen dituztenean. Aposizio murrizgarria dela dirudi. Dena dela, hemen kasurik azpimarragarrienak bakarrik aipatuko ditugu):

(245) neska bat etorri zitzaigun, oso polita

(246) neska asko, oso politak, ikusi genituen hondartzan

• Era berean artikuluekin hobeki mugatuko ditugu izen sintagma hauek, erakusleekin baino:

(247) liburutegian zen libururik *handiena* (**handien hura*) hartu zuen

Hala ere, izena isilean utziz gero, erakuslea jartzen dugu, orduan ez dugularik beharrezkoa aposizioa erabiltzea, nahiz bide hau beti dagoen zabalik:

(248) mesedez, han dagoen *handien hura* har ezazu

Bestelako mailakatzailerak erabili nahi baditugu, argiago suertatzen da ezintasun hau:

(249) ?biziki liburu interesgarri hau gomendatzen dizut

5.8. Harridura perpausak eta izenondoak

Lehen esana dago *ondo* eta *asko* aditzondoak izenondoekin batean erabiltzen ditugula, harridura adierazten dugularik hala:

(250) *ondo* zapalduak bizi ginen orduan!

Izenondoak oso normalak dira harridurazko esapideetan eta askotan *zein*, *zer*, *nolako* edo *zelako* bezalako galdetzailerekin agertzen zaizkigu:

(251) *zein* polita den itsasoa!

Hor ikusten ahal dugunez, galdetzailak mailakatu egiten du nolabait ere izenondoa, "itsasoa oso polita da" edo halako zerbait esango bagenu bezala. *Zer* nahiz *zein* galdetzailak izenondoaren maila adierazten dute eta aditzari zehar galderaren *-en* atzizkia erantsi behar zaio. *Ze* bakarrik ere erabiltzen da batez ere ahozko hizkeran:

(252) *ze* polita den itsasoa!

(253) *ze* ordu da?

Zer horrek, honenbestez, hiru balio bereganatzen ditueta dirudi: galdetzailcarena ("zer ordu da?" bezalakoetan duguna); mailakatzailcarena ("zer polita den zerua!") eta izenondoekin izan beharrean izen sintagmaetan erabiltzen dugunarena ("zer etxeak egin dituzten hemen"). Azkeneko honek, jakina, *nolako*-ren balioa du. Egiatzko galdetzaila ez denez, izen sintagma mugaturik eskatzen du.

Ez dezagun ahaniz harridurazko perpaus hauetan *gaixo* izenondoa lekuz kanpo ematen dela Ekialdean (berezi):

(254) *gaixo* umea!

Beste batzuetan *ze* horren ordez bestelako osagaiak ere aurkitzen ditugu:

(255) *bai* polita dela itsasoa!

(256) *horixe* ederra zuk egin duzuna!

6. kapitulua:

ADJEKTIBO SINTAGMA: IZENLAGUNAK

6.0. Sarrera

• Izenlagunak dira izen sintagmaren muina den izenari laguntzeko erabiltzen ditugun bigarren mota osatzen duten adjektiboak. Adjektibo hauek *-en* edo *-ko* kasu markak dituzte eta izenaren ezkerreko partean paratzen ditugu:

- (1) herriko jaiak
- (2) Koldoren etxea

Ikusten denez, kasu markak erabiltzen ditugu hemen, baina adizlagunen kasuan ez bezala, oraingo honetan kasu marka honek bi izen jartzen ditu harremanetan edo, hobeki esan, izen bat beste batekin lotzen du atzizki horien bidez. Adizlagunen kasuan, ordea, izen sintagma hartzen duen atzizkiak izen sintagma horren eta aditzaren arteko erlazioak segurtatzen ditu:

- (3) [Koldoren etxea] ederra da

(4) Miren [senarrarekin dator]

Izenlagunak sortzeko erabiltzen ditugun atzizki horien artean dauden desberdintasunak argitzea ez da gauza erraza izaten batzuean eta ez dugu aise bereziko zein den erabili behar duguna aldi bakoitzean:

- (5) etxeko teilatua
- (6) etxearen teilatua
- (7) Euskaltzaindiaren bilkura
- (8) Euskaltzaindiko bilkura
- (9) Euskal Herriaren historia
- (10) Euskal Herriko historia
- (11) familiaren burua
- (12) familiako burua
- (13) alkatetzaren bandua
- (14) alkatetzako bandua
- (15) Estatuaren Kontseilua
- (16) Estatuko Kontseilua
- (17) Elizako Gurasoak
- (18) Elizaren Gurasoak (batzuen ustez "Elizaren guraso" bakarra Jesukristo da)
- (19) hirugarren artikulua 5. zenbakiaren bigarren paragrafoa
- (20) hirugarren artikuluko 5. zenbakiko bigarren paragrafoa

Honek baduke zerikusia munduaz jendeak egiten duen kontzeptualizazioarekin. Horrela, entitate bat biziduntzat edo hartzen bada (bizidunek -zentzurik zabalenean, jakina- -en besterik ez dute onarzen), badirudi halako parafraasiak egin litezkeela (nahiz eta kontuak ez dauden hemen batere argi eta parafraasi hauek ezin diren beti egin):

- (21) Euskal Herriak duen historia oso ezaguna da (= Euskal Herriaren historia oso ezaguna da)
- (22) Euskal Herrian gertatu den historia oso ezaguna da (= Euskal Herriko historia oso ezaguna da)

- (23) Euskaltzaindiak egin duen bilkura emankorra izan da (= Euskaltzaindiaren bilkura emankorra izan da)
- (24) Euskaltzaindian egin den bilkura emankorra izan da (= Euskaltzaindiko bilkura emankorra izan da)

Aukeran, naturalagoizat hartzen da bar besuea baino:

- (25) Bizkaiko hiriburua
- (26) Unibertsitateko Erretorea
- (27) herriko alkatea
- (28) Historiako Fakultatea
- (29) Elizako mandamenduak (*Elizaren mandamenduak* ere ageri da, baina ez du horrenbesteko maiztasunik)
- (30) penitentziako sakramentua (literaturan *ez* da agertzen *penitentziaren sakramenduak* bezalakorik)
- (31) etxeko nagusia
- (32) etxeko gizona
- (33) etxearen jabea

Zenbaitetan zalantza handiak gertatzen dira *-ko* edo *-en* jarri ala *ez* (batzuetan biak erabil daitezke, bestetan bai aukeratu behar da), batez ere hizkuntzaren erabilerak premia berriak sortzen dituenean:

- (34) euskarako irakaslea
- (35) euskararen irakaslea
- (36) euskarazko irakaslea
- (37) euskara irakaslea
- (38) euskal irakaslea
- (39) Historiako Fakultatea
- (40) Historia Fakultatea
- (41) Donostia-Gipuzkoako Kutxa
- (42) Donostia-Gipuzkoa Kutxa
- (43) Unamunoren Plaza
- (44) Unamuno Plaza

- (45) Santa Maria eliza
- (46) Santa Mariako eliza
- (47) Santa Mariaren eliza

Hor zalantzak sortzen dira: hizkuntzaren senak *Unamunoren Plaza* edo halako zerbait eskatuko lukeen arren (ez da esaten **Koldo etxea*), egia da halakoetan erregistro berri bat sortzen ari dela eta horrek ere bere baldintzak jartzten ditueta hizkuntzaren erabileran. Azkeneko adibideetan, berriz, badirudi *Santa Mariako eliza* eta halakoek tokia adierazten dutela batez ere (nahiz ez den gauza bera, *Garaziko herria*, *Pasaiaiko herria* eta halakoak esaten ditugun bezalatsu). Hala ere, ezin da hor euskara urrunegi joan eta adjektibo bat jarri bezain laster, atzizkiaren beharra du hizkuntzak:

- (48) Felipe Ederraren Plaza
- (49) *Felipe Ederra Plaza
- (50) Bavierako Luisen Etorbidea
- (51) *Bavierako Luis Etorbidea

Zenbaitetan, *-ko* edo *-en* hautatzen den, esanahia aldatu egiten da:

- (52) *Elizaren isiltasuna* ez da *elizako isiltasuna*

Elizako isiltasuna litzateke "elizan izaten den isiltasuna" eta *elizaren isiltasuna*, ostera, "elizak, erakunde bezala, duen isiltasuna".

Beste honetan ere argi ikusten da desberdintasuna (jakina, *-ko* hori ez da goikoak bezalakoa --horietako gehienek lekua adierazten dute eta adizlagunaren (normalcan inesiboaren) gainean eraikitzen dira-- baina ondoan datorrenak, ordea, "izena+izenondo" hartzen du oinarri):

- (53) birtute handiko predikaria
- (54) birtute handien predikaria

Oro har, badirudi *-ko* horrek azpian adizlagun bat duela gehienetan edo izen sintagmaren burua den izenaren nolabaiteko kualitatea adierazten (oinarria, hala ere, "izena", "izena+izenondo" eta "zenbatzailea + izena + (izenondoa)" izan daiteke: *iturako*, *neurri gaitzako*, *lau librako*). Beste atzizkiak, *-en-ek* alegia, beste era bateko erlazioa adierazten du: egilea-ekinza (*gizonaren lana*), objektua-ekinza (*etxearen erosketa*), parte-osa (*liburuaren azala*), jabea (*aitaren etxea*), e.a.

Hortaz, faktore semantikoak kontuan hartzekoak dira oso (*bizidun / bizigabe; pertsona / ez pertsona*):

- (55) *gizonoko etxea
- (56) herriko plaza (= herrian dagoen plaza)
- (57) Herriaren Plaza (= herriak duen plaza, herria identifikatzen duena edo: *Herriko plazak bost dira, baina hauxe da Herriaren Plaza*)
- (58) herriaren izena (*Orereta da gure herriaren izena / *herriko izena*)

• Izenlagunen artean sartu behar dira, halaber, jatorri izenkick (*-dun* eta *-tar*), baldin izenaren ezkerrean jartzen baditugu (jakina denez, ez da hau egitea beharrezkoa):

- (59) *dirudun* mutila
- (60) *frantses* hizlariak
- (61) *gasteiztar* idazleak

Badirudi *dirudun mutila* bezalako itzuliak ez zirela gehiegi erabiltzen Azkuek bere lanak egin zituen arte. Aldiz, *frantses hizlaria* bezalakoak oso hedatuak izan dira literatur tradizioan bai ekialdean bai mendebaldean. Mitxelenak ere sistematikoki izenaren aurrean jartzen ditu halakoak. *Estatu frantziarra* eta tankera honetako esaldiak batez ere komunikabideen joeragatik zabaldu dira azken urteotan.

Ordinalak ere izenlagunak dira (hauek, normalean *-ko* eta *-en* hartzen dute gainera):

(62) *bigarren* korrikalaria

(63) *azkeneko* atea

Hemen proposatuko dugun sailkapenaren arabera, *beste* ere izenlagunzat hartuko dugu, beti ere izenlagunak ageri diren toki berean ikusiko dugulako:

(64) *beste* etxea

(65) *horko* etxea

6.1. Jabego genitiboa (-en)

6.1.1. Forma

1) Mugagabea: *-(r)en*

2) Mugatua sing.: *-aren*

3) Mugatu plur.: *-en*

Genitibo honen kasu-marka *-en* dugu eta hori eranstean zaio zuzenean deklinagaiari:

(66) zenbat lagunen etxea da hau?

Bokalez bukatzen bada *r* hartzen du:

(67) zenbat adiskideren etxea da hori?

Mugatzailea hartuz gero, *-aren* (sing.) eta *-en* (pl.) egiten du:

(68) gure lagun*aren* urtebetetzea da gaur

(69) gure adiskide*en* etxeak dira hauek

6.1.2. Funtzioa

Esan bezala, kasu marka hau (edo dena delako hau) hartzen duten izenkiak izenlagun bihurtzen zaizkigu eta, horrenbestez, izen sintagma baten egituraren bamean ageri dira:

(70) [*Fernandoren oinetakoak*] berriak dira

Genitiboak izena laguntzen du eta izen horri halako zehaztasun bat edo emateko balio izaten du, beste adjektiboekin gertatzen zaigun modu berean:

(71) [*zapata polit horiek*] handiegi dirazu

Batzuetan izena isildurik eman dezakegu, testuingurutik identifikatzen dugula orduan:

(72) *Fernandorenak* berriak dira. *Nireak*, *berriak*, *zaharrak*

Bestetik, izenlaguna bera izenki ez ezik perpaus osoa ere izan daiteke:

(73) [*horrek duen abilerzia*] ikaragarria da

Perpaus bakunaz ari garenez gero, ez ditugu hemen aztertuko tankera honetako perpausak.

6.1.3. Erabilera

• Adibide hauetan guztietan ikusi den moduan, joera nagusia izenlaguna izenaren ezkerrean jartzekoa da. Hala ere, badaude kasu mugatu batzuk eskuinaldean ere onartzen dutenak (kasu honetan mugatzailca erantsi behar zaio derrigorrez izenlagunari):

(74) gure Peru / Peru gurea

• Izenlagunak, izenondoak bezala, predikatu osagarrian ager daitezke (orduan ere mugatzailea jarri behar delarik normalean):

(75) kantu hau [Benito Lertxundirena] da

• Eman diogun izenak berak ongi adierazten duen moduan jabegoa edo edutea adierazteko erabiltzen dugu *-en* atzizkia. Horrenbestez, *aitaren etxea* "aitak duen etxea" bezala itzultzen dugu eta *gure dirua* "guk dugun dirua" bezala. Hala ere, ondoko adibideotan ikusten den moduan, jabegoa adierazteaz gain bestelako erlazioak ere uzten ditu agerian: *haren burua*, *Mikelen heriotza*, *zure lagun minaren aita*, *mila pezetaren ardoa*, e.a.

Zerzahi gisaz, badirudi aski argi dagoela jabegoa adierazteko modu erabilienetako bat dela. Hori ikusten da dendak eta halakoak jabearen izenarekin izendatzen ditugunean, adibidez: *Etxeberriaren arraindegia*. Berdin, norbaiten etxea aipatu nahi denean ere: *Patzirenera joan gara guur*.

• Zenbait hizkuntza esapidetan elipsia egiten dugu:

(76) *gurean* ("gure etxean" esan nahi dugula)

(77) ez egin *astoarena*!

(78) beti *tontoarena* egiten

(79) *zureak* egin du!

Badira beste hainbat eta hainbat esapide ere:

(80) *pozaren pozaz*

(81) *handiaren handiaz*

(82) *hondararen hondarcan*

(83) *buruaren buru*

(84) *haren poza!*

- Posposizio askok kasu hau eskatzen du:

- (85) denon aurrean
- (86) eskutitz honen bitartez
- (87) liburu batzuen arabera
- (88) cuskara batuaren alde

Posposizio batzuetan, hala ere, *-en* atzizkia ken daiteke. Hori gertatzen da *aurre*, *atze*, *gain*, *azpi*, *barne*, *ondo*, *alde* eta hauek kideekin eraturiko posposizioetan, izena bizigabea denean eta izenondorik gabe ageri direnean:

- (89) etxe aurrean
- (90) *Koldo aurrean
- (91) *etxe handi ondoan

Arazoa izenlagunetan sor daiteke:

- (92) kalcaren buruan dagoen zubiaren azpian
- (93) kalcaren buruan dagoen zubi azpian

Mendebaleko ohitura gehienbat lehenengoaren aldera makurtzen bada ere, Leizarragak *Populu guzien begitarte aitzinean* edo *hire jujamendu aitzinean* bezalakoak ere erabiltzen ditu.

- Marka hau agertzen da beste kasu batzuen morfologian ere: *haurraren*gaik, *adiskideen*tzat, *gizonaren*gan, *gizonaren* baitan, *zure*gana, *Andonirengandik*, e.a.

- Hitz eta esakera batzuek jabe go genitibo hau eskatzen dute osagarrian (*beldur*, *lotsa*, *ahalke*, *zain*, *beha*, *mende*, *bila*, e.a.):

- (94) irakaslearen *beldur* zara
- (95) zure *zain* gaude

(96) Mikelen *bila* gatoz

• Ekintza baten egilea adierazten duten izenek, jabeago genitiboan doan osagarria har dezakete, ekintzaren objektua aipatuz horrela:

(97) *liburu hau*en egilea Jon da

(98) *Autoen* saltzaileak kezu dabilta azken aldiotan

Jakina, objektu hori zentzu orokorrean hartzen baldin bada, oinarri forma soil soilik erabil daiteke:

(99) *liburu* egilea da Jon

(100) Miren *auto* saltzaile bihurtu zaigu

• Ekintza bat adierazten duten izenek, kasu honetan dagoen osagarria hartzen dutenean, ekintzaren egilea adierazten dute batzuetan:

(101) *Andoniren* sarrera

(102) *Andoniren* sinesmena

Ikusten den bezala, *Andoni* da sartzen dena eta *Andonik* sinesten du zerbait.

Beste batzuetan, berriz, egilearen ordezkari objektua ere adieraz dezake, ondoko adibide honetan bezala (bi irakurketa ditu eta horietako batean, *Andoni* norbaitek hil du):

(103) *Andoniren* hilketak

• Aditz izenaren objektua absolutiboan ematen da normalean, baina zenbait euskalkitan genitiboan ere aurkitzen da (aditz izenarekin bakarrik gertatzen da hau, aditz jokatuarekin beti ere absolutiboa behar baitugu):

(104) gauza ederra da *euskara* ikastea

(105) *diamante bat* saltzera etorri da

(106) gauza ederra da *euskararen* ikaslea

(107) *diamante baten* saltzera etorri da

(108) "joan naiteke maitearen ikustera" (berri kanta)

Objektuak zentzu orokorra eta mugagabea duenean, oinarri forma bakar bakarrik erabil daitezke:

(109) *onddo* biltzen ibili dira

Arazo hau ongi azterturik ez bada ere, eta mugak aski ilunak diren arren, hiztun batzuek, subjektuaren kasuan ere erabiltzen dute genitiboak:

(110) *Jesusen* zerutik jaustea

(111) *Jesusen* lo egitea

• Gutxi gora-beheratasuna genitibo atzizki honen bidez (beti mugagabeak, gehi *bat* nahiz *batzuk*) adieraz daitezke:

(112) *gizonen bat* etorri da

(113) *libururen batzuk* erosiko ditugu

(114) *hogeiren bat* urte ditu gure lagunak

(115) *hamabosten bat* tonelada galdu dira aurtan

• Esan dezagun, azkenik, kasu hau *-entzat* kasuaren baliokidea da klise zaharkitu batzuetan:

(116) hainbat gaiztoago *zure!*

Egungo euskararen ere aurki daitezke halako erabilera duten esaldiak (Baztanen, esaterako, arrunta da ondoko agur hau, baina zubereraz eta behenafarreraz ere erabiltzen da *zien* aldarrekin):

(117) adio *zuen!*

(= zurezat)

Beste honako hau ere tankera berekoa da:

(118) *to, hire* (= *hirevat*)

6.2. Leku genitiboa (-ko)

6.2.1. Forma

1) Mugagabea:	-(e)ko, [-go (leku izen bereziekin)] -(e)tako
2) Mug. sing.:	-ko
3) Mug. Plur.:	-etako
Bizidunekin:	-en baitako

• Atzizki hau (-ko alegia) ia edozein sintagmari, gramatika kasuei izan ezik, erants dakiokete, berehala ikusiko dugunez, beti ere izen sintagma hori bizidun edo pertsona ez den zerbaitei badagokio, jakina (bizidunek har dezakete atzizki hau, baina ez izenlagunak sortzeko, baizik adizlagunak sortzeko: "Fakultate honetan hogeit hamar ikasle dago irakasteko". Hemen beste zerbaitez ari gara).

Sarritan, INESIBOARI erantzen zaio: *nongo, aurtengo, hemengo*, e.a. Gauza bera dugu *etzeko, kaleko eta laneko* sintagmetan ere, azkenotan inesiboaren marka galdurik dagoen arren. Leku genitiboa deitu ohi zaion sintagma honek badu, hala ere, berezitasun bat beste leku kasuekin konparatzen badugu. Jakina den moduan, beste leku kasuetan -ga- artizkia agertzen ahal zaigu bizidunekin: *hiru etxeetan, hiru alabengan, hiru etxeetatik, hiru alabengandik, hiru etxeetara, hiru alabengana*. Leku genitibo honek, ordea, ez du kasu hori zuzenean onartzen eta *hiru etxeetako* esaten dugun arren, ez dugu horren parean **hiru alabengango* edo halakorik: *alabaren baitako, zure baitako* esaten da bizidunekin, antzina *ni baitango* bezalakoak aurkitzen ahal badira ere.

Jakina, *andreetako gazteena* bezalakoak baditugu, baina hauen esanahia bestelakoa da, ikusiko dugun moduan.

Kontuan har dezagun, hemen izenlagunaz ari garenez, *-ko* atzizki honek beti behar duela izen sintagma bat aldamenean, eta izen hori ezkutaturik bada, artikulua eranstean diogula atzizkiari:

(119) *Donostiako autobusa*

(120) *Donostiakoa*

Leku izen berezi hori kontsonantez bukatzen bada eta kontsonante hori *n* nahiz *l* bada, orduan *-go* egiten da normalean:

(121) *Baztango*

(122) *Usurbilgo*

Leku izenak arrotzak direnean, ez da hain estuki segitzen araua:

(123) *Tirolgo*

(124) *Tiroleko*

(125) *Afganistango*

(126) *Afganistaneko*

Eta bestela ere denetarik aurkitzen da:

(127) *Zarauzko*

(128) *Zarauzkeko*

(129) *Parisko*

(130) *Pariseko*

Besteak beste, tradizioa ere desberdina baita: ekialdean normalean bokal batekin bukatzen baitira izen berezi hauek: horrela *Paris* esaten dute mendebalekoek, baina *Parise*, ordea, ekialdekoek. Esan dezagun,

bide batez, *Zarautzko bezalakoak baztertuak direla izk hurrenkera ez baita onartzen euskaraz.

Aipa dezagun hemen beste kontu bat ere: esan ohi da oso nekez aurki daitezkeela euskaraz bi *-ko* elkarron segidan eta ez dela halakorik gertatzen izenlagunak sortzeko dagoen *-en* beste atzizkiarekin:

(131) markesaren alabaren izena bazekien baina ez kondearenarena

(132) aldapeko sagartarenazencan

Bi *-ko*, berriz, nekezago. Nahiz eta lexikalizaturik egon, idazleek arbuia izan dute hau, agian kakofoniagatik: "bi ogerleko haragia" bezalako adibideak ez dira falta literaturan, "bi ogerlekoko haragia" beharko lukeen tokian (Mitxelena berak ere espreski galarazten ditu halakoak, *SILV*, 678). Hala ere, ez dirudi ondoko adibide hauek bezalakoak gaitzetsi behar direnik:

(133) Iruñeko Katedraleko saildu irudiak Zaragozakoak baino handiagoak dira

• Atzizkia, ordea, ez zaio inesiboari bakarrik ezartzen eta ADLATIBOAZ ere balia gaitzke *-kodun* sintagma sortzeko orduan: *etxerako, lanerako*, e.a. (*norako* eta *zertarako* galdekariei erantzuten dietenak, hain zuzen). Egungo euskaran *etxirako* eta horrelakoak ere entzuten dira, *etxiko* nahiz *etxirako* erantzunek, biek *noizko* galdera berari erantzungo lioketenak. Biziduntan, *nongo* kasuan ez bezala, ez da salbuespenik gertatzen orain eta *adiskideenganako, senarrarenganako* eta horrelakoak erabiltzen ditugu. Hala ere, *nongo* kasuztat hartu izan duten arren gure gramatikariek, *norako*, ordea, ez dute aintzakotzat hartu.

• Inesibo eta adlatiboaz kanpo, atzizki hau gainerako ADIZLAGUN (*zurekiko* itzaropena, *Josebarendako* lanak, *harrizko* etxeak, *amarengandiko* konfidantza, e.a.) eta ADITZONDOEKIN (nahiz ez beti:

etziko egunkaria, biharko jai, saldutako liburuak, erosirikako etxeak, e.a., bai, baina *politikiko bezalako bat, ordea, ez) aurki daiteke.

* Argi dago *-ko* mota bat baino gehiago bereziki behar dela. Orain arte aipaturiko adizlagun nahiz aditzondoaren gainean erakitakoa da produktibocna.

Beste batzuetan, ordea, badirudi IZENA hartzen du oinarri. Izen hori konkretua denean *-du* atzizkia behar izaten du, baina abstraktua denean (ez dira gehicgi halakoak) *-ko* har dezake: *edadeko, adineko, itxurako*. IZENA + IZENONDOA ere hartzen ahal du: izen hori abstraktua denean batipat (*hots handiko, jite txarreko*), izena konkretua denean *-du* eta *-ko* har baitizake, euskalkien arabera, seguraski ere (*atorra dotoredun, begi urdineko*). Kontuan izan behar dugu, dena dela, ekialde osoan XIX. mendea arte *bihotz onetako neska* dela erabiltzen den aldaera. Kontu hau balitxke *denbora gutxian / denbora gutitan, bekatutan egon / bekatuan egon* eta halakoekin loturik egotea. Azkenik, ZENBATZAILEA + IZENA + (IZENONDOA) ere agertzen ahal zaizkigu: *hiru mila pezetako zapata-parea, hiru kilometroko bidea, pisu handiko ganaduu*, e.a. Esan dezagun, bide batez eta ohar gisa, *-ko, -tako* eta *-etako* aldaeren arteko desberdintasuna izen sintagma mugagabea, mugatu singularra eta mugatu plurala izatetik sortzen dela. Beraz, *gure herriko* ("gure herrian + *-ko*"), *zenbait menditako* ("zenbait mendi + *-tan*") eta *Donostikao kaleetako* ("Donostiako kale + *etan*"). Arrazoi beragatik *bihankako mahaia* esaten da ("bi hanka + *-ko*"), *mila eta berrehun kiloko* ("mila eta berrehun kilo + *-ko*"), nahiz hemen salbuespenak ere badiren literaturan. Dena dela, salbuespen hauck ez dira zenbaitzaileak ageri direnko sintagmetara bakarrik mugatzen: Axularren *lau egunetako hil kirestua* edo *probetxu gutitako* formen alboan ditugu *gingeru bat indar handitakoa, emazteki adinetakoak, biziize gaixtokoak, haren iduritako bat*, e.a. (normalean ekialdeko idazle klasikoenak: Haraneder, Duvoisin, Laphitz, Etxepare, e.a.)

• ADITZ IZENAREKIN ere aurki daiteke: isilik *egoteko* agindua, *ikusteko* kontuak nahiz *ikustekoak*, e.a.

• Aztertu diren kasu hauetan guztietan *-ko* ez litzateke erator atzizkia izango, besteak beste, arrazoi hauengatik: beste erator atzizkiak ez bezala oraingo hau sintaxi kategoria batean, kasu marka batean alegia, oinarritzen delako; atzizki honen bidez sorturiko sintagma ez delako autonomoa eta eratorpenaren bidez sorturikoak, berriz, bai: *etxerakoak* eta *olerkiginitza* ez dira autonomia maila berean, lehenbizikoaren kasuan "etxerako zer" edo batatorkizu berehala gogora; atzizki hau ez delako zuzenean beste erator atzizki baten aurrean nahiz ondoren jartzen, baizik kasu marka eta numero markaren ondoren; eta, azkenik, ohizko erator atzizkiek ez bezalako emankortasuna duelako.

Esan behar da, hala ere, *-ko* atzizki hau benetan erator atzizkia ere izan daitekeela batzuetan, erabat autonomoak diren hitzak osatuz hala: *lekuko*, *gerriko*, *betondoko*, *belarritako*, e.a. Ikusten denez, ez dira gehiegi halakoak.

• Honetan guztian, hala ere, duda-mudak sor daitezke batzuetan, *egun* hitza, esaterako, izena nahiz aditzondoa izan baitaiteke:

(134) *egun* ederra izan dugu

(135) *egun* etorriko da

Izena denean, kontsonantez bukatua denez, *-ko* atzizkiak loturazko *-e-* bat behar du nahitaez:

(136) *eguneko* kontuak dira horiek, eta ez gauekoak

Horixe da gertatzen dena *lurreko*, *zuhaitzeko* eta halakoekin ere. Baina hitz hori bera izena izan beharrean aditzondoa denean, orduan zuzenean eranstean zaio atzizkia, behar diren aldaketa fonologikoak ezarriz:

(137) *egungo* kontuak dira horiek, eta ez atzokoak

Eta ber gauza suertatzen da *gaurko*, *biharko* eta halakoekin ere, horiek guztiak tarteko -e- hori gabe ageri baitira. Horiaz, gauza bat da *egungo albisteak* (gaur gertatu diren albisteak) eta beste bat *eguneko albisteak* (egunez, argia dagoenean, gertatu diren albisteak). Berdin gertatzen da *egungo kokalekua* eta *eguneko kokalekua* sintagmen artean edo *egungo egoera* eta *eguneko egoera* sintagmen artean. Honek, jakina, *herenegungo* eskatuko luke, eta ez **hereneguneko*. Dena dela, zenbait kasutan ez dirudi hain erraz ikusten ahal diren mugak: *behin* aditzondo da, baina hortik sortzen dira *behingoz*, *behingo baitan* eta *behin behinekoa*; hiztegian *hurren* dago eta horrekin batera *hurrengo* eta *hurrenez hurren* *astea* ere esaten da. Zenbatzaileek izen sintagmen eredia segitzen dutela dirudi: *hamarreko*, *ehuneko*, e.a.

• Egia da, hortaz, atzizki hau ia edozein sintagma motarekin aurkituko dogula, erabilera batzuek debekuak dituzten arren, geroago ikusiko den moduan. Gramatiketan, hala ere, *nongo* galderari dagokionak bakarrik hartu izan du lekua deklinabideko zerrendetan, lekua eta denbora adierazten duten kasuetan hain zuzen ere. Galdera hori, lehentxoago esan dugun moduan, *non*-en gainean eraikitako izenlaguna da (ikus, bestela, *hemengo*, *horko* eta *hango* bezalako izenlagunetan gertatzen dena, morfema guztiak agerian baitaude hor), *norako* eta *nondiko* (edo *nondikako*) *nora* eta *nondik*-enak diren bezalaxe, eta hainbestez bi horiek baino eskubide handiago ez luke *nongo* delako honek kasuzat hartua izateko. Eskema hauxe genuke hortaz (lekuaren galdekaria bakarrik hartzen dugu kontuan hemen, baina berdin balio du honek *noizko* eta *zertako* galdeztzaileekin ere. Leku berean daude *zelan* eta hemendik sortzen diren *zelango* eta *zelako*):

<i>non</i>	---->	<i>nongo</i>
<i>nora</i>	---->	<i>norako</i>
<i>nondik</i>	---->	<i>nondiko, nondikako</i>

Kontua da, ordea, *etxeango* eta *mediango* (*non-nongo* erlazioa zuzenean adieraziko luketenak) bezalako formak euskara bizian aski bazterrekoak eta noizcan behingoak izan direla, horien ordez *etxe*, *medi*, e.a. erabili baitira. Hori dela eta, *non* eta *nongo* kasuen arteko ahaidetasunaren edo erlazioaren kontzientzia galdu du hiztunak eta kasu desberdintzat ditu biak. Bestetik, gramatikariak benetako kasutzat onartua du aspalditik *nongo* delako kasu hori, *norako* eta *nondikako* kasuekin gertatzen ez den bezala. Gramatika honetan ere, tradizioari eutsiz, *nongo* kasua hartuko dugu kontuan batez ere, beste sintagmetan oinarriturikoci buruz aipamen bat baino gehiago egingo dugun artean.

6.2.2. Funtzioa eta erabilera

6.2.2.1. Atzizkia INESIBOARI gaineratzen diogunean, hiru oinarritzko galdera ditugu: *nongo*, *zertako* eta *noizko*, adibideetan ikusten den bezala. Beraz, lekua, ekintza eta denbora markatzen ahal dugu:

(138)	[<i>Donostiako kalca</i>]	(<i>nongo kalca?</i>)
	[<i>laneko tresnak</i>]	(<i>zertako tresnak?</i>)
	[<i>etziko egunkaria</i>]	(<i>noizko egunkaria?</i>)

Hortaz, leku genitiboa izendatu baldin badugu ere kasu hau, lekuarekin zerikusi zuzenik ez duten bestelako sintagmei ere ematen die bide:

- (139) *noizko* festetan ezagutu zenuen?
(140) *noizko* albistea da hori?

Eta hortik sortzen dira *iazko*, *aurtengo*, *inoizko*, *herenegungo*, *atzoko*, *sekulako*, *egundoko*, e.a. bezalakoak. Bestetik, *zertako* galdekaria *zeriango*-ren ordezkoa litzateke, formari begiraturaz, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

- (141) *igeritako* galtzak

(142) *lotako* txanoa

(143) *laneko* tresna

Egia da galdetzailea bera ez dela hain erabilia izenlagun gisa (*zertako* galtzak dira horiek?) baina adibideek argi erakusten digute *zertako* galdetzailearen erantzunak direla.

• Atzizki hau izenak sortzerazteko oso lanabes egokia gertatu zaio hizkuntzari. Hala sortu izan dira *gerrikoa*, *lekukoa*, *betaurrekoak*, *Elizakoak*, *egunerokoa*, *belarritakoak*, e.a. Gorputz atalean ematen diren zatiadak adierazteko ere balio du: *ipurdikoa*, *begiondokoa*, *masailekoa*, e.a. *Euritakoa* ere hemendik sortua da, jakina, mugagabean oinarritua. Adibide hauek guztiak *-ko* atzizkia inesiboaren gainean jarririk sortu dira. Hauetan, lehen esan bezala, erator atzizkia dugu.

• Bi ohar egin beharrak dira hemen: batetik, aditz izena sarritan inesiboan ematen dugula: *izatekotan*, *egitekotan*, *joatekotan*, horiek guztiak *izateko asmotan*, *izateko kasuan*, edo horren antzeko itzulien elipsiak direlarik. Bestetik, ekialdean bizidunekin ere erabili izan da atzizki hau, beharrezkoa litzatekeen *-ga* atzizkia gabe:

(144) uste baduzu emaztetan anitz usatzeaz *emaztetako gutizia* gutituko zaizula enganatzen zara

Axularren adibide honetan, jakina, *emaztetako* hori izenlaguna da eta egungo idazle anitzek *emazteenganako* esango luke gaur egun. Hemen, *emaztetako gutizia* eta *jateko gogoa* biziki antzekoak direla ez da dudarik, nahiz *emaztetako* horrek *emazteenganako* onartzen duen eta *jateko* formak, ordea, **jatenko* edo halakorik ez.

• Gure oinarritzko galderetara itzuliko gara: *nongo*, *noizko* eta *zertako*. Kapitulu honetan izenlagunaz ari garenez, galdetzaile horiek sorturiko sintagma guztiak izenlagunak dira:

- (145) [etxeko lanak] ez ditu egin
- (146) [gaurko egunkariak] hala dio
- (147) [dantzako deia] egin dute

Baina kontua da *nongo*, *noizko* eta *zertako* galdetzailak adizlagunak ere izan daitezkeela, testuinguruaren arabera:

- (148) lanabes hori [etxeko] erosi dute
- (149) [gaurko] egin behar omen zen lana
- (150) deia egin omen dute [dantzako]

Adizlagunekin gertatzen dena, geroago, dagokion kapituluan azalduko dugun arren, aurrera dezagun hemen erabilera honek tradizio handia duela euskararen historian eta gaur egun ere ekialde osoan hala erabiltzen dela oro har, formari dagokionez *etxeko*, *gaurko* eta *dantzako* izenlagun nahiz adizlagun bezala erabiliz, testuinguruaren arabera.

6.2.2.2. Izenlagunen sorbidea ez da inesiboarekin bakarrik bukatzen: *non*, *noiz* eta *zertan* galderetatik *nongo*, *noizko* eta *zertako* sortzen diren moduan, bestelako izenlagunak ere sor daitezke ADI ATIBOA oinarritut hartuz: horrela, *noratik* sortzen da *norako*, eta *zertaratik* sortzen da *zertarako*, ondoko adibideotan ikusten den moduan,

- (151) [Donostiarako autobusa] scietan ateratzen da
- (152) [lanerako tresnak] erosi beharko dituzte

Denborari dagokionez, ez da usuegi erabiltzen hor izenlaguna: *etzirako lanak oso zailak dira* bezalako esaldiak ez dira, gure ustez erabiliegiak. Esaldi horren galdera, zernahi gisaz, *noizko lanak* izango litzateke hor. Baina *noizko lanak* delako honen esanahia *zein egunetako lanak* nahiz *zein egunetarako lanak* izan daiteke.

Beraz, badirudi eskema osoa honela aurkez daitezkeela:

<i>non</i>	<i>nongo</i>	<i>nora</i>	<i>norako</i>
<i>zertan</i>	<i>zertako</i>	<i>zertara</i>	<i>zertarako</i>
<i>noiz</i>	<i>noizko</i>	<i>(noizera)</i>	<i>noizko (noizerako, noizkorako)</i>

Parentesi artean jarri ditugu galdera bezala nekezago aurki daitezkeen aldaerak (*noizetik noizera* esaten da, adibidez, baina hori ez da galdezailca). Izenlaguna izan beharrean (*etxerako autobusa*), adizlagun bezala jartzen ditugularik, ordea, ez da dudarik eta hiru baliok argi ageri dira:

- (153) [etxerako] ekarri dut
 (154) tresna hauek [kanerako] dira
 (155) bakoa [betirako] egin behar da

Ikusten den moduan, horiek guztiak adlatiboa dute oinarri. *Etxerako* bezalako hitzak, dena den, tradizioan adizlagun bezala erabili izan badira ere, ez dezagun ahantz *etxeko*, *laneko* eta *betiko* bezalako adizlagunak, inesiboaren gainean sortuak alegia, aski hedatuak daudela ekialdeko euskalkietan.

Adizlagunen analogiaz, eta forma horretaz baliaturik, izenlagunak sortzen ditugu: *Hizkuntza Politikarako Idazkaria, Euskararako Errektoreordeiza, e.a., Hizkuntza Politikako Idazkaria, Euskarako Errektoreordeiza, e.a.* eskatuko luketenak, inesiboa, eta ez adlatiboa, hartuko balute oinarri.

Dena den, badirudi analogia hau oraindik ez dela denbora baliok duten sintagmetara ere hedatu eta *betirako* bezalakoak oraingoz adizlagun bezala soilik erabiltzen ditugula (*betirako bakoa* bezalakoak, izenlagunak alegia, ez dira barreiatu, antza denez). Komeni da azpimarratzea, zernahi gisaz, *betiko* forma hori, adizlagun hori alegia, *betirako* baino jatorragoa dela dudarik gabe. Adizlagunez hitz egitean jardungo dugu berriro ere puntu honetaz.

Itzul gaitzen izenlagumetara: *Donostiako autobusa* eta *Donostiarako autobusa* berdinak ote dira? Hori da esan nahi duguna? Ez; lehenbizikoa jatorra eta zaharra da, baina anbigua, hiru balio izan baititzaiteke, gaur egun ere hiztun asko eta askoren gogoan: "Donostian dagoen edo ibiltzen den autobusa", "Donostiara doan autobusa" eta "Donostiatik datorren autobusa". Bigarrenak, ordea, "Donostiara doan autobusa" bakarrik adierazi nahi du, halako erabilerak ere aski zaharrak direla gainera: *Emauserako bidean* (Ziburuko Etxeberri, 1636), *zerurako bidea* (Etxeberri Sarakoan), *etxerako bidea* (Mendiburu), e.a.

Horrenbestez, bi sistemak erabili izan dira idazleen artean: bata, inesiboan oinarritua: *Parabisuko bidea*, eta bestea adlatiboan: *zerurako bidea*. Hortaz, hiztun askok sinonimotzat jotzen ditu *zeruko bidea* nahiz *zerurako bidea*, biak onartuz. Hala ere, *dantzarako deia* itzuliaren ondoan, horiako tradizioak ez badu, ez du hain aise onartzen *dantzako deia*. Bego kontua hemen. Azkenik, aipa dezagun literatura tradizioan batzuetan *-ko* gabe ere osatzen direla sintagmak: *zerura bidean*, *esaterako*.

Bizidunetako *Jainkoaganako bidea* bezalakoetan ageri den izenlaguna aski zaharra dela esan daiteke (Leizarragandik hasten da).

• Badugu, azkenik, hirugarren galdekaria: *zertarako*, gaurko idazle batzuek bien arteko (inesiboren gainean eraikiaren eta adlatiboaren gainean eraikiaren arteko) desberdintasuna egiten saiatzen baitira: *zertako* izango omen litzateke leku genitiboa adieraziko lukeena eta *zertarako*, berriz, destinatiboan erabiliko genukeena. Hori ez da, ordea, hala. Biak ageri dira euskal literaturan, balio bera baina distribuzio desberdina haritzen dutela euskalkien arabera, euskalki bakoitzak bata nahiz bestea aukeratu izan baitu, beti ere bi balioekin. Zernahi gisaz, *zertarako* honen tradizioa, erabili izan den lekuetan, adizlaguna izatearekin loturik dago, hori ez baitzuten izenlaguntzat jotzen idazleek. *Zertako*-ren balioarekin erabiltzen dira, oremu zabal batean, *zergatik* eta *zerendako*.

• Adlatiboaren gainean eraikitzen diren izenlagun hauek, hortaz, lekua (*norako*) eta destinatiboaren (*zertarako*) balioa hartzen dute batez ere, adibideetan ikusi dugun moduan.

• Atzizki hau duen zenbait forma bere eskuko izen bilakatu da: *beherakoa, gorakoa, gainerakoa*, e.a.

6.2.2.3. Baina, esan bezala, inesiboak eta adlatiboak osaturiko adizlaguncan oinarrituriko izenlagun honetaz aparte, badira *-ko* atzizkia hartzen duten bestelako izenlagun anitz ere. Bi multzo nagusi bereziko ditugu hauek artean: batzuetan *-ko* atzizkia ADBERBIOEI (aditzondoei eta beste adizlagunei) eranstean zaie eta beste batzuetan, berriz, IZEN SINTAGMARI zuzentzen.

• Lehenbiziko sailean sartzen dira aditzondo konposatu, posposizio-sintagma, partizipio adverbial, moduzko eta denborazko aditzondo, eta beste kasu marketan oinarriturik sortzen ditugun izenlagunak:

- (156) *ziri edo zarteko andrea da hori*
- (157) *linguistikari buruzko liburua idatzi omen du*
- (158) *atzo entzuniko gauza ez da egia*
- (159) *honetako jendetzarik ez dut ikusi sekula*
- (160) *bakarkako lana astunagoa izan ohi da*
- (161) *zure lanarekiko iritzia zorrotzegia izan da*
- (162) *amarentzako oparia duzu hori?*
- (163) *hil edo biziko arazoa da*

Aditz jokatuekin ere sortu izan dira inoiz izenlagunak, nahiz bide hau ez den emankorra gungo euskarari:

- (164) *balizko olak burdinarik ez*

• Bigarren sailean aurki daitezke izen sintagman oinarrituriko izenlagunak:

- (165) *ixurako* pertsona da hori
- (166) *adineko* idia ez da gaztea bezain balios
- (167) *neurri gaitzekoa* zen
- (168) *aho oneko* kafea ematen dute etxe hartan
- (169) *beso luzeko* pilotariak ateratzen dira berri honetatik
- (170) *begi urdineko* neska da Maddalen
- (171) *jantzi gorriko* neska hura ez dugu ezagutzen
- (172) *'Xumai' izeneko* eskalea dabil hor ate joka
- (173) *bosi haitz ederreko* eskua ikusi zuen mutikoak
- (174) *hitz gutxiko* gizona da
- (175) *mila eta berrehun kiloko* harria amildu dute
- (176) *bi uguzabako* etxea, kaltea
- (177) *behi bakarreko* leran ekarriko dugu belarra
- (178) *ehun ardiko* artaldea dute auzokook
- (179) *lau hankako* mahaia ongi pausatzen da
- (180) *bihotz oneko* mutila da
- (181) *azeriaren iduriko* animalia batzuk
- (182) *hitzeko* gizona da
- (183) *zortzi urteko* ardoa da

Ikusten den moduan *-ko* atzizkia izenari eranstean zaionean (hau da, inesiboaren gainean eraikitzen ez denean) normalean mugatuaren itxurarekin ageri da izenlaguna. Horrek ez du esan nahi, dena dela, hori den bide bakarra (lehen ere aipatu den moduan): *urte batetako haurra, ezagutza gutitako jendea, aire handitako andrea, seinale onetako aratzeak*, e.a. ere ageri baitira euskal literaturan, besteen maiztasunik erakusten ez badute ere eta egun arkaikotzat har badaitezke ere. Goiko zerrenda horretara begiratuaz kontura gaituzen, bide batez, gauza desberdinak direla *zazpi urteko ardoa* (ardoak zazpi urte ditu) eta *zazpi urteetako ardoa* (1980-1987ko ardoa, esaterako, halako apalategietan sartu dugu). Hortaz, hiru forma hauek bereiz daitezke:

- (184) 7 urteko ardoa edan dugu (ardoak 7 urte ditu)
- (185) 7 urtetako ardoa edan dugu (7 urtetan, ez 8tan, bildu den ardoa)

(186) 7 urteetako ardoa edan dugu (azken 7 urteetan bildu den ardoa)

Zerrenda horretan ageri diren zenbait izenlagun, bestetik, *-du* atzikia hartzen duen sintagmarekin truka daitezke: *jantzi gorriko gaztea* eta *jantzi gorridun gaztea*. Altubek *begi urdindun neska* proposatzen zuen, ez dezagun ahantz, nahiz *neska jantzi gorriduna* normalagoa den. Denetan normalena eta jatorrena *neska jantzi-gorria*. Esan dezagun, gainera, *bihotz oneko mutila* bezalako sintagmen erabilera aski mugatua dela: izen sintagma horren buru den izenari berez, gorputzez edo dohainez datzekona, edo soinean daramana denean eta halakoetan erabili ohi dira mota honetako izenlagun kalifikatzaile hauek: *sorbalda zabateko aizkolaria* edo *etorri oparoko bertsolaria*, *adimen argiko irakastea* edo *alkandora zuriko neska*, *teilatu gorriko baserria* (ez, ordea, **auto gorriko mutila*, hemen eman nahi zaion adierarekin, jakina). Azkenik, *beso luzeko pilotaria* bezalako sintagmak *pilotari beso luzea* bezala ere eman daitezke.

Baina adibide hauetan guztietan nekez egiten ahal dira jeneralizazioak eta salbuespenak ugariak izaten dira (izen abstraktuak diren ala ez, gorpuzkiak diren ala ez, janzki izena den ala ez, e.a., hori guztia baita kontuan hartzekoa).

• Zenbaitetan, *-ko* hori etxe izenetan agertzen da: *Letraukoa*, *Zapatarikoa*, *Pastorkoa*, *Dorrekoa*, *Kanposkoa*, *Karloskoa*, *Paskualgoa*, *Aringoa*, e.a. Antza denez, hemen *-en* atzikiaren baliokidea dugu: *Karlosena*, *Piarresena*, *Errotariarena*, e.a., agian *Karlosenea*, *Piarresenea*, *Errotariarena*, e.a. bezala bihurtu dirclarik.

6.3. Izenlagunaren funtzioa har dezaketen beste elementuak

6.3.1. Beste nonbait esan dugun moduan, jatorri izenkiek aukera dute izenaren ezkerrean nahiz eskuinean joateko. Izenaren ezkerrean ageri direnean adjektibo izenlagunak direla esan daiteke:

- (187) *galiziar* idazlea zen Castelao
- (188) *italiar* presidentea gaisotu egin da
- (189) *frantziar* diputatuak aurrekontuak eztabaidatzen hasi dira
- (190) Italiako Parlamentuan badira *frantziar* diputatuak
- (191) batek erakutsi zuen *plentziar* gazteak Bilboko alkateak izan daitezkeela

Nolanahi ere, ez da beharrezkoa ezkerrean joatea:

- (192) idazle *galiziarra* zen Castelao

Halakoetan, jakina, izenondotzat hartu beharko dira, ez izenlaguntzat.

6.3.2. Ordinalak ere normalean izenlagun gisa erabiltzen ditugu. Amaitu ere, *-en eta -koz* amaitzen dira gainera:

- (193) *lehen* idazlea
- (194) *lehenengo* idazlea
- (195) *hamargarren* eutxa
- (196) *zortzigarren* katea
- (197) *azkeneko* esaldia

6.3.3. Jatorri izenkiekin bezala gertatzen da *-dun* atzizkia hartzen duten sintagmekin ere. Ezkerrean nahiz eskubian joan daitezke (eskubian erabiliagoak dira) eta ezkerrean ditugularik, izenlaguntzat hartuko ditugu:

- (198) *dirudun* neskatxak maite ditu horrek
- (199) *euskaldun* lasterkariak ez dira txarrak
- (200) *erdaldun* irakasle garbia da

6.3.4. Distribuzioa kontuan hartzen badugu, badirudi *beste* ere izenlaguntzat hartu beharko litzatekeela. Egia esan, gramatikarien artean duda-muda handiak suertatu dira *beste* hau sailkatzeko orduan. *EGLU*-n bertan ere, batzuetan izenordaintzat hartua izan da (batez ere forma

fosilductan, *hori bestek egin beza bezalakoeian alegia*). Beste batzuetan determinatzaile gisa ere (*beste etxea bezalakoeian*). Kontua da, ordea, distribuzioari behatzen badiogu, berehala konturatzen garela *beste* gainerako izenlagunak ageri diren toki berean aurkitzen dugula:

- (201) *Bilkoko kaleak*
- (202) *beste kaleak*
- (203) herri horretako *Udaletxeko* leihoa
- (204) herri horretako *beste* leihoa
- (205) *hemengo* bi mutilak
- (206) *beste* bi mutilak
- (207) *gure* alkatea
- (208) *beste* alkatea

Batzuetan, dena dela, zalantzak sortzen dira *beste* honen tokia zehazteko orduan, hain segur ere hitzaren semantikarekin lotuak daudenak:

- (209) betebeharreko *beste* baldintza bat
- (210) *beste* betebeharreko baldintza bat

Lehenbizikoa oso arrunta bada ere, bigarrenaren tankerakoak ugari ageri dira euskal literaturan:

- (211) 'jupu' hau *beste* antzinako 'jopu' haren senide garbia dugu (Mixelena)

Badirudi, hortaz, bidezkoena dugula *beste* hau izenlagunizat hartzea. Izenlagun honetatik adizondoak sor daiteke (*bestela*) eta honen ere *-ko* hartzen ahal du, berriz ere izenlaguna sortuz eta esanahia gehiegi aldatu gabe utziz:

- (212) *beste* daturik ez dugu
- (213) *bestelako* daturik ez dugu

Izenlagunak genitibo marka har dezake gainean, *beste* honek har dezakeen modu berean:

(214) *etxearen* esanak

(215) *besteen* esanak

6.3.5. Bada azkenik sail honetan aipatu behar den beste elementu bat, lehen esan bezala, izenlaguntzat hartu beharko litzatekeena, izenaren ezkerrean dagoenean bederen:

(216) horrek ere *ber* gauza esan du

Horixe da, hain zuzen ere, ekialdeko euskalki batzuetan ematen zaion erabilera (mendebaldean *gauza bera* esaten da, eta ez *ber gauza*), beste izenlagun arruntek eskatzen duten tokian jarritz. Aipatu dugun moduan, *ber* honek adjektiboaren funtzioa betetzen duela esan daiteke (batzuetan izenaren ezkerrean -izenlagunaren funtzioarekin- eta bestetan izenaren eskuinean -izenondoaren funtzioarekin-). Batzuetan, jakina, izenordainaren funtzioarekin ere ageri da.

7. kapitulua:

APOSIZIOA

Adjektiboak erabiltzen ditugu izen baten zermolaketasuna adierazteko. Anitzetan, ordea, izenari buruzko informazio berri hori ez digu adjektiboak ematen, aposizioan doan beste sintagma batek baizik:

- (1) Axular, *gure idazle handiak*, idatzi zuen liburu hori
- (2) Larrañaga *irakasleak* bestela pentsatzen du

Aposizioak bi eratakoak izan daitezke: *ez-murrizgarriak* eta *murrizgarriak*. Egia esan, hala ere, zenbait kasutan ez da erraz bereizten bi aposizio klase hauen artean.

7.1. Aposizio ez-murrizgarriak

Beste sintagma baten aposizio ez-murrizgarrian doan sintagmak aurreko sintagmaren erreferentzia bera du, baina ezaugarri berriren bat adierazten digu. Normalcan eten bat gertatzen da bi izen horien artean, honako adibideotan bezala:

- (3) Gasteizen, *euskal komunitate autonomoko hiriburuan*, taberna gehiegi dago
- (4) Peruk, *atzo aipatu nizun lagunak*, andregaia utzi omen du

Hor ikusten dugu aski garbi *Gasteiz* eta *Peru*-ren ondoren datozen sintagmaek hauen erreferentziak dituztela. Aposizio murrizgarriak bestelakoak ditugu.

Horrelako egiturak ageri dira *guzti* eta *oro* zenbatzaileekin ere:

- (5) mendi horietan *guztietan* ibili dira
- (6) mendi horietan *orotan* elurra egin du

7.2. Aposizio murrizgarriak

Aposizio mota honek erakusten digun egitura, normalcan, honako hau da: deitura bat eta gero izen arrunt bat. Deituraren funtzioa da izen arrunt horren erreferentzia zehaztea: *Lasa anderea*, *Larrañaga pilotaria* edo *Garate medikua* bezalakoetan ikusten dugu egitura hau. Egitura hauek oso arruntak dira cuskaraz: *jaun*, *andere*, *andereño*, *maisua*, *irakaste* eta halakoekin:

- (7) *Lasa andereñoak* deitu du
- (8) *Itziar anderea* ciurriko da

Kasu hauetan *Lasa* eta *andereño*, edo *Itziar* eta *andere* aposizio murrizgarrian daudela esaten dugu. Izen berezi horien zeregina da zein anderez edo zein andereñoz ari garen zehaztea. Era honetakoak ditugu besteok ere:

- (9) *Gizpuzkou* plazan bizi da

Jakina, hor *Gipuzkoako plazan* ere esan daiteke. Honek esan nahi digu zein plazatan, alegia plaza guztien artean zehazki esaten digu zeinetan ari garen.

Aposizio murrizgarri eta ez-murrizgarrien artean bereiztea, dena dela, ez da gauza erraza izaten zenbait kasutan. Jo dezagun denok ezagutzen ditugula hiru *Garate*: bat futbolaria, bestea medikua eta bestea torcaizalea. Halako batean *Garate futbolaria* esaten badugu, ez gara hor futbolarien arteko *Garate* bati buruz ari, baizik hiru *Garate* horien arteko futbolariaz. Alegia, *futbolaria den Garate* da aipatu duguna eta ez *futbolarien arteko Garate*. Adibide honen antzekoak izan daitezke, itxuraz, *Mikel jauna* edo *Bego anderea* bezalakoak, baina badirudi hauean bigarren motako aposizioa dugula, murrizgarria alegia.

7.3. Aposizioan doazen elementuak

Esan behar da, hasteko, aposizio hauek euskarak erakusten digun ordena naturala deitura + izen arrunta dela:

- (10) *Igone arraindegia*
- (11) *Jakintza liburudenda*
- (12) **arraindegi Igone*
- (13) **liburudenda Jakintza*

Genitiboa ere erabil daiteke ongi aski, baina orduan esanahia desberdina da:

- (14) *Igoneren arraindegia*
- (15) *Antoneren taberna*

Ikusten denez, gauza bat da "Igone arraindegia", esan nahi baita badela "Igone" izena duen arraindegi bat, eta beste gauza bat da Igonek duen arraindegia, zein izen duen ez dugula zehazten. Hurrengo adibidean argiago ageri da hori:

(16) *Mattinen Igone arraindegia*

Hots, Mattinek badu "Igone" izeneko arraindegi bat. Hori da esaldi horrek izan dezakeen esanahi bakarra.

Jabego genitiboaz hitz egin duguncan esan dugun bezala, izena izkuntzan gera daiteke (beti ere denda edo etxe horren izena pertsona izena denean, ez bestela):

(17) *Patzirenean egon gara*

(18) *Igonerenean oso arrain freskoa saltzen dute*

7.4. *San, santa, saildu, done*

Saindu adjektiboa nahiz izena izan daiteke eta izena denean aposizio modura ere ager daiteke. Ondoko adibide honetan, esaterako, izenondo arrunta dugu *saindu*:

(19) *persona saildua dela diote, baina deabrua dirudi*

Beste batzuetan izen bihurtzen dugu:

(20) *ekar ezazu saildu hori*

Eta hurrengo honetan, berriz, aposizioan dago:

(21) *Anton saildua*

Izen bereziak esaten digu, hain zuzen, zein sailduz ari garen, *Bidasoa kafetegia* bezalako batean *Bidasoa* hitzak zein kafetegiz ari garen zehazten digun moduan. Baina *Santa Ines* edo *San Anton* bezalakoetan izen osoa hartu behar dugu izen berezizat.

7.5. Jaun, andere

• *Jaun* eta *andere* eta antzekoak izenaren ezkerrean nahiz eskuinean agertzen ahal dira:

- (22) *Lasa jauna*
- (23) *Albordi anderea*
- (24) *Jaun erretorea*
- (25) *erretore jauna*
- (26) *andere serora*
- (27) *Andere Joakina*
- (28) *andre Maddalen*

• Goikookin batera erabil ditzakegu *Don* eta *On* ere:

- (29) *On Ramon agurgarria*

• Ahaidetasuna adierazten duten izenak ezkerretan joan ohi dira:

- (30) *amona Josefina*
- (31) *aitona Bernardo*
- (32) *osaba Anton*

• Batzuetan tituluak bikoiztuak aurkituko ditugu:

- (33) *Narbaitz jaun kalonjea*
- (34) *Dominique, Baionako jaun apezpikua*

Hala ere, hiztun batzuek gaitzesten dute nonbait horrenbeste titulu jartzea: *Oihanburuko jauna* bai, eta *jaun alkatea* ere, baina ez dute erraz onartzen *Oihanburu jaun alkatea*.

7.6. Aposizioak eta kasu markak

Aposizioa, hortaz, beti beste sintagma baten ondoan ageri da. Hau dela eta, bada aipatu behar den beste kontu bat, kasuari dagokiona. Aposizioan doazen sintagmek, zer kasu marka hartu behar dute? Aurreko sintagmarena bera ala ez? Beste hitzean esateko: bi zatiek (sintagmak eta aposizioak alegia) eraman behar al dute kasu marka bera eta bakarra edo kasu desberdinetan joan daitezke?

Aposizioa murrizgarria denean ez da dudarik eta atzizki bakarra izango du, izen sintagma osoaren azkenean paratua:

(35) *Urola ibaitik etorri da*

Baina beste aposizio motetan gauzak ez daude hain argi. Sarritan badirudi aski dugula kasu marka behin bakarrik jartzea, izen sintagmaren azkenean:

(36) *Axular, nafar finak, oso gauza ederrak idatzi zituen*

Hona hemen, esaterako, Bonaparte euskaltzaleak Sarako elizan utzitako izkribua (euskara batura moldatua):

(37) *Pedro Axular, euskaldun izkribatzaileetatik hiztun ederrenari, ni, Luis Luziano Bonaparte, euskaltzaleak hau ipini nion: "Ez dago atsedetik, eta hodei gabe egunik, zeruetan baizik"*

Baina etena handia denean eta egiazki aposizio ez-murrizgarria denean, badirudi bi sintagmei erantzen zaiela delako marka hori:

(38) *Axularrek, Otsondo inguruan sortu zen nafar finak,...*

(39) *Andoniri, nire lehengusuari, gauzak gaizki ateratzaizkie*

8. kapitulua:

IZEN SINTAGMAREN KASUAK

8.0. Sarrera

Orain arte ikusi dugu nola osatzen den izen sintagma eta zer nolako elementu edo osagaiak har ditzakeen behar den bezala eratu izateko. Izen sintagma aditz laguntzailearekin estu estuki loturik dago eta harekin komunztadura egiten du, komunztadura egiteko orduan kasu bat baino gehiago erakusten duelarik. Kasu hauetako bat, neutroena agian, ez baitu marka formalik hartzen, *absolutiboa* da:

- (1) *eskalea etorri da*
- (2) *eskalea ikusi dut*

Kasu honen barnean bada beste bat gramatiketan normalean autonomotzat jo izan dena, baina absolutiboren azpisail batean sartu beharko litzatekeena: *partitiboa*. Kasu honek absolutiboaren distribuzioa du, baina absolutiboak ez dituen bestelako baldintza batzuen barnean ageri da:

(3) ez da *eskalerik* etorri

(4) ez dut *eskalerik* ikusi

Absolutiboaren marka \emptyset da (zero) eta partitiboarena, ikusten denez, *-ik*.

Izen sintagma ergatiboan agertzen da beste batzuetan, subjektuaren funtzioa duela, *-k* marka hartuz:

(5) *eskaleak* aguru gaitu

Esan dezagun, azkenik, izen sintagma datiboan ere agertzen ahal dela, horrela ere egin baitezake komuntadura aditzarekin:

(6) *eskaleari* omango diogu

Horiexek dira, horrenbestez, izen sintagmaren kasuak eta horiexek dira orain ikusiko ditugunak.

8.1. Absolutiboa (\emptyset) eta partitiboa (-ik)

8.1.1. Forma

1) Mugagabea:	\emptyset (partitiboa: -(r)ik)
2) Mugatua sing.:	-a
3) Mugatu plur.:	-ak

Ikusten denez, absolutiboak ez du kasu markarik agerian:

(7) bost apez ikusi ditugu

(8) bost alkate etorri dira

Arikulua har dezake sintagmak, noski:

- (9) *apeza* etorri da
(10) *alkatea* ikusi dut

Eta plurala ere:

- (11) *apezak* etorri dira
(12) *alkateak* sartu dira

Bizkaieraz bereziki *ea* egiten da kasu honetan, hitza bera *a* hotsarekin bukatzen denean: *alabea*.

Partitiboak ez dezake mugagabea baizik har, hitza bokalez bukatzen bada tarteko *r* hori sortzen delarik:

- (13) ez da *apezik* etorri
(14) ez da *alkaterik* sartu

8.1.2. Funtzioa

• Absolutiboak bi funtzio nagusi ditu, jakina den bezala: aditz iragangaitzetako subjektua da edo aditz iragankorretako objektua, ondoko adibideotan ikusten den moduan:

- (15) *Jon* etorri da
(16) *Jon* ikusi dut

• Predikatu osagarria ere absolutiboan jartzen dugu (alde batera utziko ditugu hemen zalantzarazkoak izan daitezkeen *egarri naiz*, *merke saltzen dira* eta horiek bezalako esapideak):

- (17) etxe hau *politu* da

• Pisua, neurria, prezioa, tokia, modua, denbora eta horrelakoak adierazteko itzuli adberbialak erabiltzen ditugu, absolutiboan ageri direnak maiz aski (nahiz bestelako kasuetan ere ager daitezkeen):

- (18) *bi aste* egonen da hemen
- (19) *orain dela zazpi urte* etorri zen
- (20) patata horiek *bost kilo* pisatzen dute

• Bokatu¹boa ere kasu honetaz baliaturik adierazten da:

- (21) *Joxe*, hator hona!

8.1.3. Erabilera

• Bokatu¹boa aipatu dugu oraintxe berean. Bokatu¹bo hori batzuetan artikulua²rekin eta beste batzuetan artikulurik gabe agertzen zaigu:

- (22) bai, jauna (bai **jauna*)
- (23) ez, andre (ez, *andrea*)

• Izenburu eta tituluak artikulua²rekin jartzen dira euskaraz:

- (24) gizarte^a (*gizarte)
- (25) kale^a (*kale)
- (26) batzoki^a (*batzoki)

• Posposizio batzuek kasu hau gobernatzen dute:

- (27) *ikus* *zintudan* *eguna* *arte*
- (28) *bi* *egun* *barru*

• Esan dezagun kasu honek komunztadura egiten duela aditzarekin:

- (29) *andrea ikusi du*
 (30) *andreak ikusi ditut*
 (31) *andrea etorri da*
 (32) *andreak etorri dira*

• Partitiboa kasu autonomotzat hartu izan den arren sarritan gramatiketan, absolutiboaren baliokidea da guztiz eta absolutiboak duen distribuzioa du, neurri handi batean bederen. Ikusi dugun moduan beti mugagabea ageri da. Hori dela eta, komunztadura singularra balitz bezala egin behar du:

- (33) *ez dut mendirik aurkitu N. Yorken*
 (34) **ez ditut mendirik aurkitu N. Yorken*

Partitiboa agertzen zaigu ezezko perpausetan, goiko adibideak erakusten digun moduan. Erabilera hori errazago aurkitzen ahal dugu delako izen sintagma *masa* moduan ulertzen baldin badugu:

- (35) *ez dut ogirik erosi*

Entitateek erreferentzia bakarra eta konkretua dutenean ezin da partitiboa erabili:

- (36) *gaur ez da irakaslerik etorri eskolara*
 (37) *gaur ez da irakaslea etorri eskolara*

Jakina, bigarrenean erreferentzia zuzena duen irakasle bati buruz ari gara. Aurrekoan, ordea, ez da hala gertatzen. Horrela sortzen dira honelako esaldiak ere:

- (38) *ez da ogirik*
 (39) *ez da ardorik*

Galde perpausetan ere erraz aurkituko dugu partitiboa:

(40) behar duzue *ogirik*?

Eta hor, *ogirik* jarri beharrean *libururik* jarri izan bagenu, berdin: abstraktua den zerbaitez ari gara. Zati galderetan ere, galdera hauck erretorikoak direnca, badu lekurik partitiboak:

(41) nork erosi du inoiz *ogirik* liburudenda honetan?

Baina hor ez da benetakoa galdera, ezezka ematen dugun baieztapena baizik: alegia, inork ez duela inoiz ere erosi hor *ogirik*.

Baldintzazkoetan aurkitzen da sarritan partitiboa:

(42) *laguntzarik* behar baduzu, deitu

Honen antzera konparazioak egitean ere:

(43) *mendirik* handiena

Edo *asko*, *gutxi*, *franko* eta halakoetan ere:

(44) *zaldirik* franko

(45) *gizonik* aski

Baina hiru hauean (baldintzazkoetan, konparazioetan eta zenbatzaile zehaztugabetan) aukeran dugu, jakina, partitiboa erabilteza ala ez:

(46) *laguntza* behar baduzu

(47) *mendi* handiena

(48) *gizon* aski

Balio enfatikoa eman nahi diogunean sintagmari, baiezko perpausetan aurkituko dugu partitiboa, nahiz gaur egun erabilera honen abusua gertatzen ari den:

(49) bada hemen *neska ederrik*

Partitiboak aditzondoak sor ditzake eta horrek *-ko* marka hartu:

(50) zuk *ikusiriko* liburuak

(51) zuk *ikusirikako* liburuak

Esan dezagun, azkenik, partitiboaren markak aditzondoak sortzen ahal dituela batzuetan (absolutiboak ere sintagma adberbialak sortzen dituen era berean), predikatuan aurkituko ditugunak:

(52) mutil hura *gazterik* hil zen

(53) haur horiek *bakarrik* utzi dituzte

8.2. Ergatiboa (-k)

8.2.1. Forma

- | | |
|-------------------|--------------|
| 1) Mugagabea: | - <i>e/k</i> |
| 2) Mugatua sing.: | - <i>ak</i> |
| 3) Mugatu plur.: | - <i>ek</i> |

Izen sintagmaren kasu honen marka *-k* da, loturako *-e-* bat hartzen duenarik izena edo izenkia kontsonantez bukatzen denean:

(54) zer ikaslek ekarri dizu hori?

(55) zer lagunek ekarri dizu hori?

Artikulua eta zenbaki marka jarritz gero hauxe dugu:

- (56) *lagunak esan du*
(57) *lagunek esan dute*

8.2.2. Funtzioa

Ergatiboak beti subjektuaren funtzioa betetzen du. Normalean, baina ez beti subjektuaren funtzioa bat dator ekintzaren egiletasunarekin. Esan nahi baita, ekintza baten egilea (kontzeptu semantikoa) eta subjektua (kontzeptu sintaktikoa) normalean izen sintagma berean biltzen dira. Baina bitasun batu hau askotan hautsia gertatzen da:

- (58) *haurrak* leihotik boia du sagarra
(59) Jaunkoa *deabruaz* tentatua izan zen
(60) *ume honek* ezul ederra bildu du

Hiru adibide hauetan badirudi lehenbizikoan bakarrik doazela eskutik egiletasuna eta subjektutasuna, hor haurra baita aldi berean egilea eta subjektua. Bigarrenean, *deabruaz* sintagma egiletasuna markatzen du, nahiz ez den subjektua. Azkenekoan, berriz, umea subjektua da, baina nekez egilea, egiletasun horrek gauzak egiteko nahia edo borondalca erakutsi behar duela baitirudi eta hemen, hain zuzen, ez dago hain argi umeak nahi izan duelako bildu duela ezula.

Mendebaleko euskalkietan ez da bereizten, hala ere, singularren eta pluralaren artean, bietan *-ak* egiten baita (*lagunak esan du* eta *lagunak esan dute*).

8.2.3. Erabilera

• Ergatiboarekin batera beste sintagma bat, objektua, agertzen da normalean aditzaren osagarri moduan, absolutibo kasuan:

- (61) andre horrek *bazterrak* txukuntzen ditu

Hala ere, aditz batzuek ergatiboa besterik ez dute eskatzen, absolutiboan egon beharko lukkeen sintagma hura gabe:

- (62) oso berandu *urten* du aitak etxetik
- (63) euskarak *iraunen* du gure lagunekin erabiltzen badugu
- (64) esneak ustc gabean *irakin* du
- (65) baserritarrek gogor *dihardu* lanean

Jo aditza ere sail honetakoa litzateke erabilera batean:

- (66) Andonik mendi aldera *jo* du

Aditz honek bai baitu, horren ondoan, beste erabilera bat ere, *zanpatu* edo esan nahi duena:

- (67) Andonik oso ongi *jotzen* du gitarra
- (68) Koldok bere anaia *jo* du

Beste aditz batzuek absolutiboan ez doan beste izen sintagma bat nahi dute ergatiboarekin batera:

- (69) *lan honi* beretala *ekinen* diogu (*guk*)
- (70) baserritarrek hemendik *eusten* diote *igitaiari*

• Badira lexikalizaturik geratu diren zenbait izen, aditzarekin bat eginak: *berba egin*, *hitz egin*, *lan egin*, *alde egin*, *huts egin*, e.a. Horrelako aditzetan *berba*, *hitz*, *lan* edo *alde* bezalako hitzak ez daude absolutibo kasuan, baizik aditzarekin bat eginak. Horregatik ez dute absolutibo kasuan dauden sintagmen distribuzio bera:

- (71) *etxeak* egin ditut
- (72) ez dut *etxerik* egin
- (73) *etxe handia* egin dut
- (74) **aldeak* egin ditut

- (75) *ez dut *alderik* egin
(76) *alde *handia* egin dut

Jakina; sail honetan dauden guztiak ez dira berdin-berdinak eta lexikalizatzeko prozesu maila diferentean daude: *berba egin* esaten da, baina honekin batean *berba asko egin* ere; *hitz egin* eta *hitzik egin* ez dira berdinak; ezta ere *huts egin* eta *hutsik egin*; *meza huts egin du* esan daiteke, baina ez **otoitza hitz egin du*, e.a.

- Eguraldi aditzetan ez dugu ergatiborik, nahiz aditza iragankorra den:

- (77) atertu du
(78) euria egin du
(79) eguna luzatu du

Neurri batean, gaur egun honenbeste hedatzen ari diren *duela hamar urte* bezalako esapideek ere goiko horien egitura izango lukete, hor ere ez baita ergatiborik (bide batez, literatura tradizioan *orain dela hamar urte* bezalako esakerak menderallean ageri dira maizago, *orain duela hamar urte* ekialdekoa delako. Denetan zaharrena *orain hamar urte* da).

- Ez da esan beharrik, aditzarekin komunizatu behar du kasu honek:

- (80) *nik* ez dut egin
(81) *guk* asmatu dugu

8.3. Datiboa (-i)

8.3.1. Forma

- | | |
|-------------------|-------|
| 1) Mugagabea: | -(r)i |
| 2) Mugatua sing.: | -ari |
| 3) Mugatu plur.: | -ei |

Datiboaren oinarrizko marka -i da, baina tarteko -r- bat hartu behar izaten du izenkia bokalez bukatzen denean:

(82) bost gizon*i* esan genien etortzeko

(83) bost andreri esan genien etortzeko

Singularrean -ari eta pluralean -ei, beti berdin:

(84) andreri esan zenion

(85) andreei esan zenien

8.3.2. Funtzioa eta erabilera

• Bigarren objektua edo zehar objektua markatzeko erabiltzen dugu datiboa eta komunztadura egiten du aditzarekin:

(86) Anttonek Laurari eman dio pilota

(87) Anttonek hurrei eman die pilota

Hala ere, literatura tradizioan eta egungo ekialdeko hizkeran, goi-nafarrera baxe, ez da beti egiten komunztadura, izen sintagma datiboa agerian baldin bada behintzat. Lapurteraz, ordea, badirudi tradizio handiagoa izan duela, mendebaleko euskalkietan bezala, komunztadura agerian uzteak:

(88) nagusiak erran du bere etxekoei

(89) alkateak herrikoei eskatu du bestak hobeki antolatzeko

Zornahi gisaz, idazteko orduan bederen, badirudi komunztadura hau beti errespetatu behar gendakela batasun bidan aurreratu nahi badugu, horixe baita hedatuena dagoen usarioa.

• Zenbait aditzek hartzen duen osagarria datiboan jarri behar izaten dugu: *ekin, jarraitu, jarraiki, eutsi, begiratu, behatu, eragin*, e.a.:

- (90) gazteria ez zaio jarraituzen *gurasoen legeari*
(91) indarrez eragin zion *palankari*

Semantika aldetik genitiboa eskatuko luketen hainbat esapide datiboaren bidetz ere eman ditzakegu. Hori gertatzen da ondoko adibide hauek:

- | | |
|-------------------------------|-------------------------|
| (92) nire ama hil da | ama hil zait |
| (93) gure semea erotu da | semea erotu zaigu |
| (94) zuen maisua haserretu da | maisua haserretu zaizue |

Ohart gaituzen ergatiboa eta datiboaren artean ere halako zerbait gertatzen zaigula:

- | | |
|--------------------------|-----------------------|
| (95) dirua galdu dut | dirua galdu zait |
| (96) lanak ahantzi ditut | lanak ahantzi zaizkit |

Falta dut eta *falta zait* ere sail berekoak dira. Datiboarekin ageri da aditz hau Leizarragaren, Uriarteren, Hualderen eta Harizmendiren testuetan, besteak beste. Mitxelena berak ere maizago erabiltzen ditu *falta zaiten* sailkoak. Ekialdean eta Baztanen usuago ageri da *eskas* besteek kide bezala, normalean datiborik gabe, *falta* hori ez baita harrenbeste erabiltzen:

- (97) zer dut oraino eskas

• Posposizio batzuek kasu marka hau eskatzen dute:

- (98) senarrari *buruz* mintzatu da
(99) anaiari *esker* jakin ahal izan zuen
(100) amari *kontra* bildu da haurra

8.4. Azken oharrak

Beste hizkuntza askotan gertatzen den moduan, euskaraz ere zenbait *sinkretismo* gertatzen da, funtzio gramatikal diferenteak adierazteko marka berberak erabiliz. Aipa ditzagun hemen horietako batzuk:

- Mendebaleko mintzairetan pluraleko absolutiboa eta ergatiboa nahasi egiten dira, kasu honetako sinkretismoa aditzak hausten duelarik (hau ez da onartua euskara batuan, jakina denez):

(101) *umeak* zarata handia ateratzen dute

(102) *umeak* eraman ditu Karmelek haurzaindegira

- Mintzaira eta euskalki guztietan ergatibo singularra eta absolutibo plurala marka berarekin datoz:

(103) *umeak* zarata handia ateratzen du

- Perpaus iragangaitzetako subjektuaren funtzioa eta perpaus iragankorretako objektuaren funtzioa kasu marka berarekin adierazten dira (hau da zinezko sinkretismoa):

(104) *umea* mendira joan da

(105) *umea* ekarri du Edurnek

- Esan dezagun, azkenik, ergatiboaren mugagabea eta ergatibo mugatu plurala sinkretismoan agertzen direla hitza kontsonantez amaitzen bada:

(106) bost *gizonek* esan dute

(107) *gizonek* egin dute

Hizketa bizian sinkretismo horiek guztiak eta gehiago ere aurkituko dira, egia esan. Dena dela, hiztunak baditu bideak sinkretismo horrek sor

ditzakeen anbiguitateak hausteko, azentuzioa, testuingurua, aditzaren morfologia, e.a.

9. kapitulua:

ADITZ MOTAK

9.0. Sarrera

Perpauaren oinarriko osagaietako bat *izen sintagma* dela adierazi dugu. Beste osagaia *aditz sintagma* da. Hizkuntzalarien artean eztabaidak izan dira izen sintagmaz gain bigarren osagaia aditz sintagma ote den ala, alderantziz, aditzaren inguruko elementuak den-denak parean ote dauden, perpauaren barnean izen sintagma desberdinak eta aditza bakarrik bereiziz. Bestela esan; hizkuntzalariek eztabaidatu dute euskaraz aditz sintagmarik ba ote den. Hemen ez ditugu eztabaida honetan erabili izan diren argumentuak zehaztuko, gramatika hau ez baita leku aproposena horren berri emateko. Hala ere, badirudi arrazoi handiagoak daudela euskal perpauaren egituran aditz sintagma behar dugula baieztatzeko, ezeztatze baina. Hori dela eta, hemen ere ontzat emango dugu perpauaren osagaiak izen sintagma eta aditz sintagma direla onartzen duen hipotesia. Azken batean, eztabaida honek ez baitu funts gehiegi tankera honetako gramatika batean.

Aditz sintagmaren ardatz elementua aditza da eta honek hartzen ditu bere inguruan hainbat osagarri, osagarri hauek aditzarekin batera osatzen

duten egituraren konplexutasuna behar bezala aztertzeke dagoela oraindik. Has gaitezen, hortaz, aditzarekin, aditzen barnean dauden aditz mota desberdinak bereiziz.

9.1. Aditz bakunak eta aditz elkartuak

9.1.1. Aditz bakunak

9.1.1.1. Euskal aditzaren barnean multzoak eta bereizketak egiteko orduan bide bat baino gehiago segi daiteke. Horrela, adizki trinkoak eta adizki perisfrasikoak bereizten dira, esate baterako, gramatiketan:

- (1) Mikel *dator*
- (2) Mikel *etorri da*

Ez da hori, hala ere, bide bakarra. Bigarren adibidea hartuz gero, esate baterako, bi zati nagusi bereiziko ditugu hor: batek biltzen du aditzaren esanahia (*etor*) eta bestean ageri dira gramatika markak (-i, d-, -a-): aspektua, aldia (*EGLU-II* liburuan *tempusa* deitzen da), e.a. Esanahia biltzen duen zatia aditzoia deitzen zaio: hain zuzen ere, aditzoian oinarriturik, aditz mota desberdinak bereiz daitezke. Kontua da, ordea, aditzoia ez dela normalean bakarrik ageri, baizik aspektu burutuaren markarekin, partizipioan alegia. Izendatu ere, partizipioaz baliatuz izendatzen ditugu aditzak. Horrela, *comprar* edo *acheter* cuskaraz nola esaten den galdetuz gero gaur egun, erantzuna ez da *eros*, baizik *erosi* (salbu zubereraz). Hor ikusten da nola cuskaraz, erdaraz ez bezala, aditzoia (*eros*) aspektu markarekin batera (-i) ematen dugun. Zemahe gisaz, zenbait testuingurutan aditzoia bera bakarrik ere erabiltzen ahal denez, geroago itzuliko gara puntu hau aztertzeraz.

Esanahia biltzen duen zatia bakarrik kontuan hartuz, sailkapen nagusi hau egin daiteke cuskaraz (esan bezala, partizipioaz izendatuko ditugu guk ere, ohiturari jarraiki): aditz bakunak eta aditz elkartuak, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

- (3) andreak autoa *saldu* du
- (4) haurra mendira *joan* da
- (5) mundua *ixtur*aldatzen ari zaigu
- (6) gure proposamenena *onetsi* zuten

Lehenbiziko bi aditzak (*saldu* eta *joan*) *bakunak* direla esanen dugu, morfema batuk bakarrik osatuak (partizipioaren morfema ez da, jakina, kontuan hartzen). Beste bi aditzak, berriz, *elkartuak* dira (*ixtura-aldatu*; *on-etsi*).

9.1.1.2. Aditz bakunen artean, aditz *berezkoak* eta aditz *eratorriak* bereiz daitezke. Berezkoak dira, esate baterako, *joan*, *erosi*, *saldu*, *etorri*, *ikusi*, *egin*, e.a. Baina aditz guztiak ez dira sail horretan sartzen, hainbat aditz berri sor baitaiteke beste kategoria bat oinarri hartuz. Aditz hauei *aditz eratorriak* esaten diegu: *gizondu*, *gorritu*, *berandutu*, *etxeratu*, e.a.

- Aditz eratorri batzuk *izen* batetik eratoritzen dira: *halakoak* dira *gizondu*, *arautu*, *umetu*, *distiratu*, *gosaldu*, *aitondu*, *eskertu*, *dirutu*, e.a.

- Beste aditz batzuek *adjektiboak* (izenondoak eta *-koz* osaturiko izenlagunak) dituzte oinarrian: *luzatu*, *zahartu*, *ihartu*, *usteldu*, *etxekotu*, *gorritu*, *goibeldu*, *garrastu*, *gaurkotu*, *bestelakotu*, *ilundu*, *zikindu*, *garbitu*, *lehortu*, e.a.

- Badira *aditzondoan* oinarritzen direnak ere: *berandutu*, *urrundu*, *hurbildu*, *gainezkatu*, *zeharkatu*, *harrikatu*, e.a.

- Aditz batzuk *-ra* kasu marka daraman izen sintagmatik eratorriak dira: *plazaratu*, *urrutiratu*, *oheratu*, *leporatu*, *etxeratu*, *kaleratu*, e.a. Aditz hauek garai batean ez zuten ez eta partizipioaren marka ere hartzen: *atera* (adizlaguna nahiz aditza izan daiteke).

- Azkenik, ekintzak eragileren bat duela adierazi nahi dugunean, aditzoinari *arazi*, *erazo* edo *eragin* gaineratzen zaio: *geldiarazi*, *eginarazi*,

saiatuarazi, sortarazi, barre eragin, lan eragin, e.a. Aditz elementu arazle horiekin batera, antzina euskarak bazuen beste baliabide bat aditzoin arazleak sortzeko: *-ra-* artizkia. Horrela, honako aditzok aurki daitezke gaur egun ere: *eratorri, eragin, erantzun, irakatsi, erakutsi, iragan, iratzarri, erantzi, eraso, erabili, eragotzi, erasan*, e.a. Artizki hau, nolana ere, iharturik gelditu da, ez baitu balio jadanik balio arazle hori aditzoinari eransteko. Areago, *-ra-* artizkiaren bidez sortutako aditzoin arazle askok eta askok balio berezi hau galdu egin dute eta, ondorioz, *-ra-* dūn aditzoin horiek beste edozein aditzoinen pareko bilakatu dira: *erantzun, eratorri* eta *erabili, esaterako*, ez ditugu *entzun, etorri* eta *ibili* aditzen arazletzat hartzen egungo euskaran, beren esanahi propioa garatu baitute. Hori dela eta, arazle ere bihurtzeko gero aipatu bidelik:

(7) hiru orduz laruzko berokia soinean *erabilarazi* zidaten

9.1.2. Aditz elkartuak

Aditz elkartuen artean ere mota asko bereiz daitezkeenez, multzo bat baino gehiago egingo dugu.

• Aipa ditzagun, hasteko, *aditz elkartu berezkoak*. Honela deitzen ditugu bi elementuz osaturiko aditzak, bi elementu horien artean bigarrena aditza delarik. Horrela eratzen dira *eraberritu, antzaldatu, itxuraldatu* eta halakoak. Halaber *etsi* eta *iritzi* aditzekin osatutako aditz elkartu berezkoak, gaur askotan ihartuzat eman baditzakegu ere: *onetsi, oniritzi, gaitzetsi, berantetsi, gaitziritz*, e.a. Hauek denak elkaturik idatzi behar dira: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu, indargaberi; aspimarratu, aurr(e)ikusi*, e.a.

(8) hiru ikasleren aurrean *antzaldatu* zen Tabor mendian

• Aditz batzuek **edun* motako lagunizailea daramate: *maite izan/ukan, behar izan/ukan, nahi izan/ukan, ustie izan/ukan, damu*

izan/ukan, merezi izantukan, balio izan/ukan, higuin izantukan, ezagun izan/ukan, e.a.

- (9) *maite ditut*, maite, zure bazterrak, lanbroak izkutatzen daizkidarcan (kantua)
 (10) gure haurrak beti ere lehengusuaren jostailua *nahi izaten du*

Sail honetan sar litezke *ahal izan/ukan* eta *ezin izan/ukan*, aditz bezala erabiltzen ditugunean:

- (11) nik *ahal dut*
 (12) horrek *ezin du*

• Aditz asko ditugu cuskaraz *izena + egin, eman* edo *hartu* kateaz baliatuz osatzen direnak: *negar egin, piper egin, lo egin, alde egin, hitz egin, ezul egin, berba egin, min eman, hitz eman, okasio eman, bide eman, esku eman, min hartu, kontu hartu, e.a.:*

- (13) ez da jendearen aurrean *berba egiteko* gauza
 (14) oso ondo *lo egiten* da ohe honetan

Tankera honetako aditzez beste nonbait ere mintzatu baldin bagara ere (ikus 1. eta 8. kapituluak), orotiaraziko dugu hemen aditz hauen guztien lexikalizatze maila ez dela beti berdina. Batzuetan izena aditzetik bereiz daiteke, beste objektuak bereizten diren modu bertsuan:

- (15) ez du *negar(ik) egin*
 (16) ez du *min(ik) hartu*

Beste batzuetan, ostera, ez:

- (17) *ez du *alderik egin*
 (18) ez du *aldegin*

Partitibokuren marka hartu ondoren, esanahia ere aldaturik geratzen da batzuetan:

(19) ez du hitzik egin ≠ ez du hitz egin

(20) ez du lanik egin ≠ ez du lan egin (euskalki batzuetan bederen)

Gainera, aurreko sailekoek objektua hartzen badute ere ("*Miren maite du*") aditz hauek ezin dute objektu zuzenik hartu:

(21) **predikua* hitz egin du

(22) **iflakik bore andregai*a aldegin du

Salbuespena *huts egin* da, euskalki batzuetan eta itzuli batzuetan bakarrik erabilia:

(23) *meza huts* egin du

(24) *kolpea huts* egin du

Aditz hauek, nolana ere, beti bereiz idatzi behar dira: *lo egin, negar egin, barre egin, oihu egin, berba egin; negar eragin, barre eragin, leher eragin; beldur eman, hitz eman, kontu eman, su eman; min hartu, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu*, e.a.

* Aditz batzuk *izan* laguntzaileaz baliaturik osatzen ditugu: *lotsa izan, gose izan, egarri izan, hotz izan*, e.a.

(25) txikitari Tolosan *bizi izan nintzen*

(26) *beldur naiz* ez ote duen elurra egingo

Dena dela, aditz hauek ez dira beti modu berean erabiltzen (geroago azalitzen den moduan):

(27) datorren urtean Tolosan *biziko naiz*

(28) *datorren urtean *beldurko naiz* unibertsitatean sartzen naizenean

9.2. Aditz motak kasu gramatikalen arabera

9.2.1. *Nor* eta *nor-nork* motako aditzak

Orain arte eman ditugun irizpideez gain, aditzoinak beste modu batera ere sailka daitezke: aditz bakoitzak onartzen dituen kasu gramatikaletan (hau da, *nor*, *nork* eta *nori* kasuetan) oinarrituzen da beste sailkapen irizpide hau, aditzak erabakitzen baitu perpaus batean *nork* edo *nori* sintagmarik agertu behar duen edo ager daitekeen:

(29) berandu *etorri da*

(30) berandu *etorri zaigu*

(31) *berandu *etorri du*

Etorri aditza, horrenbestez, *nor* saillekoa da eta *nori* ere aukeran dauka, baina ezin du *nork* sintagmarik hartu. Aldiz, *jakin* aditzak beti *nork* sintagma eskatzen du, baina ez du *nori* sintagmarik onartzen:

(32) aitak egia jakin *du*

(33) *aitak egia jakin *dio*

Aditzak onar ditzakeen sintagmak kontuan hartuz, hortaz, sailkapen nagusi hau egin daiteke: aditz batzuk *nor* motakoak dira; beste batzuk, berriz, *nor-nork* motakoak:

(34) Koldo *beldur da* ez ote den berriz ere eroriko

(35) Mirentxuk bidetan *agurtu gaitu*

Argi dago ez dagokiola gramatikari, baizik hiztegiari, aditz bakoitza zein sailletakoa den zehaztea, sail hauek ez baitira beti berdin agertzen euskalki guztietan: adibidez, *joan* aditza mendebaldean *nor* saillekoa den arren, ekialdeko euskalkietan *nor-nork* bezala ere agertzen da, *eraman* aditzaren esanahia hartzen duela orduan. Gauza bera gertatzen da *ibili*

aditzarekin ere. Esan dezagun, dena dela, *nor-nork* erako sailcan azpimultzo batzuk bereiz daitezkeela.

• *Nor-nork* sistemako aditzetan absolutiboan eta ergatiboan dauden sintagma behar izaten ditugu normalean (nahiz hizkuntzak sintagma hauek izkutan uzteko aukera ere baduen):

(36) [gure osabak] erosi omen du [etxea]

(37) [guk] hiru bidez bazkatzen dugu [zakurra] egunero

• Sistema honetako aditz batzuek, ordea, ez dute benetako *nor* sintagmarik onartzen, nahiz itxuraz adizkia *nor* sintagma dugunean bezalakoxea izan (laguntzaitzat *nor-nork* sistemako aditza behar baitute):

(38) josten ikasi du

(39) arratsalde osoan dihardu lanean

Aditz hauek *nor-nork* motakoak ditugu, baina *nor* sintagmaren ordeztzesiboa hartzen dute (*josten, lanean*) objektu bezala. Aditz mota hauek *nor izeneko* aditzak direla esaten dugu.

Sail honetan berean sartu behar dira *balio izanlutan, irauten, pisatu, neurtu*, eta halako aditzak. Hautan bada itxuraz *nor* sintagma bat baina sintagma honen funtzioa ez da objektuarena, sintagma adverbiala delako azken funtsean, *zenbat* galderari erantzuten diotenak (ikus 8. kapitulua):

(40) hiru ordu irauten du filme horrek

(41) bost mila pezeta balio du liburuak

Nor izenekoak dira, hirugarrenik, *deitu, begiratu, lagundu* eta horrelakoak (beti ere *nor-nori-nork* sisteman erabiltzen baditugu, *nori* gabe ere erabiltzen ahal baitira):

- (42) *elxera lagundu* dizuet
 (43) *telefonoz deitu* digute
 (44) *jakinmin ez begiratu* dizu

Sistema honetan (*nor-nori-nork*) hiru sintagma behar ditugu, baina berriz ere *nor* sintagma ez da ageri, *nor izuna* dugu hemen. Jakina denez, aditz hauek beste era bitara ere eman litezke: "telefonoz deitu zaitut" eta "telefonoz dei egin dizut". Orduan ez litzateke arazorik sortuko, sintagma guztiak behar bezala gauzatuak izango baikenituzke.

Bada oraindik laugarren sail bat ere: *bazkaldu, gosaldtu, afaldu, irakin, kurritu, distiratu*, e.a. Aditz hauek guztiak, beste nonbait esan den moduan, aditz iragangaitzak ditugu (objekturik hartzen ez dutelako). Ekialdeko euskalkietan *bazkaldu, gosaldtu* eta halakoek *izan* hartzen ahal badute ere laguntzailizat, beste euskalkietan **edun* behar dute, baina, tradizioaren arabera, objekturik gabe. Euskarak mailegatzen dituen aditzek, sarri askotan, bide hau segitzen dute: *funtzionatu, dimititu*, e.a.

• Beste aditz multzo batean, berriz, *nork* sintagma da ageri ez dena. Gutxi izanik ere, aditz batzuek *nor-nork* motako laguntzaillea eskatzen dute, baina ez dute *nork* sintagmarik onartzen:

- (45) *euria hasi* du
 (46) *holz handia egiten* du
 (47) *eguna luzatu* du

• Azkenean jarriko ditugu *merezi izan/ukan* eta *halio izan/ukan* esapideek osatzen dituztenak. Aditz hauek izan daitezke, batetik, *nor-nork* sistemako aditz arruntak:

- (48) *halako abiadan joategatik karneta urte osorako goratzea merezi du* gizon horrek

Ikusten denez, hor daude gauzatuak bi sintagmak: *nor* eta *nork*, alegia. Baina bestetik, ekintza batez ari garenean, askotan ez dugu subjektua adierazten duen izen sintagmarik: hemen ere *nork* sintagma falta dugu. Hori gertatzen da honako adibideotan:

(49) pelikula hori ikustea *merezi* du

(50) horrela jokatzea ez du *balio*

Ez dezagun ahantz erabilera hau dutenean zenbait hiztunek alderantzizkoa ere egiten dutela, *nor* sintagma sobran utziz:

(51) pelikula hori ikusteak *merezi* du

(52) horrela jokatzek ez du *balio*

9.2.2. Sail aldaketak

Aditzak sailka multzokatu ditugun arren, sail batetik besterako aldaketak gertatzen dira. Aipa ditugun hemen maizen gertatzen direnak.

9.2.2.1. Aditzek balio inpersonal hartzen dutenean gertatzen da aldaketa nagusi bat. Horrela, *nor-nork* sailkoa da *saldu* aditza:

(53) dendariek sagarrak garesti *saltzen dituzte*

Baina aditz hau inpersonal bihurtuz gero, *nork* sintagma desagertzen da eta orduan, berez *nor-nork* sistemakoa den aditza *nor* sistemako bihurtzen dugu:

(54) sagarrak garesti *saltzen dira*

Nor sistemako aditzak ere izan daitezke pertsonalak edo inpersonalak:

(55) hemendik *joaten da* egunero *autobusa* Donostiara

(56) hemendik *joaten da* Donostiara

Aditzak inperzonal bihurtzea beste zenbait konturekin loturik dago (aspektuarekin, esaterako):

(57) *hemendik *joan da* Donostiara

Jakina; perpaus hori gramatikala da perzsonala baldin bada. Baina, goian gertatu den bezala, irakurketa inperzsonala eginez gero, ezin da gramatikala izan. Bestera esanda, (56) perpausa perzsonala nahiz inperzsonala izan daiteke. (57), aldiz, beti perzsonala.

Badira beste debeku batzuk ere, geroago aipatuko direnak (hirugarren perzsonan oinarriturikoak bihurtzen ditugu inperzsonal, e.a.)

Sail aldaketa nagusi hau honela islada dezakegu:

[*nor (nork)*] —————> [*nor, inperzsonala*]

9.2.2.2. Konpara ditzagun ondoko bikote hauek:

(58) aitona zaharra *hil da*
aitona zaharra *hil dute* zakur basati horiek

(59) mendia churrez *zuritu da*
lagun horiek beren etxeetako hormak kisuarekin *zuritu dituzte*

(60) putzua gaur goiztan *bete da*
gure umeak ontzia urez *bete du*

• Bikote hauen artean gertatzen den oposizioa ez da goikoa bezalakoa: han *nor-nork* sistematik *nor* sistemara pasatu bagara (inpersonaltasuna eskuratuz horrela), hemen ez. Hemen alderantzizko zerbait gertatu dela ematen du: badirudi lehenik *nor* sistema dugula oinarrian eta hortik *nor-nork* sistemara igaro garela. Ohartu gaitzen, nolahi ere, hasierako *nor* horrek ez duela nahilaez balio inpersonala. Konpara ditzagun ondoko bi perpaus hauek:

(61) ontzia bete da

(62) ontzia gaur saldu da

Bigarrena bakarrik da inpersonala, ikus daitekeenez, ezin baitugu penساتو, perpaus horien aurcan, zehaztugabeko batek bete duela ontzia. Bai pentsa daiteke, ordea, zehaztugabeko norbaitek saldu duela ontzia. Ontziak bakarrik bete daitezke (kanpoan utzi eta euria egiten badu, esaterako) baina ez dira bakarrik saltzen. Orduan, zer nolako aldaketa suertatzen da "zuritu da" bezalako batetik "zuritu du" bezalakora igarotzen garenean? Edo, bestela esan, zer alde dago "aitona zaharra hil da" eta "aitona zaharra hil dute" bezalako esaldien artean?

• Aditzen semantika kontuan hartzen badugu, mota askotako aditzak ditugu (informazio hori, hain zuzen, hiztegiak eman behar digunez, ez dugu guk hemen kontuan hartuko, aditzen forma edo itxuran eraginik ez duen bitartean). Horietako batzuk *inkoatibo* deitzen ditugu. Aditz *inkoatiboak* dira egoera aldaketa bat adierazten dutenak, edo ekintzaren hasiera adierazten dutenak: "ontzia bete da" diogunean edo "aitona hil da" diogunean, argi ikusten da hor egoera aldaketa bat suertatu dela: hutsik zegoen ontzia lehenik, eta orain bete da; aitona bizirik zegoen, baina orain ez da bizi.

• Aditz *inkoatiboek* *nork* sintagma bat hartzen dutenean, aditzaren ekintza berez suertatu beharrean norbaitek bortxaturik gertatu dela adierazi nahi dugu, aldaketa horrek eragileren bat izan duela edo, esanez.

Horrenbestez, aditz inkoatiboak aditz *arazle* bihurtzen direla esan daiteke. Hauxe da euskaraz dugun beste sail aldaketa argi bat:

[*nor*, inkoatiboa] ———> [*nor-nork*, arazlea]

Dena dela, *arazle* deitu ditugu lehenago *arazi* hartzen duten aditzak ere. Badirudi, hortaz, aditz *arazle* guztiak ez direla berdinak: "bete da" inkoatiboa baldin bada, "bete du" arazlea izango litzateke, baina honekin batera ditugu "bete arazi du" eta "bete arazi dio", hauek ere arazleak. Baina arazo hauek gora-behera (eta geroago itzuliko gara berriz ere puntu honetara) hemen argi ulzi nahi dena da *nor* aditz baten eta *nor-nork* aditz baten arteko erlazioa, sarritan, aditz inkoatibo baten eta nolabaiteko arazle baten artekoa izan daitekeela.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu orain *nor-nork* sistemakoa dugun aditz hau inpersonal bihur dezakegula, *nor* erara berriro. Baina orduan, jakina, anbigüetatea sortzen zaigu, *nor* erako aditz honen oinarrian aditz inkoatibo bat (*nor* sistemakoa) edo aditz arazle bat (*nor-nork* sistemakoa) inpersonal bat izan baitezakegu:

(63) noiz hiltzen dira zerriak zure herrian?

Perpau horrek bi interpretazio ditu: zerriak berez hiltzen dira, aditz inkoatiboa; edo zehazten ez dugun norbaitek zerriak hiltzen ditu, aditz arazlea.

9.2.2.3. Inpersonaltasuna adierazteko modu bakarra ez da aipatu dugun hori. *Nor-nork* erako aditzen bidez ere adieraz daiteke inpersonaltasuna, saila aldatu gabe. Horrelakoetan, aditz laguntzaileak hirugarren pertsona ergatibo pluralari dagokion marka eraman ohi du:

(64) Indian behiak ez dituzte hiltzen

(65) sorginen ipuinak kontatuz ikaratzten zituzten haurrak

Inpertsonaltasuna lortzeko bide hau, perpauseko *nor* hirugarren pertsonari dagokionean bakarrik erabil daiteke:

(66) baseritar horrek sagarrak merke saltzen ditu

(67) sagarrak merke saltzen dira

Ikusten denez, inpertsonaltasuna oinarriko *nor* hori beste perpausaren subjektu bihurtuz eskuratzen dugu. Baina *nor* hori hirugarren pertsonakoa ez bada, orduan ezin dugu perpaus inpertsonalik sortu:

(68) etxeko lanak ez egiteagatik zigortu nau andereñoak

(69) *etxeko lanak ez egiteagatik zigortu naiz

Jakina, *zigortu naiz* esan baldin badaiteke ere, horrek beste zerbait adierazi nahi du, bistan denez (*nire burua zigortu dut*). Inpertsonal horien ordez, beste era honetako inpertsonala behar dugu nahitaez:

(70) etxeko lanak ez egiteagatik zigortu naute

Dena dela, kontuan hartu behar dugu horrelako guztietan "haiek" horrek ezin duela inor ere seinatu, bestela ez bailitzateke inpertsonal izango (beti bezala, perpaus hauek anbiguoak dira, bi esanahi dituztelako: bat pertsonala, subjektua ezkatutzen dugula, eta bestea inpertsonala).

9.2.2.4. Bada beste aldaketa bat ere hemen aipatu besterik egingo ez duguna. Ondokut adibideok adierazten ditute aldaketa horren berri:

(71) arriskuan ikusi dut neure burua

(72) arriskuan ikusi naiz

(73) elkar ikusiko dugu

(74) ikusiko gara

Egitura hauek elkarkari eta bihurkarien bidez ematen ditugu eta hemen bere horretan utziko ditugu, hauen muga eta debekuez beste nonbait mintzatū garelako (ikus 3. kapitulua).

9.2.2.5. Aditz batzuekin gertatzen da euskalki batzuetan mota batekoak direla eta beste batzuetan, berriz, bestekoak. Esate baterako, *irten* aditzak *nor* tankerako laguntzailea hartzen du gipuzkeraz, baina *nor-nork* tankerakoa, ordea, bizkaieraz:

(75) aita berandu *irten da* etxetik

(76) aita berandu *urien dau* etxetik

Berdin gertatzen da *igon* aditzarekin ere:

(77) goraino *igon gara*

(78) goraino *igon dugu*

Bestalde, zubereraz eta behe-nafarreraz *bazkaldu niz* esaten da, beste euskalkietan *bazkaldu dut* esaten den bitartean.

9.2.2.6. Azkenik, beste erabilera bikoitz bat *deitu*, *lagundu*, *begiratu*, *eskertu*, *entzūn*, eta halakoeekin gertatzen da:

(79) etxera lagundu *dizut*

(80) etxera lagundu *zaitut*

(81) eskertu *diute*

(82) eskertu *diote*

Orohar, mendebaleko euskalkietan badirudi maizago ageri direla *nor-nori-nork* bezala eta ekialdean, berriz, *nor-nork* bezala. *Utzi* aditzak ere aditz izena hartzen duenean osagarritzat (inesiboan) bi erabilera hauek ditu:

(83) jaietara joaten utziko *zaitut*

(84) jaietara joaten utziko *dizut*

Ez da esan beharrik "etxean utzi zaitut" bakarrik dela zuzena, jakina (*zuri etxean utzi dizut* ezin da esan alegia, *zuri* hori abjeto zuzentzat eman nahi baldin bada behintzat). Aipatu, azkenik, honako itzuli hauek **aditz** izena datiboan eskatzen duela aditz honek:

(85) erretzeari utzi *dio*

(86) eskolara joateari utzi *dio*

9.2.3. *Nori* sintagma

• Hasieran esan bezala, gehienetan *nori* sintagma aukerakoa da perpausak eratzeo orduan:

(87) joan da mundu honetatik

(88) joan zaigu mundu honetatik

(89) berandu iritsi zen berria

(90) berandu iritsi zitzaigun berria

(91) auto berria erosi dut

(92) auto berria erosi dit aitak

• Hori da oroigar gertatzen dena. Zenbait tokitan *ihardun* aditzak ere har dezake datiboa. Badira, hala ere, nahitaez *nori* sintagma eskatzen duen aditzak. Horrela, *nor-nori* sailkoak ditugu *bururatu* eta *jarraiki*. Aditz, *nor-nori-nork* sailkoak dira *ekin*, *iritzi*, *eutsi* eta *eragin* (gaur egun *jarraiki* ere sail honetan erabiltzen da):

(93) ideia onik ez zaio *bururatzen* ume honi

(94) lehenbailchen *ekingo* diogu lanari

• Beste aditz batzuekin, berriz, alderantzizkoa gertatzen da eta ez dute inoiz ere *nori* sintagmarik onartzen. Batetik ditugu *lotsa izan, bizi izan* eta horrelako egiturak dituztenak. Bestetik *jakin* eta *uste* *ukanizan*:

(95) *horrenbeste jenderen aurrean hitzegin behar duclako *lotsa zaigu*

(96) berehala *jakin du* egia osoa

(97) *berehala *jakin dio* egia osoa

Hala ere, euskara zaharrean *auzoak ez dekian gaxa ona da* (alergia, auzoak ezagutzen ez duen hiru gaitza ona duk) bezalakoak ageri dira.

9.3. Aditz arazleak

• Lehen esan den moduan aditz arazleak sortzeko *arazi* edo *eragin* aditz elementuez baliatzen gara:

(98) Mikel etxean sartu da

(99) Mikel etxean *sarrarazi* dugu

Badirudi halako kasuetan bide hau segitzen dugula: arazle bihurtu nahi dugun aditza *nor* saillekoa bada, *nor-nork* sailleko bihurtzen dugu, *arazi* gaineratuz, goiko adibideetan ikusi den moduan. Oinarriko subjektua objektu bihurtzen dugu, ekintzaren eragileak hartzen duclarik subjektuaren tokia. Mendebalean, ordea, *nor-nori-nork* sistema ere erabiltzen da, kasu honetan subjektua datibo bihurturik (hau bizidunekin gertatzen da, ez bestela):

(100) Mikeli etxean *sarrarazi diogu*

(101) Mikeli barre *eragin diogu*

Aldiz, oinarriko aditza *nor-nork* sistemakoa denean, *arazi* elementuez baliatzeaz gain, ezinbestekoa dugu *nor-nori-nork* sistema aukeratzea perpausean *nori* sintagma ageri baldin bada, aditza arazle bihurtzekotan. Kasu honetan aldaketa honela gertatzen da:

(102) *amak umea etxean sartu du*

(103) *amari umea etxean sarrarazi diogu*

Azken batean, subjektua (*ama*) datibo bihurtu dugu, oinarriko objektua (*umea*) aldatzen ez dela. Subjektuaren tokia ekintzaren eragileak betetzen du (*guk*). Ikusten denez, aditz arazleak sortzeko orduan argumentu berri bat sartzen dugu aditzean: hasieran *nor* baldin badugu, orain *nork* (ekialdean) edo *nori* (mendebalean) beharko ditugu; hasieran *nor* eta *nork* baldin baditugu, orduan *nori* sartzen dugu.

Baina *nori* sintagma hori agertzen ez denean (zuzenean nahiz isildua), aditzean ere ez da datibo markarik ageriko:

(104) *Jainkoa maitarazten duena da kristau ona*

Zer gertatzen da, ordea, hasiera-hasiararik hiru argumentuak ageri badira perpausetan?:

(105) *apezari aitortu diot nere bekatu handia*

Hor ditugu *nor*, *nori* eta *nork* argumentuak. Jo dezagun halako egitura batean eragile bat sartu nahi dugula (nere gurasoak, esate baterako). Orduan hau gertatzen da:

(106) *gurasoek apezari aitortarazi didate nire bekatu handia*

Ikusten den moduan bi *nori* ditugu orain. Honek biziki iluntzen du esaldiaren esanahia eta horregatik bide hau segituz sortzen diren esaldiak ez dira anitzetan onargarriak izaten. Goiko adibidea bera beste era honetara jarritz, gogortxoago suertatzen da:

(107) *nire gurasoek apezari aitortarazi didate niri nire bekatu handia*

Beste adibide hau ere naturala baldin bada,

(108) salgai nuen landa Mikeli salarazi didate gurasoek

ondokoak ez dirudi hain ona:

(109) aitari liburua emanarazi diote Joxeri

Aldiz, berez *nori* sintagma onartzen ez duten aditzak arazle bihurtuz gero ez dute arazorik izaten halako sintagma ere onartzeko:

(110) *berchala jakin dio egia osoa

(111) berchala jakinarazi diogu aitari egia osoa

• Lehen aipatu ditugu *aditz inkoatiboak eta aditz arazleak*, hauen artean maila desberdinak direla esanez. Hori argi ikusten da ondoko adibide hauekin. Esate baterako, *sortu* aditza inkoatiboa da:

(112) istiluak *sortu ziren* bileran

Aditz hori arazle bihurtu nahi baldin badugu, bi bide ditugu, orain artekoa konuan hartuz:

(113) batzarkide horrek istiluak *sortu ditu*

(114) batzarkide horrek istiluak *sortarazi ditu*

Baina ez dakigu zenbateraino esan daitekeen bi adizki horiek berdinak direla. Gainera, erlazio hauek ilunago gertatzen dira beste aditz bat hartuz gero (arazo semantikoak daude hemen jokoan, dudarik ez):

(115) autoa sartu da

(116) Mikelik autoa sartu du

(117) autoa sarrarazi dugu

(118) Mikeli autoa sarrarazi diogu

Bigarrena eta hirugarrena dira lehenbizikoaren arazleak. Baina laugarrena ere, bere aldeak, bigarrenaren arazlea da. Bere horretan utziko dugu arazoa, hemen aipaturik.

• Aditz arazleekin *erabilera inbertsonalak* ere aurki ditzakegu. Gertatzen dena da, inbertsonaltasuna, nagusiki, eragileari, hots, *nork* sintagmari badagokio ere, bigarren maila batean egileari buruzko inbertsonaltasuna ere kontuan har dezakegula. Hobeki esan, egilea, *nori* sintagmaren bidez adieraziko dena, isilean utz daiteke, nahiz hau ez izan erabat egitura inbertsonala. Ikus dezagun adibide bat:

(119) Patxikori gutun bat idatzarazi zioten bere gurasoek

Adibide honetan inbertsonaltasuna bi lekutan jar daiteke: gurasoen ordez aipatzen ez den norbait inbertsonala izan daiteke eragilea; edo, Patxikoren ordez, aipatzen ez den norbait inbertsonala izan daiteke egilea.

Egitura arazleetan, eragileari dagokionez, honako egitura inbertsonalok aurkitzen ahal dira:

(120) Patxiko etxean sartarazi zuen

(121) Patxikori gutun bat idatzarazi zioten

Beraz, ikusten denez, berdin da *nor* erakoa nahiz *nor-nork* erakoa izan, bietan *-te* aukeratzen da inbertsonaltasuna adierazteko.

Egilea utzi nahi bada inbertsonalean honako egitura bauek ditugu:

(122) Santa Kruz apezak heriotza asko eginarazi omen zituen

Eragilea eta egilea, biak ere utz daitezke isilean, oinarriko bi sintagma horiek inbertsonal bihurturik:

(123) hamar liburu irakurrarazi dituzte gela honetan

Perpau horretan ez da esaten nork irakurrarazi duen, ezta nori irakurrarazi zaion (nork irakurri behar izan duen) ere. Azkeneko egitura hauek, *nor-nork* sistema erabiliz eman beharrean, *nor* sistemako aditzen bidez ere eman litezke:

(124) hamar liburu irakurrarazi dira gela honetan

Azken batean, hor dugun erlazioa da (125) eta (126) adibideen artean gertatzen den berbera:

(125) hamar liburu *irakurri dituzte ikasleek* gela honetan

(126) hamar liburu *irakurri dira* gela honetan

Lehenbizikoa pertsonala da; bigarrena, aldiz, inpersonala.

Inpersonalez ari garenez, eta haritik pixka bat urruntzen bagara ere, egin dezagun azkeneko ohar bat. Inpersonala adierazteko saila aldatu edo hirugarren pertsona pluralaren marka hartzen dugu, esan bezala (aipatu diren debekuak kontuan hartuz, jakina):

(127) hiribusa goizeko zortzietan *hartzen du* Peruk

(128) hiribusa goizeko zortzietan *hartzen da*

(129) hiribusa goizeko zortzietan *hartzen dute*

Bada, hala ere, beste modu bat ere, elkarriketan erabiltzen dena. Hirugarren pertsona pluralaren marka erabili beharrean, bigarren pertsona singularra ere erabil daiteke:

(130) hiribusa goizeko zortzietan *har dezakezu*...

Jakina; perpau hau anbigua da. Benetan bigarren pertsona izan daiteke ("zuk har dezakezu...") edo ez (kasu honetan "har daiteke..." esan nahiko luke). Hemen ere debekuak eta erabileraren baldintzak kontuan izan behar dira:

(131) hiribusa zortzietan hartu duzu

Hori (aspektua burutua dagoenean alegia) beti pertsonala da, perpaus horretan ezin baitaiteke irakurketa inpertsonalik egin.

10. kapitulua:

ADIZKI JOKATUGABEAK

10.0. Sarrera

Aditzak, zenbaitetan, forma jokatugabean ager daitezke perpausetan, esan nahi baita, ez dutela aldiaren edo pertsonaren markarik hartzen (ez beraien barnean, ezta aditz laguntzaile baten bitartez ere). Aditz jokatu gabe hauek hiru oinarritzko itxura hartzen dute:

Aditzoinak: *sal, eros, hauts, etor, e.a.*

Partizipioak: *saldu, erosi, hautsi, etorri, e.a.*

Aditz izenak: *saltze, eroste, hauste, etortze, e.a.*

Adizki jokatu gabe hauek distribuzio desberdina dute perpausean eta ezin dira nolanahi erabili. Hala ere, adibideetan ikusiko den bezala, aditzoina eta partizipioa anitzetan aski parekoak dira eta elkarren artean truka daitezke. Nolanahi ere, ekialdean sarriago erabiltzen da aditzoina mendebaldean baino.

10.1. Aditzoina

10.1.1. Perpaus lokabectan

• Aditzoina erabiltzen da *aginduak ematean*, esate baterako:

- (1) *sar barnera!*
- (2) *urrikal, Jauna*

Ikusten denez, beti bigarren pertsonarekin. Hala ere, mendebaleko euskalkietan maizago ageri da testuinguru horietan partizipioa:

- (3) *sartu barrura!*

• *Galdera erretoriko eta harridurazkoetan*:

- (4) *nork fida halakoari?*
- (5) *non koka, hortaz, honenbertze jende?*

Berriz ere esan behar da mendebalean errazago aurkitzen dela partizipioa horrelakoetan.

• *Errefrauetan* ere aurkitzen da aditzoina (baina partizipioa ere):

- (6) *hik mana, nik saka*
- (7) *otsoa non aipa, han gerta*
- (8) *non fida, han gal*

• *Kontakizunetan*:

- (9) *ez dira lotsa hemen, egun bat osoa kurrizkeko edo berdin bi: lagun multxo bat bil eta lot bideari*

Baina esan behar da partizipioa ere molde bertsuan erabil daitekeela.

• *Antzerkietako ohar eta iruzkinetan:*

(10) *Sar* eskuinetik..., ama *besarka*..., Joanesek *kanta*..., denak *erretira*...

Ez da esan beharrik mendebalean partizipioa dela nagusi egitura hautan:

(11) eskuinetik *sartu*..., ama *besarkatu*...,

10.1.2. Perpaus juntatueta

Aditzoinaren erabilera mantzen duten bi aditz edo bi perpaus juntatzen direlarik, aditz laguntzaileetatik bat ezaba daiteke, aditzoina bera bakarrik utziz:

(12) bakean *haz* eta *emenda* dadin

Ikusten denez, batez ere laguntzaileak **edin* eta **ezan* direnean gertatzen da hau:

(13) *irakur* ezazu, eta gogoan *har*

Baina aditzondoa ere aurkitzen ahal da hor:

(14) *irakur* ezazu, eta *gogoan* hartu

10.1.3. Perpaus lertatueta

• *Zehar galderetan* nahiko arruntak dira ekialdeko euskalkietan, galdera horietan beti ere aditz laguntzailea isiltzen badugu, ez bestela:

- (15) ez dakit nondik sar
- (16) dudan nago zuri *sal* edo hari *eskaint*
- (17) badakigu non *har*
- (18) badugu, horrenbestez, zer *pensta* eta zertaz *grina*

Partizipioa ere erabiltzen da hor. Batzuetan, gainera, artikulua ere har dezake, edo partitiboa, bestela:

- (19) badugu guk nondik *hasi*
- (20) badugu guk zer *esana*
- (21) badugu guk zer *esanik*

• Zenbait *posposizioekin* aditzoina erabil daiteke:

- (22) *sar arau*

• Zenbait *esapiderekin* ere. Subjuntiboa onartzen duten zenbait predikatuk aditzoiaz osaturiko perpausak onesten dituzte osagarri gisa (ekialdean):

- (23) beldur naiz leizera *eror*
- (24) kasu emazu ez *gal*

Kontzesibo kutsua duten zenbait *eseratan* (gehienak ekialdekoak) ere ageri da:

- (25) zer gerta *ere*

Adlatiboan ematen diren zenbait aditz izenen ordez ere ikusiko dugu:

- (26) emadazu *dasta* ("daslatzera")

Ekintza baten luzapena eta errepikapena adierazteko, esatera ihartuetan, *ahal* eta *ezin* elementuekin, eta bi aditz elkarturik osatzen diren izen elkartuetan ere aditzoina erabil daiteke:

- (27) ari zen *irakur* eta *irakur*
- (28) *mintza* eta *mintza*, ez da ele egiteki baretzen
- (29) *oro* *hor*
- (30) curia *jaitz* *ahala* ari zuen
- (31) *sineis* *ezina* da
- (32) *harremanak* (har-eman-ak)

Aditzak arazle bihurtzen ditugunean aditzoinez baliatzen gara:

- (33) *hurbilarazi*
- (34) *sarrarazi*

10.2. Partizipioa

Esan dezagun, hasteko, euskalki askotan ez direla aditzoina eta partizipioa bereizten. Hori dela eta, orain arte aipatu ditugun erabilera gehienak partizipioaz moldatzen dira euskalki horietan.

10.2.1. Partizipioa eta izenondoa

Izenondoaz aritu garenean esan dugun bezala (ikus 5. kapitulua) sarritan partizipioa eta izenondoa oso loturik agertzen dira. Azken batean esan daiteke partizipioa aditz izenondo bat besterik ez dela. Dakigun moduan, izenondoak izen sintagma baten barnean ageri dira edo bestela predikatu osagarrian:

- (35) [etxe eder horiek] alkatcarenak dira
- (36) etxe horiek [ederrak] dira

Bada partizipioak ere testuinguru berean agertzen ahal dira (hirugarren adibidean, esaterako, izenondo eta partizipio bat juntatu ditugu):

- (37) *pago erorira* egurkari guztiak laster ari dira
- (38) *harri erabilik* ez du biltzen oroldirik
- (39) *emazte polit eta apaindu batengana* hurbildu nintzen
- (40) *benedikatua* dela Jaunaren izena

Zenbaitetan argi baino argiago gertatzen da partizipioa predikatu osagarri hutsa dela, kopula aditz baten bidez lotua beste sintagma batekin. Erkatu, bestela, ondoko adibideok elkarren artean:

- (41) ama hila *du* aspaldian
- (42) liburua hemen *du*
- (43) oinetakoak handiegiak *ditut*

Beste batzuetan, berriz, gauzak ez dira hain garbi eta, kasu hauetan, partizipioaren ondoan agertzen den adizkiari nekez eman geniezaioke kopula deitura:

- (44) sagarrak amari emanak *dizkiot*

Gisa honetako partizipioak ez dagozkio beti *nor* sintagmari eta zenbaitetan *nor*k eta *nori* kasuetan ere aurkituko ditugu. Horrela, ondoko perpaus honek hiru interpretazio izan ditzake:

- (45) *esanik dago*

Interpretazioak ondoko esaldietan ikus daitezke:

- (46) oraingoan dena *esanik dago*; ez da ezer gaineratzeikorik
- (47) ez zenuen gura hark jakin zezan. Beranduegi da, ordea: segurua izango da *esanik dagoela*

- (48) ez zenuen nahi Patxi inori esan ziezaiion. Beranduegi da, ordea:
segur naiz dagoeneko bati baino gehiagori esanik dagoela

10.2.2. Partizipioa eta izena

• Partizipioa oso hurbil dago izenetik anitzetan. Ikus ditzagun, partizipioaren erabilera dela eta, honako adibideok:

- (49) Ameriketatik iaz *itzuli zen*
(50) Ameriketako *itzulia* bost hilabetez egin zuen
(51) zuk *itzuli* liburua ez da inolaz ere ulertzerik
(52) *eginak* ez du eginkizunik

Lehenbiziko adibidean ikusten dugu partizipioaren erabilera arrunta aditz nagusi bezala. Bigarrenean dugu partizipioa arras izen bihurtua (*bizi, erauntsi*, e.a. bezala). Hirugarrenean, aldiz, erlatibo laburtu baten aditza besterik ez da ("zuk itzuli duzun liburua", ikus kapitulu honetan aurrerago), bertan aditz lagunizaila isildua baita. Laugarren adibidean badinudi adiztasuna erakutsian uzten duen zerbaiten aurrean gaudela, partizipioaren ondoan, osagarri gramatikalak, nahiz *-ko* gabeko adizlagunak ager baitaitezke:

- (53) *zuk esana* ez da egia
(54) *alkoholari emanek* ez dute ardorik edan behar
(55) atzo *Parisen gertanek* harriturik utzi naute

Hemendik aurrera partizipioak har ditzakeen erabileretan hasten dira arazoak partizipioa eta izenaren mugak zehazteko orduan. Ikus ditzagun zenbait kasu.

• Batzuetan, esate baterako, erlatiboazko perpaus "laburtu" batetik eratorri den partizipio hori izen gisa ageri da, izenlagunarekin batera gainera, hala nahi izanez gero. Halako kasuetan partizipioak hartzen dituen osagarriak izenak hartzen dituen berberak dira, ikusten denez:

(56) *zure esanak ez ditut sinesten*

(57) *oiloen jana prestatzen ari da*

Horrela sortu diren itzuliak erabat lexikalizaturik agertzen dira anitzetan:

(58) *esan zaharrak honela dio*

(59) *zer duzu urteko irabazia?*

• Beste batzuetan nekez pentsa daiteke izen gisa erabiltzen dugun partizipio hori erlatiboetako perpaus laburtua denik:

(60) *anitz jana eta anitz edana da honetara nakartena*

(61) *gauzak horrela zirela ikusiak biziki harritu ninduen*

Egia esan, oso emankorra ez den erabilera honetan badirudi aditz izenaren papera betetzen duela partizipioak (*jateak, edateak, ikusteak*) esanahiaz bederen, nahiz formalki forma desberdinak izan (burutua eta burutugabea). Hemen ere lexikalizaturik geratu direnak ez dira falta, aski bakarrik badira ere:

(62) *begiratu bat emaiozu honi*

Zalantzak ditugu askotan:

(63) *ez izana ez da baitezpada ezin izana*

(64) *onek dute alegrantziazaren izena eta izana, eta gaiztoek izena eta ez izana*

Lehenbiziko kasuan erlatibo laburtzat jo liteke agian ("ez gertatua ez da baitezpada ezin gertatua" bezala eginez parafrasia), baina bistan da bigarrenean ezin dela halakorik pentsatu.

• Esatera batzuetan izen itxurarekin agertzen zaigu partizipioa (ondoko elementuok ditugunean bereziki: *egin*; *ezin*; *huts*; *bortxaz* eta *ariaz*; galdetzailea; bi aditz elkarturik, e.a.):

(65) ez *ikusiarera* egin zuen

(66) *ezin egonak* hartua zuen gure mutila

(67) *ikitu hutsarekin* sendatu zuen gaisoa

(68) *esanaren bortxaz*

(69) *ikusiareren ikusiaz*

(70) gure *zereginak*

(71) *joan etorriak*

10.2.3. Partizipioa eta jokatu gabeko mendeko perpausak

Partizipioa jokatu gabeko zenbait mendeko perpausen aditza da batzuetan. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, gorago aipatu diren kasuez bestalde, erlatibo laburtuetan, zenbait predikaturen osagarri diren perpaus batzuetan eta zirkunstantzial zenbaitetan.

• Erlatiboak labur daitezke aditzetik forma jokatua kenduz eta aditz nagusia aspektu burutuaren markarekin utziz:

(72) goizean *etorri* gizona

Beste aldaera batzuk ere badira, euskalkien arabera, nahiz hemen ez ditugun aztertuko: goizean *etorritako* gizona, goizean *etorriri(ka)ko* gizona, goizean *etorriko* gizona, goizean *entzuneke* gezurra. Partizipioak izenondoaren itxuran ager daitezke orduan:

(73) odol *isuria*

(74) haur *galduak*

Partitiboaren marka ere har dezake partizipioak, aposizioan doanean:

(75) edan dezaket basoa *beterik*

Batzuetan autonomia osoa hartzen du, balio adberbialarekin gehienetan:

(76) arras *gosetua (goseturik)*, olatu batean sartu nintzen

• Zenbait predikaturen osagarri diren perpaus batzuetan aurkituko dugu partizipioa: modalitate predikatuetan (*behar, nahi, gogo*, e.a.) eta psikologiazko predikatuetan (*pozik izan*, e.a.):

(77) etorri *behar* dut

(78) joan *gogo* dut

(79) saindu batek bezala hil *uste* duenak ez du halakorik eginen

(80) *pozten* naiz zu ikusia

• Egitura zirkunstantzialetan ere oso arruntak dira partizipioak (posposizioekin, partitiboarekin, instrumentalarekin, e.a.):

(81) ikusi *artio*

(82) aita etorri *ondoan*

(83) ikasi *faltan*

(84) lan egin *gabe*

(85) ele horiek *entzunik*, etxera itzuli zen

(86) lan *eginaz*, ikasi egiten da

(87) zurekin *hitz eginaz* asko ikasi dut

10.2.4. Perpaus juntuatuetan eta zenbait esateratan

Perpausak edo aditzak juntuatzen direnean, maiz partizipioa bakarrik aurkitzen dugu, aditzizena partizipio biburtuz horrela:

(88) egun berean *erakutsi* eta saltzea ez da erraza

(89) ikusi zuten andre bat bidea *utzi* eta basora sartzen

Ekialdeko euskalkietan aspektu komunztadura atxikitzeo ohitura dago normalean, hala ere:

(90) auto baten *saltzeko* eta *erosteko*

(91) ikusi nuen haur bat baraitzean *sartzen* eta engana *hurbiltzen*

(92) elxera *itzuliko* naiz eta segidan lanari *lotuko*

Zenbait esacratan ere aurkitzen da, azkenik, partizipioa:

(93) *larri ibili* baietz!

(94) ezetz harri hau *goratu*

(95) *erranak erran*

(96) *abiatuan abiaru*

Izenburuetan (prentsan batez ere) partizipioa bakarrik erabiltzen da, laguntzailea isilduz eta behar dituen aspektu markak hartuz:

(97) Frantziako Itzulia *atzo hasi*

(98) Eusko Jaurlaritza bihar *bilduko*

Esan dezagun, azkenik, honako itzuli hauek oso entzunak direla elkarrizketan:

(99) harekin hitz egin nahi nuen, baina errusieraz *ez jakin...*

10.3. Aditz izena

10.3.1. Aditza eta izena

Aditz izenaz ari garelarik, jokatu gabeko perpaus baten aditzaz ari gara, aditz hori izen baten itxurarekin agertzen baldin bazaigu ere. Ez ditugu hemen kontuan hartzen, hala ere, aditz izenaren itxura duten benetako izenak:

(100) liburuaren *hastean* orri bat falta da

(101) *sartze* guztiak itxiak direnez gero kanpoan geratu beharko dugu

(102) ez dezagun gal gure arbasoen *sineste* sendoa

Hor, argi aski ikus daitekeenez, ez dira aditzak, izen garbiak baizik (*hasiera, sarrera eta fede* izenen balio bera baitute). Dena dela, aditz izenek izen sintagma baten ardatz baldin badira ere, duten izacra bikoitz honek arazo larriak sortzen ditu, ber denboran aditzen eta izenen ezaugarriak erakusten baitituzte horrelako formek, batzuen eta besteen arteko bereizketa egiteko irizpide formal argirik ez dagoela gainera. Izaera bikoitza honako puntu hauek ikus daiteke:

- Subjektuari dagokion izen sintagma genitiboan agertzen da (izenlagunak bezala) edo bere kasu gramatikalean (ergatiboan nahiz absolutiboan). Lehenbiziko kasuan izenaren ezaugarriak erakusten dizkigu; bigarrenean, aitzitik, aditzarenak:

(103) *Jesusen* zerutik jaustea

(104) *Jesus* zerutik jaustea

- Adizlagunei dagokien sintagmak *-ko* atzizkia hartzen du batzuetan (izenarekin elkartzen delako), baina ez du beharrik bestetan (aditzarekin elkarturik dagoelako):

(105) *Jesusen zerutikako* jaustea

(106) *Jesusen zerutik* jaustea

- Objektu zuzenari dagokionez, batzuetan absolutiboan doa (edo, agian kasu markarik gabe doala esan beharko litzateke, edozein aditzekin bezala); beste batzuetan *-en* genitiboaren marka hartuz (izenekin bezala), ekialdeko euskalkietan oso arrunta dena; eta inolako artikulu edo markarik gabe ere (izen elkarketa bat sortuz horrela):

(107) *belarra* mozttera joan da

(108) *belarraren* moztera joan da

(109) *belar* moztera joan da

Ohart gaituzen aditz izen hori benetan izena duguncan, horrek baduela eragina sintagmaren osagarriek har dezaketean ixuratu. Konpara ditzagun ondoko adibideak:

(110) Jesus zerutik jaustea

(111) Jesusen zerutik jaustea

(112) Jesusen zerutikako jaustea

(113) *Jesus zerutikako jaustea

Azkeneko adibidea lekuz kanpo dago, kasu horretan *jaustea* izen hutsa baita (izenlaguna du ezkerreko aldean) eta izena denaz gero ezin du izenlaguna (edo izenondoa) ez den osagarriarik hartu. Bigarren adibidea nahasiagoa da: *jaustea* aditza da *zerutik* sintagmaren aurrean, baina izena *Jesusen* sintagmaren aurrean. Ber gauza gertatzen da ondoko hauetan ere:

(114) [zuk belarra moztea] gauza ona da

(115) *[zuk belarraren moztea] gauza ona da

(116) *[zük belar moztea] gauza ona da

Kako artean dagoen izen sintagma gaizki eraturia da, ikusten denez (*zure* behar baitugu hor).

10.3.2. Aditz izen deklinatua

Aditz izenak deklinabideko marka gehienak har ditzake. Hala ere, *ez* ditu *-antz* eta *-entzat* kasu markak hartzen. Bestetik, *-ko*, *-tik* eta *-ra(ino)* marketan ez da singularra edo plurala bereizten. Azkenik, *arren* eta *gatik* posposizioekin ere erabiltzen da.

• Aditz izena ergatiboan dagoelarik, aditz iragankor baten subjektua da:

(117) hura zurekin *ikusteak* harritu ninduen

Absolutiboa iragankorren objektua edo iragangaitzen subjektua da, eta partitiboa honen azpisail bat besterik ez da (normalean *izan*, *ukan*, *egon* eta *eduki* adituekin erabilzen dena):

(118) hemendik *joatea* debekatu digute

(119) lakci dut haurarekin *jolastea*

(120) ez dago harekin hitz *egiterik*

(121) baduzu hara *joaterik*?

Datiboa, horrela eskatzen duten adituekin (*sartaldean*):

(122) modu horretan *hitz egiteari* gairki derizat

(123) etxeko lanak *egiteari* ekin zitzaion

(124) ikasteari *utzi* dio

Gogoia eta asmoa adieraz dezake *egon*, *ari* eta *eduki* adituekin:

(125) *partitzeari* nongoen hura etorri zenean

(126) badira etxea *apainzteari* eta *konpontzeari* ari direnak ere

• Genitiboa aurkitzen da batzuetan:

(127) euskara *ikastearen* arazoak

(128) Jainkoaganaino *heltzeko* xedea

• Adizlagun bezala ere oso arrunta da aditz izena. Instrumentalcan, esaterako, mugagabeen delarik partizipioak duen balioa du (ekialdean oso ezaguna da erabilera hau):

(129) horiei ongi egitez

Mugatua ere agertzen da, batez ere, baina ez nahitacaz, posposizio batzuekin:

(130) pozten naiz zu hemen *ikusteaz*

(131) *sartzeaz* gero

(132) *sartzeaz* gain

Sozialiboan denboraren balioa du:

(133) mugara *hurbiltzarekin*, ikustekoak ziren jendeak

Baztanen mugagabea erabiltzen da, beti ere etorkizunaren balioa duela:

(134) hau *ikustekin* hitz egingo dugu

(135) *hau *ikustekin* hitz egin genuen

Inesiboan mugagabea eta mugatua ager daiteke aditz izena. Mugagabea jakintza eta hautemate aditz zenbaitekin (*ikusi, entzun, hauteman, jakin, ikasi, aditu*, e.a.) edo ekintzaren errepikapena eta luzapena adierazten duten zenbait aditzekin (*ari izan, izan, egon, ibili, ohitu, usatu, ihardun, atxiki*, e.a.). Halaber *hasi, utzi* eta *lagundu* aditzekin:

(136) sartzen *entzun* dut

(137) ingelesez mintzatzen *ikasi* du

(138) haren ikusten *hasi* naiz

(139) haurrekin jostatzen *ari* da

(140) janzten *ahantzi* dut (zait)

Mugatua erabiltzen dugu, ordea, denborazko balioa duelarik:

(141) aita lanetik *etortzean* zurekin joango naiz

Leku denbora adierazten duten kasu markak hartzen ditu aditz izenak:

- (142) euskaldun *izatenik* datozkigu horiek oro
- (143) aita *ikustera* joan da
- (144) boza *galtzeraino* segitu zuen kantuz
- (145) Ameriketara *abiatzeko* garaia da

Ikusten denez, helburua adierazteko erabiltzen da adlatiboa:

- (146) liburuen *erostera* bidali dut

Adlatiboa eta inesibo mugagahca biziki hurbil dira honelako kasuetan, euskalkien arabera banatuak (bizkaieraz inesiboa):

- (147) *ikastera* joan naiz
- (148) *ikasten* joan naiz

Ekialdeko euskalkietan, berriz, adlatiboa ageruzen ahal da inesiboaren **ordez**.

- (149) *ikasten* ari da
- (150) *ikastera* ari da

Ez dirudi bi esaldi horien arteko desberdintasuna zein den erraz esan daitekeenik, praktikan (bestetik da gramatiketan esan ohi dena).

Adlatiboak baldintzaren kutsua har dezake:

- (151) *jakitera* (berri), han geldituko nintzatekeen

Adlatiboari *-ko* erantsiz gero izenlaguna dugu:

- (152) *kantatzerako* momentuan

Eta hortik denbora adizlagunak sor daitezke:

(153) *hasterakoan* (guxi gora-behera *hastean* esan nahi duena)

Leku genituboa maiztasun handikoa da, dela izenlagunak sortzeko (adibideetan ikusi bezala), dela adizlagun gisa, balio destinaiborekin:

(154) sosa behar duzu, erosketen *egiteko*

(155) ingelesa *ikasteko*, bertara joatea duzu

Zenbait aditzekin (*izan/egon* eta **edun/eduki*) predikatu gisan erabiltzen dugu:

(156) hemendik laster Afrikara *joatekoa* naiz

(157) Manu bihar *ikustekoa* naiz

Batzuetan forma lexikalizatuak ditugu guztiz:

(158) hartu dituzue *jatekoak*?

Kompletiboak ere sortzen ahal dira marka honetaz baliatuz:

(159) amak hara *joateko* esan du

(160) *ikasteko* esan ziguten

Izenlaguna izan daitekeenez, izenburua isildurik eman dezakegu, helburua, baldintza nahiz denbora adieraziz hala:

(161) hara *joatekotan* hobe duzu oinetako egokiagoak jantzi

(162) hara *joatekotan* erosiko nuke, bestela ez

Hau beste era honetara ere eman daiteke:

(163) *mintzatzekotz*, behar da zer bait erraitko

Forma aldetik badirudi halako parokotasun bat dagoela *etorri-etorriko* bikotearen eta *etortzen-etortzeko* bikotearen artean (bat partizipioaren geroaldia eta bestea, berriz, aditz izenaren geroaldia).

• Kausazkoak honela egiten dira aditz izena baliatuz (bi esapide hauek esanahi bertsua dute, euskalkien arabera erabiltzen direla):

(164) zuek *ikusteagatik* egin dut

(165) zuek *ikustearren* egin dut

• Esan dezagun, azkenik, aditz izena forma jokatuetan ere agertzen dela, aditz laguntzaila ezabaturik, batez ere prentsa mailan egiten diren izenburuetan:

(166) Euskaltzaindia gaur *biltzen* Arantzazun

Aditza galduz gero, ezabaketak osagarri zirkunstantziala osa dezake:

(167) nagusiak kargua *kentzen* eta, zer egin orain?

Harridura esaldietan aditz izena mugatua ager daiteke:

(168) hori *sinestea* ere!

Aditzari indar emateko ere erabiltzen ahal da, fokalizazio moduan:

(169) *entzutea* badut

Partizipioarekin egiten den bezala, esapide bereziak egiteko bide ematen digu aditz izenak:

(170) hartan, *dat!* iratzarri nintzen ohean, buru guztia durundituta
amestearen amesteaz

11. kapitulua:

ADIZKI JOKATUAK: A. TRINKOAK

11.0. Sarrera

Euskal gramatika gehienetan bereizten dira *adizki trinkoak* (edo *sintetikoak*) eta *adizki perifrastikoak*. Bereizketa hau egiteko orduan erabiltzen diren irizpideak formalak dira, adizki trinkoak hitz batean biltzen baitira eta adizki perifrastikoak, berriz, bitan banatzen:

- (1) dator
- (2) zihoa
- (3) etorri da
- (4) joan zen

Lehenbiziko biak trinkoak dira. Ondoko biak, ikusten denez, perifrastikoak. Beste hitzetan esateko: adizki trinkoetan ez da bereizketa formalik gertatzen aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean, biak baturik ematen direlako. Adizki perifrastikoetan, ordea, aditz nagusia alde batetik doa (*etorri, joan*) eta laguntzailea (*da, zen*), ostera, bestetik.

Jakina denez, euskal aditzak aberastasun ikaragarria eskaintzen du formen aldetik, chundaka adizki desberdin bil baitaitezke. Forma hauek guztiak halako ezaugarri batzuk kontuan harturik bereizten dira: esate baterako, *noa* eta *hoa* adizkien artean pertsonaren ezaugarria da aldatzen dena, batean 1. pertsonari baitagokio eta bestean 2.ari. Aldiz, *noa* eta *noake* adizkien arteko desberdintasuna moduari bakarrik dagokiola esaten dugu, bietan pertsona bera baita. Horrela, adizki guztiak sare konplexu bat osatzen dute "persona" eta "modua" bezalako ezaugarrien arabera. Ohartu gaituzten hemen forma bakarrik aipatzen dugula, hain zuzen ere, forman oinarriturik eman baitaitezke sare aberats horren xehetasunak. Besterik da forma horiek nola erabiltzen ditugun gure asmoak adierazteko orduan: "gaur *noa*" esaten badugu orainaldiari dagokion zerbaite adierazten ari gara, baina "bihar *noa*" esaten badugu, berriz, denboraz gerokoa den zerbaitez ari gara, nahiz bietan *noa* adizki bera eta bakarra erabili dugun. Horrenbestez, badirudi *forma* eta *esanahia* bereizi behar direla aurkezpena egiteko orduan: forma gramatikarekin erlazionatzen da; esanahia, aldiz, forma horren bidez adierazi nahi den semantikarekin. Bistan da adizkiak eskutik doazela esanahiarekin (hau da, gehienetan adizki-aldi bakoitzari adizki-denbora bat dagokio, esanahi zehatza du) baina hori ez da beti eta sistematikoki betetzen. Hori dela eta, adizkien *forma* eta *erabilera* bereiziko ditugu. Oraingo honetan, formari buruz bakarrik ariko gara, erabileraren kontua geroko utziz.

Zein dira, zehatz-mehatz, adizkien ezaugarriak? Zertan oinarritzen dira adizkien arteko desberdintasunak? Har ditzagun bi adizki hauek: *noa* eta *nator*. Bi adizki hauen artean dagoen desberdintasun bakarra oinarri aditza da, batean *joan* baita eta *etorri*, aldiz, bestean. Gainerakoetan berdin berdinak dira. Alde batera uzten baldin badugu orduan oinarri aditzaren kontua (hau *etorri*, *izan*, *ekarri*, *joan*, e.a. *izan* baitaiteke), adizkietan gramatikari bakarrik dagozkion markak honakook ditugu: *aspektua* (perifrastikoetan bakarrik ageri da formalki), *aldia*, *modua* eta *persona*. Horiexek dira banan-banan ikusiko ditugunak ondoren.

11.1. Aspektua

Formari buruz ari garenez gero, esan dezagun adizki trinkoek ez dutela aspektuaren marka ageririk, nahiz eta *dator*, *zatorren* eta halakoetan "puntuaritasuna" adierazten dela esaten dugun (marka formalik gabe, jakina). Puntu honetara berriro itzuliko bagara ere, esan dezagun *ikusten ari da*, *ikusten ari zen* adizkiak izango liratekeela, neurri batean bederen, haien parekoak (hauek *ari izan* izuliaren bitartez adierazten da puntuaritasuna).

Hala ere, ekialdeko euskalkietan orainaldi eta iraganaldiko aspektu puntuakaria adierazteko, forma trinkoaren ordeztu beste forma konposatu berezi bat erabiltzen da, aditzoinari *-ki* morfema erantsiz eta ondoren *izan* edo **edun* laguntzaileak erabiliz:

- (5) *ibilki* naiz, *ibilki* nintzen
- (6) *egoki* naiz, *egoki* nintzen
- (7) *joaki* naiz, *joaki* nintzen
- (8) *eramaki* naiz, *eramaki* nuen
- (9) *ekarki* dut, *ekarki* nuen
- (10) *e(ra)bilki* dut, *e(ra)bilki* nuen

11.2. Aldia

• Adizkien sarea osatzean oposizioan gertatzen diren ezaugarrietako bat *aldiarena* da. Aldiaren kontzeptu hau, esan bezala, gramatikari dagokio eta ezaugarri honen bidez bereizten ditugu oraina eta iragana. Ikus dezagun hau pixka bat astiroago.

Argi dago gure bizitza denboraren arabera, besteak beste, ordenatzen dugula. Horrela, *badakigu* zenbait gauza lerro hauek irakurtzen ari garen une hau baino lehenago gertatuak direla, beste batzuk oraintxe berean gertatzen ari direla eta beste batzuk, ostera, gertakizun direla, gero gertatuko direla. Horrenbestez, *badakigu* gauza batzuk *iraganari*

dagozkiola (gertatuak direnak), beste batzuk *orainari* (gertatzen ari direnak) eta beste batzuk, azkenik, *geroari* (une hau pasatu ondoren gertatuko direnak).

Denboran zehar gertatzen den ordenamendu honen berri emateko hizkuntza bakoitzeko gramatikak eskaintzen dizkigun tresnez baliatu behar dugu. Baliabide horietako batzuk adizkietan islatzen dira:

- (11) Joxe mutiko koxkorra *zen garai hartan*
- (12) Joxe herriko alkatea *da orain*
- (13) Joxe Parisera *joango da bihar*

Bi perpaus horiek aztertuz gero, berehala konturatzen gara iragana adierazteko adizki bat erabili dugula (*zen*) eta oraina adierazteko, berriz, beste bat (*da*). Geroa adierazteko, ordea, adizki perifrastiko bat behar izan dugu, aditz nagusiak eta laguntzaileak osatua. Baina denboraren ardatzaren berri emateko orduan ez gara aditzaz bakarrik baliatu eta beste elementu batzuk ere erabili ditugu adibide horietan:

- (14) Joxe mutiko koxkorra *zen garai hartan*
- (15) Joxe herriko alkatea *da orain*
- (16) Joxe Parisera *joango da bihar*

Eta hor ikusten ditugu adberbio batzuk iraganarekin (*garai hartan*), orainarekin (*orain*) eta geroarekin (*bihar*) zuzenean lotzen direnak. Badirudi, hortaz, halako uztardura bat gertatzen dela adizkien eta denbora adberbioen artean.

Bada, iragana adierazteko erabiltzen ditugun *zen*, *zeitorren* eta halakoak iraganaldiko adizkiak direla esanen dugu; oraina adierazteko erabiltzen ditugun *da*, *dator* eta halakoak orainaldiko adizkiak direla, eta, azkenik, geroa adierazteko erabiltzen ditugun *joango da* bezalako adizkiak ez ditugu bataiatuko ez baitira trinkoak, baizik perifrastikoak, geroago aztertuko direnak.

• Laburbilduz, esan dezagun, hortaz, *denbora* kontzeptu semantikoari *aldi* kontzeptu gramatikala dagokion moduan, *iraganari* dagokiola *iraganaldia* eta *orainari*, berriz, *orainaldia*. Eman ditugun adibide hauetan guztietan denbora eta aldia eskutik ikusi ditugu. Kontuan hartu behar da, nolana ere, hau ez dela beti horrela gertatzen, esan bezala, eta hartako behar ditugula bi kontzeptu hauek ahal den neurrian bereizi. Adizki perisfrastikoak aztertzeko orduan nabarmenki ikusten da hau.

Aldia [±orainaldi, ±iraganaldi] lasunen arabera definitzen da. Horrela, *dator* bezalako adizki bat [+orainaldi, -iraganaldi] dugu eta *zatorren*, berriz, [-orainaldi, +iraganaldi], bistan denez. Hala ere, kontura gaitzen bi lasun horien konbinazioak beste bi aukera posible ematen dizkigutela: [+orainaldi, +iraganaldi] eta [-orainaldi, -iraganaldi].

Aldi berean orainaldia eta iraganaldia, biak batera, izan litekeen adizkiak oraina eta iragana batuko lituzke beste zerbaiten oposizioan jarri. Ez dugu halako adizkirik euskaraz. Aldi berean ez orainaldiko ez iraganaldiko ez den adizkiak, ostera, alegiazko mundu batean sartuko gintuzke, denborarik markatzen ez den mundu batean alegia. Horixe da, hain zuzen ere, honako adizkiokin gertatzen dena:

(17) Miren *baletor*, oso pozik jarriko ginateke

Eta hor ari gara esaten ez dakigula Miren etorriko den, eta etorzen baldin bada ere, ez dakigula noiz etorriko den. Adizki horrek ez du markatzen gertaera horren denborarik, ez digu esaten oraina edo iragana den, *baletor* hori ez baitagokio, zinez, mundu erreal bati.

Aldia, hortaz, honela aurkez dezakegu:

ALDIA		
[+orain -irag]	[-orain +irag]	[-orain -irag]
<i>dator</i>	<i>zatorren</i>	<i>-letor</i>

11.3. Modua

Moduak markatzen du adizkien arteko beste oposizio nagusi bat. Kontura gaitetzen *dator* horren ondoan dugula *datorke* adizkia eta *zatorren* adizkiak baduela ondoan *zatorkeen*. Amaitzeko, *letorke* ere erabiltzen dugu *balator* horren ondoan legokeena (nahiz azken bi hauek ez diren bestea bezain erabiliak, antza denez):

- (18) bihar *datorke* Peru
- (19) atzo *zatorkeen* Joanes
- (20) Miren *balator*, Joanes ere gaur *letorke*

Hor ikusten ditugu hainbat adizki: *datorke*, *dator*-en parekoa; *zatorkeen*, *zatorren*-en parekoa; *letorke*, *-letor*-en parekoa. Formalki ageri den aldea begien bistan da: adizki batzuetan *-ke-* morfema ageri da, eta beste batzuetan, ostera, ez. Morfema hau hartzen duten adizkiak moduak markaturik daudela esango dugu. Bestela esan: *dator* eta *datorke* adizkien artean dagoen desberdintasuna da bigarrenean, baina ez lehenbizikoan, moduaren ezaugarria ageri dela.

Eta zer esan nahi du moduzko adizkia izateak? Hori besterik da. Badirudi moduz markaturiko adizkietan *agiantasuna* adierazten dela:

- (21) bihar *dator* Miren
- (22) bihar *datorke* Miren

Lehenbiziko kasuan argi adierazten da Miren etorriko dela, baina bigarren adibidean zalantzak suertatzen ahal dira: agian etorriko da, baliutke etortzea, seguraski bai, baina ez gaude seguru, lehenbiziko kasuan bezala. Hori xe da bi adizkien desberdintasunetako bat. Gaur egun batzuek hain sarritan erabiltzen duten adierazpideak ere azalpen berbera du:

(23) *badakikezue* bihar jai dugula

Hori esaten duenak ez dio *badakizue*, baizik *badakikezue* (hau da, seguraski ere badakizue, eta ez baldin badakizue neuk esaten dizuet).

Modua markatzen duten adizki hauek geroa markatzeko ere erabili ohi dira, nonbait. Beraz, *Miren datorke* bezalako batek Miren "etorriko dela" adierazi izan du hizkuntzaren historian, egun aspektuaren bidez adierazten duguna. Nolanahi ere den, modua eta geroa direlako hauek gaur egun aski nahasian erabiltzen dira. Esate baterako, "nor ote da tabernan dagoen lagun hura?" galdetzen baldin badu batek, tabernan norbait ikusi eta nor den ez dakielako, oso erraz jaso dezake honako erantzun hau egungo euskaran:

(24) ez dakit: agian Pello Joxepe izango da

Eta hor lasai aski esaten dugu *izango da* edo *izanen da*, nahiz eta oraintxe bertan gertatzen ari den zerbaiti buruz ari garen. Horrexegatik esan daiteke etorkizuna eta modua nolabaitere loturik edo, daudela.

Datorke, dakikezue, eta halakoak "geroaldi arkaiko" bezala bataiatuak izan dira, baina argi ikusten denez, horiek ez dira nahitaz geroaldiko adizkiak --segurtasun eza eta agiantasuna batez ere markatzen dutelako--, baizik orainaldiko moduzko adizkiak. Hala ere, badakigu euskal aditzaren sisteman, hasiera batean, benetako geroa markatzen zutela. Beraz, esan daiteke sistema zaharreko geroaldiak direla. Jakina, geroa adierazteko geroaldi perifrastikoak sortzen direnean (*etorri da*, esate baterako),

sistema zaharreko adizkiek (*datorke*) toki berria aurkitu behar dute sistema berrian ere. Hori da gertatu dena, seguraski ere.

Modua duten aditzak [+ahal] bezala markatzen baditugu eta aldia ere kontuan hartuz, honela osatzen ahal da orain aditzaren kuadroa:

ALDIA

	[+orain -irag]	[-orain +irag]	[-orain -irag]
[-ahal]	<i>dator</i>	<i>zeturren</i>	<i>-letor</i>
[+ahal]	<i>datorke</i>	<i>zeturkeen</i>	<i>letorke</i>

11.4. Pertsona

• Aditz jokatuena eta jokatu gabeen artean dagoen diferentzia morfologiko handienetakoa bat pertsona markak izatean edo ez izatean oinarritzen da. Esan nahi baita, aditz jokatueta perpausuan parte hartzen duten zenbait izen sintagmaren erreferentziakide diren pertsona markak aurkituko ditugula. Ikus dituzagun, esaterako, ondoko adibideak:

(25) *natorkik*

(26) *zaramatzagu*

Adizki horietan daude argi eta garbi seinaltatuak pertsona markak: *n-k* esaten digu, adibidez, nor den datorrena (ni, kasu honetan) eta *-k* atzizkiak, ostera, ematen du aditzera nori natorkion (hiri, kasu honetan). Ondoko adibidean, *-gu* markak pluraleko lehen pertsona ergatiboan adierazten du eta *z-* aurizkiak, berriz, nor sintagma bat seinaltatzen digu.

Pertsona marka hauek adierazten digute, horrenbestez, adizak izen sintagmarekin egiten duen komunztadura. Izen sintagma absolutiboan, ergatiboan eta datiboan ageri denez gero, adizkietan bereizten diren pertsona markak ere hiru kasu horiei dagozkie. Horrek esan nahi du halako perpauseko adizkian *nor*, *nork* edo *nori*-ren markak ageri baldin badira, perpausean ere *nor*, *nork* eta *nori* markako izen sintagmak agertuko zaizkigula sintaxi mailan, izen sintagma horiek fonetikoki isil baldin badaitezke ere, ezkutuan utziz.

Pertsona markek osatzen dute, horrenbestez, adizkien arteko oposizioen sarearen beste ezaugarria:

(27) *nator*

(28) *hator*

Bi adizki horien artean dagoen desberdintasun bakarra pertsonari dagokio, hain zuzen ere, bietan aldia eta modua bat bakarra baita ([+orain, -iragan, -ahal], alegian).

• Aditzaren barmean agertzen ahal diren aipatu pertsona markek, non dauden kokatuak, forma hat baino gehiago erakuts dezakete:

- Marka horiek adizki hasieran daudelarik, honela gauzatzen dira euskaraz:

<i>ni</i>	=	N-
<i>hi</i>	=	H-
<i>gu</i>	=	G-
<i>zu</i>	=	Z-
<i>zuek</i>	=	Z-

(Ez da esan beharrik *zuek* bigarren pertsonak pluralgilea ere eskatzen duela: *z* edo *te*, geroago ikusiko denez)

- Markak adizkiaren azkenean direlarik, ordea, honako hau dugu:

ni	=	-T
hi	=	-K/N(A)
gu	=	-GU
zu	=	-ZU
zuek	=	-ZU+c

(Hemen ere ohar bat egin beharra da: *hik dakarna* bezalakoak badira, nahiz oso arruntak ez diren; bestetik, *e* hori ez da berez pertsona marka, pluralaren marka baizik).

- Markak adizkiaren barmean ere agertzen ahal dira, baina hau batez ere aditz laguntzaileekin gertatzen denez, geroago ikusiko dugu zein diren marka hauek.

▪ Ikusten ahal denez, 1. eta 2. pertsonen markak bakarrik ageri dira hor. Zer esan nahi du horrek? Hirugarren pertsonak ez duela marka morfologikorik? Argi dago elkarrikketa batean zuzenean ageri diren pertsonak lehen eta bigarren pertsonari dagozkienak direla. Hirugarrena elkarrikketatik kanpo geratzen baita. Hori bera islatzen da adizkien morfologian ere. Erkatzen baldin badira, esaterako, *du* eta *nuen* adizkiak, berehala oharitzen da bat hor ez dela ageri 3. pertsonako markarik. Baten batek *d-* dela pentsa lezake. Baina orduan, zer gertatzen da *nuen* bezalako adizki batean? Desagertu dela? Kontua ez da bakarrik hori. Hirugarren pertsonaren marka izan litekeen hori, aldiaren arabera aldatzen da: *du*, *zuen*, *balu*. Eta gainera, bizkaieraz, Ø bihurtzen da (zenbait adizkitan, ez beti: *zan*, *zireala*, e.a.): *eban* (*zuen*), *etozan* (*zetozen*).

Morfologia aldeak arrazoi garbiak daude hortaz hirugarren pertsonari dagokion marka zero dela pentsatzeko: *d-*, *z-* eta *l-* tempus edo aldiaren markak izango lirateke.

Nola azaldu orduan ondoko adizki hauen arteko desberdintasuna: *diogu/diegu; dio/diote*, e.a. Badirudi hor gertatzen den kontrakotasuna ez dela pertsonarena, numeroarena baizik; bigarren aldaerek pluraltasuna markatuko lukete, *diozu/diozue* bikotean gertatzen den modu berean alegia.

• Eman diren adibideetan ikusten den bezala, pertsona markei numeroaren marka ere gaineratzen ahal zaie, aditzaren komuntadura ez baitagokio pertsona markari bakarrik, baizik numeroari ere. Pluraltasuna markatzeko erabiltzen ditugun hizkiak honakook dira:

- z(ki)-	<i>zaigu/zaizkigu</i>
-z-	<i>doa/doaz</i>
-za-	<i>dabil/dabiltza</i>
-it-	<i>nauzut/gainuzu</i>
-e	<i>di/die</i>
-te	<i>du/dute</i>
-de	<i>dago/dude</i>

Sarritan, z bat jartzen da *-te* markaren aurretik, *-it-* pluralgilea indartzeko asmoz edo: *zaitu/zaituzte; ditu/dituzte*, e.a. Esan behar da, azkenik, erlatiboaren marka eta pluralgilea bereiz agertzen direla zenbaitetan: *zenidan/zenidaten*.

• Azken ohar bat egin dezagun orain marka hauen kokalekuaz. Adizkiak islatzen duen pertsona NOR (absolutiboa) bakarrik denean, adizkiaren hasieran jartzen da:

(29) *nator*

Adizkian ageri diren markak NOR eta NORI baldin badira, ostera, lehenik absolutiboa doa eta ondoren datiboa. Sarritan *-ki-* artizkia ere paratzen da datiboaren aurretik:

(30) *natzaizu, dagokizue*

NORK ageri denean, amaieran *doa*. NOR, *ordea*, hasieran:

(31) *naramazu*

Eta NORI ageri bada, adizkiaren erdian jartzen da normalcan:

(32) *ekarri dizkiguzu*

Iraganaldian gauzak pixka bat alda daitezke: ergatiboarekin batera perpausean ageri den absolutiboa hirugarren pertsonakoa baldin bada, hasieran joango dira ergatiboaren marka horiek:

(33) *generaman*

Horrek, ikusten ahal denez, halako haustura bat bortxatzen du aditz morfologian. Hasierako marka horiek batzuetan absolutiboari baitagozkio (*nago*) eta beste batzuetan, berriz, ergatiboari (*naukazu*). Kasu hauetan ergatibitatea hautsia gertatzen dela diote hizkuntzalariek. Nolanahi ere den, 'haustura' hauek nahiko arruntak dira hizkuntza ergatiboetan.

11.5. Numeroa

Esan dezagun azkenik, adizki batzuetan pluralaren marka ere ageri dela. Horrek bereizten ditu *diot* eta *dizkiot* adizkiak, *esate* baterako. Pluralgile hau, adibidecan ikusi den moduan, leku bat baino gehiagotan agertzen ahal da: *zai-zki-o*, *dio-te*, *d-it-ur*, *gato-z*, e.a.

12. kapitulua:

ADIZKI JOKATUAK: A. PERIFRASTIKOAK

12.0. Sarrera

Adizki perifrastikoetan, adizki trinkoetan ez bezala, aldiaren, pertsonaren eta moduaren markak bereiz jartzen dira, beste aditz batean oinarrituak. Aditz honi laguntzailea deritza. Horrenbestez, adizki perifrastikoetan bi zati bereizten dira argi eta garbi: aditz nagusia eta aditz laguntzailea. Hauxe da adibideetan ikusten dena:

(1) etorri zaigu

(2) agurtuko gaituzu

Aditz nagusia esaten zaio lehenbiziko zatia. Nolako informazioa ematen dio hiztunari aditz nagusiak? Aditz nagusiak biltzen du, hasteko, aditz horren semantika edo esanahia: *etortzea* da kasu batean, eta *agurtzea*, berriz, bestean. Semantika horretaz gain, aditz nagusian markatzen ahal da aspektua ere, berehala azteruko den kontua.

Aditz laguntzaileak, oster, aldi (*zaigu* vs *zitzaigun*), pertsona (*zaigu* vs *zaizu*) eta moduaren (*duzu* vs *dukezu*) markak biltzen ditu. Hortaz,

aditz laguntzaileak ez du aldatzen aditzaren semantika: *etorri da, etorri zen, etorriko da, etorri dateke* adizkietan, esate baterako, aditz laguntzailea beti desberdina da, baina aditzaren ekintza beti bakarra, *etortzea* alegia. Aditz laguntzailea euskarri bat besterik ez da, aipatu marka horiek biltzeko erabiltzen den euskarria, berezko esanahirik ez duena (jakina; batek esan dezake *hil da* eta *hil du* adizkien artean desberdintasun semantiko argia dela, baina hor ez da batere argi *hil* hori aditz nagusia denik eta *da* edo *du* aditz laguntzaileak).

Adizki urinkoak aztertu direnean, adizkien arteko desberdintasunen berri emateko, aditzaren sarea nola osatzen den adierazteko, hiru marka horien konbinazioei esker sortzen direla adizkiak esan da. Adizki perifrastikoen kasuan bada, ordea, beste marka bat ere lehentxeago aipatu dena: aspektua. Marka hau da aditz nagusian agertzen ahal den bakarra, besteak, esan bezala, laguntzailean jartzen direlako. Esan beharra da, bestetik, aspektuaren marka ageririk ez dagoela adizki urinkoetan.

12.1. Aspektua

• Ikus dituzagun honako adibideok:

- (3) ekarri du
- (4) ekartzen du
- (5) ekarriko du
- (6) ekar dezake

Lau adibide horien artean, lehenbiziko hiruretan aspektuaren marka ageri da (*-i, -tzen, -iko*), aditzomari atxikia, eta azkenekoan ez da inolako markarik. Gainera, lehenbiziko hirurek adizki laguntzaile bera daramate (*du*), eta azkenak beste bat desberdina (*dezake*). Berehala azalduko da zer esan nahi duen horrek.

Zertako erabiltzen du hizkuntzak aspektu marka hau? Badirudi hitzuna adierazi nahi duen prozesuaren berri ematen duela kategoria

honetaz baliaturik. Horrela, *etorri da* esaten denean aditzak adierazten duen egoera, ekintza, prozesu edo dena delakoa burututzat, amaitutzat jotzen da. Aldiz, prozesu hori hasi bai baina burutu gabe dagoelarik *etortzen da* edo halako zerbait esango da. Azkenik, prozesua gertakizun baldin bada *etorriko da* dugu hiztunak aukeratzen duena. Hortxe daude, hortaz, hiru markak: burutua (*etorri*), burutugabea (*etortzen*) eta geroa (*etorriko*). Ohart gaituzen, bide batez, aspektuak ez duela zerikusiz zuzenik aditzaren aldiarekin. Eman diren adibide guztietan *da* ageri baldin bada ere laguntzailean, aspektua berdin-berdin adierazten da iraganean jarririk ere: *etorri zen*, *etortzen zen*, *etorriko zen*.

- (7) Miren N. Yorkera joan zen. Han ezagutuko zuen bere senarra izango zena
(8) galdetu zuen noiz etorriko zen

Adibide horiek iruzkin bat merezi dute. Denbora absolutua hartzen baldin bada gogoan, hor esaten dena gertaturiko zerbait da. Baina gertatua den arren (badakigu Miren N. Yorkera joan zela eta bertan norbait ezagutu zuela eta norbait horrekin ezkondu zela), denboraren leku horretan gerora behatuz jartzen gara, horretarako geroaren marka erabiltzen dugula: *ezagutuko zuen*. Geroak etorkizuna adierazten du, gertakizun dagoen zerbait alegia.

Hobeki ikusiko da hau guztia ondoko irudi honekin:

---2---3---1--->

Jo dezagun gezi horrek denboraren iragaitea seinatzen duela. Hiztuna "1" puntuan jartzen baldin bada, "2" eta "3"-koa gertatutako zerbait da. Baina "2" puntuko prozesuaz ari baldin bada, ordea, "3" zenbakian irudikatutakoa oraingoz gertatu gabe dago.

• Aspektua dela eta, burutu diren eta burutu gabe dauden prozesuak bereziki ditugu lehenik (+burutu,-gero) tasunen arabera, alde batean

jarriz iragandako prozesuak eta bestean, ostera, gainerako guztiak. Ezaugarri morfologiko desberdinak erabiltzen ditugu aditzen eta euskalkien arabera. Batzuetan ez da marka berezirik ageri: *jan*, *edan* eta hauek bezala, *-n* hotsak bukatzen dituenak. Sail berekoak dira *kosta*, *falta*, *bota*, *pasa* eta halako gutxi batzuk.

Markarik arruntena (historia aldetik berriena) *-tu* da, eta hauxe eranstean da sistematikoki aditz berriak mailegatzten edo eratzen ditugun aldi bakoitzean: *lotu*, *sartu*, *makurtu*, e.a. Fonologi aldaketak ere erakusten ditu marka horrek: *apaindu*, *ezkondu*, *gosaldu*, e.a.

Beste aditz batzuek, azkenik, *-i* hartzen dute: *ekarri*, *egosi*, *itsatsi*, *ikusi*, e.a.

Aldacea hauek guztiak marka berarekin izendatuko ditugu: <tu> markarekin, alegia.

• Etorkizuna adierazteko geroaldiaren marka erabiltzen dugu, etorkizuna, hain zuzen ere, inguruko hizkuntzetan ez bezala, aspektuaren markaz baliaturik adierazten baita euskaraz. Oposizioa, oraingoan, [+gero, -burutu] tasunak erabiliz aurkez daiteke.

Maizenik agertzen den marka *-ko* da: *sartuko*, *helduka*. Fonologi aldaketak ditu *-n* ondoren suertatzen dencan (eta batzuetan *-l* ondoren ere): *jango*, *eramango*, *hilko/hilgo* e.a. Marka hau zuzenean eranstean zaie *bota*, *kosta* eta halako aditz batzuei: *botako*, *kostako*. Euskalkien arabera, *pasako* eta *pasatuko* aurkitzen da.

Kontsonantez bukatzen diren aditzek *-en* marka hartzen ahal dute geroa adierazteko: *joanen*, *eramanen*. Ekialdean marka hau erabiltzen da aditza bokalez amaitzen bada ere: *sarturen*, *etorriren*. Eta literaturan ez dira falta, batez ere zubererazko mende honetako testuetan, lantzean behin bi markak (*-ka* eta *-en*) bata bestearen gainean ematen dituztenak: *gozaturenko*.

Etorkizuna adierazteko <tuko> marka erabiliko da aurrerantzean.

• Aspektuari dagokionez, hirugarren sailean sartzen dira [-burutu, -gero] lasunak dituztenak, beraz, burutu gabe dauden prozesuak baina gerokoak ere ez direnak. Nolabait ere esateko, abian daudenak. Burutugabeak deituko ditugu.

Oinarrizko marka *-izen* (burutua *-tu* egiten dutenen artizan) edo *-ten* (burutuaren markarik ez dutenen kasuan) da: *salitzen, igortzen, eramaten, jaten, ematen*. Aldaera fonologikoak ez dira falta: *ikusten, hozten, hausten, bereizten*, e.a.

Aditzoina *-n* hotsarekin bukatzen denean honako aldaerok ere oso arruntak dira ekialdera: *egaiten, emaiten, erraiten*, e.a.

Bizkaieraz *-atu* bukaerak *-au* egiten dute sarritan: *kantau, pentsau, kantsau*, e.a. Aditz hauek aspektu burutugabeak honela egin dezake: *pentsetan, olgetan, betetan, kostetan* (azkeneko bi hauek ez dute era burutuaren markarik). Hortaz, *kantau, kantauro, kantetan*. Mendebaleko euskaldun askoren hizkeran *-tuten* egiten da: *amaituten, sartuten*, e.a.

Aldaera hauek guztiak <izen> markapean bilduko dira.

• Geratzen den azken aukera, hots, prozesu bat [+burutu, +gero] izatea, ez da gauzatzen marka morfologiko jakin batean euskaraz. Semantikoki posiblea den arren, hiztunak ez du hartarako adizki berezirik eta bestelako adizkiez baliatu behar da.

• Esan den moduan, aspektuaren hiru marka hauek (<u>, <tuko> eta <izen>) adizki perifrastikoetako aditz nagusian ageri dira. Hala ere, aspektuaren marka aukeratzeak edo ez aukeratzeak, badu eragina ondotik etortzen ahal diren aditz laguntzailetan ere:

- (9) *etorri naiz*
ekarri dugu
etor gaitezen
ekar dezakegu
jan dagigun
esaten eutsen
ikus diro

Adizki horiek guztiak aurkitzen ahal dira euskalkietan. Euskara batean lehenbiziko laurak bakarrik aukeratu baldin badira ere, berehala ohartzen gara hor zazpi aditz laguntzaile desberdin daudela: *izan*, **edun*, **edin*, **ezan*, *egin*, *eutsi* eta **iro(n)*.

Aditz laguntzaile horietako batzuk aditz nagusi bezala ere agertzen ahal dira (*izan*, *eutsi* eta *egin*), baina besteak ez. Zer gertatzen da orduan?

Aditz laguntzailearen sistema, ikusten denez, ez dela aditz bakar batean oinarritzen, aditz multzo batean baizik. Baina zein den laguntzaileetat aukeratzeko den aditza, orduan aditz nagusiaren forma ere, aspektuari dagokionez, mugaturik gertatzen da. Esate baterako, *izan* eta **edun* aditzak aukeratzeko baditugu (aditz nagusi batzuek *izan* nahi dute, eta beste batzuek **edun*), hauxe aurkitzen dugu:

- (10) *etortzen naiz*
etorri naiz
etorriko naiz

ekartzen dugu
ekarri dugu
ekarriko dugu

Aldiz, *edin eta *ezan aditzak hartuz gero laguntzaile gisa (aditz nagusi batzuek *edin eskatzen dute eta beste batzuek, berriz, *ezan) aukerak aski mugatuak geratzen zaizkigu:

- (11) *etor gaitezen*
ekar dezagun

Bestela esateko: aditz nagusiak aspektuaren marka hartzen baldin badu, gehienetan *izan* edo **edun* aukeratuko du. Aspektuaren marka hartzen ez badu, ordea, beti beharko du **edin* edo **ezan*:

- (12) **ekar dugu*
**etor naiz*

Horregatik esan dugu halako lotura bat dagoela aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean; nolakoa den hura -aspektu markarik daraman ala ez- halakoxea izanen da laguntzailea ere.

• Hizkuntza estandarrean erabiltzen diren lau laguntzaileak (eta hauek mugatuko da azalpena aurrerantzcan), bestetik, honela banatzen dira: aditz iragankorrek **edun* nahiz **ezan* hartzen dute. Aditz iragangaitzen arteko aditz ez-akusatiboek (ikus! hasieran honetaz esan dena) *izan* nahiz **edin* eskatzen dute.

Esan dezagun, dena dela, *izan* aditza, laguntzailea izateaz gain aditz nagusia ere izan daitekeela:

- (13) Loiolan *izan* naiz

Halako zerbait gertatzen da **edun* aditzarekin ere:

- (14) Hamar urte *ditu*

Azkeneko kasu honetan, hala ere, (hau da, aditz nagusia denean, eta ez laguntzailea) *ukan* aditzaren aurrean gaudela esanen dugu, *ukan* utziz aditz nagusia izendatzeko eta **edun*, ostera, laguntzailea izendatzeko. Bercizketa hau, jakina, arrazoi pedagogikoengatik egiten da: **edun* aditzaren azpian sartzen ditugun adizkiak sustraianizkoak dira. Hori, batetik; bestetik, argi dago laguntzailea (hobeki esan, aditz laguntzaile jokatua) izendatzeko, eta horretarako bakarrik, erabiltzen dugula, laguntzailea ez denean hiztun askok *ukan* erabiltzen baitu, esan bezala. Eta besteek *izan*.

Horrenbestez, *izan* aditza hiru gauza desberdin izan daiteke, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

- (15) Miren etorri *da*
Loiolan *izan* *da*
guk ere *izan* diugu kezka

Lehenbiziko kasuan laguntzailea da eta beste bietan aditz nagusia. Hala ere, bi aditz nagusi diferente diugu hor: batean *izan*-en esanahia du eta bestean, berriz, *ukan*-ena. Euskaldun askok honela esango bailukete hor:

- (16) guk ere *ukan* diugu kezka

12.2. Aldia

• Aspektuaz gain, gainerako oposizioak aldi, pertsona eta moduarena dira, adizki trinkoetan gertatzen den bezala. Lehengo eskema bera segituz, hauxe gertatzen zaigu orduan:

ALDIA

[+orain -irag]	[-orain +irag]	[-orain -irag]
<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>-litz</i>

Kontura gaitezen hor *izan* aditza bakarrik jarri dugula. Lauki hori behar den bezala osatzeko beste hirurak ere jarri beharko lirateke: **edin*, **edun* eta **ezan*, oraingoz, hala ere, kontuan hartuko ez ditugunak.

Adizki trinkoekin ez bezala, honako hauek laguntzaileak direnez gero, adiz nagusi baten ondoan agertuko dira:

- (17) *etorri da*
etorri zen
etorri balitz

• Euskalkien arabera *etorri da* eta *etorri zen* entzuten ahal dira ogoera beraren aurrean. Noiz erabili bata eta noiz bestea? Badirudi gutxienezko unitatea gauerdiak markatzen duela:

- (18) aizo hamaiketan *etorri zineten*
 (19) bart arratscan ordu biak aldera *etorri zarete*

Gauerdia pasatu ondoren ezin daiteke iragara erabili:

- (20) *goizeko seietan *etorri zineten*

Alegia, ezin dugu halakorik esan egun horretako goizeko hamarretan hitz egiten ari bagara (zentzu horretan bakarrik da ez-gramatikala esaldi hori, jakina).

Aldiz, gauerdiaren aurretik mendebalekoen eta ekialdekoen usuarioa ez da berdina, ekialdean orainaldia erabilizeko joera handia baitago:

(21) atzo gaueko hamarretan sartu *zarete* herrian

Mendebalean *zineten* erabiliko litzateke kasu honetan.

Unitate moduan eguna hartu beharrean beste zerbait ere izan daiteke: astea, hilabetea, urtea, e.a., usuarioa ere biktara dugula orduan:

(22) joan den astean ez *zuen* euririk egin
joan den astean ez *du* euririk egin
iaz etorri *zen*
iaz etorri *da*
joan den mendean gertatu *zen*
joan den mendean gertatu *da*
e.a

Ikusten denez, *joan den astean* bezalako esapideak adberbio gisa harturik daude, fosildutako elementuak bezala, hiztunak elementu autonomozat jotzen dituenak (nekezago aurkitzen dira horregatik *joan zen astean* esapidearen gisakoak). Arrazoi horregatik ez da nahitaezko komunizadura egitea hurrengo "gertatu da" edo "gertatu zen" adizkiaren aldiarekin.

- Lau laguntzaileak kontuan izanik, hauxe da gertatzen dena:

ALDIA

	[+orain -irag]	[-orain +irag]	[-orain -irag]
izan	<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>-litz</i>
*edun	<i>du</i>	<i>zuen</i>	<i>-lu</i>
*edin	<i>-dadi-</i>	<i>zedin</i>	<i>-ledi</i>
*ezan	<i>-daza-</i>	<i>zezan</i>	<i>-leza</i>

Adizki trinkoak aztertu direnean segitu dugun eskemari lotu gaitzaizkio orain ere: hor daude, hiru zutabeetan, orainaldia (normalean oraina adierazteko erabiltzen ditugunak), iraganaldia (normalean iragana adierazteko balio dutenak) eta alegiazko adizkiak (denbora markatzen ez dutenak).

12.3. Modua

- Euskal gramatika batzuetan eta iparraldeko zenbait hiztunen artean ondoko adibide hau bezalakoak aurkitzen ahal dira:

(23) Mikel etorri *dateke*

(24) Mikelek egin *duke*

Ezin dira nahasi adizki horiek ondoko esaldietan ageri direnkin:

(25) Mikel etor *daiteke*

(26) Mikelek egin *dezake*

Ikus ditzagun desberdintasunak. Hasteko, lehenbiziko kasuan aspektua markatua dago (aspektu burutua *da*, ikus *daitekeenez*). Bigarrenean ez da aspektu markarik ageri. Gainera, laguntzailea ere

diferentea da. Zergatik? Bi aditz laguntzaile desberdin direlako: *izan* / **edan*, lehenbiziko kasuan, eta **edin* / **ezan*, bigarrenean.

Adizki horiek elkarren artean duten ezaugarria da denak daudela modu aldetik markaturik: batek *da* eta *du* adizkien aldaerak, modu markarekin. Besteik *-dadi-* eta *-deza-* adizkien aldaerak.

"Mikel etorri dateke" bezalako bat ikusten dugunean gramatika batean eta moduz markaturiko aditzaren aurrean gaudela irakurri, pentsatzekoa da modu horrek adizki trinkoetan esplikatu den balioaren pareko zerbait erakusten duela. Halaxekoa da liburuetan ematen den azalpena: Mikel agian etorri dela, beharbada etorri dela da adicrazi nahi dena. Horaz,

- (27) Mikel sartu dateke
 Mikel sartzen dateke
 Mikel sartuko dateke

Horietan esan nahi omen dena da ez garela batere ziur, baina seguraski ere Mikel sartu dela, seguraski ere Mikel sartzen dela eta seguraski ere Mikel sartuko dela. Agian gertatu, gertatzen edo gertatuko den zerbaiten aurrean gaude.

Kontuan hartzen badugu orain moduaren ezaugarria ere, honela osa daiteke goiko kuadro hori:

		ALDIA			
		[+orain -irag]	[-orain +irag]	[-orain -irag]	
modua					
[ahal]					
-	<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>-litz</i>	(izan)	
+	<i>dateke</i>	<i>zatekeen</i>	<i>litzateke</i>		
-	<i>du</i>	<i>zuen</i>	<i>-lu</i>	(* <i>cdun</i>)	
+	<i>duke</i>	<i>zukeen</i>	<i>luke</i>		
-	<i>-dadi-</i>	<i>zedin</i>	<i>-ledi</i>	(* <i>cdin</i>)	
+	<i>daiteke</i>	<i>zitekeen</i>	<i>liteke</i>		
-	<i>-deza-</i>	<i>zezan</i>	<i>-leza</i>	(* <i>czan</i>)	
+	<i>dezake</i>	<i>zezakeen</i>	<i>lezake</i>		

• Hala ere, azalpen batzuk gehiago ematea komeni da hemen. Eskema hori oso argia da eta adizki guztiak eredu garbi baten barnean besarkatzen ditu. Kontua da, ordea, euskal literaturan ez direla horrenbeste ageri *etoritzen dateke* edo *etorri dateke* bezalako adizkiak. Adibide zahar guztiak (eta hemen *ditai(i)ke* adizkiaren tankerakoak eren kontuan hartzen dira, ikus geroago) *ahal dateke*, *ezin dateke*, *hori dateke* eta hauen tankerakoak dira, hots, aditz laguntzaile gisakoak izan beharrean, aditz nagusi bezala ageri direnak. Aditza laguntzailea denean erlatiboko esaldietan ageri da (Maister: *Zure kuntre erran datekian gauza tripi batek, zeren tristetzen zütü?*) errazago. Axularrek, Maisterrek, Leizarragak, Etxeparek eta abarrek oso guxitan erabiltzen dituzte forma hauek. Gaur egun ere *etorri dateke* horren ordez erabiliagoa da *etorria dateke*.

Aldiz, *duke* adizkiaren sailekoak oso arruntak dira iparraldeko autore zahar nahiz gaurkoetan: *egin duke, ikusten duke. Harturen duke bezalakoak, ostera, ez hainbeste.*

• Sistema honek, betiere kontuan izanik *etorri / etorriko dateke* bezalako adizkiei buruz esandakoa, oso modu sinplean aurkezten du euskal aditzaren egitura, ikusten denez. Honek azal ditzake, agian, beste zenbait gauza ere, euskalkien artean gertatzen direnak. Esate baterako, honako hau:

- (28) mutil horrek ere *har lezake* hori
mutil horrek ere *hartuko luke* hori

Itxura denez, bi esaldi hauek nahiko parekoak dira, eta ez dirudi esanahia desberdina dutenik. Ekialdeko hiztunak lehenbizikoa nahiago du normalean. Mendebalekoak, aldiz, bigarrena. Zer gertatu da hor? Hain zuzen ere, euskalkiek laguntzaile diferentia hartu dutela: **ezan*, ekialdean eta **edun* mendebalean. Jakina, horrexegatik batean aspektuaren marka jartzen da. Baina ez bestean. Zein den aukeratzen den aditza, horren arabera marka baitaiteke aspektua, lehen esan bezala. Baldintza adizkiak aztertzean ikusiko denez, dena dela, ekialdean *har lezake* horren ondoan *hartzen luke* ere erabiltzen da (ez, ordea, *hartuko luke*).

Ekialdean *dateke* eta *daiteke* ere nahasian ematen dira batzuetan, *dit(a)i/ke* adizkia erabiliz beste bi adizkien ordez. Zernahi gisaz, sinkretismo hori alokutiboan hausten da: *hemen ditake* dioenak (*hemen dateke*, nahiz *hemen daiteke* adierazteko alegia), alokutibora pasatu bezain laster *hemen dukek, dukezu*, c.a. aukeratuko du *dateke*-ren ordez eta *hemen gerta ditakek*, ordea, *hemen gerta daiteke*-ren ordez. Bistan dena, *daiteke* adizkia laguntzaile gisa besterik erabiltzen ez denez, laguntzen duen aditz nagusiak ezin dezake aspektu markarik hartu: *gerta ditake* (= *gerta daiteke*, ez **gerta dateke*).

• Eskema honen arabera, hortaz, eta forma aldetik, *etorri naiz, etor nadin, ikusi dut, ikus dezadan* adizkietan ageri diren aditz laguntzaileak

indikatiaboko adizkiak dira denak, nahiz, esan dugun legez, aditz laguntzaile desberdinei dagozkien. Zemahe gisaz, ohartxo bat egin beharra da hemen: *nadin* edo *dezadan* bezalako adizkiak esaldi menderatueta bakarrik ageri dira, subjuntiboaren kutsuarekin. Hala ere, nekez esan dezakegu *nadin* adizkia, esaterako, *izan* aditzaren subjuntiboa denik, aditz honek (eta berdin **edan*-ek ere) bai baiu bere subjuntiboa, nahiz gehienetan forma ihartueta edo literatura pasartueta bakarrik agertzen duen: *dena dela*, *dugun edan*, *Jainkoak diela*, e.a.

12.4. Pertsona

• Ez da esan beharrik aditz laguntzailetan ere pertsona dela laugarren tasuna eta tasun honen arabera sortzen direla adizkiak. Pertsona marka hauek hasieran egon daitezke (gogoan izan hemen adizki trinkoak aztertu direnean, han esandakoa pertsonen markez):

ni	=	N-	(naiz)
hi	=	H-	(haiz)
gu	=	G-	(gara)
zu	=	Z-	(zara)
zuek	=	Z-	(zarete)

Marka hauek amaieran ere agertzen ahal dira:

ni	=	-T	(dut)
hi	=	-R/N	(duk/dun)
gu	=	-GU	(dugu)
zu	=	-ZU	(duzu)
zuek	=	-ZU+e	(duzue)

(e hori plural marka da, ez pertsona marka)

Azkenekoz, pertsona marka hauek tartean, adizkiaren barnean, agertzen ahal dira:

ni	=	-DA-	(didala)
hi	=	-A/-NA	(duala/dunala)
gu	=	-GU	(diguzu)
zu	=	-ZU	(dizugu)
zuek	=	-ZU+e	(dizuegu)

(Hemen aipatu beharra da, berriz ere, *e* delako hori pluralaren marka dela, ez pertsonarena).

Sari askotan, aditza eta forma laguntzailea elkarri itsatsiak jartzen dira eta oso osoan trinkoak izan gabe ere, halako adizki "semisintetikoak" sortzen dira, edozein hiztunek berchala osatzen dituenak, hala nola, *erakustak*, *ekartzak*, *egiguk*, *uztazu*, *emadazu*, e.a.. Adizki horietan, trinkotzat jo daitezkeen forma bakarrak hirugarren pertsonakoak dira baina ez ditugu hemen jarriko *Euskal Aditz Batua* deritzan liburuan ikus baitaitezke.

Gainera dezagun, azkenik, badirela Euskal Herrian hain ezagun ez diren aginte adizki batzuk (testu zaharretan arruntak dira, hala ere), hurrengo aditzok, bestek bestea, osatzen dituzienak:

**edur*:

(21) dugun edan! (=edan dezagun!)

(22) dugun oioitz egin! (=egin dezagun oioitz!)

**erdu*:

(23) erdu hona! (=etor hadi/zaitetz hona!)

(24) erdue/erduze hona! (=etor zaitezte hona!)

*-*i(n)*:

(25) iguzu egun eguneko ogia

(26) ama indazü alhorra, menturaz sekülakoa

(27) idazu ur

(28) Jainkoak dizula egun on! (=eman biezazu Jainkoak...)

16. kapitulua:

BALDINTZA ADIZKIAK

16.0. Sarrera

- Baldintzazko perpausek periodo bikoitza osatu ohi dute:

- (1) garaiz etortzen *baldin bazara*, elkarrekin joango gara mendira
- (2) garaiz etortzen *bazara*, elkarrekin joango gara mendira

- Adibide horietan ikusten denez, batetik baldintza bera daukagu, horretarako *baldin ba-* (edo *ba-* bakarrik) eranstean diogula adizkiari, eta bestetik, berriz, ondorioa, baldintza batez gero, zer gertatuko den edo zer gerta lukeen adierazten diguna. Lehenbiziko zatian, baldintza jartzen duenari alegia, *protasia* deitzen zaio, eta baldintzaren ondorioari *apodosia*. Protasiak eta apodosiak bestelako hurrenkera ere erakuts dezakete:

- (3) elkarrekin joango gara mendira, garaiz etortzen bazara

- Adizkien morfologia hartzen badugu kontuan, bai baldintzan bai ondorioan agertzen diren adizkiek itxuraz forma berezia erakusteaz gain,

azpimarratu behar da baldintzazko adizkerak (prolasia enbortzen duenak) eta ondoriokoak (apodosia oinarritzen duenak) lotura berezia dutela elkarren artean, nolabaiteko komunztadura edo eginez. Delako komunztadura hau errespetatzen ez denean zuzenak ez diren perpausak sortzen ahal dira:

(4) ?*hori horrela balitz, oso pozik joango naiz

Dena dela, azterkizun da bi ataletatik zeinek hartzen duen nagusitasuna arazo honetan. Izan ere, badirudi ondorioa alegiazkoa delarik, baldintza ez-alegiazkoa izan daitekeela, baina ez alderantziz. Ondoko bi perpaus hauean, adibidez, lichenbizikoak zuzenago dirudi bigarrenak baino:

(5) hori horrela bada, etxe bat erosiko nuke

(6) ?*hori horrela balitz, etxe bat erosiko dut

• Adibideetarik ikusten denez, adizki hauek ez dira orain arte tauletan ikusi ditugunetatik bereiz geratzen direnak, haiexek berak baitira baina delako *ba-* aurrizkia daramatela. Dena dela, badirudi aurrizki hau ezin dutela Nolanahi hartu adizkiek eta moduzko adizkiekin (hemen ere salbuespenak egin behar diren arren), hau da, *-kedun* adizkiekin, ezin dela *ba-* erabili:

(7) ??* erosi badukezu, zurra dateke

Halakoak alde batera utzirik, beharrezkoa deritzagu, hala ere, ohar bat egiteari baldintzazko adizki nagusiez hitz egiten hasi baino lehen. Izan ere, hemen eskainiko diren forma hauek euskarak dituenak diren arren, ez du esan nahi euskaldun guztiek erabiltzen ditugunik. Hots, euskalki batzuetan forma bat erabiltzen den lekuan beste batzuetan beste bat erabili ohi da sarritan gauza bera adierazteko.

16.1. Baldintza adizki trinkoak

16.1.1. Baldintza alegiazkoak

Adizki trinkoak aztertzean, honako hauek guztiak aurkitu ditugu: *dator*, *zeterren*, *-letor*, *datorke*, *zeterkeen*, *letorke*.

Baina lehentxoago adierazi dugunez, *ba-* aurrizkia ez da ongi konpontzen *-ke* atzizkia duen adizkiekin. Hori dela eta, gure aukerak ondoko hiru hauekara mugatzen dira: *dator*, *zeterren*, *-letor*. Eta hiru horietatik, azkenekoa da, hain zuzen ere, alegiazkoa, ez baitu aldirik markatzen, ez baitu tempusa markatzen morfologikoki. Bada, halako adizkiez baliaturik adierazten dugun baldintza *alegiatzkoa* dela esaten dugu:

(8) aita *baletor*, zer pentsatuko ote luke?

(9) negar egingo luke nire amak *baletki*

Alegiazkoak direla diogu, ez baitakigu hor markatzen den baldintza beteko den ala ez. Ohari gaitzkeenez, alegiazko adizkia aukeratzeak berarekin dakar apodosian edo ondorioan sail bereko adizkia aukeratzea ere (kasu honetan *luke*).

16.1.2. Baldintza errealak

Goian ikusitako *baletor*, *baletki* adizkien sailekoak ez diren adizkiak baldintza *erreal* eta *gertagarri* deitzen direnetan erabili ohi dira. Zein dira baldintza *errealak*?

Ikus dezagun ondoko adibide hau:

(10) neska lirain horrekin ezkondua *bazaude*, zorientsu izateko arrazoi ugari duza

Konturatzen ahal garenez, esaldi hori eman duen hiztunak ez du hor bencitako baldintzarik jartzen, berak bai baitaki aldez aurretik neska horrekin ezkondua dela. Hori jakinik egiten du ondoko adierazpena. Hori jakinik berak ematen du bere uestez hori horrela gertatzeak dakarren ondorioa.

Deitura hau, jakina, ez dagokio adizkiaren formari berari, adizkiaren balioari baizik. Baina berehala ikusiko denez, forma horrek beste balio bat ere izan dezake, nahiko diferentea gainera. Hortaz, adibide hori baldintza erreala dela esaten dugunean esan nahi da esaldi hori dioen hiztunak egiazkotzat ematen duela neska lirain horrekin ezkondua dela eta ondorioa ere egiaztat ematen duela. Beraz, baldintza mota hauetan bai baldinizaren eta bai ondorioaren egia suposatzen du hiztunak.

Orainaldiko esan dugunak iraganaldian ere balio du, jakina:

(11) aita *bazetorren*, denak pozten ziren

(12) zure etxera *barindoan*, hurbilena hura nuelako zen

16.1.3. Baldintza gertagarri edo ebentualak

Baldintza errealetan erabiltzen diren forma berberak erabili ohi dira baldintza gertagarri edo ebentualetan ere. Esanahia da aldatzen dena, ondoko adibideotan ongi aski ikusten ahal denez:

(13) hor (baldin) *bazaude*, ikusi egingo zaituzte

(14) aita (baldin) *badator*, zinemara eramango zaitu

Perpausotan ez da jadanik ezeren egia suposatzen: gertatuko den, edo gerta daitekeen zerbait aurkezten zaigu. Baina bistan da baldintza errealek eta baldintza gertagarriek adizki berberak erabiltzen dituztela. Hori dela eta, desberdintasuna esanahian aurkitu behar da eta esanahi horren desberdintasuna ondorioeko adizkian ere geratzen da islatua, baldintza gertagarrien ondorioetan, errealeen ondorioetan ez bezala, geroa inartatzen baitugu: ikusi *egingo* zaituzte, *eramango* zaitu.

Egia da sarritan, hala ere, oso neketan ibiliko garela errealen eta gertagarrien arteko mugak markatzeko orduan:

(15) gaur etxean baldin bazaude, bihar ere han izango zara

Eta iraganaldian berdin:

(16) aita bazetorren, zinemara eramango gintuela esan zigun amak

(17) Donostian banengoen bisitatuko ninduela esan zidan

16.2. Baldintza adizki perifrastikoak

16.2.1. Baldintza alegiazkoak

• Adizki urinkoekin erkatuz gero, aukerak areagotu egiten zaizkigu orain. Batetik, lau aditz laguntzaileak erabiltzen ahal ditugu (*izan*, **edin*, **edun* eta **ezan*). Besteük, adizki perifrastikotian **edin* eta **ezan* aditzen -*kedun* adizkiek ere onartzen dute baldintza aurritzia. Alegia, *badukezu* bezalako adizkiak zalantzazkoak badira ere (baldintza zentzuarekin, jakina), *badaiteste* edo *baliteste* erabiltzeko arazorik ez dago.

Hau guztia kontuan izanik, hizkuntzaren aukeretan sartzen dira, eta alegiazkoetara bakarrik mugatzen gara, *etorri balitz*, *etortzen balitz*, *etorriko balitz*, *etor baledi*, e.a.

• Aspektu marka burutua erakusten dutenekin hasiko gara: *etorri balitz*, *ekarri balu*. Hauek iraganaldiko baldintza alegiazkoak (edo irrealak) osatzeko erabiltzen ditugu:

(18) *etorri (izan) balitz*, harrapatuko zuen

(19) *ikusi (izan) balu*, agurtuko zukeen

Euskalkien eta hiztunen arabera iraganaldiko baldintza hau markatzeko, eta hortik erator daitekeen ondorioa adierazteko, bide bat

baino gehiago dago. Hasteko, badirudi aspektu burutuak berak markatzen duela iragana, bestelako laguntzarik gabe: *etorri balitz, ikusi balu*. Euskalki batzuetan, hala ere, *izan* partizipioa erabiliz markatzen da iragantasan hori: *etorri izan balitz, ikusi izan balu*. Hortaz, aukeran utz daiteke partizipioaren erabilera.

Bestetik, ondorioan bi aukera geratzen dira: literaturan ageri den *zukeen* bezalako adizki bat aukeratzea (iraganaldiko moduzko adizkia alegia), edo iragana bera bakarrik zuzen-zuzenean erabiltzea: *zuen*. Iraganak nolabaitere neutralizatu egingo luke beste aukera.

• Bigarren sail batean daude aspektu marka burutuaz gainerako aspektu markak erakusten dizkiguten adizkiak: *etortzen balitz, etorriko balitz*. Bi adizki hauen artean ez dago, itxura denez, esanahi desberdintasunik. Euskalkiak hartzen badira kontuan, hala ere, lehenbizikoa ekialdean erabiltzen da batez ere, eta mendebalean, berriz, bigarrena. Badirudi baldintza hauetan guztietan aldia dela kontuan hartzen dena eta horretarako, aspektu burutua (<tu>) erabiltzen da iraganari legokiokoen baldintza adierazteko eta aspektu ez-burutua (<tzen>, <tuko>) iragana ez denari legokiokoen baldintza adierazteko. Kontuan izanik, gainera, ekialdean nahiago dela **ezan* edo **edin* erabili ondoriozko adizkietan, aditz laguntzailea esplikatuz denean adierazi den gisan (*poztuko ginateke, alegera gintezke; esango nuke, erran nezake*), hauxe da maizen ikusten dena:

- (20) *etorriko balitz*, poztuko ginateke
- (21) *erosiko bagenu*, esango gonizuke
- (22) *etxea erosten bagenu*, ordain genezake
- (23) *burua erakusten balu*, ikus nezake

Lehenbiziko biak mendebalean eta beste biak ekialdean.

• Hirugarren multzoan sartzen dira, azkenik, *etor badaiteke* eta *etor baledi* bezalakoak. Hauek ere alegiazkoak dira, ahalezko baldintza adierazten baitute. Esanahiaren aldetik, ez dago argi ba ote duten inolako

desberdintasunik hauen eta aurreko adizkien artean. Badirudi aski parekoak direla hemen ditugun hauek eta bigarren edo hirugarren aldacrak aukeratzeko joera dugula egungo euskaldunok:

- (24) garaiz *hurbil bazintez* ikus genezake hori
- (25) garaiz *hurbilduko bazina*, ikusiko genuke hori
- (26) garaiz *hurbilduko bazina*, ikus genezake hori
- (27) hara *dei bazeneza*, ikus lezakete zer egin
- (28) hara *deituko bazenu*, ikusiko lukete zer egin
- (29) hara *deituko bazenu*, ikus lezakete zer egin

Horiexek ditugu alegiazko baldintza adierazten duten adizkiak. Ikus ditzagun orain hurrengoak.

16.2.2. Baldintza *errealak*

• Baldintza errealak adierazten dute *etorri bada* eta *etortzen bada* saillekoek, nahiz azken adizki hauek baldintza gertagarri gisa ere erabil daitezkeen:

- (30) *etorri bada* ikusiko dugu
- (31) *erosi badu* ordainduko du
- (32) arratsaldero zugana *etortzen baramiz*, ez naiz diru bila etortzen, zu ikusicarren baizik

Sail honetan lekua duten *etorriko bada* adizkiaren tankerukoak askoz ere mugatuagoak dira erabileran eta halako obligazio, premia edo xehetasun kutsua adierazten dute:

- (33) auto bai jarri behariko dituzu, *etorriko bada*

Iraganean ere berdin gertatzen da:

- (34) *etorri bazen*, oso gaizki egin zuen

(35) norbait *ikusten bazuen* berchala agurtzen zuen

Esan dezagun, dena dela, euskaldun askok adizki hau (*etorri bazen* bezalakoa alegia) erabiltzen dutela alegiazkoaren ordezt (*etorri izan balitz* delakoaren ordezt):

(36) *etorri bazen* agurtuko nuen

Jakina, *etorri (izan) balitz* zuzenagoa litzateke halakoetan.

• Hurrengo multzokoak dira *etor badaiteke* adizkiaren sailekoak. Esan den moduan, *ba-* eta *-ke* hizkien artean elkargaitasuna gertatzen bada ere, argi dago kasu hauetan debeku horrek ez duela indarrik:

(37) *etor badaiteke*, datorrela berchala!

(38) zuk esan duzu ordain dezakezula. Beraz, *ordain badezakezu*,
ordain ezazu

Konturatzen ahal garenez, kasu hauetan egiaztat jotzen da jartzen den delako baldintza hori: *egia bada etortzen ahal dela, egia bada ordaintzen ahal duela*, e.a. bezala parafrasea daitezke goiko esaldiak. Periodoaren ondorioan ageri den esaldia ere ez da nolana hikoia eta normalean adierazpen perpausak ez dute hor tokirik (goian aginte adizkiak ditugu. Galde perpausak ere erraz ageri dira halako testuinguruetan).

Iraganaldian ere berdintsu gertatzen zaigu:

(39) *etor bazitekeen*, zergatik ez zen etorri?

(40) *ordain bazezakeen*, ordaintzeko eskatu genion

Etor badadi sailekoak baldintza gertagarriak adierazten dituzten arren, *ahal* eta *ezin* partikularekin ageri direnean erraltzat jo daitezke:

(41) *Ezin konfesa badadi*, zer egin behar du?

16.2.3. Baldintza gertagarriak

• *Joaten bada* sailko adizkiak baldintza gertagarria adierazteko erabili daitezke:

(42) hor sartzen bazara, ikusi egingo zaituzte

• *Joan banadi* sailkoak ere gertagarriak dira, ondoko adibideok erakusten duten bezala:

(43) eros badeza, ordainduko du

(44) joan banadi, ikusiko duzu

Egia esan, aski gutxi erabiliak dira halako adizkiak (ekialdean usuago), hauen ordez *erosten badu* edo *joaten banaitz* bezalako itzuliak nahiago izaten baititu hiztunak. Jakina, iraganean, literaturan eta gramatiketan salbu, ez dira ia ia ageri horrelako adizkiak.

• Ahalezkoen artean alegiazko formak ere badirenez gero (*lezake, liteke*), baldintzazko adizkiak ere ageriko zaizkigu. *Etor daiteke* eta *etor liteke* formen artean dagokeen desberdintasun bera legoke *etor badaiteke* eta *etor baliteke* adizkien artean:

(45) *etor baliteke*, etorriko da

Alegia, egia bada *etor litekeela*, etorriko da (eta ez, *etorriko litzateke*, ez baikaude, beraz, alegiazko munduan).

Nolanahi ere, desberdintasuna, desberdintasunik baden neurrian, nekez somatzen da eta, horrenbestez, nekez egin daiteke. Hala ere, perpaus kontzesiboetan errazago aurkitzen dira horrelako adibideak:

(46) *etor baliteke* ere, ez dut uste etorriko denik

Alegia, nahiz eta etor litekeen ez dut uste etorriko den, horixe da esaldiak esan gura duena.

17. kapitulua:

ALOKUTIBOA

17.0. Sarrera

Hiztunak modu askotara adieraz dezake gauza bera:

- (1) Gizon bat *etorri da* Andoniren bila
- (2) Gizon bat *etorri duk* Andoniren bila
- (3) Gizon bat *etorri dun* Andoniren bila
- (4) Gizon bat *etorri duzu* Andoniren bila
- (5) Gizon bat *etorri duxu* Andoniren bila

Adibide hauek guztietan bada diferentzia argi bat lehenbizikoaren eta besteen artean, orainxe esplikatuko dena.

Aditza aztertu duguncan *nor*, *nori* eta *norik* argumentuak markatzen ditugula adierazi dugu. Kontua da, ordea, pertsona marka bat gehiago ere ager daitekeela aditz multzoan. Pertsona marka hau ez dagokio, bestetan bezala, perpausean ager litekeen edozein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik.

Hemen jarri diren adibideen artean (1) eta (2) erkatzen baditugu, *etorri da* bezalako adizkiak adierazten digu 3. pertsonako norbaiten aurrean gaudela. Gainera, esaldi hori esaten duenak ez du kontuan hartzen elkarrizketa laguna. Aldiz, (2) esaldia diotenak "norbait etorri dela"-koaz gainera, aurrez aurre duen elkarrizketa lagunari buruzko informazio zerbait ere ematen digu: "norbait etorri da eta hirekin (beliere gizonetzkoa) hizketan ari nauk", horixe da, hain zuzen ere, *etorri duk* adizkiak esaten diguna.

Gainerako adibideetan hemen bezalatsu: *etorri dun* horrek andreko baten aurrean gaudela adierazten digu eta geratzen diren aldaerek, berriz, beste norbaitekin ari garela, gizona ala andrea den kontuan izan gabe.

Forma hauek *alokutibo* deitzen ditugu. Forma alokutiboek, ikusten denez, bigarren pertsonari (solaskideari, alegia) dagozkion forma batzuk hartzen dituzte. Horietaz gainera, jakina, perpausoko izen sintagmek ezartzen dizkieten komuntadura markak ere.

17.1. *Hika, zuka eta xuka*

Etorri duk eta *etorri dun* bezalako adizkiak *hikako* alokutiboak ditugu, solaskidea *hi*-ka, ez *zu*-ka, tratatzen duelako hiztunak. Horregatik, hikari dagozkion markak (-*k* eta -*n*, funtsean) ageri dira adizki hauetan.

Ekialdeko euskalkietan *zu*-ren markak ere erabiltzen dira alokutiboan, esan nahi baita *nor*, *nori* eta *nork* sintagmez gainera, *zu*-ri dagozkion marka ere ager daitezkeela adizkian, *zutako* alokutiboak osatuz orduan: *etorri duzu*.

Goian gertatzen den bezala, *etorri duzu* adizkiak "etorri da eta zurekin hizketan ari naiz" edo halako zerbait esan nahi du kasu honetan.

Behenafarreraz *zu*-ren alokutiboak balio afektiboa izan dezake eta orduan *zukako* alokutiboak sortzen ahal dira: *etorri duxu* (*etorri düzü* ere alokutiboa da, zuberoraz erabilia).

Hau guztia dela eta, bi erregistro ditu eskura hiztunak:

- Erregistro neutroa edo eztabadakoa:

(6) *zu joan zara*
(7) *andrea joan da*

- Lagunarteko erregistroa:

(8) *hi joan haiz*
(9) *andrea joan duk/n*

Azkeneko hau lagunarteko erregistroa deitzen da lagunartean, famili giroan eta konfiantza lekuan erabiltzen delako (edo erabili beharko litzatekeelako).

Hala ere, erregistro neutro deitu dugun honek balio bat baino gehiago du, euskalkien arabera: mendebalean erregistro neutroa da eta askorentzat erregistro bakarra gainera, ez baitute alokutiborik erabiltzen. Ekialdean, ordea, ez da hain neutroa errespetua eta urruntasuna sorretaz baitezake.

Ohart gaitezcn, forma alokutiboak direla eta, bi erregistro hauetaz baliatzen diren hiztunentzat, solaskidea *hi*-ka tratatu edo *zu*-ka tratatu, ondorio desberdinak sortzen direla. Alegia, *hi etorri haiz* esanez gero, nahitaciz *hikako* forma alokutiboak erabiltzera behartuak gaude: *hura etorri duk/dun*. Baina solaskideari *zu*-ka egiten bazaio, horrek ez du nahitaciz forma alokutiborik eskatzen, eta eskatzekotan ere, *zuka*-rena aukeratu beharko litzateke: *zu etorri zara* eta *hura etorri da* nahiz *hura etorri duzu*.

17.2. Hiru erregistroko sistema

Aurreko lerroetan bi erregistro bereizi diren arren, hiru hizkera mota daudela esan daiteke: neutroa (*etorri da*), hikako alokutiboa (*etorri duk/dun*) eta zukako alokutiboa (*etorri duzu*, zuberocraz hau forma neutro bilakatu dena gainera). Mendebalean errespetuzko beste erregistro bat ere bereizten da, solaskideari *berorika* egiten zaionean (*berori etorriko da*). Baina honek, *hi* eta *zu*-ren aldean desberdina denez, ez du alokutiborik sortzen eta, horrenbestez, alokutiboa ez den errespetuzko forma markatuzat bakarrik hartu behar da. Alegia, bati *hika* nahiz *zuka* eginda adizkietan *hikako* eta *zukako* alokutiboak baditugu ere, *berorika* eginda ez dugu adizki berezirik sortzeko biderik eskura.

Horrela, adizki desberdin hauek guztiak sortzen dira:

- (10) hi berandu joan *haiz*
andre hori berandu joan *duk/dun*
- (11) zu berandu joan *zara*
andre hori berandu joan *da*
andre hori berandu joan *duzu (düzü)*
- (12) berori berandu joan *da*
andre hori berandu joan *da*
-

Ikusten denez, (10) horrek beti alokutiboa eskatzen du eta ez du forma neutrorik onartzen (*andre hori berandu etorri duk/dun* bezalako bat). Alabaina, (11)n aukeran ditugu forma neutroa nahiz alokutiboa. Azkenekoz, (12)n nahitaez forma neutroa bakarrik erabili behar da, ez dago alokutiborik aukeran.

Jakina, aipatu forma desberdin horiek ez dira euskalki guztietan erabiltzen eta esan behar da, gainera, ez dela euskalkirik forma guztiez baliatzen denik. Gainera, forma hauek balio pragmatikoa bera ere (hau

da, zer egoera eta baldintzatan erabil daitezkeen) aldatu egiten da euskalki baletik bestera, erregistro bakoitzak balio desberdina baitu. *Hika* delakoa lagunartekoa da euskalki guztietan, esan nahi baita, konfiantza handiko zerbait adierazten duela. *Zukakoa* kortesiazkoa da behenafarreraz eta zubereraz eta ez da erabiltzen lapurteraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Forma neutroa kortesiazkoa da bizkaieraz, gipuzkeraz eta lapurteraz, eta behenafarreraz urruntasuna adierazten du. *Berorika* delakoak, berriz, errespetua adierazten du erabiltzen den tokietan, hots, bizkaieraz eta gipuzkeraz.

Alokutiboak zuzen erabiltzeko, nolana ere, zenbait gauza hartu behar dira kontuan:

- Lehenago esan den gisan, gure elkarrizketan *hika* hasten bagara, hau da, gure hizketa laguna *hi* baldin bada eta ez zu, orduan beharturik gaude *hikako* alokutiboa erabiltzera. Alegia, ondoko perpaus hau ez litzateke zuzena izango:

(13) **hi* etorri haiz baina besteak ez dira agertu

Honen ordezt, beste hau aukeratu beharra da (gizonezkoa ala andrezkoa den, aukeran):

(14) *hi* etorri haiz baina besteak ez dituk/n agertu

Dena dela, badira kontrakoa pentsatzera eramán gaitzakeen bestelako adibideak ere, *hi* erabiliz gero alokutiborik gabeko formak aukeratzen dituztenak. Ez dago argi hemen erregistro aldaketa bat den edo, pragmatikak hala eraginda, erabilera aldaketa bat. Zenbait kasutan, hiztunak *hikako* erregistroa aukera dezake, baina ondoren, agian *hika* hori aukeratzeko arrazoiak aldatu direlako edo *hikako* formak ere ongi ezagutzen ez dituelako edo beste zerbaitengatik, esaldi erdian bada ere, beste erregistroa pasatzea aukeratzen ahal du. Hortaz, egia izanik ere batzuetan erregistroz aldatzen dela, eta literaturan adibide bakanen bat ez

dela falta, pragmatikaren ondorioz suertatutako zerbait izan daiteke, gramatikarekin zerikusirik ez duena.

Erregistro neutroa aukeratzen bada beste hau dugu:

(15) zu etorri zara baina besteak ez dira etorri

Eta, nahi izanez gero, euskalkien arabera, hemen *zukako* alokutiboa ere ager daiteke:

(16) zu etorri zara baina besteak ez dituzu agertu

• Bigarren oharrak forma alokutiboen erabilerak dituen baldintzapen sintaktikoei dagokic. Hau da, forma alokutiboak ezin dira edozein inguru sintaktikotan erabili. Perpaus txertatuetan, esaterako, debeku argiak daude:

(17) *Andoni etorriko *du(k)ala* entzun diat

Halakoetan zuzena beste hau da:

(18) Andoni etorriko *dela* entzun diat

Beraz, nahiz perpaus nagusian alokutiboa aukeratu duen hiztunak (*diat*), txertatuan forma ez-markatua aukeratu beharra da (*dela*). Horrexegatik subjuntibo deitu ohi diren adizkietan (*dadin, dadila, dezan, dezala*), ez du alokutiboak lekurik adizki hauek definizioz mendeko perpausetan bakarrik erabiltzen baitira.

17.3. Adizki alokutiboen formez

Euskaltzaindiak ez ditu oraindik aditz alokutiboaren batasunerako formak eskaini. Guk ere, hortaz, ezin dugu inolako paradigmarik eskaini. Are gutxiago, formok gehientzat ahozko hizkeran bai, baina ez

hainbeste literatura idatzian, direlako erabiliak eta, horrenbestez, herri batetik bestera alde handi samarrak gertatzen direlako. Horregatik ez ditugu hemen jartzen, nahiz EGLU-II liburukian (393. orr.) proposamen bat egiten zen. Beraz, hoberena da besterik esaten ez den bitartean hara jotzea.

18. kapitulua:

PERIFRASI MULTZOAK

18.0. Sarrera

Adizki motak bi ezaugarriren arabera definitu dira gramatika honetan. Horrela, adizkia hitz batek osatzen duenean, adizki trinkoa dela esan dugu:

(1) aita *dator*

Adizki hori, ordea, bi hitzek osatzen dutenean, hots, aditz nagusia eta laguntzailea ageri direnean, adizki perifrastikoa dela esan dugu:

(2) aita *etorri da*

Badira, hala ere, bestelako adizki batzuk sail horretan hain ongi sartzen ez direnak, oso-osoa harturik adizkiak bai, baina perifrastikotzat hotz-hotzean jo ezin direnak direlako. Sail honetakoak dira *ari izan* izuhiaz baliaturik, esaterako, osatzen ditugunak:

(3) ikasten *ari da*

Eta tankera berekoak dira *ikasten dabiltra, joan behar dute, etortzen ahal dira* eta horrelakoak ere. Hauek guztiak *perifراسي multzoak* deituko ditugu hemen.

Ikus ditzagun orduan banan-banan zein diren *perifراسي multzo* hauek.

18.1. *Ari izan* eta honen kideak

• *Perifراسي multzo* hau bi aditzek osatzen dute: *batak* beti forma bera hartzen du, forma jokatu gabea, aditz izena alegia eta *inesiboan* *doa* (*ikasten, egiten, kantatzen, c.a.*), aditz nagusiaren eduki semantikoa zehaztuz. Beste aditza *ari izan, jardun, ibili* eta *egon* aditzek osatzen dute.

Aditz honek, dela iragankorra dela iragangaitza, *inesiboan* *doanez*, *inesiboaren* kasu marka daraman bestelako edozein izen sintagmaren funtzioa betetzen du:

- (4) *ikastolako* haurrak *ikasten* ari dira
- (5) *ikastolako* haurrak *jolasean* ari dira
- (6) *afalostean* *bertsotan* aritu ziren
- (7) euskara *ikasten* eta *sakontzen* ari dira
- (8) euskal gramatika *ikasten* ari naiz

Sintagma horiek guztiak galdera berari erantzuten diote: *zertan?*

Batzuetan *inesiboan* *doan* aditza isil daiteke:

- (9) ez dira *deus* ari (*deus egiten*)

Beste batzuetan, berriz, *instrumentala* ere agertzen da *inesiboaren* ordez, edo adberbio balioa izan dezakeen esapidereen bat (hauen artean *-ka* atzizkia da agian hobekien biltzen duena *iharduera* hori). *Instrumentala* eta *izenki* bat ere inolako atzizkirik gabe ager daitezke:

- (10) itsuek ere tornuan ari behar zuten
- (11) otoitz ari dira
- (12) igerika ari gara
- (13) ari baitzitzaion erran eta erran
- (14) ez ari arimen irabazteko xedez
- (15) nagusia gogor aritu zitzaien arratscan gertatutakoaz
- (16) horretaz aritu izan gara lehen ere

Aditza inesiboan jarriz sorturiko egituretan, ikusten denez, kasu absolutiboa duten bi izen sintagma ageri dira:

- (17) *pilota partidua* ikusten ari gara *gu*

Badirudi hor perpaus bat dugula beste batean txertatua:

- (18) [pilota partidua ikusten] ari gara *gu*

Bi kasu absolutibo horiek, hortaz, bi perpaus desberdinetakoak direla esan daiteke: bat *ari izan* itzuliaren subjektua eta bestea aditz izenaren osagarri zuzena. Ikus daitekeenez, zentzuagatik, aditz batek forma trinkorik ez duenean itzuli hau hartzen du, nahiz horrek ez duen adierazi nahi, lehenago esan den moduan, aditz baten forma trinkoa eta beste aditz baten *ari izan* itzulia pare-parekoak diren, biak batera ere agertzen ahal baitira: horrela, *etortzen ari dira* eta *datoz* ez dira gauza berdinak (beste adibide egoki bat honako hau litzateke: *ari naiz neure onera etortzen poliki-poliki*). Hala ere, zentzu aldetik *etorri* aditzaren kasuan, adizkiari gehien hurbiltzen zaion adizkia, *josi* aditzaren kasuan, esaterako, *josten ari da* dugu. Ikus honetaz aspektuaz jardun dugunean esan duguna (12.5.1. "*Ari izan* eta adizki trinkoen aspektua").

Ari izan-ez osaturiko itzuliak garai guztietako euskal testuetan ageri dira, bizkaieraz idatzitakoetan izan ezik, euskalki honetan oso modernoak direlako. Idazteko orduan ere *ari* eta *hari* bezala idatzi izan dute idazleek, azkeneko forma hori, idazle lapurtarrek erabilia, XX. mendeko testuetan desagertu delarik.

Gipuzkeraz, batez ere, adizki trinko baten galdegaitasuna adierazteko erabiltzen da:

(19) mutil hori *ez da egurra eramaten ari, ekartzen* baizik

(20) auto hura *ez da joaten ari, etortzen ari da*

Bi ohar gehiago egin beharrik dira puntu honetan. Batetik, ekialdean batez ere, *izan* laguntzailearen ordean **edan* ere erabiltzen dela askotan:

(21) gizonaren sendatzen *ari du*

Kontu hau, hala ere, aski berria da, XIX. mendean erdialdetik aurrera bakarrik dokumentatzen baita, oso hedatua lapurteraz eta behenafarretaz idazten duten autoreen artean. Mendebalean Orixek eta Lizardik erabiltzen dute *ari izan* laguntzaile iragankorarekin.

Hala ere, eguraldi adizkietan oso arrunta da mendebalean *ari du* bezalakoak erabiltzea:

(22) elurra urzen *ari du*

(23) eguna luzatzen *ari du*

Bestetik, *-izen ari izan* itzuliarekin batera aurkitzen dira besteok ere: *-tzeari + ari izan*, *-izerat + ari izan* eta *-tiera + ari izan*:

(24) *sendatzeari ari dira* auzoko mutila

(25) haren *sendatzerat ari da* medikua

Ikusten denez, inesiboan *izan* beharrean, *datiboan* eta *adlatiboan* oinarritzen dira itzuli hauek.

• Sail honetako bigarren perifrasiak *jardun* aditzean oinarritzen da, batez ere bizkaieraren eremuan erabiltzen dena:

(26) *hitx egiten jardun dute goiz osoan*

(27) *kantatzen jardun zuten*

(28) **exxe egin berriak erortzen dihardu*

Ikusten den moduan, **edun* eta **ezan* laguntzailcak hartzen dituzten aditzek bakarrik (gure artean aditz iragankor deitzen direnak) har dezakete *jardun* aditza.

• Hirugarren perifrasi *egon* aditzaz baliatuz osatzen da. Hemen ere, aurreko kasuetan bezala, aditz izena inesiboan ageri da eta aditz hori, hain zuzen, edozcin motatakoa izan daiteke, iragankorra nahiz iragangaitza (batz ere bizkaieraz erabilia):

(29) mutil hori *gaisotzen dago*

(30) neska hori *ikasien dago*

Esanahiari dagokionez, *-izen + ari izan* perifrasiak duen adiera berbera du. Hala ere, konuan izan behar da aipatzen ari garen hurrenkera honek, *-izen + egon* segidak alegia, ez duela beti perifrasi osatzen. Zenbait kasutan *egon* aditzak ekintza, edo ekintzaren jarraia adierazten du. Beste batzuetan, berriz, egoera ere adieraz dezake. Halakoetan *izan* eta *egon* aditzak baliokideak direla esan daiteke, semantika aldetik. Hori ikusten da ondako adibideotan, esaterako:

(31) nire aita musika *entzuten egon da*

(32) asteburu honetan pilota partidua *ikusten egon naiz* Donostian

Bi adibide hauetan ikus daitekeenez, *entzuten izan naiz* edo *ikusten izan naiz* ere jar daiteke, *egon* eta *izan* pare-parean jarriz alde horretatik. Beraz, hauetan ez lizateke aztertzen ari garen perifrasi hauen sailkhoa izango. Perifrasi izatekotan ezingo lirateke *egon* eta *izan* bata bestarekin ordezkatu.

• Inesiboko aditz izena *ibili* aditzarekin ager daiteke zenbaitetan:

- (33) denbora galtzen *zebilen*
- (34) herriaren aurka mintzatzen omen *dabil*
- (35) etxea konpontzen *dabilza*

Beste perifrasiekin gertatzen den bezala, izenak ere ager daitezke inesiboan:

- (36) *jolasean dabilza* haurrak
- (37) *lanean dabil* Peru

Dena dela, aditz iragangaitzekin ez da hain ongi konpontzen *ibili* aditza:

- (38) *berandu joaten zabilza
- (39) *laguntzera etortzen zabilzate

• Ikusi ditugun perifrasi hauek guztiak aski hedatuak diren bezala, badira beste batzuk zenbait euskalkitara batez ere mugatzen direnak. Horien artean sartu behar dira honakook: *-tzen + eragon*, *-tzen + eutsi* eta *-tzen + erauntsi*, ondoko adibideetan ikusten den bezala:

- (40) *albokariak josten eragoion*
- (41) mutiko horrek ikasten *dautsa*
- (42) josten *erauntsi* dira emaztekiak

Lehenbiziko aditza (*eragon*) bizkaieraz bakarrik erabiltzen da eta Euskaltzaindiak ez ditu eman aditz horri legokiozkeen paradigmak. Horregatik jarri dugu adibide osoa bizkaieraz. Bigarren parafrasia ere bizkaieraz aurkitzen da eta aurrekoa baino mugatuagoa da seguraski ere. Azkenekoa, berriz, ekialdean erabiltzen da eta honek ere oso erabilera mugatua du. Perifrasi hauetan, jakina, aditz izenaren ordez beste izen bat inesiboan ere aurki daiteke:

- (43) jo eta ke *beharrean dautsa*
- (44) *zetan daragoiok?*

(45) *lanean derauntza*

18.2 *Nahi, gura, gogo, gei* izan

• *Nahi, gura, gogo* eta *gei* izenak *izan* eta *ukan* aditzekin batera ageri direnean, unitate bat sortzen dute, aditz modal bihurtuz. Horrela, *nahia*, *gogoa* edo *guraria* adierazten du hitzunik perifrazi hauen bidez.

Izen horiek perifrasiari agertzen direnean, beti mugagabea da:

(46) *dirua nahi dute*

(47) *dirua gura dute*

(48) *etxera joan gogo du*

(49) *etxera joan gei du*

Nahi ukan aditzak (eta berdin *gura ukan* aditzak, jakina) hiru eratako objektu osagarria har dezake: izena (*dirua*), aditza edo partizipioa (*joan*) eta aditz izena (*joatea*). *Gei ukan* eta *gogo ukan* aditzen kasuan, berriz, aditza edo partizipioa da osagarria (*joan*).

Gauzak honela, komunziaturari buruz ohar batzuk egin beharrik dira:

- osagarria izen sintagma denean, perifrasiako aditzak sintagma horrekin egiten du komunziadura:

(50) *etxea erosi nahi du*

(51) *etxeak erosi nahi ditu*

- osagarri zuzena aditz izenaren mende dagoenean, komunziadura singularrean egiten da:

(52) *etxea erostea nahi dut*

(53) *etxeak erostea nahi dut*

Hor, gainera, argi dago aditz nagusiaren (*nahi ukan*) eta mendeko aditzaren (*erosi*) subjektuak desberdinak direla. Euskaldun batzuen artean, hala ere, aditz izenak tokia hartu dio partizipioari eta hori da erabiltzen den bakarra:

(54) etxea *eroste*a nahi dut

Eta hori, hiztun hauentzat, oso anbigua izan daiteke, alegia, "nik nahi dut nik erosi", nahiz "nik nahi dut beste norbaitek erostea". Itzuli honek, dena dela, ez du inolako tradiziozko erduzko idazleen artean eta gutziz arrotza gertatzen zaie euskaldun zaharrei.

Hala ere, *erostea* eta *erosi* nola erabili ongi bereizten dituzten hiztunen artean ere *zalantzak* sortzen dira *nahiago*-rekin osaturiko perifrasiak erabiltzeko orduan eta bi esaldi hauek pare-parean jarriko dituzte, bietan subjektuen erreferentziak berdinak direla:

(55) etxera *joan* nahi dut

(56) nahiago dut etxera *joate*a hemen *gelditze*a baino

Jakina; honek ez du kentzen berez zuzenago egongo litzatekeena. Hau ere oso erabilia baita:

(57) nahiago dut etxera *joan* hemen *gelditu* baino

• Osagarri zuzena aditza denean (partizipioa denean, alegia), zenbait arazo sortzen dira. Esan dezagun, hasteko, mendeko perpausoko aditza zein nahi motatakoa delarik ere *ukan* aditza dela eskierki perifrasi multzoan ageri dena, nahiz ekialdean *gogo* delakoa *izan* aditzarekin ere ageri den noizbehinka, aditza iragangaitza denean, jakina:

(58) joan gogo *du*

(59) egin gogo *du*

(60) joan nahi *du*

(61) egin nahi *du*

Dena dela, mendeko aditza *nor* motakoa denean, *izan* ere erabili daitezke eta hala erabili izan da, batez ere ekialdean:

(62) joan nahi bazara

Jakina, semantika arazoak ere izan daitezke hemen:

(63) etxea ondo jantzi nahi *duzu*

(64) ondo jantzi nahi *zara zu*

Perifrasi multzo hauek datiboarekin erabiltzen direnean, osagarri duten aditzak dagokion adizkia aukeratu behar du:

(65) goiz honetan mintzatu nahi *natzaizu*

(66) horren gainean xehetasun bat eman gogo *dizur*

Azpimarragarria da *nahi* eta *gura* hitzek etorkizuna adierazteko erabiltzen den *-ko* morfema ere zuzenean har dezaketela:

(67) Nik ere *nahiko* nuen hark hala egin izan balu

(68) eta horrek *nahiko* du hori egin?

18.3. Behar izan/ukan

• *Behar*, berez, izena da eta izen baten gisa jokatzen du:

(69) *beharrak* bultzatu du hori egitera

• Baina beste batzuetan aditz konposatuaren elementu gisa ere erabiltzen ahal da:

(70) dirua *behar dugu*

(71) etxera garaiz etorri *behar duzue*

Hor ikusten da perifrasi *ukan* eta *izan*-ekin osatzen dela. Horrela sortzen den aditz konposatuak hiru eratako osagarria har dezake: sintagma bai absolutiboan ("dirua behar dut"); partizipioa ("joan behar dugu") eta aditz izena absolutiboan ("etortzea behar zenuke").

Hiru kasu hauetan aditzarekin egiten den komunztadura ere ez da beti modu berekoa. Sintagma absolutiboan hartzen duenean numeroari dagokion komunztadura egiten da:

(72) *liburua* behar *dugu*

(73) *liburuak* behar *ditugu*

Aditz izenarekin beti singularrean egiten da komunztadura. Partizipioarekin, azkenik, singularrean eta pluralrean, nolakoa den mendeko aditzaren osagarria:

(74) *liburua* irakurri behar *dugu*

(75) *liburuak* irakurri behar *ditugu*

• Perifrasi honetan ageri diren *izan* eta *ukan* aditzak honela erabiltzen dira. Mendeko perpausa iragankorra denean *ukan* da erabiltzen dena:

(76) *etxera saldu* behar *dute*

Mendeko perpausa iragangaitza denean (zehatzago mintzatu nahi izanez gero, aditza ez-akusatiboa denean) aldiz, bi joerak aurkitzen ahal dira hizun eta idazleen artean:

(77) *etxera joan* behar *dute*

(78) *etxera joan* behar *dira*

Mendeko perpauscan datiboa ageri denean, aditzak ere dagozkion markak hartu behar ditu (mendeko aditza iragangaitza denean, ikusten den bezala, *izan* aukeratzen da):

(79) alkateak eman *behar digu* diru hori

(80) liburu hori lurrera erori *behar zaio*

(81) etxera joan *behar naitzaizu*

• Esanahiari dagokionez, "premia" edo "beharra" adieraz dezake eta horixe da, hain zuzen, osagarritzat izen sintagma hartzen duenean:

(82) liburua behar dut

Osagarria partizipioa denean, ordean, "eginbidea" adieraz dezake, eta "geroa" ere (azken kasu honetan *behar* honek *-ko* hartzen du sarritan):

(83) ikasi egin behar duzue

(84) bihar Donostiara joan behar dugu

(85) bihar Donostiara joan beharko dugu

Esaldia ezezka ematen denean "debekua" adierazten ahal du:

(86) gaur ez dute lanera joan behar

(87) ez da gezurrik esan behar

Beste batzuetan *bide* + **edun*-en baliokidea da:

(88) oso ona izan behar du

• Esan dezagun, azkenik, *behar* izen sintagma hutsa bezala ere erabiltzen ahal dela eta horrela agertzen dela zenbait aditzen subjektu nahiz objektu modura:

(89) ogia erosi *beharra* dut

(90) lanean hasi *beharra* da

Sintagma denez, partitiboan ager daiteke ezezko, galde eta baldintza perpausetan:

- (91) ez dut ogi *beharrik*
- (92) baduzu horren *beharrik*?
- (93) horren *beharrik* baldin bada, esan orain

Perifrasi mota hauek bere mende partizipioa, aditz izena edo izenordaina (genitiboan) har dezakete:

- (94) liburua *irakurri* beharra dugu
- (95) argumentuak buruz *ikasleko* beharra du
- (96) *zure* beharra badut. Etorri laguntzera

18.4. Ahala eta ezina

18.4.1. Ahala

• Ahala adierazteko, besteak beste, bi baliabide nagusi ditugu euskaraz: bata, *daiteke* bezalako adizkiak erabiliz eta bestea, berriz, *ahal* partikularekin osaturiko adizkiez baliatuz. Lehenengo bidia aukeratuz gero, aditz nagusiak ez du aspektu markarik hartzen. Aldia kontuan harturik, orainaldia, iraganaldia eta alegiazkoak erabiltzen dira:

- (97) joan *daiteke*
- (98) joan *zitekeen*
- (99) joan *liteke*

Aspektua ere adierazi nahi izanez gero, *ahal* erabili behar dugu. Dena dela, kontura gaitzean *ahal* bat baino gehiago badela:

- (100) ez *ahal* da oinez etorriko!
- (101) ez da oinez etortzen *ahal*ko

Lehenbizikoa desirazkoa edo den bitartean, bigarrena ahalezkoa da eta hau da orain aztertuko dena.

• *Ahal*-ekin osaturiko perifrasi multzoak aditz laguntzaile guztiekin molda daitezke:

- (102) joaten *ahal* da
- (103) egiten *ahal* dugu
- (104) joan *ahal* naiteke
- (105) egin *ahal* dezake

Ikusten denez, perifrasi hauetan laguntzailea aukeratzeko orduan, aukera hau aditz nagusiaren arabera egiten da, ez *ahal* partikularen arabera: iragangaitzek laguntzaile mota bat dute eta iragankorrek bestea (kontu hau ez da hain sistematikoa *behar*-ekin, esaterako).

• Adibideetan ikusten denez, *-kedun* aspektugabeko formetan ere erabiltzen da *ahal*, nahiz ez den garbi *ahal* erabiltze horrek esanahia aldatzen duen ala ez. Ez dirudi halakorik gertatzen denik:

- (106) egin *ahal* dezake
- (107) egin *dezake*

Ahal hartzen bada kontuan, aspektu aldetik, *ahal* hau burutua izan daiteke, ez-burutua edo geroaldikoa. Burutua denean *izan* edo *ukan* partizipioak hartu behar ditu eta perifrasiaren aditz nagusia normalean partizipioa da (nahiz euskalki batzuetan aditz izena ere izan daitekeen):

- (108) aski goiz *etorri ahal* izan da
- (109) liburuak *erosi ahal* izan ditu
- (110) liburuak *erosi ahal* *ukan* ditu
- (111) horri esker *ikasten ahal* izan dut munduaren berri

Ez-burutua denean, berriz, *ahal* horrek ez du ezer ere behar eta aditz nagusia partizipioa (ekialdean) edo aditz izena (mendebalean) izan daiteke:

- (112) *etorri ahal* naiz

(113) *etortzen ahal naiz*

Geroaldia markatzean ageri dira euskalkien arteko desberdintasunik handienak, Batetik *-ko* marka zuzenean eranstean zaio euskalki batzuetan *ahal-i*:

(114) *etorri ahalko naiz*

Beste batzuetan, nahiago izaten da *ahal* hori bere horretan utzi eta geroaren marka *izan-en* gainean jarri:

(115) *etorri ahal izango da*

(116) *etorri ahal izanen da*

Gainera, aditz nagusiak *-tu*, *-izen* edo *-nako*, aspektuaren hiru markak har ditzake, hau ere euskalkien arabera:

(117) *etorri ahalko da*

(118) *etortzen ahalko da*

(119) *etorriko ahalko da*

Bada oraindik beste aukera bat ere:

(120) *etorriko ahal da*

Erabilienak kontuan hartuz, badirudi geroaren marka *ahal-i* eranstea dela hedatuena (zuzenean nahiz *izan-en* bidez) eta aditz nagusiak normalean *-tu* eta *-izen* hartzen dituela:

(121) *ikusi ahal dugu*

(122) *ikusten ahal dugu*

(123) *ikusi ahalko dugu*

(124) *ikusi ahal izango dugu*

Aipa dezagun, azkenik, *ahal* partikula adizki trinkoetako *-kedun* formekin ere erabiltzen ahal dela (*ahal derraket*) eta beste batzuetan ia-ia izen bezala ere:

- (125) *ahal* badut, joango naiz
- (126) *ahal* duen bakoitzean egiten du
- (127) *ahal* delarik, hobe da autoa hartzea

18.4.2. Ezina

Ezina adierazteko *ezin* erabiltzen dugu, horretarako ahalezkoetan ikusiriko egitura berberetz baliatzen delarik hitzuna, *ahal* jartzen den tokian *ezin* aukeratz eta, ezezkoa denez, ezezkako perpausetan gertatzen diren hitz ordenak kontuan hartuz:

- (128) ezin ikasi izan dugu
- (129) ezin ikasi dugu
- (130) ezin dugu ikasi
- (131) ezingo dugu ikasi
- (132) ezin izango dugu ikasi

Kontura gaitzen, dena dela, aspektu markari dagokionez, ohar batzuk egin behar direla: aspektua burutu denean *izan* aditza behar da ("ezin ikasi *izan* dugu" ≠ "ezin ikasi dugu"); *-tzen* ezin du hartu (*"ezin *ikasten* dut") eta horren ordeztu *-tu* hartu behar du ("ezin *ikasi* dut"). Geroa markatzeko, azkenik *-ko* marka zuzenean (*ezingo*) nahiz *izan* aditzaren bidez ("ezin *izango*) bereganatzen du aditzak.

Hala ere, *ez* bakarrik ere erabiltzen ahal da, eta hala egiten da zenbait hizkeratan:

- (133) *ezin* gaitlezke joan
- (134) *ez* gara joaten *ahal*

18.5 Ohi eta ohitura

• Ohitura adierazteko perifrasi multzoa osatzen dugu *ohi* partikulaz baliatzen garenean. Partikula hau sarritan partizipioarekin erabiltzen da:

(135) halako gauzak *idatzi ohi* dituzte bai hemengoek nola hangoek

(136) kantu zahar horrekin *gertatu ohi* denak aski harrিতua utzi ninduen

Baina aditz izena ere erabiltzen da, batez ere iparraldean, nahiz bizkaieraz ere ez diren halako adibideak falta. Halakoetan, zemañi gisaz ohitura bi aldiz edo adierazten dugula dirudi: *-izen* morfemarekin eta *ohi* partikularekin. Bietako bat aski litzatekeela dirudi:

(137) Urtero *egiten ohi* dute bilkura

(138) askotan *mintzatzen ohi* da gai horretaz

Kontura gaitezen *ohi* partikulak aditz izenaren inesibo markaren funtzio bera duela:

(139) telebista egunero ikusi ohi du

(140) telebista egunero ikusten du

• Laguntzailea, beti bezala, aditz nagusiaren, ez *ohi*-ren, arabera aukeratzen da:

(141) *etorri ohi da*

(142) *ikasi ohi du*

• Partikula hau adizki trinkoekin ere ageri da:

(143) hemendik *ohi dato*z baserritarrak

(144) guraso batzuek seme-alabak *ohi dituzte* urte aurreratuetan

• Ez dira horiek ohitura adierazteko modu bakarrik. Zenbaitetan <tu> / <tzen> + izan / ukan perifrasi multzoaz ere baliatzen da hizluna:

(145) *guk ere pentsatu izan dugu hori*

(146) *askotan joaten izan dira Bilbora*

• Beste batzuetan erabiltzen den perifrasi <tu> + joan / eroan, eraman izaten da (bizkaieraz bakarrik erabilia):

(147) *ate guziak ireki doaz*

(148) *anitz jende engainatu doa luzamenduaz*

(149) *asko dakusanak asko ikasi daroa*

(150) *gariak egin daroan zarata*

(151) *mundu honek anitz jende engainatu darama*

18.6. -tzera/-tzen markarekin osaturiko perifrasiak

• Marka horiek joan aditzarekin erabiltzen dira. Orduan, geroaldi hurbila adieraz dezake eta agintzeko formetan doanean, berriz, zirtoko agindua:

(152) *arresi zahar hori erortzera doa*

(153) *orain meza ematen noa*

(154) *zoaz hura isil eratzera*

Bigarren aldaera batez ere bizkaieraz erabiltzen da.

• Adlatiboari egin aditza gaineratzen zaionean, ekinizaren hasiera markatzen da:

(155) *egin zuek zutitzera*

Alderantziz, egin aditzarekin izan beharrean, perifrasi *egon* aditzarekin osatzen bada, ekiniza egiteko edo laster betetzeko asmoa

adierazten dugu, nahiz perifrasi honen erabilera oso mugatua den, autoreek ez baitute ia-ia erabili (*Orotariko Euskal Hiztegia*n, esaterako, 8100 agerraldiak, lau adibide bakarrik ageri dira halakoak):

(156) *cuxo hari erortzera dago*

Ber gauza suertatzen da *-tzeari + egon* perifrasi erabili nahi baldin bada ere:

(157) ingelesaren *ikasteari zeuden* askok burutu dute gogoia

18.7. -tzeko(a,ak)

• Bada beste perifrasi bat aditz nagusia leku genitiboan eta *izan/egon* aditz laguntzaileak erabiliz sorzen dena. *Izan* aditzarekin *-tzeko + Ø* nahiz *-tzeko + a,ak* izan daitezke. *Egon* aditzarekin *-tzeko + Ø* izaten da:

(158) *ez da harritzeko pentsamendu hau nagusitzea*

(159) *harritzeko da* nola handitu den

(160) *ikustekoak ziren* plaza erdian egin zituzten jokoak

(161) lan hori zuek *egitekoa da*

(162) Donostiara *joatekoak gara*

(163) gure herrian zor gertaluko den *ikusteko dago*

(164) bazkaltzen *hasteko gaude*

• Jakina, perifrasi honetan *ukan* eta *eduki* aditzak ere agertzen ahal dira, bigarrenarekin beti mugagabea ageri dela aditz izenak osaturiko sintagma:

(165) datorren urtekoa *ikusteka duzu*

(166) *cuxean jostekoak dituzu* galza hauek

(167) autoa *saltzeka omen dauka*

18.8. -tzea

• Formaren aldetik begiratuta absolutiboan doan aditz izen honek *ukan*, *eduki* eta *egin* aditzak har ditzake eta baita *ba-* baieztapen aurizkia ere *eduki* edo *ukan* aditzen forma jokatuai loturik.

Horrela, agindu-nahikundea edo erregua adieraz daiteke, testuinguru berezi batzuetan:

(168) autoen prezioak gora egin duela eta, lenchago *erostea zuen!*

Ekintza bai burutu berria denean honelako perifrasi multzoak erabil daitezke:

(169) Pello? bai, orainxe *irtetea egin* du

Ikusten den bezala, aditz izenak artikulua hartzen du. Hala ere, edozein sintagmarekin gertatzen den modu berean, ezezko, galde eta baldintza perpausean partitiboa ere erabiltzen da:

(170) horrenbeste zaratarekin, izango al da lo *egiterik?*

(171) ez du hara *joaterik* izan

(172) frontoian *sartzerik* baldin bada, han egongo gara

Hauen esanahia garbi dago: partitiboan doan aditz izenak adierazten duen ekintza edo egoera burutu ezina dela edo horri buruzko galdera nahiz baldintza azpimarkatzen dute.

Aditz izenak adierazten duen ekintza burutzeko ahala erakusten du *ba-*aurizkiak *ukan* eta *eduki* aditzekin (inpersoneletan *izan* eta *egon*):

(173) zak esan duzun horren *aditzea badut*

(174) lan hori biharko *bukatzea badaukat*

18.9. -tu(a)z/ -tzen + joan

Bi forma ezberdin ditugu hemen: lehenengoan partizipioa instrumentalcan eta bigarrenan aditz izena kasu inesiboan. Ekintzaren jarraitasuna edo ekintzaren mailako gchitzea azpimarratzen dute:

(175) *bizitzako bideak ikasiz joango dira gazteak*

(176) *orain arte ikusi gabeko gauzak ikusten goaz*

(177) *gauzak gero eta garestitzenago omen doaz*

18.10. Partizipioarekin osaturikoak

• Perifrasiaren lehenengo elementua *-tu* partizipioari erantsitako lau morfema ezberdin ageri zaizkigu: *-a(k)*, *-ik*, *-ta*.

Horrela, izenondo bihurturik partizipioa atributo gisa erabilia dago:

(178) *zu, lehendik ere, Ameriketan ibilia zara*

Aditz iragankorrak ere erabiltzen ahal dira horrela, baina orduan kontuan hartu behar da egitura pasiboa den ala ez. Egitura pasiboetan *izan* eta *egon* edo antzeko aditzekin egin behar da komunztadura:

(179) *etxe hau guk egina da*

Egitura pasiboa ez bada, subjektuarekin egin behar du komunztadura (egitura anupasibo ere esan ohi zaie honelakoei):

(180) *herri asko ikusia naiz ni*

• Partizipioa partitiboan erabiltzen da adberbio gisan ere, *-ik* nahiz *-ta* markak hartuz:

(181) *damuturik zegoen bere alaba ez bidalia*

- (182) *jakirik zaude* gauzak ez direla hala gertatzen
- (183) zain eta zain, bapo *aspernuta daude* honez gero
- (184) liburuak dagoeneko *salduta daude*
- (185) jantziak zintzilika *jarrita ditu*

• Atributo gisa ere erabiltzen da:

- (186) Donostiako hondartza askotan *ikusia dut*
- (187) euskal liburu gehienak *irakurriak ditu*

18.11 -tzer eta -tzeaz

Lehen osakina aditz izena dugu: *-tzer* delako hori, *-tzeaz* adlatiboaren laburdura, batzuen ustez. Batz ere ekialdean da erabilia:

- (188) *haster* naiz oihuz
- (189) *nahaster* dut ene ogia zurcarekin

Gertatzeko puntuan egon den, baina gertatu ez den zerbait adierazten da. Beste perifrasiari aditz izenari *-az* atzizkia erantsen zaio:

- (190) gaiso hori *hiltzeaz* dago

Aditza aspektu puntukarian erabiltzen da eta esanahia ere aspektu horrexena da:

- (191) gu irten ginenean, elurra *hasteaz* zegoen

Badira beste perifrasi batzuk ere *hurren / hurren* partikulez osaturikoak:

- (192) pelikula hori amaitu *hurren* da

Perifrasi multzo hauetako partizipioak adierazten duen ekintza edo egoera aspektu aldetik begiraturik burutzear dagoela esan nahi du.

19. kapitulua:

ADITZ MULTZOKO BESTE OSAGAI BATZUK

19.1. Sarrera

Aditza da, jakina den bezala, aditz multzoaren osagai nagusia eta bera dugu, gainera, aditz multzoa osatzeko ezin bestekoa den elementu bakarra. Nahitaczkoa baita batetik, agerian nahiz isilean, eta bera bakar-bakarrik, beste inolako elementuren laguntzarik gabe, ager baitaiteke, bestetik.

Aditzak erakusten duen forma izan daiteke, esan den bezala, trinkoa edo perifrastikoa:

- (1) dabil
- (2) ibili da

Batzuetan perifrasi multzoak ere aurkitzen ditugu:

- (3) ikasten ari da
- (4) joan behar du

Sarri askotan, halaz guztiz, beste osagarri batzuk ere hartzen ditu aditzak aldamenan, berari esku-estu lotuak eta aditzaren parte direnak:

(5) *ez omen* du ikusi

Normalean, elementu hauek adizki trinkoaren edo laguntzailearen aurretik jarzen dira (dauden lekuan daudela adizki horiek, lotura estua dago elementu hauen eta adizkien artean):

(6) *ez daki*

(7) *ba omen* dator

(8) *ez da* ibili

(9) *ibili omen da*

Bada, hala ere, partikula hauekako bat aditzari atxikia jartzen dena (behenafarreraz eta zubereraz):

(10) *ibili dea?*

(11) *badakia?*

Elementu hauek ez dira denak balio berekoak eta semantikaren aldetik bi multzo bereiz daitezke: *egia balioarekin* zerikusia dutenak eta *ziurtasun neurriarekin* erlazionatzen direnak.

Esate baterako, lehenbiziko sailkoak dira *ba* eta *ez* partikulak (egia balioa eman nahiz ukatu egiten dutenak eta galde perpausetan egia balioaz arduratzen direnak):

(12) *badakizu* hori

(13) *ez dute* lagunik

(14) *badakizu* hori?

(15) *ez dute* lagunik?

Bigarren sailcan ditugu adierazpen fiabarduretan eta galderetan ager dakizkigukeenak: *-a, ahal/ai, bide, ei, omen* eta *ote* elementuak, denak adizki jokatuaren aurrean paratzen ditugunak:

(16) *ez dea* xarmangarri?

(17) hori esan *ai* du?

(18) hori esan *ei* du

Aipa dezagun hemen *ai* hori gipuzkeraz erabiltzen dela batez ere, galdera marka soila dela (garai batez galde erretorikoak egiteko oso zabaldua zen arren). Horrekin batera jarri den *ahal* horrekin osatzen dugun perifrasiak ez da ahal adierazteko erabiltzen dugunean aztertu dugun berbera, nahiz bietan *ahal* erabiltzen den. Ohart gaitzen, bestetik, sail bereko elementuak ezin direla metatu:

(19) **ez dakit etorri ote bide* den

Sail desberdinekoak direnean, ordea, ez da oro har arazorik (aukera guztiak osatu ezin badira ere):

(20) *ba ote* da hor lekuri?

(21) *badea* lekuri?

(22) **etorri ai dea* Matin? (sail bera)

aukera guztiak osatu ezin badira ere,

(23) **ba bide* da hor lekua (sail desb.)

19.2. Baiezpen eta ezezpen ezaugarriak

19.2.1. Ezaugarri nagusiak

• Lehenago esan den moduan, *ba-* eta *ez* dira egiabaliorekin zerikusia duten elementuak. Gainera, argi dago bi elementu hauek direla,

hain zuzen ere, sail honetan guztian ikusten ari garenen artean gehien erabiltzen direnak. Adizki joakatuaren aurrean jartzen dira beti:

- (24) ez gara joango
- (25) *ez joango gara

Partikula hauen eta aditzaren artean dagoen lotura oso estua da, ezin baita tartean etenik egin eta, aditz multzoko beste partikulak salbu (*omen*, esate baterako) inolako elementurik sartu:

- (26) ba (omen) daki

Elementuon zeregina honako hau da: ondoan duten adizkia baieztu edo ukatu, bai-ekzko modalitatea eranstean diote perpausari, hau da, perpausak aditzera ematen duenaren egiabalcia onartu edo ukatu egiari dute.

• Ezaugarri bi hauek, sail berekoak badira ere, ez dute erabat jokabide bera: ezezko perpaus guztiek *ez* behar dute beti (edo *ezin*, ezintasuna adierazi nahi denean), baina baieztoketan ez da beharrezkoa *ba-* jartzea:

- (27) Mikel, badao
- (28) Mikel, ez doa
- (29) Mikel \emptyset doa
- (30) Mikel ez doa

Ondoko hauean argiago ikusten da bien artean dagoen parekotasuna:

- | | |
|----------------------------------|---------------------------|
| (31) badator | <i>ez dator</i> |
| (32) ba omen dator | <i>ez omen dator</i> |
| (33) \emptyset etorri da | <i>ez da etorri</i> |
| (34) gaur, \emptyset etorri da | <i>gaur, ez da etorri</i> |

Baiezko partikula honek ez du lekurik zati galderen moldea duten perpausetan, hots, aditzaz bestelako elementuren bat galdegai dutenean:

(35) Nor doa?: *Mikel badao

Bai-ez erako galde perpausetan erabiltzen da ordea *ba-*, adizki trinkoari aurretik atxikia. Beste galdegairik izan ez eta adizki trinkoa perpausaren lehen buruan gertatzen denean edota egindako edo eginkizun den eten baten ondoan agitzen denean:

(36) badao Mikel

(37) Mikel, badao

Ezezkoetan, ordea, beti behar dugu *ez* jarri. Horrexegatik, hain usu erabiltzen delako alegia, *ez* partikula daraman perpaus asko aurkituko ditugu, sail desberdinetakoak direnak,

• Batzuetan ezezkoa da markatu nahi dena:

(38) Badator Mikel? Ez, Mikel ez dator

Beste batzuetan, ezezkoa aurretik emana dugula, indarra beste elementu batean ezarri nahi izaten dugu:

(39) Nor ez dator? *Mikel* ez dator

Perpaus hori ukapen baten baieztapena dugu funtsean: "Mikel da ez datorrena".

Ezezko mota bi horien arteko bereizketa sari askotan fiabardura mehe batera mugatzen bada ere, zenbaitetan izaten du galdegaiaren gorabheretan eraginik,

• Esan dezagun, azkenik, *bai* eta *ez* adizlagun edo perpausordain gisa ere erabiltzen ahal direla (berdin adizki trinkoekin nola perifrastikoekin):

(40) banuen, *bai*, zuen berri

(41) *ez* nuen, *ez*, halakorik jakin

19.2.2. Jokabide sintaktikoa

• Partikula hauen ohizko tokia adizki jokatuaren aurre-aurrekoa den arren, ohar batzuk egin beharrik dira hemen.

Batetik, ekialdeko euskalkietan adizki laguntzailea nagusiaren aitzinean eman daiteke galdegaia garbiraigo bakandu nahi denean, perpausa beste hurrenkera batean jarri. Orduan, ezezkoetan ondoko hau bezalako esaldiak aurkitzen ahal dira bakanka:

(42) aitak du partidua *ez* irabazi

Egitura honetan *ez* partikula aditz nagusiaren aurrean dago, ikusten denez (honek ez ditu inola ere "aitak ez du partidua irabazi" bezalakoak baztertzen, jakina, nahiz hauen esanahia anbigua den, (38) eta (39) adibideetan ikusi den moduan).

Bestetik, koordinazioan ere bada zehaztapenen bat egin beharra. Ezezko perpaus bati beste bat koordinatzen zaionean, *ez* partikulak ez du eskuarki lekurik aldatzen:

(43) *ez* gara iritsi eta *ez* dugu ezertxo ere ikusi

Baina ukapen desberdinen batuketa baino arago aukera desberdinen ukapen bakarra denean, ordea, beste egitura hau erabili ohi da:

(44) *ez* galdu da (eta) *ez* galduko ere

(45) *ez* berak egiten du *ez* guri egiten uzten digu

Dena dela, ohart gaituzen koordinazioan bakarrik gertatzen dela hau eta "ez egiten du" bezalako perpaus batek testuinguru hauetatik kanpo ez duela lekunik.

• Oro har, *ez* partikula adizki laguntzailearen aurrean jartzen da, laguntzailearen eta nagusiaren artean beste elementuak sartzeko aukera dugula:

- (46) *trena ez da iritsi*
- (47) *trena ez da garaiz iritsi*

Hala ere, idazle batzuek bestelako hurrenkera hau ere ematen dute, laguntzailearen eta nagusiaren artean ezertxo ere sartzan ez delarik orduan:

- (48) *Tomas ageri ez zen*

Hurrenkera hori bera ageri da harridura esaldietan (49), erlatibozkoetan (50) eta agian pentsa liteke gauza bera suertatzen dela laguntzailea isilpean afixatzen duten zenbait egituratan (51) ere:

- (49) *hilda gelditu ez zaigu ba!*
- (50) *iritsi ez den trena*
- (51) *horrek egin ez eta guk egin behar ote dugu?*

Ezin partikularekin ere berdin gertatzen da:

- (52) *ezin dute ikusi*
- (53) *ezin ikusi dute*

Aipa dezagun, amaitzeko, ezezkoaren oihartzun gisa edo, baiezkoa hanpatzeko erabiltzen dugun egitura hau:

- (54) *ez da etorri!*

(55) bada etorri!

Bi partikula hauen eta aditz laguntzailereren artean sar daitezkeen partikula bakarrak beste saileko modalak dira:

(56) ba *ai* dakizu?

19.2.3. Erabilera

Lehenago esan den moduan *ba*- partikula perpausean beste galdegairik ez dagoenean erabiltzen da. Horixe da eskatzen zaion gutienezko baldintza, nahiz elementu honen erabilera euskalkien arabera aldatzen den. Hortaz, perpausaren baietza azpimarkatzeko orduan, elementu hori erabiliko dugu:

(57) laguna, badao

(58) dirua hemen, badut

Baiezko horren indarra, hala ere, ez da beti bera, zenbaitetan enfasi handia jartzen baitu hiztunak *bai* perpausordaina elenen artean erabiliz:

(59) *badakit, bai*, non ibili zinen

Beste batzuetan enfasi hori ahulagoa da:

(60) hau handia da

(61) hau handia bada

Hizkera batzuetan aurrekoari galdegaitasuna kentzeko erabiltzen da, eta ez indarra emateko:

(62) gurekin zerikusia du horrek

(63) gurekin zerikusia badu horrek

Askotan, azkenik markatu gabeko ordenak duen neutraltasunera inguratzen da *ba*- horren eragina:

(64) nik hori badakit

Hor *ba*- partikula erabiliko ez balitz perpausa markatua izango litzateke, "hori" galdegai bihurtua. Hortaz, *joatea du* eta *joatea bada* esaldiak era esanahi desberdinekoak dira, lehenean bakarrik azpimarkatzen baita "joate" kontua. *Izan* aditza, kopula izatetik aditz betea izatera pasatzen da elementu hau erabiliz:

(65) upel honetan dagoena ardoa da

(66) taberna honetan ardoa bada

Baina beste batzuetan, kopula hutsa ere izan daiteke:

(67) hori ardoa bada, bai, baina txarra

Aldiz, *ez* partikula erabiltzen denean ukapen garbia egiten da beti eta ez da hor zalantzarik sortzen interpretazio aldetik:

(68) Lourdes *ez* da iritsi

Ohartu gaitzen azkenik zenbaitetan baiezkoa hanpatzeko erabiltzen ditugula ezezko perpausak:

(69) eroak garela esan ez digu bada!

19.3. Bestelako elementuak

Aditz jokatuaren inguruan kokatzen diren elementuen bigarren saila osatzen dutenak *ziurtasun neurriarekin* zerikusia dutenak dira.

19.3.1. *-a* atzizkia

• Ekialdean (behenafarretaz eta zubereraz) erabiltzen den atzizki hau adizki jokatuari erantsen zaie bai/ez moldeko galde perpausuan eta gipuzkeraz erabiltzen den *al* partikularen testuinguruetan agertzen da. Perpausak beti du, hizkera guztietan, hizkera doinu markatua eta doinu horrek ematen dio, hain zuzen ere, galdera kutsua, eta ez *-a* atzizkiak:

(70) garaia da?

(71) garaia al da?

(72) garaia dea?

Eranizunean bai/ezta nahiz ez/ezta eskatzen duenez partikula honek, galdera horretan ezin da beste zati galderarik egin:

(73) *nor etorri dea?

Batzuetan, elipsia eginez, bestelako hitzekin ere agertzen ahal zaigu, egungo hizkera mugatu batzuetan bakarrik, literaturan ez baitu tradizioirik:

(74) - zuk egin omen duzu hori

- *nika?*

• Esan bezala, atzizki hau ez da bestelako galdekariren bat daramaten zati galderetan ibiltzen:

(75) *nor dea?

Ber gauza suertatzen da bere saileko beste-lako elementuekin ere, ezin baitira aditz multzo berean melatu:

(76) *ba ote dca honelakorik?*

Atzizki hau galdera zuzenezara bakarrik mugatzen da eta ez da zehar galderetan erabiltzen:

(77) *hemen bizi dca?*

(78) **ez dakit hemen bizi dean*

Esan dezagun, azkenik, zenbait kasutan, Lafittek bere gramatika ezagunean dioen moduan, denbora eta baldintzaren kutsua ematen diola atzizki honek esaldiari.

19.3.2. Aditz multzoko partikula modalak: *ahal/ai, bide, omen, ei* eta *ote*

• Partikula hauek ere hiztunaren ziurtasun jarrerarekin dute zerikusia. Askotan fiabardura berezia ematen dio hiztunak bere hitz jarioari partikula modal hauek erabiliz. Horrela, esaten dena besteri entzuna dela adierazteko, ziurtasun neurria haren gainean utziz, *omen* eta *ei* (bizkaieraz) erabiltzen dira:

(79) Lourdes etxera joan *omen* da

(80) Lourdes etxera joan *ei* da

Galderari susmo kutsua eman zaionean *ote* partikula erabiltzen da euskaraz (galdera erretorikoetan ere):

(81) Lourdes etxera joan *ote* da?

Eta desira adierazi nahi baldin bada, berriz, *ahal* da erabiltzen den partikula:

(82) joango *ahal* da etxera!

Partikula modalak direla diogun arren, argi dago euskaraz ez dela modaltasuna partikula hauen bitartez bakarrik adierazten. Hor daude adizkiak ere (*da/dateke* adizkien arteko desberdintasuna ere horretan datza, esan denez). Baina argi dago aipaturiko partikulek sail bat osatzen dutela.

Formalki hauen partekotzat jo litezke agian *nahi ukan*, *gura ukan* eta horrelako aditz modalak ere:

(83) ogia ekarri *omen* du

(84) ogia ekarri *nahi* du

Baina argi dago ez dela hala. Hurrengo adibideetan ikusten den bezala, aditz modalek adizki nagusiaren tokia hartzen dute beti. Horixe da, esaterako, partikula modalen eta aditz modalen arteko desberdintasun bat:

(85) ez omen du ogia ekarri

(86) ez du ogia ekarri nahi

Aspektuaren marka jartzen denean ere aditz modalek zuzenean har dezakete marka hau: *ekarri nahiko du*, baina ez partikulek (**ekarri omengo du*), hauek, azken batean, laguntzailearekin doazelako. *Ahal* hitza bereiz jarri behar da hemen, zeren aditz modala eta partikula modala izan baitaiteke:

(87) joaten *ahal* naiz

(88) joango *ahal* zara!

Bestetik, esan beharra da *ohi* partikulak ere izan dezakela partikula modalen antza, ekialdean bederen:

(89) urte guzietz egin *ohi* dute bilera handi bat

Partikula honek ohizkotasuna adierazten du, eta mendebalean partizipioarekin erabiltzen den arren, ekialdean *-tzen* formarekin erabiltzen da, bietan esanahi bakarria duela, ohizkotasunaren modalitatea alegia:

(90) *etorri ohi* da

(91) *etortzen ohi* da

Adizki trinkoekin ere erabiltzen da ekialdean eta mendebalean:

(92) *ohi* dauka (= edukitzen ohi du)

Honekin sarritan elipsi handi samarrak egiten dituz hiztunak:

(93) *ohi* baino beranduago etorri da

(94) urtero *ohi* dugun bezala egingo dugu aurren ere

Ez da esan *edo* eta *ere* partikulak ez direla aditz multzoko partikulak: lokailuak (diskurtso mailako loturan erabiltzen diren partikulak) eta juntagailuak (perpausak elkarren artean lotzeko) aztertzean azalduko da partikula hauen zeregina. *Berri*, *hurren* eta halakoak ere, adizki nagusiaren eta laguntzailearen artean kokatzen diren arren, ez dira partikula modalak, partizipio elkartuak sortzeko erabiltzen ditugun elementuak baizik.

Erlatibozko ezezkoetan "inoiz ikusi *ohi* ez dena" aurkitzen da literaturan, baina horren ondoan "inoiz ikusi ez *omen* dena". Biak batera ageri direnean, berriz, honela: "honetako zabarkeriak gertatu *ohi omen* dira".

• Partikula modal hauen eta aditz laguntzailearen artean dagoen lotura oso estua da: fonetika aldetik, elementu bat bakarria osatzen dute, esate

baterako. Gainera, galdegaia eta laguntzailearen artean ere agertzen ahal dira:

(95) *Mikel* omen dabil

Galdegaia baizkotasuna edo ezezkoatasuna denean ere:

(96) *ez* omen dabil

Kasu jakin batzuetan *omen* eta *ote* ohizko bidetik saihesten dira:

(97) hemen ez dugulako *omen* deus ikustekorik gehiago

Gainera, partikula horiek berak adizkirik gabe ere eman daitezke:

(98) hori legea *ote* guretzat?

Esan dezagun, azkenik, partikula hauen erabilerak zenbait muga dituela. Hasteko, ezin dira bat baino gehiago aditz multzo berean metatu:

(99) **Mikel* etorri *ote al* da?

Bestetik, *bait* hitzak ziurtasun osoa adierazten duenez, ezin du bere aldamenean galdera ezaugarri diren *al* nahiz *ote* onartu:

(100) **hau* nigarrez hasi *ote baita*?

Partikula modalek ez dute lekurik edozein perpaus mendekotan:

(101) **horrela omen* eginik

Al galdera ezaugarria ez da zehar esaldietan erabiltzen, baina bai, ordea, benetako zehar galdeetan:

- (102) *ez dakit joan *al* den
(103) joango *al* den galdegin diote

Ote partikularekin, hala ere, ez da halakorik gertatzen:

- (104) ez dakit joango *ote* den
(105) joango *ote* den galdegin diote

• Aztertzen ari garen partikula hauen arteko bereizketa egiteko orduan irizpide sintaktikoa erabili dugu, eta honekin batera modaltasunarekin zerikusia duen irizpidea ere. Alegia, partikula hauetako bakoitzak halako fiabardura bat ematen dio perpausari. Ikus ditzagun fiabardura hauetako batzuk:

- *al* partikula galdera ezaugarria da, itauna markatzen duen hitza (itauna erretorikoa izan daitekeelarik):

- (106) ez al dizut esan isilik egoteko?
(107) hasi al da jokoa?

- *Ahal* partikulak desira (108) adierazten du eta batzuetan, nolakoa den tesuingurua, ziurtasuna ere (109):

- (108) hurrengo batean suerte hobea izango *ahal* duzu!
(109) "etorri *ahal* haiz, seme!", esan zion amak Peruri etxeko atarian ikusi zuencan

Beste batzuetan denbora adierazteko erabiltzen da:

- (110) ez *ahal* zen eskolara iritsi, klaseak hasi ziren

Honetan "eskolara iritsi bezain laster" adierazten du.

- *Bide* partikula ez da hain usu erabiltzen: "dirudienez" edo halako zerbait esan nahi du, ondoko esaldi honetan bezala:

(111) urtero etortzen *bide* dira garai berean

- *Omen* eta *ei* partikulek adierazten duten modalitasunak bi aurpegi erakusten dizkigu: hitzunik esaten duena besteri entzuna dela eta esaten duen horren egiaztatunaz ez dagoela baxre ziur.

(112) hala gertatu *omen* zen

(113) kaltegarria *omen* da gauzak horrela egitea

Ohartu gaituzen adiera bera gordez beste hitz kategoria batzuetara ere igaro dela:

(114) jendearen *omenean* dabil

(115) beti *omenka* ibili behar da halakotian

- *Ote* partikulak zalantza kutsua ekartzen dio galde perpausari (ez du berak markatzen galdera, galderari zalantza kutsua ematen baizik):

(116) nor *ote* da hango andre hura?

(117) nik duda handiak ditut hori hala *ote* den

Partikula hau daramaten galderek ez dute hizketa lagunagandik inolako erantzunik eskatzen eta gainera, askotan, besteak erantzun ezin duelakoa azpimarratu nahi dute hain zuzen ere, ondoko adibideotan ongi aski ikus daitekeen moduan:

(118) zenbat bertso jarri ditu Basarrik?

(119) zenbat bertso jarri *ote* ditu Basarrik?

20. kapitulua:

ADBERBIO SINTAGMA: ADITZONDOAK

20.1 Sarrera: aditzondoak eta adizlagunak

• Adjektiboen artean egindako bereizketa hartzen badugu kontuan (izenondoak, hizkirik gabekoak alegia: *handi, garbi*, e.a., eta izenlagunak, hizkien laguntza behar dutenak alegia: *etxeko, zure*, e.a.), adberbioen artean ere halako zerbait egin daitekeela oharuko gara. Hala, adberbioak ere hizkidunak eta hizkigabeak izan daitezke. Lehenbizikoak *adizlagun* deituko ditugu eta bigarrenak *aditzondo*. Horrela, *mailuaz, zurekin*, e.a. adizlagunak dira (eta hauekin batera posposizioen bidez osaturikoak ere: *txostenari buruz, mendian barna*, e.a.), eta *gaur, bihar* eta horiek bezalakoak aditzondoak.

Ikusten denez, aditzondoak zuzen-zuzenean aurkitzen dira hiztegietan, baina adizlagunek apareko morfema baten laguntza behar dute. Egia da, hala ere, batzuetan izen sintagma absolutiboak adizlagunak direla, nahiz ez duten kasu markarik hartzen: "*hiru egun* egon ziren hondartzan" perpauseko *hiru egun* horrek adizlagunaren funtzioa egiten du hor, *hiru egunez* sintagmaren esanahia bereganatuz. Gauza bera "*zaude pixka bat(ean)*" bezalako esaldietan ere.

Bestetik, berez aditzondo diren hitzek ere kasu markak har ditzakete zenbaitetan, adizlagunen funtzioa beteaz horrela: *gaurtik*, *bihartik*, e.a. Kontura gaitezen, dena dela, izen sintagma arruntek ez bezala, aditzondoan kasuan kasu marka hartu aurretik ere adberbio funtzioa dutela eta har ditzaketen kasu markak ere aski mugatuak direla: **gaurrekin*, esate balerako, ez da esaten ahal.

• Adberbioaren zeregina, normalean, nahiko bazterrekoa da perpausuan, eta adberbioa bereiz utziz gero ere, ez da perpausaren funtza aldatzen:

(1) *otsoa ikusi genuen (iaz)*

Kasu batzuetan, hala ere, adberbioak aditzaren eskemari berez dagokion osagarria dirudi eta ez albotik edo bazterretik erantsitako gehigarria:

(2) *etxetik etorri ginen*

Ikusi aditzak ez du alboan *iaz* edo halako adberbio baten laguntzarik behar, baina *etorri* aditzaren kasuan badirudi betiere nonbaitetik etorri behar dugula.

• Zenbait aditzondo izenondoaren edo beste adberbio baten modifikatzaile izan daitezkeela esan ohi da, nahiz zeregin hau aditzondo gutxi batzuek egin dezaketen:

(3) *oso ongi egiten du txineraz*

(4) *biziki ederra da etxe hori*

(5) *erabat apurtua utzi du*

Adberbio hauek maila adberbioak direla esaten dugu, adjektibo-adberbioen maila adierazteko erabiltzen ditugunak alegia.

• Adberbioek badute beste berezitasun bat ere aipatu behar dena: posposizioa, juntagailua eta interjekzioa bezala, adberbioak ere aldagaitzak dira, nahiz egia den aditzondo batzuek kasu marka bat edo beste har dezaketela, lehenago esan den moduan (hori dela eta, gramatikari batzuek ez dute onartu euskal adberbioa aldagaitza denik). Hala ere, adberbioek oro har ez dute determinatzailerik hartzen (non eta ez diren adizlagun ihartuak), ez eta, ondorioz, numerorik ere: **atzoa*, **atzoak*, **ederkia*, **ederkiak*, e.a. Nominalizatzen direnca bai, ordea, artikulua eta numeroa ere hartzen ahal dituzte, baina orduan izen sintagmaren funtzio arruntarekin ageri dira: *geroa*, *aurtengoak*, e.a. Nominalizatu ondoren, bistan denez, besiclako izen sintagma agertzen diren toki beretan ikusiko ditugu eta ez adberbioen lekuetan.

Nominalizazioa burutzeko, bi bide dituzte aditzondoek, nolakoak diren: aldaketa formalik gabeko bidea (*hor-hemen guziak*, *gero hartara laster egin zuen*, e.a.) eta *-ko* marka hartzea.

Aditzondoek *-ko* marka har dezakete, izenlagun bihurtuz horrela: *gaurko lanak*, *honetako lagunak*, e.a., elipsiaren bidez izena ere isil daitekeelarik: *halakoak*. Zernahi gisaz, nolakoak diren aditzondoak, bide bat nahiz bestea aukeratzen dute. Esaterako, aditzondo batzuek nahitaezkoa dute atzizkia hartzea: **horrela hori*, *horrelako hori*. Beste batzuek, berriz, alderantziz jotatzen dute: **ongiko*, esaterako, ez da esaten.

• Aditzondoek kasu marka batzuk bakarrik har ditzakete, esan bezala: *-tik*, *-ra*, *-ko*, *-rako*, *-raino*, *-rantz* eta *-danik*. Eta hauek leku-denborazkoen sailko aditzondoei erants dakizkieke, eta ez denak eta kasu guztietan: **iazraino* (*iaz arte adierazteko*) ez da zuzena, adibidez.

Inesiboaren *-n* eta instrumentalaren *-z* atzizkiak zenbait aditzondotan fosildurik antzeman daitezke: *hemen*, *aurten*, *inoiz*, *halaz*, e.a.

• Aditzondo batzuek, izenondo gehienek bezala, gradu markak ere onartzen dituzte: *beranduegi*, *beranduago*, *ederkiago*, e.a. Zenbaitek,

ordea, marka batzuk onartzen dituzte eta beste batzuk ez: *honantzago*, **honantzaen*, e.a. Badira markarik onartzen ez dutenak ere: **atzoen*, **honetlaegi*, e.a.

Azkenik, aditzondo batzuek atzizki indartzaileak har ditzakete: *halaxe*, *oraintsu*, *berandusko*, e.a.

20.2. Aditzondoan sailkapen formala

- Aditzondoez ez dute denek itxura bera erakusten. Batzuk osagai bakarrekoak dira, trinkoak. Beste batzuk, ostera, eratorriak edo konposatuak.

- *Aditzondo bakunak* dira osagai bakarrekoak direnak, deribazio gabekoak alegia: *beti*, *aspaldi*, *gero*, e.a.

- *Aditzondo eratorriak* dira lexema (izenki absolutibo nahiz deklinatua, aditza, beste aditzondoa, e.a.) eta atzizki baten bidez sortuak direnak: *gizonki*, *ederki*, *harriki*, *aldizki*, *astiro*, *berriro*, *ederto*, *txarto*, *isilik*, *onik*, *zutik*, *horrela*, *bestela*, e.a.

Denen artean, *-ki* atzizkia da emankorrena eta aditzondo berriei bidea behin eta berriz ematen diena, *itsuan*, *ezkutan*, *normalean* eta halakoan ordez *itsuki*, *ezkuki*, *normalki* eta horrelakoak zabalitzen ari direlarik.

- *Aditzondo konposatuak* sortu izan dira galdekariei zenbait lexema erantsiz (*edonor*, *edonoiz* eta hauen tankerako izenordainak sortzen baitira, berdin aditzondoak ere): *edonor*, *edonoiz*, *edonola*, *nonbait*, *noizbait*, *nolabait*, *non nahi*, *noiz nahi*, *nola nahi*, *inon*, *inoiz*, *inola*. Aditzondo konposatu gehiago ere aurkitzen ahal da: *herenegun*, *behiala*, e.a. Bide hauek guztiak iharturik daude, bistan denez.

- Beste multzo batzuek dira *aditzondo gisa erabiltzen diren bestelako hitzak*. Zenbaitetan, izenkiak gertatzen dira adberbio gisa lexikalizatuak. Halako hitzen artean hiru sail nagusi bereizten ahal dira:

1) Adberbializazioa erabat burutu duten hitzak: *aurten, noiz, hemen*, e.a. Sail berekoak dira hondarkia garbia izan arren, erabileraren erabileraz harturiko esanahi bereziagatik edo, hiztunak hitz berriztat jotzen dituenak: *orduan, gainera, berriz*, e.a. Ez dago argi, hauen artean, nola egin sailkapena: zergatik da aditzondo *berriz* hitza? Zer da *gogotik*? Aditzondoa da ala *gogo* sarrerapean sartu behar den adizlaguna?

2) Azken horiek bezalakoak (*gogotik*) aditzondo ez badira ere, aditzondo izateko bidean daudela esan daiteke. Sail berekoak dira *ondoan, ostan, gustora, agerian, oinez, alderantziz, artez, aurrera*, e.a. Inesiboa eta instrumentala dira honelara hobekien egokitzen diren kasu markak.

3) Hirugarrenen saillekoak dira, kasu marka eta guzti, izenki batean oinarritzen direnak: *mendiz, lagunarekin, mendi ederrera*, e.a.

• Badira beste adberbializatzeko moduak ere. Zenbaitetan izenondo bat izan daiteke aditzondoa, nolakoa den erabilera:

- (6) *argi mintzatu zaigu*
- (7) *gogor ari da*
- (8) *zorrotz jokatu beharra zuen*

Aditzondoak sortzeko bidea ematen dute, besteak beste, ondoko adibideok: *alfer (bizi), apal (etorri), argi (mintzatu), arin (ibili), bikain (jokatu), eroso (ibili), erraz (egin), jator (jokatu), makur (atera), zintzo (ibili)*, e.a.

Zenbatzaileak ere, sarritan, aditzondoaren funtzioarekin ageri dira:

- (9) *aunitz balio du auto horrek*
- (10) *ez naiz batere harritzen*

Beste batzuetan aditzondo gisa erabiltzen den izenkia forma absolutiboan, mugatzaile eta guzti, agertzen zaigu:

(11) *zabal-zabala* erori zen

(12) *doi-doi* aurkitu zuten

• Aipatu behar dira, azkenik, hitz konposatua osatzen ez duten eta adberbio gisa erabiltzen diren hitz multzoak. Hauen artean badira esatera tinkoak eta itxiak: *gutxi gora-behera*, *guti goiti-beheiti*, *noizik behin*, *behinik behin*, *batez ere*, *lehenbailehen*, e.a. (bide batez, idazkera normalizatua ez dutenak dira haucetako asko: *lehen-bait-lehen*, *lehenbailehen*, *batik bat*, *batipat*).

Beste batzuk, ostera, irekiak dira, esacrarren osagarri bat aldagarria dutelako. Hori gertatzen da zenbatzaile eta *bider* erabiltzen dituguncan: *zenbat bider*, *bi bider*, *hamaika bider*, e.a. Ber gauza genitiboa eta *kasa* hitzak osatzen dituzten itzuliak: *nire kasa*, *zure kasa*, e.a.

• Formaren aldetik, esan beharra da aditzondo hauck bikoizturik ematen direncan, indargarri gisan, marrazkoarekin loturik idaztea gomendatzen duela Euskaltzaindiak: *labur-labur* (*azaldu*), *adi-adi* (*egon*), *erne-erne* (*gidatu*), *ozta-ozta* (*entzun*); *alfer-alferrik* (*saiatu*), *gazte-gazterik* (*hil*), *zabal-zabalik* (*utzi*), *doi-doi* (*jasan*), *gaur-gaurkoz*, *zuzen-zuzenean*, *azken-azkenean*, *bete-bete*, *bihotz-bihotzetik*, *hasiera-hasieratik*, *zin-zinez*, *gain-gainera*; *gehien-gehiena(k)*; *asper-asper* egin, *dagoen-dagoen(ean)*, e.a.

Berdin-berdin ondoko bikoiztapen hauekin ere: *apurka-apurka*, *tarteka-tarteka*, *banaka-banaka*; *launaka-launaka*; *aldian-aldian*, *ezarian-ezarian*; *egunero-egunero*; *astero-astero*; *emeki-emeki*, *politito-politito*, *astiro-astiro*, e.a.

Gauza bera *barra-barra*, *plisti-plasta* eta *zehatz-mehatz* moduko aditzondoekin, nahiz eta hauetan salbuespen batzuk ere badiren: *bor-bor*, *kili-kili*, *mara-mara*, *pil-pil*, *txin-txin*, *txio-txio(ka)*; *binbi-banba*, *dinbili-danbala*, *hinki-hanka*, *kili-kolo*, *tirriki-torraka*, *zirti-zarta*; *auzi-mauzi*, *duda-muda*, *erran-merran*, *handi-mandi*, *nahas-mahas*, *tarteka-marteka*, e.a.

Aldiz, jardun elkarrekin bereiz nahiz marrarekin idatziko dira: *ate joka* edo *ate-joka*, *aho zabalka* edo *aho-zabalka*, *errosario esaka* edo *errosario-esaka*, *kontu kontari* edo *kontu-kontari*, e.a.

20.3. Aditzondoan sailkapen semantikoa

20.3.1. Sarrera

• Aditzondoek ber dezaketen forma zehatz horretaz aparte, duten eduki semantikoa kontuan harturik ere egin daitezke sailkapenak. Horrela, aditzondo batzuek *noiz* eta *non* gertatzen den ekintza seinaltzen dute, labardura hori ezarritik perpausari:

(13) giltzak galdu zaizkit *hemen*

(14) autoa erosi nuen *atzo*

Aditzondo hauek aposizio bat eraman dezakete aldamenean:

(15) giltzak galdu ditu *hor goian*

• Beste aditzondo batzuek halako nozio bat eranstean diote perpausari *modua* eta *maila* adieraziz:

(16) Denak *ongi* iritsi ziren

(17) Mikel *benetan* mintzatu zen

(18) hizlari hori *oso* ederki mintzatu zen

Moduzko aditzondo hori aditzarekin batean dago kasu anitzetan (edo beste aditzondo baten maila zehaztuz), adibide horietan ikusten den bezala. Hala ere, beste kasu batzuetan lotura estu hori galdurik, esalditik kanpora bezala gertatzen dira:

(19) *zoriturrez*, langabezia handituz doa

Azkenik, hiztunak esaldiak dioenari buruz duen *jarrera* adierazten duten aditzondoak ere baditugu, Iritzizko aditzondoak dira hauek:

(20) *beharbada*, bihar etorriko dira

(21) *nonbait*, bost negar egiteko jaio ginen

• Sailkapen hirukoitz hori ez da egin daitekeen sailkapen bakarra, bestelako irizpideak kontuan hartuz sailkapen desberdinak egin baitaitezke: galdekariak (*non, noiz, nola*), erakusleak (*hemen, honela, hain*) eta zehaztugabeak (*edonon, nolabait, noiz nahi*), esate baterako. Aurkezpen honetan lehenbiziko aukera hartuko dugu, bertan azpimarratuz aditzondo galdekariak, erakusleak eta zehaztugabeak.

20.3.2. Denbora aditzondoak

• Denbora aditzondoen arteko oinarritzko galdekaria *noiz* hitza dugu. Kasu markez baliatuz, honekin batera ageri dira besteak ere: *noiztik, noiz arte, noizko, e.a.*

Galdera horri erantzuteko baliabide bat baino gehiago aukeratzen du hiztunak: zehaztugabe konposatuak (*edonoiz, noiz nahi, noizbait, inoiz*); bestelakoak (*agudo, antzina, ardura, arin, aspaldi, aurtemeen, atzo, atzera, aurki, bart, behin, berandu, berriki, berriro, dagoeneko, egun, beti, bihar, egundaino, etzi, gaur, egun, iaz, ja, jadanik, laster, lehen, maiz, orain, oraino, orduan, ostera, sarri, e.a.*)

Zerrenda horretako aditzondoak (eta ez daude guztiak hemen) ez dira denak euskalki eta toki guztietan erabiltzen. Batzuetan, gainera, aditzondo berak bi esanahi desberdin izan ditzake, euskalkia zein den: *sarri* aditzondoarekin gertatzen da hori, *maiz* edo *aurki* esan nahi baitu.

Behin-etik *behin* edo *behin, noizean behin* eta halakoak sortzen dira. *Berri* hitzean oinarritzen dira *berriki, berriro* eta *berriz*. *Lehen* hitzaren inguruan sortzen dira *lehenago, lehenik, lehenbizi, lehenbizian, lehenago batean, lehenik, e.a.* *Orain* aditzondotik eratorriak dira *orainago,*

oraindino, oraino, oraindik eta *orain aldi*. *Egun* aditzondotik *egunero, egunetik egunera, egundo, egundaino, (ezezko) perpausetan* erabilia) e.a.

Aditzondo hauek *noiz* galdekariak hartzen dituen kasu markak eta posposizioak har ditzakete: *geroko, betiko, betitik, gero arte, gaurdaino, betidanik*, e.a. Batzuetan badirudi kasu marka horrek ez diola esanahi berririk gaineratzen oinarritzko aditzondoari: *sarri(tan), sekula(n), aspaldi(an), berehala(koan)*, e.a.

Ohart gaituzen aditzondoan deklinabidean ez direla betetzen izenkien jokoan agintzen duten arauak: horrela, *egun* izenetik *eguneko* eta *egunetik* sortzen dira. Baina *egun* aditzondoa baldin bada *egungo, egundik* egin behar da. *Gaur* aditzondotik *gaurtik* sortzen da, ez **gaurretik*. Halaber, *behin-ekik behingo* egiten da, ez **behineko* (hor dugu, hala ere, *behin-behineko* forma, sakonean izena duela erakusten diguna, nahiz izen hori absolutuiboan erabiltzen ez den). Aldiz, *astelehen* izena denez, ez dugu **astelehendik* egiten (aditzondoak egingo lukeen moduan), baizik *astelehenetik*. Batzuetan bielara ere egiten da, mugak non daudekeen garbi ez dagoela: *herenegundik, herenegunetik*. Berdin beste hauekin ere: *hurbildik* eta *urrundik* erabiltzen dira gehienotan, baina *hurbiletik* eta *urrunetik* ere entzuten dira. Hor ditugu, bestela ere, *bigarrenko, bigarreneko* eta *halakoak* ere.

Aditzondo hauekiko batzuek atzizki indargarriak eta adierazkorrak har ditzakete: *berehalaxe, orduantxe, araindixek, oraintxe*, e.a. Eta gradu markak edo maila adberbioak ere: *beranduena, beranduenik, beranduago, oso berandu*, e.a.

• Badira aditzondo gisa aski finkatuak ageri diren denbora adizlagun zenbait. Hauek kasu marka behar dute, jakina: *artean, bitartean, askotan, azkenean, tenorez*, e.a. Halaber, sail honetan sartu beharko lirateke posposizio batzuk ere: *hanezkero, horrezkero*, e.a. Bide batez, esan dezagun hemen *honezkero* eta *dagoeneko* ez direla baliokideak (lehenbizikoak suposizio bat ematen du aditzera eta bigarrenak, aldiz, ziurtasuna).

Denbora aditzondo zenbait atzizki bidez eratorriak dira: *igandeka*, *urteka*, *igandero* eta horiek bezalakoak alegia. Esaera adberbialak ere erabiltzen dira denbora adierazteko: galdekarian oinarrituak (*noiztik nora*, *noiztik hona*); bostelakoak (*hemendik goiti*, *hemendik aurrera*, *bat-batean*, *lehenbailehen*, *noiz edo noiz*, *urtez urte*); behin osagaia dutenak (*noizik behin*, *noizean behin*, *lantzean behin*, *astean behin*, *behin ere*); zenbatzailca eta *bider* hitzaz baliatuz sortuak (*zenbat bider*, *hainbat bider*, *hamaika bider*) eta *gero eta ...-ago* egitura erakusten dutenak (*gero eta beranduago*, *gero eta lasterrago*).

• Denbora aditzondoen ezaugarria da sarritan beste adizlagun bat eramatea aposizioan, dela aditzondoak zabalegi utzi duen denbora gunea mugatzeko (22), dela aureko aditzondoa indartzeko (23):

(22) bihar goizean

(23) orduan bertan (orduan berean)

20.3.3. Leku aditzondoak

Leku aditzondo galdekaria *non* da, bistan denez. Gero, kasu marka erantsirik beste hainbat sortzen ahal dira: *nondik*, *nora*, *noraino*, *norako*, *nongo*, e.a. Eta galdera horici erantzuten dieten aditzondo erabilienak honako hauek dira:

• erakusleak: *hemen*, *hor*, *han* eta kasu marka erantsiz sortzen diren gainerakoak, batzuetan arruntak (*hemendik*, *hortik*, *handik*, *hona*, *honantz* e.a.), eta beste batzuetan indartuak *-xe* atzizkiarekin nahiz *ber-* atzizkiarekin (*hemenixe*, *hemendixek*, *berton*, *bertan*, *bertatik*, e.a.).

• zehaztugabe konposatuak: *edonon*, *nonnahi*, *nongura*, *inondik*, *edonondik*, *nonbaitetik*, e.a. Baiezko ez diren perpausetan *inon*, *inondik*, *inora* eta horrelakoak ditugu. Hauek guztiak sarritan *ere* partikularekin doaz: *noranahi ere*, *inondik ere*, e.a.

• bestelakoak: *alde, gertu, hurbil, urrun*. Hauetako batzuk izenondo dira aditzondo bihurtuak (*leku hurbila, hurbil*), maiz deklinatuak ageri direnak: *urrutira, gertutik*, e.a. Lehen esan den bezala, hemen ere biak ageri dira: *hurbiletik* eta *hurbildik* edo *urrunetik* eta *urrundik*.

• aditzondo bilakatu diren adizlagunak: *aurrera, gora, behean, goian, goiti, kanpora*, e.a.

20.3.4. Modu aditzondoak

• Modu aditzondoen galdekaria *nola* da (bizkaiteraz *zelan*) eta ez du deklinabide atzizkirik harzen: *nolaz* eta *zelanik* bezalakoak forma soiltzat jo behar dira, kasu marka hori gehigarri hutsa baitute, esanahi berezirik ematen ez diena. Galdekari honek bere moduzko esanahiaz bestelakoak ere agertzen ditu. Horrela *zergatik* adierazteko ere balio dezake, iestuinguru batzuetan (24) eta (25) parekoak izan daitezkeelarik (halakoean *nolatan* ere ageri da, balio erretoriko edo enfatikoarekin):

(24) *nola(tan)* egin duzu hori?

(25) *zergatik* egin duzu hori?

Beste batzuetan baieztapen edo ezeztapen indartsua gordetzen duen itaun erretorikoa egiteko erabiltzen da:

(26) nola egingo dugu, bada, hori?

(27) nola ez dugu egingo, bada, hori?

Kompletibocetan ere erabiltzen da:

(28) esan zieten bidean nola ezagutu zuten Jesus ogia ebakitzean

Aipa dezagun galdetzaila honetatik sortzen dela *nolako* izenlagun galdekaria batek, eta esacra adberbialetan erabiltzen dela, besteak: *nolakoa, nola den, nola hala*, e.a.

• Goiko galderei erantzun diezaikeeten aditzondoak honakook dira:

- zehaztugabe konposatuak (*edonola, nolabait, nolanahi, inola, e.a.*). *Inola*, esate baterako, berez baieztu ez diren perpausetan erabiltzen da, zenbaitetan ukapen indartua adierazten duela. *Nolanahi* aditzondoak *esanahi* zehaztugabea izan dezake (*edozein modutan*), batzuetan perpaus kontzesiboek bide emateko erabiltzen dela: *nolanahi ere*. *Nolabait* aditzondoak (eta dituen aldakerak: *nolazpait, nolarebait*) "ahal den bezala", "modu batera edo bestera" adieraz dezake (28). Baina aldi berean *gaizki* edo *eskas* hitzen esanahia hartzen ahal du (29). Esaldiaren indarra leuntzeko ere erabil daiteke (30):

(29) nolabait egingo dugu hori

(30) dena segiduan gastatzen dutenak dira nolabait samar bizi direnak

(31) horixe da, nolabait, esan nahi duena

- erakusleak: *honela, horrela, hala, honelaxe, halaxe, harrelatsu, halatsu, e.a.* Sarritan *ere* partikula hartzen dute, perpaus kontzesiboak sortaraziz: *hala ere*.

- aditzondo atzizkiren batez eratorriak. Hau da aditzondo sailik ugariena eta emankorra. Sail honetan sartzen dira <-ki> atzizkia hartzen dutenak: *ederki, gaizki, poliki, osoki, e.a.*, gradu markak ere hartzeko gai direnak gainera: *polikiago, garbikien, e.a.* Honela sortzen ditugu etengabe aditzondo berriak eta hain erabilera zabalekoa denez gero, sarritan berez modua adierazten duten adizlagunci ere eranstean zaie: *egiaz(ki) mintzo, larri(ki) zauritu, e.a.* Aditz erroak ere eramaten ahal du atzizki hau: *ibilki, izaki, e.a.* Bigarren atzizkia <-to> dugu: *ederto, txarto, polito, e.a.*, aditzondo hauek ere graduak onar dituzaketelarik: *ondoegi, txartoago, e.a.* Beste atzizki bat <-ro> da: *argiro, berriro, astiro, e.a.* Batzuetan, lehendik ere <-to edo -ki> daramaten aditzondoek lotzen ahal zaie: *egokiro, emekiro, maitekiro*. Aipatu beharra da <-ka> atzizkia ere: *apurka, harrika, bakarka, omenka, gutxika, e.a.*, ikusten denez kategoria askotako hitzei erants dakiekeena. *Alferrik, bakarrik, biluzik, hutsik* eta halako hitzetan ageri den atzizkia <-ik> da, batzuetan

partizipioei ere erantzen zaien hura beraz: *ikusirik, egonik*. Partizipioek <-ta> ere hartzen dute, esatera adberbialak sortuz horrela: *ikusita, esanda*.

Horrela sorturiko aditzondoak trukagarriak dira zenbaitetan (*ongi, ondo, ederki, ederto*), baina hori ez da beti gertatzen (*bizirik, biziki*).

- izenondo asko, testuinguru jakin balzuetan, aditzondo gisa erabiltzen ditu hiztunak: *aise, arin, bizkor, dotore, erraz*, e.a. Baina hauekako batzuk, kasu marka eta guzti, aditzondo gisa finkaturik daudela esan daiteke: instrumentalean (*berriz, oinez, zinez*), inesiboan (*aidean, aukeran, benetan*), adlatiboan (*gogara, erara, gora*) eta ablatiboan ere (*gogotik*). Aditzondo hauek aditzari lotuak nahiz perpausetik kanpo agertzen ahal dira:

(32) itxuraz egin duzu hori

(33) itxuraz, hemen ez da inor ere bizi

- badira, azkenik, berez modu aditzondo diren hitz bakunak, edota bestelako atzizkiren batez sortuak: *ados (egon), blai (egin), belauniko (jarri), kili-kolo (egon)*, e.a. Bizirik daude "izena + [aditzoina + ka]" moduko jardun elkarteak: *ate joka, aho zabalka*, e.a. Halaber, hots uztarduraz osaturiko elkarte asko aditzondoak dira: *firi-fara, tirri-tarra, plisti-plasta*, e.a.

• Moduzko esatera adberbialak ugariak dira: *bada ezpada, hala-hala, orobat, nora-erean, edozein moduz*, e.a. Batzuetan hitzak errepikatuz sortzen dira esatera adberbialak: *poliki-poliki, itsu-itsuan, isilka-misilka, zirt edo zart*, e.a.

20.3.5. Maila aditzondoak eta zenbatekoak

• Maila aditzondoak ditugu izenondo, aditzondo eta aditzaren maila edo intentsitate neurria adierazteko erabiltzen direnak:

(34) oso berria ere ez zen

(35) *oso* gustora ibili ginen

Maila aditzondoaren artean sartzen dira *oso*, *biziki*, *arras*, *txit*, *arrunt*, *izugarri* eta horiek bezalakoak. *Erdi* ere batzuetan maila adberbioa izan daiteke:

(36) *erdi* hilik dago

Izenondoaren maila adierazteko erabiltzen dira testuinguru jakinetan *ondo*, *asko*, *nahiko*, *aski*, *frango*, *sobera* eta beste batzuk:

(37) *aski* ona zen mutil hura, bada

Adintzoaren aurrean ematea ere aski arrunta gertatzen da:

(38) *oso* berandu ere ez gabilta

Asko eta *aski*, gainera, aditzondo gisa ere erabiltzen dira, dela **bakarrik** (adberbio sintagma osatuz), dela determinatzailearen papera hartuz (itxuraz izen baten determinatzaile, baina zinez adberbioaren funtzioan dagoen sintagmaren determinatzaile gisa):

(39) *asko* luzatu zen

(40) ordu *asko* luzatu zen

Aipatzekoa da hemen, agian, *aise* aditzondoaren kontua. Aditzondo hau modu aditzondo hutsa da zenbaitetan, bestean pare-parekoa:

(41) Athletic-ek hamarretan irabazi du partidua

(42) Athletic-ek *aise* irabazi du partidua

Beste batzuetan maila adberbioa da, baina aditzondoekin erabiltzen dena, betiere aditzondo hauek *-ago* edo *-egi* atzizkietako bat baldin

badaramate. Kasu hauetan *askoz ere* eta *lar* edo *sobera* itzulien esanahia du:

(43) N. York askoz ere handiagoa da

(44)) N. York *aise* handiagoa da

(45)) N. York sobera handia da

(46)) N. York *aise* handiegia da

Esan dezagun, azkenik, *aise* aditzondoak berak ere har ditzakeela gradu atzizkiak:

(47) *aiseago* eginen duzu honela

(48) *aisegi* esaten ditu horrek gauzak

• Baditugu, asko ez diren arren, zenbatekoari loturiko bestelako aditzondoak ere. Horrela, *ia* (gehienetan errepikaturik ematen dena: *ia-ia*), *kasik*, *abantzuz*, e.a. *Doi* eta *ozta* errepikaturik erabiltzen dira denbora, modua eta zenbatekoa adierazteko:

(49) *ozta-ozta* egin zuten

(50) hala ere, *doi-doi* aurkitu zuten

20.3.6. Iritzi adberbioak

Multzo honetan sailkatzen dira perpausetik nolabait kanpora gertatzen diren eta hari buruzko hiztunaren iritzia edo jarrera adierazten duten aditzondoak, ondoko perpausetan ikusten den moduan:

(51) *ixarra* zen, *nonbait*

(52) *agian* joango da

Horrelakoak dira *menturaz*, *ituraz*, *iduriz*, *agian*, *apika*, *ausaz* eta beste batzuk. Esatera adberbial batzuk ere bereizten ahal dira hauen artean: *beharbada*, *dudarik gabe*, *agidanean*, e.a. Eta sail honetakoak dira,

noski, hain zuzen, jakina eta beste batzuk. Hala ere, hauekako zenbait (*omen, ote, behintzat, e.a.*) beste sail batzuetan aztertu dira edo aztertuko dira: batzuk lokailuak dira (*behintzat, esaterako*), beste batzuk aditz mulzoko elementuak (*omen, ote*), e.a. Bakoitza bere tokian aztertuko da.

21. kapitulua:

ADBERBIOA SINTAGMA: ADIZLAGUNAK

21.1. Sarrera

• Adizlagunek osatzen dute adverbioen arteko bigarren saila. Eta hauen ezaugarria da kasu marka edo posposizio bat hartzea, horrela adieraziz gramatika erlazioak. Adizlagunek ez dute, jakina, pertsona komunizadurarik aditzarekin eta erraz bereiz daitezke, haien egituran izena eta hondarkia agertzen direlako.

Posposizioak alde batera utzirik, sarritan aipatu ohi da euskal deklinabidearen kontzeptua. Euskal deklinabidea dela eta, esan beharra da euskaraz deklinabide bat bakarra dugula, hau da, ez dagoela beste hizkuntza batzuetan gertatzen den moduan, deklinabide sail asko. Bat bakarra eta hori mugagabea, singularrean eta pluralrean emana.

Bestetik, euskara hizkuntza *eranskaria* denez, eta ez *malgukaria*, deklinatzeko orduan deklinagaia ez da batera aldatzen. Horretan dago desberdintasuna: hizkuntza klasikoak, esate baterako, hizkuntza malgukariak ditugu eta hondarkian ematen zaizkigun adierazkien morfemak baturik daude, osatzen dituzten elementuak elkarren artean

bereizteko biderik ez dugularik. Euskaraz, aldiz, morfema horiek guztiak hondarkian biltzen dira, kasu marka ere bertan dela: *adiskide-a-rekin*, *adiskide-ri*, *adiskide-a-rentzat*, e.a.

Horrenbestez, hiru kontzeptu hauek dira bereizi behar direnak: *deklinagaia* (izenkia, normalcan), *izen sintagma* (izena eta mugatzailca) eta *hondarkia* (mugatzailea, plurala eta kasu markak osatzen dutena). Izen sintagma deitu dugu, bestetik, deklinagaia + mugatzailcak (edo beste determinatzaile batek) osatzen duten elementua.

• Adizlagunen artean sartzen dira, batetik, leku-denbora kasuak (ablatiboa, adlatiboa, inesiboa, e.a.), eta bestetik, hain sailkapen garbian sartzen ez direnak (soziatiboa, instrumentala, motibatiboa, e.a.).

Leku-denbora kasuei dagokienez, zenbait ohar egin beharrak dira, gainerako kasuek ez bezalako zenbait berezitasun dituztelako kasu hauek.

Alde batera utzirik gramatiketan ematen zaien izena (*lekuazko kasuak*, *leku-denbora kasuak*, *leku-denborazko kasuak*, e.a.) oso egokia den ala ez, esan dezagun kasu hauek erantzuten dietela edozein hizkuntzak hain maizko dituen egon-ibilizko adizten (*egon*, *joan*, *etorri*, e.a.) galderci. Leku kasuen artean sartu ohi da leku genitiboa deitu ohi dena, *nongo* galderari erantzuten diona, alegia, baina hau izenlaguna da, izenlagunak aztertu direnean ikusi den bezala. Hala ere, adizlagun ere izan daiteke, geroago ikusiko dugunez, baina adizlagun denean destinatibo balioa hartzen du. Hortaz, honakook dira hemen aztertuko diren leku-denbora kasuak: inesiboa (*non*), adlatiboa (*nora*) eta ablatiboa (*nondik*).

Kasu hauetako bakoitzean paradigmaren hiru aldaerak --mugagabea, singularra eta plurala--kontuan hartu behar dira, baina horrez gain badute leku-denbora kasu hauek, gainerakoek ez bezala, itxuraz bederen desberdin diren bi erako atzizki. Horrela, *mendiarentzat* eta *alabarentzat* esaten bada ere, leku-denbora kasuetara pasatu bezain laster *mendian* eta *alabagan* aurkitzen ditugu. Bereizkuntza hau zertan datzan eta zein hitzek

hartzten duen atzizki sail bat eta zeinek bestea ez da gauza argia. Dena dela, esan ohi da *bizigabe* direlako hitz edo izen sintagmek hartzten duela sail bat eta *bizidunek* bestea, nahiz sarritan subjektiboki erabakitzen duen hiztunak zer den biziduna eta zer bizigabea. Horrela, ondoko bi perpaus hauek arteko desberdintasuna aski argia den moduan,

- (1) *mendian* aurkitu dut
- (2) *alabagan* konfiantza handia dut

ez dira (3) bezalako adibideak ere falta euskal literaturan, non itxuraz segurik bizigabeak diren hitzak bizidun bihurtu dituen idazleak:

- (3) zure ontasun eta pazientzia *kandiagara*

Gainera, alderantzizkoa ere sarritan gertatzen da eta *gizonetan*, *anderetan*, *arditara* eta halakoak oso arruntak dira. Biak, *gizonengan* nahiz *gizonetan*, bata bestea bezain jatorrak dira, biak zuzen erabiliz gero, jakina. Lehenak *-ren baitan* edo horrelako zerbait adierazi nahi du, eta bigarrenak *-en artean* edo honen antzekoa:

- (4) *gizonengan ez, emakumeengan* dute konfiantza
- (5) *gizonetan* ederrena Joanes da, dudarik gabe

Dena dela, aski argi dago ezin direla euskalki eta mintzaira guztiak zaku berean sartu kontu hauek, mendealako euskalkietan ekialdekoetan baino maizago ageri baita *-ga-* delako bizidunen atzizki hori. Ekialdean, gehienetan singularrean bakarrik erabiltzen da eta "bizidun" direlakoekin ere *-ta-* atzizkia ageri da gehien bat pluralen eta mugagabeen. Gainera, singularrean ere sarri askotan *baita* erabiltzen da *-ga-* horren ordez, batez ere inesibo kasuan, gainerakoetan *niganik* eta *ni baitarik* ikusiko ditugula, nahiz ez diren berdin-berdinak. Nolanahi ere den, badirudi errazago erabiltzen direla bizidunak bizigabeen deklinabide atzizkiekin alderantziz baino. Alegia, bizidunen deklinabide formak direla markatuak hizkuntzan, alde batera uzirik, jakina, ez dela batere erraza bizidunen eta bizigabeen arteko muga hori non den zehaztea.

Aipa dezagun, azkenik, *elkar* izenordaina (berebat *bata bestea* itzulia) bizidun bezala erabiltzen dute zenbait tokitan:

(6) liburu horiek bakandu behar dira elkarrengandik

• Hala nola bizidunen eta bizigabeen arteko auzi hau ongi bereiztea erraza ez den, berdin suertatzen da singulararen eta mugagabearen arteko bereizketa egiteko orduan ere. Hegoaldeko euskalkietan *uretan*, *su(r)tan*, *ketan* eta halakoak erabiltzen dira, horien singularrak (ituraz behintzat) lirartekeen *urean*, *suan* eta *kean* bezalakoak albora utziz. Ekialdeko hiztunek, hala ere, ongi bereizten dituzte *suan/sutan*, *kean/ketan*, *urean/uretan* eta halako bikoteak:

(7) belagia *uretan* zegoen

(8) neska *urean* sartu da

(9) lapikoa *suan* jarri du

(10) cuxca *sutan* zegoen

Hauen parean ditugu, hala ere, euskaldun guztiak esaten dituzten honakook ere:

(11) gure etorkizuna *eguzkian* dago

(12) izarrak *urean* islatzen ziren

(13) suhiltzailea *kean* sartu zen

(14) "orain bihotza urtua daukat, *urean* galza bezala" (herri kanua)

Zer gertatzen da orduan? Agian, halako esapide batzuk sortzeko eta eratzeko orduan, sartaldeko hiztunek forma mugatuak erabiltzen dituzte eta sartaldekoek, berriz, forma mugagabeak. Dena dela, kontu hau *egunaz / egunez*, *gauaz / gauzez* eta halakoetan gertatzen den distribuzioarekin batera ikertu beharko litzateke.

• Esan dezagun azkenik leku kasu guztietako *-gan-* atzizkia *-ren-* atzizkiaren gainean joan daitekeela:

- (15) Jaungoikoagan
- (16) Jaungoigoarengan
- (17) Jaungoikoagandik
- (18) Jaungoiarengandik

Nolanahi ere, *-ren-* atzizki hori singularrean bakarrik ken daiteke, pluralean ezina baita eta mugagabeen dudu-mudazko formak sortzen baitira hori kentzen bada (*? *hiru neskagan*, *? *zenbait alabagandik*, *? *bi mutilgan*, e.a.).

21.2. Inesiboa (-n)

21.2.1. Forma

- | | |
|--------------------|------------------------------|
| 1) Mugagabca: | <i>-(e)n</i> (leku izenekin) |
| | <i>-gan</i> |
| | <i>-lan</i> |
| | <i>-en baitan</i> |
| 2) Mugatu sing.: | <i>-(e)an</i> |
| | <i>-a(ren)gan</i> |
| | <i>-a(ren) baitan</i> |
| 3) Mugatu plurala: | <i>-etan</i> |
| | <i>-engan</i> |
| | <i>-en baitan</i> |

• Ongi ikusten da inesiboaren atzizki nagusia, forma ororen gaietik ageri dena, *-n* dela. Hori agertzen da *Donostian*, *Donibanen* edo *Bilbon* bezalako adibideetan. Oinarrizko galdekaria *non* da eta *nor(ren)gan* eta *nortan* ere ageri dira (azkeneko hau oso gutxi, egia esan, adibide bat edo beste baxenafarrerazko Etxepare, Arradiot eta Kalbador idazleengan aurki badaiteke ere, galdurik bezala), euskalkien arabera. Denboraz galdezko, berriz, *noiz* dugu erabiltzen dena. Eta bestelako flabardurak kontuan hartu nahi izanez gero *zertan*, *nola* eta *zenbate(t)an* ere.

Badira, zernahi dela, *-n* hau gabeko formak ere: *hor*, *ezker-eskuin*, *aitzin-gibel* eta halakoetan ageri zaizkigunak. Eta mugatzaile gabeko *etxen* forma ere hortxe dugu, bizi-bizia gaurko bizkaiera mintzatuan (kontrakzio bat gertatu delako, seguraski ere, bizkaierazko literaturan ez baitu inolako tradizioirik: honen adibide idatzi bakarrak zubereraz aurkitzen dira), *jaten* aditz izenaren parekoa, honak ere ez baitu mugatzaileirik. Atzizki horrekin batera, *-n*-rekin batera alegia, *-gan* eta *-tan* ere hor ditugu, baina horrek ez du esan nahi nola nahi erabil daitezkeenik: *etxe honetan* eta *emate honengan* ditugu (bizigabe, bizidun), baina ez, ordea, **etxe honean*. Bestetik, *-gan* forma absolutiboaren nahiz genitiboaren gainean jarzen ahal da: *nigan*, *niregan*. Baina *-ta*- ordea beti absolutiboaren gainean bakarrik: *nitau*, **niretan*. Eta gauza bera gertatzen da leku-denborazko beste kasuetan ere.

Erakusletan, hortaz, *honetan* eta *honengan* sailekoak ditugu eta aditzondo direnean, berriz, *hemen*, *hor*, *han*, bigarrenaren kasuan, ikusten denez, inesiboaren marka galdu delarik.

• Inesiboan erabiltzen da plural hurbila markatzen duen *-o*- artikulua, singularreko forma ihartu batzuetan ere ageri dena: *aspaldion*, *berton*, *etxeotan*, *gizonongan*, e.a. Aipa dezagun, nolana ere, badirela arrazoiak pentsatzeko *mendian* bezalako sintagman ageri den *-a*- hori artikulua ote den: batetik, leku-denborazko beste kasuetan ez baita ageri halako artikulurik (*etxetik*, *etxera*) eta, bestetik, bizkaieraz egiten den *-ea* hitzaren azkeneko *-a* soinuari artikulua gaineratzen zaionean (*itxura + a = itxurea*) ez baita betetzen hemen: *gonan* esaten da, ez **gonean*.

21.2.2. Erabilera

• Erabilera dagokionez, esan behar da euskal deklinabide guztian ez dagoela hau bezain emankorra den kasu markarik (agian *-z* instrumentala izan lezake lehia). Horregatik, atzizki hau bereganatu duten bitzen eremua aski zabalda da eta multzo bat baino gehiago bereziki behar dira, ondoren ikusiko den moduan.

- Kasu marka hau erabiltzen da, hasteko, *lekua* adierazteko:

(19) *Amurrion* bizi naiz

Berez *lekua* adierazten duten hitzen artean badira zenbait bere esanahiaren muinean beste zerbait edo norbaitekiko erlazioa ere daramatenak eta, hainbestez, posizio gisa erabili ohi dira sarri:

- (20) gure aldean
- (21) aitaren aldean
- (22) perpausaren buruan
- (23) anaien artean

Ez da nahitanahiezko genitibo:

- (24) zubi ondoan
- (25) mendi gainean

Genitiboaren marka kendu ahal izateko izenak bizigabea behar du izan (**gizon ondoan*) eta ez du ondotik izenondorik hartzen ahal (**zubi handi ondoan*). Aldiz, izenlagun bat daramanean aurretik zalantzak gertatzen dira (*herriko zubi ondoan / herriko zubiaren ondoan*) nahiz literaturan eta euskara mintzatuan bietarik ageri diren.

Beste batzuek, ordea, ez dute erlaziorik ere adierazten eta formaz inesibo soilak izanik ere, halioz aditzondo bilakatu dira: *goian*, *behean*. Eta badira berez erlazioa adieraz dezaketenak erlazioa adierazi gabe ere erabil daitezkecnak, adberbializatu edo egin direlako:

- (26) *aldamenean* eseri zitzaidan
- (27) *azpian* ezarri du

• Kasu marka hau beraz erabiltzen dugu denbora adierazteko ere. Esate baterako, inesiboaz baliatzen gara zerbait noiz gertatu den

jakinerazteko: *gaztaroan, haurtzaroan*. Balio hori bera, denborarena alegia, izan dezake zenbaitetan -z instrumentalak ere.

Denbora dela eta, batzuetan puntu edo momentu bat adierazten du hitzunak:

(28) *datarren astean* emango dit

Beste batzuetan ekintza bat zenbat luzatu den da adierazten duguna:

(29) *hilabetean* idatzi du liburua

Zenbaitetan edo zenbat aldiz egin dugun zerbait esan nahi dugunean ere inesiboa erabil dezakegu:

(30) *hiruan* izan naiz Galizian

Sail honekoak dira *askotan, gutxitan, batzuetan*, e.a.

Ordua, prezioa eta kostua ere halaxe adierazten ditugu:

(31) *hiruretan* bazkaltzen dut

(32) *milioian* erosi zuen

Denbora adierazten duten inesibozkoen artean ere badira, nolazpait esateko, eskematik atera eta lexikalizaturik aditzondo edo esaera adberbial bilakatu direnak. Batzuk singularreko forman ageri dira: *orduan, sekulan, arestian, berehalakoan*, e.a. Beste batzuk mugagabeen: *askotan, gutxitan, zenbaitetan*, e.a.. Beste batzuk, azkenik, esaera adberbialak dira: *txitean-pitean, noizean behin, lantzean behin*, e.a.

Kontura gaitezen, hala ere, denbora adierazi nahi denean badela arriskua inesiboa eta instrumentala nahasteko. Hor ditugu, eskura, *trenez* eta *trenean*: *gauzez eta gauean; goizez eta goizean*, e.a. Nola bereizi

horiek guztiak? Baliokideak al dira? Gure ustez, ez: instrumentala erabiltzen da aipatzen den garai hori zehazten ez denean. Horrela,

(33) *goizez ikasten du gure umeak*

bezalako perpaus batean ez dugu zehazten noizkoa den goiz hori. Horren pareko lirateke *gauzez, egunez, arratsaldez* eta halakoak. Aldiz, goiz hori noizkoa den zehazten badugu, instrumentalak ez du lekurik eta inesiboa da erabiltzen dena:

(34) *bihar goizean ikasiko du gure umeak*

(35) *bihar arratsaldean emango dute telebista saio berria*

• Iharduera adierazteko ere inesiboaz baliu gaitzke: *igerian, aitzurrean, dantzan, lanean*, e.a. Ez dute lekua adierazten eta, horrenbestez, nekez aurkituko dugu *non* galdekariaren arrastorik. Zenbait euskaldunek hitz horiei *egon* eta *ibili* aditzak eranstean badizkiete ere, beste askok *ari izan* eta *jardun* bakarrik erabiltzen dituzte halakoetan, *zertan* galdekariari edo erantzuna eman nahian.

Galdera honen erantzunak bi eratakoak ditugu: batzuetan singularraren forma hartzen dute (*beharrean, marmarrean, jolasean, lanean*) eta beste batzuetan, ostera, mugagabearena (*ametsetan, lotan, belarretan*). Adiera bera dute *-(k)eta* atzizkia duten hitz eratorri batzuek ere: *hizketan, berriketan, igeriketan*, e.a.

Dena dela, sailik ugariena aditz izenek osatzen dute, mugagabeko inesiboaren aldaera hartzen dutenak: *ikasten, josten, garbitzen (ari da, dihardu)*, e.a.

Batzuetan, galdera dela eta, zalantzak sor daitezke galdera egiteko orduan eta *non* ala *zertan*, zer galdetu alegia, oso ilun suertu daiteke.

• Ez dira gutxi modua adierazten duten eta, honenbestez, *nola* galdekariari dagozkion hitz eta sintagmak, inesiboan eman ohi ditugunak.

Batzuetan singularrean ageri dira:

(36) *onean* zerbait egin daiteke; *tzarrean* ez.

(37) *paixadan* egiten dituzte gauzak

Beste batzuetan mugagabeen daude: *gezurretan*, *kaltetan*, *izerditan*, e.a. Esapide zenbait erabat adberbializatuak ditugu: *agian*, *ustegabeen*, *ezinbestean*, *noraeezan*, e.a. Eta zenbait itzuli esaera adberbializat hartu behar dira: *itsu-itsuan*, *ezarian-ezarian*, *etsi-etsian*, e.a.

Batzuetan, azkenik, sintagma osoa gerta daiteke kasu inesiboan: *ordu onean*, *zori gaiztoan*, e.a.

• Lekua, denbora, iharduera eta modua adierazteaz gain, kasu marka hau erakusten duten sintagmen emana ia ezin ahituzkoa dela esan daiteke. Horrela, kasu hau bera aurkituko dugu goiko sailetan zuzen sartzen ez diren zenbait esapidetan: *azken batean*, *hitz batean*, e.a., hauetako batzuk oso berriak direla gainera hizkuntzan. Horrexek erakusten du inesiboak duen erraztasuna esapide berriak sortzeko.

Zenbait aditzek osagarri gisa eskatzen dute kasu hau: *lanean hasi*, *eskean ibili*, *gogoan hartu*, e.a. Eta aditz batek beste aditz bat hartzen badu osagarritzat, askotan bigarren aditz hau ere inesiboan doa: *ekaritzen saiatu*, *mintzatzen jakin*, *idazten ahaztu*, *bazkaltzen joan*, e.a. Jakina, *idazien ahaztu* eta *idaztea ahaztu* bi gauza dira. Alabaina, *bazkaltzen joan* eta *bazkalizera joan* edo *gauza bat egitera ausartu* eta *gauza bat egiten ausartu* gauza bera da, euskalkien arabera erabilera aldatzen dela, lehenbiziko forma batez ere bizkaieraz aurkitzen baita.

• Diogun, amaitzeko, zenbait euskalkitan inesibo marka hau erabiltzen dela partitiboen eta adberbioen (-ik) eta ablatiboaren (-tik)

indartzaile gisa edo, nahiz esanahia ez den aldatzen: *bizirik/bizirikan*, *etxetik/etxetikan*, e.a.

(38) "hartu ta leihotikan jaurti behar dut nik" (herri kantua)

21.3. Adlatiboa (-ra)

21.3.1. Forma

- | | |
|--------------------|--|
| 1) Mugagabea: | - <i>(e)kara</i>
- <i>gana</i>
- <i>en baitara</i> |
| 2) Mugatu sing.: | - <i>(e)ra</i>
- <i>(ren)gana</i>
- <i>(ren) baitara</i> |
| 3) Mugatu plurala: | - <i>etara</i>
- <i>engana</i>
- <i>en baitara</i> |

Ez ditugu hemen errepikatuko lehen esandakoak. Galdekaria *nora* da eta hemen ere ageri da deklinabide hurbilaren -*o*- delako artikulua hori: *etxeotara*, *gizonongana*, e.a. Leku izen bereziak -*a* baizik ez da erabiltzen: *Eibarra*, *Zarautza*, *Madriila*, e.a. Eta ekialdean -*ra* horrekin baita -*rat* erabiltzen da: *etxerat*, *mendietarat*, e.a. Bizidunen kasuan, jakina, *norengana* edo *norgana* da behar dugun galdekaria, baina ez **nortana*, nahiz *nortan* bakan batzuetan ageri den. Erakusleetan *honengana* eta *honetara* sailekoak erabiltzen dira, eta aditzondo diren *hona*, *horra* eta *hara*.

Zubereraz -*ala* egiten da: *zeliiala*.

21.3.2. Erabilera

• Kasu marka honek, jakina, *lekua* adierazten du. Zenbait aditzek, gainera, badirudi kasu marka hau daraman sintagma eskatzen dutela: hori gertatzen da *joan* aditzaren kasuan, esate baterako.

• *Denbora* ere adieraz dezake, ondoko adibideotan ikusten den bezala: *hemendik (aurrera)*, *(egunetik) egunera*, *(atzoetik) aurrera*, e.a. Idazle askoren artean --Axularrek, adibidez, hala erabiltzen zuen, baina gaur egun ere badira zentzu hau ematen dioten idazleak--, denborazko zentzua ez ezen, zerbaiten ondorioa ere adieraztera heldu da atzizki hori: ez du "harrezkero" bakarrik esan nahi, baizik "gertakari haren ondorio gisa" ere.

• Adlatibo forma soilak izanik ere, zenbait izenki adberbializatu egin da: *gogara*, *ostera*, *gainera*, *gora*, e.a. Badira batzuk, hala ere, oraingoz adberbializatzeko bidean edo daudela esan daitekeenak: *erara*, *antzera*, *arabera*, *aurrera*, *atzera*, e.a.

• Euskarak berebiziko joera du adlatiboan dagoen edozein forma aditz bihurtzeko: *etxeratu*, *eskuratu*, *oheratu*, *menderatu*, e.a. Hala, *ohera zenean*, *gogora zitzaidan*, *etxera bezain laster* eta hauek bezalako esapide jatorretan ageri den adlatiboa aditza da, ikusten denez. Azkenik, aipa dezagun esatera adberbial bilakaturiko adlatiboak ere ez direla falta: *itxasi batera*, *begiratu batera*, *gutxi gora-behera*, *hitzetik hortzera*, e.a.

21.4. Hurbiltze adlatiboa (-rantz)

21.4.1. Forma

- | | |
|--------------------|---|
| 1) Mugagabea: | -(e)karantz
-ganantz
-en baitarantz |
| 2) Mugatu sing.: | -(e)rantz
-a(ren)ganantz
-a(ren) baitarantz |
| 3) Mugatu plurala: | -etarantz
-enganantz
-en baitarantz |

Euskara idatzirako horiek aukeratu badira ere, euskalkietan bestelakoak ere aurkitzen ahal dira: *mendirantzat*, *mendirantz*, *medirantz*, *mendialat*, *mendirontz*, *mendiruntz*, *mendirutz*, e.a.

21.4.2. Erabilera

Adlatibo honek adierazten duena ez da *nora*, baizik zein aldetara jo duen norbaitek. Ibilcraren azken muga ez, baina guti gora-beherako jokabidea:

(39) *etxerantz* joan zen

Hori esaten duenak norbait etxe aldera (baina ez agian etxera) joan zela adierazi nahi du, etxeraino iritsi ote zen ala ez, ez duela inolako segurtasunik.

21.5. Muga adlatiboa (-raino)

21.5.1. Forma

- | | |
|--------------------|---|
| 1) Mugagabea: | - <i>(e)taraino</i>
- <i>garaino</i>
- <i>en baitaraino</i> |
| 2) Mugatu sing.: | - <i>(e)raino</i>
- <i>a(ren)garaino</i>
- <i>a(ren) baitaraino</i> |
| 3) Mugatu plurala: | - <i>etaraino</i>
- <i>enganaino</i>
- <i>en baitaraino</i> |

Ikus daitekeenez, *noraino* ere *nora* galdekarian oinarritzen da eta bide, ibilaldi edo tarte baten azken muga edo puntua adierazten du, *nora*-k ez bezala handik aurrera luzatu edo igaro ez delako esanahia bere baitan duelarik.

Forma aldetik, historian zehar eta euskalkien arabera *noreraino*, *noragino* eta *norano* ere ageri dira. Erakusleen artean ere bi forma: *honeraino*, *horraino*, *haraino* eta *honetaraino*, *horretaraino* eta *hartaraino*.

21.5.2. Erabilera

• Esan bezala, lekua adierazten du honek, tarte baten azken muga markatuz:

(40) *etxeraino* joan zen

Eta horrek esan nahi du, hain zuzen ere, joan zen hura ez zela etxetik igaro, hantxe bukatu zuela bere ibilbidea. Hori da, seguraski ere, kasu marka honek duen erabilera ugariena.

• Baina lekua ez ezik, bere kideak ere egiten duten moduan, denbora ere markatzen du. Denborari dagokionez, galdekariak **noizeino* izan behar luke. Horren ordeaz, hala ere, *noizdrano* eta *noizdaino* ageri dira literatura tradizioan. Dena dela, euskalkirik gehienetan *noiz arte* esaten da halakoetan, galdekari honek ere aldaera bat baino gehiago hartzen duela: *noiz artio*, *noiz artean*, *noiz arteino*, *noiz arteraino*, e.a. Galdekariak horrenbeste forma hartzen dituzenez gero, ez da batera harrizkoa erantzunak ere aberatsak izatea forma aldetik: *orano*, *oraino*, *oraindano*, *oraindaino*, *oraindino*, *oraindrano*, *egundaino*, *egundo*, *gaurdaino*, *betidaino*, e.a.

Horrenbeste forma izateak arazoak sortzen ditu. Esaterako: *-raino* hartzen badugu horien guztien artean formarik zabalduena denaz gero, ba ote da inolako desberdintasunik *-raino* delako horren eta *noiz arte* galdekariaren artean? Biek esanahi bakarria ote dute? Gramatiketan esan ohi da lehenbizikoak lekua markatzen duen bezala, bigarrena denbora adierazteko erabiltzen dugula euskaldunok. Hori neurri handi batean egia da: erakuslestatik sorturiko aditzondoek (*honaino*, *horraino*, *haraino*), adibidez, lekua markatzen dute, ez denbora. Aldi berean *gaur arte*, *bihar arte* eta horrelakoak esaten dira, denak denborarekin lotuak. Hortaz, hauxe izango genuke arruntena:

(41) *hondartzaraino* hurbildu ginen

(42) *bihar arte* gelditzeko asmotan etorri dira

Hala ere, zenbaitetan hizkuntzaren datuek beste zerbait ere erakusten digute, batzuetan gurutzaketak suertatzen direlako. Orduan honakook ere entzun daitezke:

(43) *Erretereria arte* ez da autobusa geldinuko

(44) *eguerdiraino* egon dira jostetan eta goseak pasatuak dira

Bi adibide horietan atzizkiak alderantziz erabili direla dirudi, beste askorekin gertatzen den modu berean: *heriotzeko ordua arte*, *heriotzeko orduraino*, *azken eguna arte*, *azken eguneraino*, *berandu arte*,

beranduraino, e.a. Hor interpretatu behar da "autobusa ez dela geldituko Erreteriarara iristen den arte", nahiz agian delako autobus hori ez doan Erreteriaraino, baizik Donostiaraino edo Baionaraino. Hala ere, badirudi *noraino* galdetzailerak lekuaz galdetzen duela eta hori hala delarik, *-raino* atzizkiakz baliaturik erantzuten zaiola edozein euskalkitan. Baina beste galdetzailerari bat erabiliz gero, *noiz arte* esate baterako, *-raino* atzizkia duen sintagma ez hain gaitzake erantzunean: *beranduraino*. Hori batetik. Besteuk, lekuaz ari garela ere honako hau galdetzen ahal dugu:

(45) Agur, noiz arte?

Donostiarara arte

• Bada hemen beste kontu bat ere. Askotan entzuten dira *hurrengorarte* bezalakoak. Baina hori idatzi, nola idatzi behar da?: *hurrengo arte*, *hurrengoa arte* edo *hurrengorarte*? Eta nola beste hauek: *azken egun arte*, *azken eguna arte*, *azken egunerarte*? Badirudi bi sintagma mola ditugula hemen. Bat, adlatiboan: *azken egunera arte*. Hor ez dago arazorik, nahiz eta forma berriagoa den, *noraino*-ren analogiaz sortua agian. Beste sintagma absolutiboan dago, ikusten denez. Hor, antza denez, gramatika arauak sintagma mugatua eskatuko lukete. Horrela, *elkarrekin egongo garen egun* bezalako sintagma batek determinatzailea behar du, eta hala behar baldin badu *elkarrekin egongo garen eguna arte* esan beharko da, betiere gramatikaren ikuspuntutik, eta ez *elkarrekin egongo garen egun arte*. Izen sintagma plurala denean, esaterako, aukerak beti mugatuak ditugu: *gabonak arte*, *gabonetara arte*. Dena dela, honetaz erabakirik ez denez, badirudi hirurak eman behar direla ontzat (*hurren arte* ere esaten delarik): *hurrengoa arte*, *hurrengorarte*, *hurrengo arte*.

• *Zertaraino* eta *zenbatetaraino* galdekariak ere erabiltzen ditugu:

(46) guztiz ahitzeraino aritu zen aizkoran

(47) ia batera hutsik ez egiteraino menderatu du hizkuntza

(48) *hamabosteraino* konatzen ikasi du

Erakusleek ere badituzte galdekari honi dagozkion formak: *honenbesteraio, horrenbesteraio, hainbesteraio*.

• Esan dezagun, azkenik, *-aio* guztiak izenlagun bihurtzen ahal direla:

(49) *oraindainoko* albisteak

(50) *zenbaiterainoko* arrakasta

21.6. Ablatiboa (-rik)

21.6.1. Forma

- | | |
|--------------------|--|
| 1) Mugagabea: | -tik (leku izenekin)
-(e)tatik
-gan(d)ik
-en baitarik |
| 2) Mugatu sing.: | -rik, -(e)tik
-a(ren)gan(d)ik
-a(ren) baitarik |
| 3) Mugatu plurala: | -etatik
--engan(d)ik
-en baitarik |

Kasu honen marka soila *-ik* da, adibide askotan ongi aski ikusten den moduan (nahiz erabilera honek muga argiak dituen egungo euskaran, batez ere singularreko formetan):

(51) *baxterrik baxter* ibili dira

Eta hitza bokalez amaitzen denean *-rik*:

(52) *mendirik mendi* ibili ziren

Euskalki askotan, hala ere, *-tik* da gehien erabiltzen den kasu marka:

(53) *urrutitik* etorri ziren

Bikoiztapen hauek bereiz eta marrarik gabe idatzi behar dira: *adarrrik* *adar*, *bazterrik* *bazter*, *eskurik* *esku*, *kalerik* *kale*, *sasirik* *sasi*,...

Hala ere, oro har *etxetik* esaten duten hiztun anitzek *mendirik* *mendi* esango du horren ondoan, edo *herririk* *herri*, *-ik* atzizkian oinarrituz. Leku izenetan ere berdin: *Paristik*, *Maulerik*, *Madrildik* eta *Eibartik*, nahiz *Eibarretik* edo *Parisetik* ere erabiltzen diren. Halaber *Ataundik* eta *Ataunetik*, edo *Zarauztik* eta *Zarauztetik*.

Nahiz *-rik* eta *-tik* elkarren bariante gisakotzat ematen diren, badute alde txiki bat, bigarrenak, baina ez lehenak, azkeneko *k* hori gal batezake: *hemeti*, *inundi* entzuten dira bizkaieraz.

Mugagabea eta pluralak, jakina, *-(e)tarik* eta *-(e)tatik* egiten dute. Bizidunek *norengandik* eta *norenganik*, erantzuncan genitiboaren *-en* ezaugarria gal daitekeelarik, betiere lehen aipaturiko mugekin: *alaba(ren)gandik*. Pertsona izenordainekin *zuetatik*, *zuetarik* eta halakoak ditugu.

21.6.2. Erabilera

Erabilerari dagokionez berriro ere aurkitzen dira hemen *nondik*, *noiztik* eta *zertatik* galdetzaileak, orain arte ikusi ditugun leku-denborazko kasuekin geratu den moduan:

(54) *urrundik* etorri dira errogeak

(55) *aspaiditik* ari dira bidea konpontzen

(56) *ikastetik* etorri da

(57) *betitik* jakin dugu hori

Denborazko adberbioek *-danik* ere hartzen dute euskalki batzuetan, esanahiaren aldetik gauzak batere aldatu gabe geratzen direlarik: *noizdanik, gaurdanik, aspaldidanik, betidanik*, e.a., nahiz noiz hartzen duten hori zehazterik ez dugun.

Iharduera adierazteko erabiltzen den *zertatik* galdetzailca batez ere aditz izenekin erabiltzen da: *handitzetik, hastetik, hartzetik*, e.a.

Esan dezagun, berezitasun batzuk aipatzearren, ablatibo kasu marka hau duten zenbait sintagma aditzondo bilakatu dela erabileraren erabileraz: *inondik ere, horratik, haatik, gogotik, oraindik*, e.a. Bestetik, marka honek bi balio izan ditzake, euskalki batzuetan bederen: *abiapuntua (etxetik atera zen)* eta "barrena" edo "zchar" (*basoan zehar ibili zen Robin Hood*). Azkenik, esan dezagun kasu marka hau hartzen duten sintagmak izenlagun bihur daitezkeela: *aitagandiko, geroztikako, zugandiko*, e.a.

21.7. Soziatiboa (*-ekin*)

21.7.1. Forma

- | | |
|--------------------|-----------------|
| 1) Mugagabca: | <i>-(r)ekin</i> |
| 2) Mugatu sing.: | <i>-arekin</i> |
| 3) Mugatu plurala: | <i>-ekin</i> |

Formari dagokionez, deklinagaia kontsonantez bukatzen denean, larreak *-r-* hori hartzen du, lourea hizki modura:

(58) hamar *lagunekin* etorri da

(59) hamar *adiskideekin* etorri da

Besteetan, *lagunarekin / adiskidearekin* (sing) eta *lagunekin / adiskideekin* (pl) egiten du, berdin dela nola bukatzen den deklinagaia.

Esan dezagun, azkenik, bizkaieraz *-ekin* kasu markaren ordez *-gaz* (eta *-kaz*) dela erabiltzen dena: *adiskideakaz*, *Jonegaz*, e.a. Seguraski ere, bi atzizki hauek (*-kin* eta *-gaz*) desberdinak ziren garai batean. Iparraldeko zenbait tokitan (zubereraz), berriz, *-ekila* da erabiltzen dena, nahiz Lafitieren iriziz, marka hau ez den guztiz bestearen baliokidea: *aitarekila*, *amarekila*, e.a.

21.7.2. Funtzioa eta erabilera

- Kidetasuna adierazteko erabiltzen da kasu marka hau:

(60) *amarekin* nago

(61) zure *alabarekin* ezkonduko naiz

(62) *zurekin* ez gara ados

- Denbora adierazteko ere erabiltzen da kasu hau (nahiz inesiboa den, ikusi dugun bezala, maizenik erabiltzen dena denbora adierazteko):

(63) *ostegunarekin* ezkondu zen

Denbora dela eta, aditz izena ere erabiltzen da kasu honetan denbora adierazteko zenbait euskalkitan, betiere etorkizunera edo orainari begira: *zu etortzekin afalduko dugu denok batera*, *atea hestekin gertatzen da hau*, *hau ikustekin hitz egingen dugu*, e.a.

- Zenbait hizkeratan, instrumentala oso gutxi erabiltzen denez, *nahiago* izaten da kasu hau erabiltzea, batez ere aditz soziatiboen kasuan. Erabilera hau, zernahi gisaz, aski berria da eta sartaldekoa bakarrik:

(64) *horrekin* konturatu naiz

Beste hizkera anizetan (eremu zabalenetan), *jakina*, *horretaz* esango litzateke.

Zenbait aditz, adjektibo eta adberbio kasu hau eskatzen dute:

(65) *zurekin amets egin dut bari arrasean*

(66) *horrekin aski dugu*

• Kasu hau erabiltzen da kausa edo instrumentaltasuna adierazteko (nahiz hor dagoen instrumentala bera ere, nola ez):

(67) *makila honekin jo dut*

(68) *labana batekin ebaki zuen soka*

21.8. Instrumentala (-z)

21.8.1. Forma

1) Mugagabea:	- <i>(e)z</i>
2) Mugatu sing.:	- <i>az</i>
3) Mugatu plurala:	- <i>ez</i>

Toki askotan instrumentala oso gutxi erabiltzen dela eta, badirudi batzuen ahaleginak, batasunaren izenean, beste nonbaitetik doazela. Horren ondorioz, gero eta hedadura handiago hartzen ari da kasu marka hau, antzetzan erabili beharko ez litzatekeen tokietan ere lekua hartuz. Gainera, batzuetan bizkaierazko *-gaz* atzizkia honekin nahasian ageri da, lege fonetikoek ere hartara bultzatzen baitute hiztuna.

Mugagabeen *-(e)z* egiten badu ere (nola bukatzen den deklinagaia, bokalez ala kontsonantez), erakusleen eta izenordainen kasuan *-etaz* ageri da: *honetaz, horretaz, hortaz, gutaz, zutaz, nitaz*, e.a. Berdin pluralcan ere: *houetaz, horietaz, haietaz*. Hala ere, gainerako izenkien kasuan ez dira euskara idatzian forma horiek onartzen: **semeetaz, *etxeetaz*, euskara bizian erabiliak diren arren. Halaber, Euskaltzaindiak emandako formetan ontzat jotzen dira *honezaz, horrezaz* eta halakoak.

21.8.2. Funtzioa eta erabilera

• Aditz askok instrumentala eskatzen du osagari gisa: *baliatu, jabetu, konturatu, oroitu, kezkatu, arduratu, poztu*, e.a.:

(69) zure *esanaz* baliatu zen hori egiteko

(70) *Malentzoz* oroitu zen Joanes

• Beste aditz batzuen bigarren mailako osagari gisa ere agertzen ahal da, *gai*a adierazteko edo erabil daitekeena:

(71) zer esan du *gutaz*?

Hor ageri denez, galderan jakin nahi dena da "gu dela eta", "gu hizketa gai garelara eta", zer esan duen norbaitek guri buruz.

• Instrumentala erabiltzen dugu denboraren iraupena adierazteko (72) eta tresna adierazteko ere (73):

(72) *bi orduz* entzun behar izan genuen hizlaria

(73) *mailuz* jo zuen

Baina, esan bezala, bigarren adibide horren ondoan sozietiboa ere erabiltzen ahal da lasai aski.

• Diferentzia ere adieraz dezake instrumentalak:

(74) *eztarriaz* beherago du horrek mina

(75) *mendiaz* bestalde dago erreka zokoan

(76) *haizeaz* bestaldek

• Zenbait posposizio (eta posposizio antzeko hitzak ere) instrumentalarekin erabiltzen dira:

- (77) *zuzaz gainera* ez dugu inor gchiago ikusi
- (78) *lehenaz gain*, lan berria ezarri digute
- (79) *zerua izurrez beterik* dago
- (80) *mendiaz haratago* dago jauregia

• Kasu marka honen kausa eta beste zenbait kontzeptu adierazten dituzten adberbioak eta lokuzio adberbialak sortzen ditu: *oinez, zaldiz, eskuz, euskaraz, heldurrez, larruz, adibidez, egunez, negarrez, gauzez, honen ondorioaz*, e.a.

Hala ere, adizlagun horiek zehazten baditugu, modu edo dena delako horren ezaugarriak agerian jarriz, ez da instrumentala erabiltzen:

- (81) *trenez* itzuliko naiz
- (82) *hamarretako trenean* itzuliko naiz
- (83) *euskaraz* honela esaten da
- (84) *euskara batuan* honela idazten da

Esapide batzuetan ere erabiltzen da instrumentala: *herriz herri, mendiz mendi, buruz buru, bataz beste, ahoz behera, hankaz gora, eginaren eginaz*, e.a. Horiek guztiak bereiz eta marrarik gabe idazten dira, adibideetan ikusten denez.

• Partizipioa pasiboaren zentzuan erabiltzen delarik, bada joera handi bat aditzaren egilea edo agentea instrumentalean jartzeko:

- (85) Jainkoa *deabruaz* tentatua izan zen

Hala ere, badirudi hor egokiago litzatekeela ergatiboa (*deabruak*) jartzea. Zehazki gisaz ez, jakina, *deabruagatik* edo halako zerbait, horrek perpausaren adiera osoa aldatzen baitu.

Partizipioa dela eta, esan dezagun kasu marka hau ere hartzen ahal dutela partizipioek. Orduan partizipio-adberbio aktiboak sortzen ditugu: *esanez, bilduz*, e.a. (forma mugatuak ere erabiltzen dira, *esanaz, bilduaz*,

e.a.). Hemen erdararen eragina nabarmentzen da batzuetan, zenbait hitunek gerundioa erabiltzen baitute partizipioa erabili beharko luketen tokian:

(86) hau *esanez* (**esaten*) alde egin zuen

(87) hori horrela *eginez* (**egiten*) kontuak oker aterako zaizkizu

(88) aisiki bat eman nion ogia zela *pentsatuz* (**pentsatzen*)

21.9. Motibatiboa (-*gatik*)

21.9.1. Forma

Motibatiboa adierazteko erabiltzen den aitzikia izenlagunetako *-en* genitiboari eranstean zaio zuzencan: *semearengatik*, *semeengatik*, *Koldorengatik*, *Mirenengatik*, e.a.

Hala ere, singularra denean, izenlagunen marka hori ez da beharrezkoa: *alabagatik*, *semeagatik*. Pluralean ere bi aukerak ditugu, baina ohar batekin: genitiborik gabe erabiltzekotan *semeakgatik* eta *alabakgatik* aukeratu behar dira. Genitiboa ematekotan, berriz, besteok: *alabengatik*, *semeengatik*. Mugagabca denean zalantzak egon daitezke batzuetan (*hiru(ren)gatik*), baina ez besteetan (*zeinengatik*, *batzuegatik*, e.a.). Hauekin batera hor ditugu pluraleko beste formak ere: *semeakatik*, *alabakatik*, e.a. Esan beharra da, dena dela, joera ia erabatekoa zegoela idazleen artean *gatik* bereiz idaztekoa, hegoaldean batera idazten hasi den arte.

Esan dezagun, zernahi gisaz, onarturiko forma *-gatik* dela, eta ez *-gaitik*.

21.9.2. Funtzioa eta erabilera

• Forma hau erabiltzen dute zenbaitek *egiletasuna* edo adierazteko, *nigatik idatzia da*, *nigatik egina da* eta halakoak esanez edo idatziz.

Erabilera hori ez da batere egokia horretarako euskarak bestelako bideak baititu:

- (89) *etxea nik* egina da
- (90) *etxea nitaz* egina da

Bien artan lehenbizikoa da gomendagarria. Hala ere, horiek erabili beharrean *nigatik* esaten baldin bada, horrek esaldiaren esanahia aldatu uzten du, hitzunak ez baitu esaten orduan "berak" egin duela, baizik "bera dela kausa", "bere kausaz", beste norbaitek egin duela *etxea*, kasu horretan perpausa inpersonal bihurtu delarik. Hori dela eta, (91), (92) eta (93) perpausak ez dira inoiz ere partikide:

- (91) *nigatik* esana da aspaldion
- (92) *nik* esana da aspaldion
- (93) *nik* esana dut aspaldion

• Perpaus kontzesiboak atzizki honetaz haliaturik ematen ditugu:

- (94) zuk *esanagatik* ez dut sinesten
- (95) zuk esan arren ez dut sinesten
- (96) nahiz eta zuk esan, ez dut sinesten

• Kontura gaitzen *-gatik* atzizki hau partizipioarekin lotu dugula (eta idatzi ere, elkarrik idatzi) kontzesiboa osatzeko. Beste zenbaitetan aditz izenarekin lotzen dugu, baina orduan bestelako adiera hartzen du, xedea edo adieraziz:

- (97) zuk *ikusteagatik* ekarri dut argazki hau
- (98) zuk *ikuskarren* ekarri dut argazki hau
- (99) zuk *ikus dezazun* ekarri dut argazki hau

• Aurkaritza perpaus batzuetan ere agertzen da atzizki hau, erakusleekin hain zuzen ere:

- (100) nik ez dut, *haatik*, hori uste
(101) nik ez dut, hala ere, hori uste
(102) nik ez dut, *horratik*, hori uste
(103) nik ez dut, dena dela, hori uste

Ikusten denez, *haatik* eta *horratik* dira hor erabili ditugunak. Zenbait idazlek (Mitxelena eredu argia da honetan) *hargatik* eta *horregatik* erabiltzen dituzte kausa edo adierazteko, eta *haatik* eta *horratik*, berriz, aurkaritza kutsua emateko perpausari:

(104) Bizikletan ibiltzea maite du. *Hargatik* ekarri du bat oso berezia Ameriketatik.

(105) Bizikletan ibiltzea maite du. Ez da *haatik* Frantziako Tourrean kurrizera inoiz ere aurkeztuko.

21.10. Destinatiboa (-entzat, -(ra)ko, -tzat)

21.10. 1. Forma

Destinatibo deitu dugun kasu honek forma bat baino gehiago erakusten du. Hain zuzen ere, izen honen azpian azpisail bat baino gehiago bereziki behar baita.

• Batzuetan, kasu hau -en izenlagunaren gainean eraikitzen da -tzat erantsiz: *Mirenentzat*, *zuretzat*, *lagunentzat*, *adiskidearentzat*, e.a. Xedea markatzen duenez, *xedezko destinatiboa* deituko dugu sail hau. Jakina, forma horrek badu beste aldaera bat ere, aski erabilia zenbait hizkeratan: *Mirenendako*, *zuretako*, *lagunendako*, *adiskidearendako*, e.a.

• Beste batzuetan, -tzat marka bera eransten zaio deklinagaiari, baina beti mugagabea, tartean ezer ere sartu gabe. Horregatik, geroxago emango diren arrazoiengatik, zenbaitek zalantzan jarri izan dute benetako kasua ote den eta posposizioztat ere hartua izan da: *alabatzat*, *erregetzat*, e.a. *Prolatiboa* deituko dugu sail hau.

• Destinatiboan aukeratzen den beste kasu marka bat *-ko* da, lekuko izenlagunak osatzeko erabiltzen den berbera. Baina orain adizlaguna da, aditzarekin baitoa, eta ez izenarekin. Zenbaitetan, *-ko* delako hau zuzenean eranstean zaito deklinagaiari, betiere mugagabea: *gizoneko, neskakoko, ikasleko, gelako*, e.a. Kasu hau (eta hemen ere zailantzak egon dira kasua ote den) *prolatibo* deituko dugu.

• Baina *-ko* atzizkia zuzenean deklinagaiari erantsi beharrean, batzuetan inesiboaren gainean eraikitzen dugu. Horrela sortzen dira *Iruñeko, Donostiako, etxeko* eta *mahaiko* bezalako formak, denak adizlagunak direnak:

(106) *zertako* egin duzu hori?

• Azkenik, *-ko* atzizkia adlatiboaren gainean ere jar daiteke: *Iruñerako, Donostiarako, etxerako* eta *mahairako* bezalakoak sortuz:

(107) "ama, *zertarako* dut nik agure zahar hori?" (herri kantua)

Ondoko lerroetan azterituko dira aukera hauen guztien arteko antzekotasun eta desberdintasunak.

21.10.2. Xedezko destinatiboa (*-entzat, -endako*)

Esan bezala, atzizki hau *-en* izenlagunak osatzeko atzizkiaren gainean jartzen da: *adiskidearentzat, adiskidearendako*.

Batzuetan lehia sor daiteke, hala ere, *-entzat* eta *-rako* atzizkien artean, zenbait euskalkitan bereizketa hori egiten baita. Alegia, hiztun batzuek *adiskidearentzat* (edo *adiskidearendako*) bakarrik erabiltzen duten bitartean, beste hiztun batzuek ederki bereizten dute *eztarrarentzat* eta *eztarrirako* formen artean. Bien artean dagozkoen desberdintasunak argi uztea ez da, haatik, gauza erraza:

(108) ezia ona da *eztarriarentzat*

(109) ezia ona da *eztarriako*

Nota azaldu bien arteko desberdintasunak? Autore batzuek esan dutenez, badirudi bizidun gisa sentitzen edo somatzen ditugun izenek osatutako sintagmei lotzen bide diegula *-rentzat* atzizkia: *hizkuntzarentzat*, *Euskaltzaindiarentzat*, *batzarrarentzat*, e.a., esango dugu, testuingurua edo dena delakoagatik bizidun bezala sentitzen baditugu aipaturiko horiek. Parafrasiak egiteko orduan datiboa ere egokitzen zaie sintagma hauci:

(110) elurra ona da *mendiarentzat*

Elurrak on egiten dio *mendiari*, alegia.

Alderantziz, ostera, bizigabe sentituz gero *-rako* aukeratzen bide da: *hizkuntzarako*, *Euskaltzaindirako*, *batzarrerako*, e.a. Parafrasia adlatiboaren bidez osatzen ahal da:

(111) jazkera hori ona da *mendirako*

Hau da, jazkera hori egokia da *mendir*a joateko.

Ekintza adierazten duten izenek ere *-rako* hartzen dute, antza. Esate baterako, *dantzarako*, *lanerako*, *borrokarako*, *bertsotarako* esaten da, erakusleen bidez ere ordezkia daitekeelarik horien funtzioa: *horretarako* esaten da, ez **horrentzat*.

Egia da argibide hauek ez dituztela, dena dela, *-rako* eta *-rentzat* atzizkien arteko desberdintasunak ongi bereizten eta salbuespen ugari aurkituko dugula, hain zuzen ere, sintagma horien arteko muga ez baita pentsa genezakeen bezain zorrotza.

Azken ohar bat ere egin beharra da. Batzuetan atzizki hau (-*tzat*, alegia) -*en* izenlaguna osatzeko atzizkiaren gainean erantsi beharrean, -*ko* atzizkiaren gainean ere jartzen da zenbait hizkeratan, sintagmaren esanahia batere aldatu gabe: *irabaztekoztat*, *honetakoztat*, e.a. Inoiz bi aldiz emana ere ageri zaigu: *ain-tza-ko-tzat* hitzean, esate baterako.

21.10.3. Prolatiboa (-*tzat*)

Gaur egungo gramatikari gehienek -*tzat* atzizkia kasu markatzat hartzen baldin badute ere, badira arrazoi handiak ez dela kasu arrunta pentsatzeko. Hona ondoren arrazoi horietako batzuk.

• Hasteko, beste kasu markekin ez bezala, atzizki hau mugatzailerik gabeko sintagmei bakarrik erantsen zaie. Eta harrigarriago gerta daitekeena, aditzondo soilei ere erants dakieke:

(112) *adiskidetzat* hartu ninduten Lasartetarrek

(113) *osasungarritzat* dut nik lana neurritz egitea

• Bestetik, atzizki honek ez du gainerako kasu marken jokabidea arau fonologikoei dagokienetz:

(114) *laguntzat* hartu ninduen Joxek

Kasu marka arrunta balitz hori *lagunetzat* edo halako zerbait esan beharko genuke (*edozein gizonek* esaten dugun modu bercean). Hortaz, badirudi aditzondoen bidea segitzen duela sintagma horrek (*gaurtik* bezala alegia), Azkuek berak ere esaten duen moduan.

• Prolatiboak funizio berezia betetzen du perpausaren barnean: predikatu osagarriarena, hain zuzen ere. Osagarri honek perpausaren objektuaz predikatzen du zerbait eta normalean aditz batzuen inguruan agertzen zaigu: *eman*, *hartu*, *eskaini*, *eduki*, e.a. Hortaz, -*tzat* da predikatu osagarriak haritzen duen atzizki berezia zenbait aditzek hala eskaturik:

- (115) *oparitzat* erloju bat eman genion
(116) *euskalduntzat* jo nuen gizon hura hasieran

Beste aditz askok, dena dela, ez dute hau bezalako sintagmarik onaruzen eta atzizkirik gabeko predikatuak eskatzen dituzte testuinguru beretan:

- (117) udalak Pello *alkate* izendatu zuen

Baina badira aditz batzuk (*eduki* eta *hartu*, esate baterako) bi aldeko jokoa erakusten dutenak, ondoko adibideetan ikusten den moduan, *esanahiak* ere desberdinak dituztela, jakina:

- (118) Andoni daukagu aurtan *irakasle*
(119) Andoni irakasle *zintzotzat* daukagu
(120) *neskame* hartu dute Inixi
(121) *neskametzat* hartu dute Inixi

Gauzak, ikusten denez, nahasi samar daude. Areago, kontuan hartzen badugu goiko aditz horietan ere bikoiztasun hori ez dela beti zilegi. Zenbait kasutan nahitaezkoa dugu prolatiboaren marka jartzea (erkatu 120 eta 121 adibideak):

- (122) **seme* hartu dute Ifiaki

Badirudi arazo semantiko baten aurrean gaudela hor ("semetzat hartu" dioguncan "seme egin" edo halako zerbait esan nahiko bagenu bezala).

* Ohart gaitezen prolatiboak bi balio izkutatzen dituela zenbait kasutan:

- (123) *erregetzat* hartu ninduten gizon haiek

Eta horrek esan nahi du errege izateko hartu nindutela (1. balioa) edo errege nintzela pentsatu zutela (2. balioa). Nolabaiteko xedea adierazten du batzuetan eta ustezko kutsua ere beste batzuetan, betiere aditza zein den kontuan hartu behar dela: horrela, ustezko kutsua *hartu*, *eduki* eta *jo* aditzekin gertatzen da, baina ez *eman* edo *eskaini* aditzekin, hauekin xedea adierazten baita normalean, non eta ez duten benetako zentzua aklatzen:

(124) *zorotzat eman nuen*

Eta hemen zoroa zela "kontsideratu" zuela adierazten du hitzunik.

• Erabilera dela eta, gero eta zabaltzenago ari da *bezala*, *legez*, *gisa* eta antzeko elementuez osaturiko esapideren bat erabiltzeko joera *-izat-en* ordez:

(125) **sorgin bezala hartu ninduten*

Askoz ere zuzenago ematen du beste honek:

(126) *sorgintzat hartu ninduten*

Badirudi *bezala*, *legez*, *gisa* eta horiek modua edo zergatia adierazten dutela, baina, egia esan, ez da batere erraz gertatzen bereizketak ongi egitea hemen eta noiz erabili behar den modu bat, noiz bestea, arau zehatzen bidez adieraztea.

21.10.4. Banatzailea (-ko)

Banaketa batcan, izenari edo zenbakiari begira edo horren arabera, bakoitzari dagokiona adierazteko erabiltzen dugu *-ko*. Prolatiboarekin gertatzen den bezala, atzizki hau ere sintagma mugagabeekin bakarrik erabiltzen da: *ikasleko*, *gizoneko*, *andreko*, e.a.:

- (127) ordaindu didate erreal zilarra *bisitako*
(128) *gizoneko* hamar ohe bazen han
(129) *irakasleko* hogeit hamar dago ikastetxe horretan

Hala ere, badirudi hemen deklinabideko fonologi arauak ongi betetzen direla: *gizoneko*, *laguneko*, e.a., *gizonko* eta *lagunoko* esan beharrean (nahiz Azkuek bere adibideetan *gizonko* bakarrik ematen duen).

Ohart gaituzen batzuetan esan izan dela *-ko* atzizkiak ez duela lekurik izen bizidunekin. Hemen ikus daitekeenez, ez da inolako eragozpenik atzizki hau bizidunekin ere erabiltzeko.

21.10.5. Inesiboaren gainean erakia (*-ko*)

• Adjektiboez aritu izan garenean ikusi dugu *-ko* atzizkia hartzen duten sintagmak izenlagun bihurtzen direla:

- (130) [*Donostiako* kaleak] garbiak dira
(131) [*laneko* tresnak] oso garestiak izaten dira
(132) [*atzoko* egunkariak] okarri zuen berria

Hiru adibideotan azpimarraturik dauden izenlagun horiek, ikusten denez *nongo*, *zertako* eta *noizko* galdekariei erantzuten diete.

Han bertan esaten genuen, ordea, galdetzailera inesiboan oinarritu beharrean adlatiboan ere oinarritzen ahal dela, batez ere lekua eta ekintza adierazten duenean (ez hainbeste, bestela, denborarekin loturik dagoenean):

- (133) [*Donostiarako* autobusa] lauetan ateratzen da
(134) [*lanerako* tresnak] oso garestiak dira

Zenbait idazlek, gaur egungo zenbait idazlek esan nahi dugu, bereizketa egitea proposatzen du, bigarren honek, lehenbizikoak ez bezala, destinatiboa edo adieraziko lukeelakoan. Han esan dugun moduan, hau ez da batere beharrezkoa, bide batak eta besteak, euskalkien, eta ez esanahiaren, araberako distribuzioa erakusten baitute. Ikus dezagun orain zer gertatzen den inesiboaren gainean erakitako destinatiboarekin.

• Goian jarri ditugun galdetzaila horiek guztiak izenlagunci bakarrik ez ezik, adizlagunci ere ematen dieu bide, ondoko adibideotan ikus daitekeenez:

(135) Lehendakariak zuhaitz handi bat erosi du [*Donostiako*]

(136) tresna hauek [*laneko*] erosi ditugu

(137) lan hori [*atzoko*] egin behar zenuen

Adibide horietan, *Donostiako*, *laneko* eta *atzoko*, goikoetan ez bezala, adizlagunak ditugu, ez izenlagunak, aditzaren osagarriak baitira, aditz sintagmaren barnean bilduak. Beraz, *nongo*, *noizko* eta *zertako* izenlagunak nahiz izenondoak izan daitezke, testuinguruaren arabera. Tradizio handia du euskarak honetan eta egun ere hala erabiltzen da euskara mintzatuan leku anitzetan, batez ere ekialdean: *Bakea batiko* izango litzateke, hortaz, eta ez *betirako*.

Honen pareko izango genuke beste adibide hau ere, herri testu batetik hartua:

(138) hamar urtetako txistua jotzen nuen

Testuingurugatik, badakigu hor kontua ez dela txistuak hamar urte izatea, baizik kontalariak hamar urte zitueneko txistua jotzen hasia zela. Eta horrela dio: *hamar urtetako*, ez *hamar urteetarako*.

• Esacra adberbial batzuk ere sortzen ditugu: *esate baterako*, adibidez. Kasu honetan ere, *esateko* ere erabiltzen da, nahiz berriagoa den, beste adiera batekin:

(139) hori, *esateko*, ez da Donostian bizi, ia beti kanpoan baita

Dagoeneko bezalako esapidcak inesiboan oinarritzen dira, ez adlatiboan. *Dagoeneko* eta *honez gero* ez dira nahasi behar, esan bezala, bigarrenak balio supositiboa baitu eta inork, frogarik gabe, uste duenaren agergarria baita:

(140) hiltzar zegoen eta *honez gero* hil da(t)ke

Bestearen kasuan (*dagoeneko*-ren kasuan alegia), aldiz, dudagabecko gauza inork esatean, ikusia edo jakina duelako, erabiltzen da:

(141) hiruretan bazkaldu eta *dagoeneko* hor ari da igerian

21.10.6. Adlatiboaren gainean eraikia (-*rako*)

• Ber gauza suertatzen da *nora*-ren gainean eraiki daitezkeen adizlagunekin ere:

(142) Hau [*Donostiarako*] ekarri dute

(143) tresna hauek [*lanerako*] dira

Hor ere, ikusten denez, *zertarako* eta *norako* izenlagun nahiz izenondo izan daitezke, beti ere nolakoa duten ingurunea. Hala ere, izenlagun bezala erabilzea aski berria dela dirudi, *Zertarako* horri erantzuna ematen dioguncan eta erantzunean aditz izena erabili, inesiboaren gainean eraikitako formaz baliatzen gara:

(144) - *Zertako* / *zertarako* ekarri duzu hori?
 - Zuk *ikusteko*

Ez dugu esaten hor *zuk ikusterako*, nahiz *ikusterako* forma ere badugun euskal gramatikan, "zuk ikusi orduko" edo halako zerbait adieraziko ligukeena.

Laburtuz, horrenbestez, esan dezagun *etxerako*, *mendirako*, *lanerako* eta hauek bezalako adizlagunak *etxeko*, *mendiko* eta *laneko* bezala erabiltzen dituztela hiztun askok. Horrenbestez, *Bilboko trenak*, *Errenteriako autobusak* eta *kanposantuko bidetxigorra* guztiz jatorrak dira euskaraz. Izenlagunak dira horiek guztiak, *-ra-* gabekoak. Analogiaz sorturiko *Xoxoterako bidea* delakoaren ordez, *Xoxote bidea*, *Xoxoteko bidea* eta *Xoxotera bidea* bezalakoak ere entzun daitezke egun.

• *Donostiarako* nahiz *Donostiako*, biak adizlagunak ditugunez, zer gertatzen da *etxirako*, *betirako* eta horrela barreiatzen diren denbora-adizlagun berriekin? Hasteko, ez da dudarik *noizko* galdekariari zor zaion erantzunik usuen *betiko* dela, ez *betirako*. Hala ere, *-ra-* atziki hori daramaten formak hedatzen ari dira zenbait arrazoirengatik: *etxerako* bezalako adizlagunekin duten analogiagatik, adizki pertsonalean erabiltzen ditugun *garenerako*, *duzueneko* eta horrelakoekin erakusten duten antzagatik (nahiz ekialdeko hiztunetan aski arrunta den *gareneko*, *duzueneko* eta hauek bezalako adizkiak erabilzea) eta bestela ere *gaur gauerako*, *atzo arratserako* eta halakoak esaten ditugulako.

Esan dezagun, hortaz, *nongo*, *zertako* eta *noizko* adizlagun bezala erabiliak izan direla eta hala erabiltzen dituztela egungo euskaldun anitzek ere.

• Badugu hemen beste arazo bat ere. Ikus ditugun ondoko adibideok:

(145) Lan bat egin dugu *Euskaltzaindiarentzat*

(146) Lan bat egin dugu *Euskaltzaindirako*

Horrelako adibideetan, ikusten denez, nahasketa bat sor daiteke *-entzat* eta *-rako* kasu-marken artean, lehenago, *-entzat* atzizkia aztertu

duguncan esan den bezala. Beraz, han ikus daitezke gai honi buruzko zenbait iruzkin.

- Ekialdean *-rako* horren ordean *-kotzat* aurki daiteke maizkara:

(147) joan dadila bertze mundu*kotzat* hobekienik

(148) deklarazioe eguneko*kotzat*

21.11. Posposizioak

• Gramatikariak ez datoz bat posposizioa zer den definitzeko orduan. Hala ere, posposizioak perpausaren sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten dituzten forma askak direla esan daiteke. Hortaz, batetik kasu marken parekoak dira, baina bestetik haietarik ongi desberdintzen dira, posposizioak ez baitira, kasu markak bezala, forma klitikoak.

- Posposizio batzak, gainera, izen bezala ere erabiltzen ahal dira:

(149) gaurko arazoei *buruz* hitz egin du

(150) *buru* handiegia duela iruditzen zait

Hor ikusten da zenbait izenek perpausaren elementuen arteko harremanak adierazteko ere balio dezaketela. Hala denean, posposizio deitzen ditugu eta honako ezaugarriok dituzte:

- kasu markaren bat hartzen dute (beti singularrean, absolutiboa bera ere izan daitekeela), aldagaitza izan ohi dena:

(151) elizaren *bitartez*

(152) astecaren *buruan*

- aurretik daraman sintagma, posposizioak kasu marka konkritu bat hartzera behartzen du:

- (153) *arazo horri* buruz mintzatu zen
 (154) *amaren bizkar aski farre* egin dute

- sintagmak eta ondoko posposizioak hitz andana bakarra osatzen dute ia beti eta horrexegatik enklitiko gertatzen da maiz bigarrena, bion artean pausaldirik ezin egin delarik:

- (155) *gaurko arazoei buruz* mintzatu gara
 (156) *gaurko arazoak buruz* dakizkit

Esaldi horiek emateko orduan, lehenbiziko kasuan posposizioa bere sintagmarekin batera ahoskatu behar da, baina bigarrenean errazago esango dugu aditzarekin batera, aurretik etena egin daitekeelarik.

• Hiru baldintza horien arabera sailka daitezke posposizioak eta hauen artean ezagunerak, honakook dira:

<i>aitzi</i>	nire aitzi ("nire kontra", itzuli zaharkitua)
<i>antiz</i>	gaiso antzean dabil
	otso antzera jantzi zen
<i>arabera</i>	esan duzunaren arabera egin dugu
<i>arte</i>	beste gauza askoren artean
	neskatuen artean
<i>at</i>	hemendik at egizu nahi duzuna
<i>barik</i>	diru barik etorri zen
<i>barren</i>	munduan barrena (barna) ibili da
<i>behe</i>	aldapa beheara doa
	eskilaretan beheara doa
	buruz beheara ibiltzen da hori
<i>beheiti</i>	malda(n) beheiti
<i>bestalde</i>	mendiak bestalde oihana dago
<i>bidez</i>	lagunaren bidez eskuratu zuen
<i>bitarte</i>	inoren bitartez ez dugu lortuko
	etxera bitartean esango dizut
<i>bizkar</i>	besteren bizkar utzi dut lana

<i>buru</i>	hogei egunen buruan itzuli zuen liburu honi buruz ez dakit ezer gai honen buruz mintzatuko da mendiari buruz abiatu ziren
<i>esker</i> <i>esku</i> <i>gabe</i>	nekazariari esker bizi gara maisuaeren esku geratu da hori oinetakorik gabe atera da kalera diru gabe ezin da ibili diru gabarik gaizki konpondu da
<i>gain</i>	horren gain utzi dute gai honen gainean mintzatu da etxeaz gainera andrea ere galdu du etxean gaindi doa
<i>gaindi</i> <i>gisa</i> <i>goi</i>	Jainkoak bere gisa(ra) egin gaitu eskaleretan gora igo da menditik gora abiatu da muntrez gora erori zen aldapa gora joan da behia
<i>goiti</i>	malda goiti mendian goiti
<i>inguru</i>	hamaikak inguruan plaza ingururik etorri da
<i>kanpo</i> <i>kontra</i>	zutaz kanpo ez dut ezertan pentsatzen zer duzu nire kontra?
<i>landa</i>	haurra amari kontra bildu zen hemendik landa ez du aurkituko hortaz landa ez zen inor ere
<i>lege</i> <i>lepo</i> <i>mende</i> <i>orde</i> <i>pare</i> <i>parte</i> <i>pe</i> <i>truk(e)</i>	ama legez bizi da inoren lepoik egiten du farre alkatearen mende dago herria Mikelen ordeaz joango naiz uraren parte gara aitaren partez etorri naiz mahai pean aurkitu zuen dirua musu truk eman dit dirua

zehar mendian zehar ibili ginen

• Zerrenda honetan ez daude posposizio guztiak, jakina. Ez eta erabilera guztiak ere, nahiz garrantzizkoenak hor bildu diren. Dena dela, posposizio horietaz aparte badira beste zenbait elementu gure gramatikariek posposiziotzat hartu dituztenak. Elementu hauek hartzen dituzten kasuak leku kasuak dira, beti singularrean, (-n, -ra, -tik) eta izen sintagmari dagokionez, berriz, kasu markarik gabe, deklinagaita hutsa alegia, edo -en atzizkiarekin agertzen ahal da. Sail honetakoak dira *alde*, *aurre*, *azpi*, *gain*, *oste*, *ondo*, *gibel*, e.a. Agian hauek ere posposiziotzat jo litezke. Dena dela, posposizio hauek berex eta marrarik gabe idazten dira, ikusten denez: *esku artean*, *gerra aurretik*, *aste barruan*, *hiri barnera*, *ikastetxe mailan*, *gettoki ondora*, *kable bidez*; *Urota aldeko (herriak)*, *eskualde mailako (zerbitzua)*, *denda osteko (almazena)*, e.a.

• Badira beste zenbait itxuraz posposizio direnak baina beste analisi bat ere onartzen dutenak: *so*, *beha (egon)*, *bila (joan)*, *eske (ibili)*, *jabe (izan)*, *zain (egon)*, *zale (izan)*, e.a. Hala ere, orain arte ikusitako posposizioak ez bezala, hauek aditz jakin batzuei loturik azaltzen zaizkigu. Agian izen aditzez osaturiko eta aditz balioa duten lokuzio gisa aztertzea zuzenago litzateke.

• Azkenik, aipamen labur bat -*gan*, -*gatik* eta -*entzat* atzizkiak direla eta, hauek ere inoiz posposiziotzat hartuak izan baitira. Gorago ere esan da zerbait honetaz. Dena dela, ez dute posposizioen saillean aztertu ditugunek duten askatasuna: bakarrik aske erabili ahal izatea. Esaterako, bi posposizioak aurretik izen sintagma erreferentziakideak baldin badaramatzate, posposizioak koordina daitezke:

(157) zure kontra ala alde azaldu da?

Baina beste atzizki hauekin ez da halakorik gertatzen:

(158) *amarengan ala *gatik* aurkitu duzu laguntza?

Horra hortaz zergatik ez ditugun posposizioen sailean sartu hauek.

22. kapitulua:

DEKLINABIDEKO TAULAK

22.1. Kontsonantez bukaturiko pertsona izenak:
Kattalin

1) Absolutiboa	<i>Kattalin</i>
2) Partitiboa	<i>Kattalinik</i>
3) Ergatiboa	<i>Kattalinek</i>
4) Datiboa	<i>Kattalini</i>
5) Inesiboa	<i>Kattalin(en)gan,</i> <i>Kattalin(en) baitan</i>
6) Leku genitiboa	<i>Kattalin(en) baitako</i>
7) Adlatibo s.	<i>Kattalin(en)gana(t)</i> <i>Kattalin(en) baitara(t)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Kattalin(en)ganantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Kattalin(en)ganaino</i>
10) Ablatiboa	<i>Kattalin(en)gan(d)ik</i> <i>Kattalinen baitarik</i>
11) Genitiboa	<i>Kattalinen</i>
12) Soziaiboa	<i>Kattalinekin</i>
13) Instrumentala	<i>Kattalinez</i>
14) Mouibatiboa	<i>Kattalin(en)gatik</i>

15) Destinatioa:

- Gen. gainean eraikia

Kattalinentzat

Kattalinendako

- Ines. gainean eraikia

- Adl. gainean eraikia

Kattalin(en)ganako

- Banatzailea

- Prolaioa

Kattalintzat

Kattalindako

22.2. Bokalez bukaturiko pertsona izenak: *Koldo*

1) Absolutiboa	<i>Koldo</i>
2) Paratiboa	<i>Koldorik</i>
3) Ergatiboa	<i>Koldok</i>
4) Datiboa	<i>Kaldori</i>
5) Inesiboa	<i>Koldo(ren)gan,</i> <i>Koldo(ren) baitan</i>
6) Leku genitiboa	<i>Koldo(ren) baitako</i>
7) Adlatibo s.	<i>Koldo(ren)ganat(t),</i> <i>Koldo(ren) baitarat(t)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Koldo(ren)ganantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Koldo(ren)ganaino</i>
10) Ablatiboa	<i>Koldo(ren)gan(d)ik,</i> <i>Koldo(ren) baitarik</i>
11) Genitiboa	<i>Koldoren</i>
12) Sozilatiboa	<i>Koldorekin</i>
13) Instrumentala	<i>Koldoz</i>
14) Motibatiboa	<i>Koldo(ren)gatik</i>
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	<i>Koldorentzat</i> <i>Koldorendako</i>
- Ines. gainean eraikia	—
- Adl. gainean eraikia	<i>Koldo(ren)ganako</i>
- Banatzailea	—
- Prolatiboa	<i>Koldoratz</i> <i>Koldotako</i>

22.3. Kontsonantez bukatutako leku izenak: Eibar

1) Absolutiboa	<i>Eibar</i>
2) Partitiboa	<i>Eibarrik</i>
3) Ergatiboa	<i>Eibarrek</i>
4) Datiboa	<i>Eibarri</i>
5) Inesiboa	<i>Eibarren</i>
6) Leku genitiboa	<i>Eibar(re)ko</i>
7) Adlatibo s.	<i>Eibar(re)rat(i)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Eibar(re)rantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Eibar(re)raino</i>
10) Ablatiboa	<i>Eibar(re)nik</i>
11) Genitiboa	<i>Eibarren</i>
12) Sozilatiboa	<i>Eibarrekin</i>
13) Instrumentala	<i>Eibarrez</i>
14) Motibatiboa	<i>Eibar(re(n))gatik</i>
15) Destinatiboa:	
- Gen. ganean eraikia	<i>Eibarrentzat</i>
	<i>Eibarrendako</i>
- Ines. ganean eraikia	<i>Eibarko</i>
- Adl. ganean eraikia	<i>Eibarrerako</i>
- Banatzailea	---
- Prolatiboa	<i>Eibartzat</i>
	<i>Eibartako</i>

Oharra: *Olot*-ek ez du **Olotik* egiten, *Olotetik* baizik. Hor ditugu *Usurbildik* eta *Baztandik*. Zalantzagarriagoa da *Portugal*-en kasua eta oro har Euskal Herriatik kanpoko geografi izenen kasua: *Portugaldik*, *Portugaletik*; *Afganistandik*, *Afganistanetik*, e.a.

22.4. Bokalez bukatutako leku izenak: *Bilbo*

1) Absolutiboa	<i>Bilbo</i>
2) Partitiboa	<i>Bilborik</i>
3) Ergatiboa	<i>Bilbok</i>
4) Datiboa	<i>Bilbori</i>
5) Inesiboa	<i>Bilbon</i>
6) Leku genitiboa	<i>Bilboko</i>
7) Adlatibo s.	<i>Bilborat(t)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Bilborantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Bilboraino</i>
10) Ablatiboa	<i>Bilbotik</i>
11) Genitiboa	<i>Bilboren</i>
12) Sozietiboa	<i>Bilborekin</i>
13) Instrumentala	<i>Bilboz</i>
14) Motibatiboa	<i>Bilbo(ren)gatik</i>
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	<i>Bilborentzat</i> <i>Bilborendako</i>
- Ines. gainean eraikia	<i>Bilboko</i>
- Adl. gainean eraikia	<i>Bilborako</i>
- Banatzailea	—
- Profatiboa	<i>Bilbotzat</i> <i>Bilbotako</i>

22.5. *a* artikulua**z** bukatu**ri**ko leku izenak: *Iruñea*

1) Absolutiboa	<i>Iruñea</i>
2) Partitiboa	<i>Iruñerik</i>
3) Ergatiboa	<i>Iruñeak</i>
4) Datiboa	<i>Iruñeari</i>
5) Inesiboa	<i>Iruñean</i>
6) Leku genitiboa	<i>Iruñeko</i>
7) Adlatibo s.	<i>Iruñera(t)</i>
8) Hurbiltze adlat.	<i>Iruñerantz</i>
9) Muga adlatiboa	<i>Iruñeraino</i>
10) Ablatiboa	<i>Iruñetik</i>
11) Genitiboa	<i>Iruñearen</i>
12) Sozietiboa	<i>Iruñearekin</i>
13) Instrumentala	<i>Iruñeaz</i>
14) Motibatiboa	<i>Iruñea(ren)gaik</i>
15) Destinatiboa:	
- Gen. gainean eraikia	<i>Iruñearentzat</i> <i>Iruñearendako</i>
- Ines. gainean eraikia	<i>Iruñeko</i>
- Adl. gainean eraikia	<i>Iruñerako</i>
- Banatzailea	-----
- Proiatiboa	<i>Iruñetzat</i> <i>Iruñetako</i>

22.6. *a* bokalez bukatutako leku izenak: *Donostia*

1) Absolutiboa	<i>Donostia</i>
